

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA
2001

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolatua

Antolatzailea: EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Bertso hautatzaileak: Antton Kazabon eta Josu Telleria
Bertso transkribaketa: Martin Aramendi
Kronikak: Jexux Murua / Joseba Santxo
Kritika: Joxerra Garzia, Karlos Aizpurua eta Rufino Iraola
Iritziak: Laxaro Azkune eta Manuel Olano, Andoni Egaña, Jon Sarasua eta Iñaki Murua
Doinuen azterketa: Juanito Dorronsoro
Argazkiak: Juantxo Egaña / Uxue Montero
Azala: Gorka Aizpurua
Koordinazioa: Jexux Murua

Liburu honek, Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du
© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Igeldo pasealekua, 25
20008 Donostia
www.bertsozale.com

©BERTSOLARI LIBURUAK, 2002
Gudari etorbidea z/g
Parke Kulturala
20040 Andoain
www.bertsolari.net

© Azala eta diseinua: Txerma Garzia Urbina
I.S.B.N: 84-89283-29-X
I.S.B.N: 84-95697-00-9
Legezko gordailua: NA.1.881/2002
Inprimatzailea: Graficas Lizarra S.L., Estella

AURKIBIDEA

ATARIKOA. *Inaxio Mujika* -----

KRONIKA ETA BERTSO HAUTATUAK -----

Kronikak: *Jexux Murua (sailkapenak) eta Joseba Santxo(finala)*

Bertso-hautaketak: *Antton Kazabon eta Josu Telleria*

Final-laurdenak

Donibane Garazi -----

Legazpi -----

Amurrio -----

Lesaka -----

Elorrio -----

Finalurreak

Etxarri Aranatz -----

Markina Xemein -----

Azpeitia -----

Hendaia -----

Bilbo -----

Tolosa -----

Finala

Goizeko saioa -----

Arratsaldeko saioa -----

KRITIKA -----

To arrapostuak. *Karlos Aizpurua* -----

Gaiak ere badu ikututakoan nabarmen geratzen den alde. *Rufino Iraola*-----

Finaleko matazan. *Joxerra Garzia*-----

IRITZIAK-----

Urrats giltzarri baino areago. *Andoni Egaña*-----

Hiru bertso eta bi iruzkin. *Jon Sarasua*-----

Gaiak jartzearen katramilak. *Laxaro Azkune eta Manuel Olano*-----

Atzo eta gaurko Txapelketak. *Iñaki Murua*-----

DOINUAK -----

Bertso-doinuak txapelketan. *Juanito Dorronsoro* -----

ERANSKINAK-----

Txapelketa Nagusiaren historia ttipia-----

Txapelketaren antolaketa eta egituraz -----

Bertsolari partehartzaileak -----

Sailkapenak eta puntuak -----

Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak-----

Bertsolarien aurkibidea-----

KD-1: sailkapenetako bertso hautatuak Hautatzaileak: *Anton Kazabon eta Josu Telleria*-----

KD-2: finaleko bertso hautatuak. Hautatzaileak: *Anton Kazabon eta Josu Telleria*-----

ATARIKOA

“Beldurrak nago ez naizela gauza izango hartu dudan egiteko hau behar bezala betetzeko. Izan ere, euskaldun ona izateko, eskas ageri zait nire burua zenbait aldetatik: sagardoa ez dut gogoko, dantzan —askatuan behintzat— ez dut egiten eta pilotan arras traketsa naiz. Horien guztien gain, eta hau da hemen dihoakigun auzia, ez dakit ia ezer zezenei eta zezenketari buruz”. Horrela hasten zen orain berrogeita bost bat urte Koldo Mitxelenaren liburu kritika famatuetakoa bat, Manolete toreatzailearen gainean Altubek idatzitako idazti bat abiapuntu harturik. Hitzez hitz sinatzekoa dut neuk ere, batzuetan estuago besteetan lasaiago, Mitxelena “euskalgaiztotzen” zuen lau puntuko zerrenda. Sagardoaren kontuan, lasaiago jokatu nuke nik, aldian behin bederen atseginez dastatzen baitut; estuago, duda handirik egin gabe, dantzarenean, ez askatuan ez lotuan naizelako ez Fred Astair ez Iztueta; pilotan, ez zait zaila neure burua Mitxelena bezain trakets irudikatzen; eta zezenetan ere, ameto: ezer ez jakiteaz gain, jakiteko gogo gutxi dudala eranstea zilegi bazait. Hainbaten buruan beste alderdi bat ere baluke euskaldun onak, ordea: bertsolari izatea ez bada ere, bertsoa atsegin izatea behintzat. Aitortu behar dut nire bertsolari izaera eskas baino eskasagoa dela eta ez dela hobetzen —are, okertzen dela deritzat— baxoerdi pare bat hartu ondoren. Mitxelenari bezala, inork bilatzeko lana hartuko balu, aurkituko lizkidake neuri ere saio bat edo beste erreka zuloaren ilunpe baketsua jaso beharrean paper txukunaren argia ikusi zuena, eta askoz gehiago ez.

Hortaz, garbi dezadan zer arraiotara natorren liburu honen atariko idaztera, labur beharrean bada ere. Argitaratzaileek pentsatu zuten, berez, bertso liburu bati ekitekotan bere kabaletan dagoen nornahik saltatzen duen atala idazteko bertsolaritzaz kanpoko begirada bat agertzeak ez liokeela oker nabarmenik, ez behintzat konpon ez zitekeenik, ekarriko liburuari, eta lan horretarako ez zutela bertsolari bat nahi, bertsozale urrutiko izanda aski zela. Eta horretan asmatu zuten: bertsozalea naiz. Ez, sutsu, itsu, ero, zentzutik kanpoan diren horietarik; ez, bere gogo guztia bertsoan daukan horietarik; bere solasak eta ametsak ere hartaz egiten duten eta beste gauzaz inor mintza ere dakion nahi ez duten horietarik; ez, bertsoa,

bere lurretik ate, zeru urdinaren pare jartzen duten horietarik; ez, nonahi eta noiznahi bertsolari baten beharra sentitzen duten horietarik. Baina maite dut, bihotzez maite, bertsolaritzak dakarren hizketa modu egoki eta berezi hori, arrazoitze miresgarria, une jakin batean, une bakanetan, sortzen den ateraldi biribil baten pindartasuna. Aitorpen honekin ez pentsa politikoki zuzenaren ildoan kokatzen ari naizenik, egingo nuke, hainbat girotan, zuzenago ibiliko nintzatekeela arestiko Mitxelenaren lau puntuko zerrendari dakizuen bosgarrena erantsi izan banio, eta, eransten hasita, bertsolaria jende arraroa dela edo aldarria jo izan banu.

Gogoko dut bertsoa, ordea, aspalditxotik, hunkitu, aspaldian hunkitu ninduelako, ia bertsolari bati gertatzen zitzaizkion ustekabeak eta ezbeharrak inork jarritako gaiari erantzuteko modu bat besterik ez zela bereizteko gauza ez nintzen garaitik, seguruena. Aitona zena irrati tresnari belarria erantsita irudikatzen dut, Loiola Irratiari, inguruko guztien isiltasuna eskatuz, zorrotz galdatuz; eta neure burua gogoratzen dut alde haren irribarrea eta alde haren begi gorri negar bezperakoak zaintzen. Maitasunez gordetzen dut, eta ez daukat saltzeko, haren Brabanteko Jenobebaren bertso liburua (etxe hartan zegoen liburu bakarretako bat), argizari mantxa eta guzti —inoiz negar malkoen arrastoak ez ote diren pentsatu badut ere—. Aitonaren eskutik ikusi nuen lehen bertso saioa garai bateko Astoria zaharrean, eta Xalbadorren bertsoak entzuten gozatua hartu nuela esango banu, ez nuke gezur txikia esango, ikaragarri handia baizik, ez bainion tutik ere ulertu. Baina Urepeleko aitaxi haren —sasoiko gizona izan arren, aitaxi zen hamar bat urteko mukizu batentzat ia edonor— kantatzeko posturak jo ninduen betiko. Luze, ikaragarri luze egiten zitzaidan mikrofono aurrean jarri eta kantari hasi aurreko tarte hura. Atezuan nindukan aulkiari lotuta. Segundo batzuk ziren, baina une sakratua, ia erlijiosoa, iruditu zitzaidan —eta iruditzen zait— gaia eman eta kantatu arteko tarte hori. Hunkigarria.

1980an ordaindu nuen lehen aldiz neure diruz bertso saio baterako txartela. Carmelo Baldan izan zen saio hori, eta urtarrila zen. Esango nuke egun hura, eta egun hark aurretik eta gerora sortu zuen saltsa dagoela nire bertsozaletasunaren oinarrian. Garai hartan euskara trebatzeko ahaleginean ari nintzen, eta ez nituen oso ongi ulertu han gertatu ziren hainbat gauza, han esan ziren hainbat hitz eta esaldi, baina

entzun nituen esamoldeak eta bertsoak oro deszifratu arteko onik ez nuen izan. Bihur bekizkit hesteak harri hori ez bada horrela. Bertso asko ikasi nituen buruz, eta oraindik ere gogoratzen zaizkit saio hartako asko eta asko. Esate baterako, eta zendu berri delako dakart lerro hauetara, gogoan dut saio hartan Xanpun izan zela lehen kantaria, lehen agurra egin behar zuen bertsolaria, eta agertoki batean antzezle baten lehen esaldia balitz bezala sentitu nuen bertso hura sakratu. Ez izan arren bertsoarik onena, neure almazen txikian gordetzen dut beste hainbaten ondoan, batzuk betegintzarrearen gailurra zapaldu zutenak, eta beste batzuk, gailur horretatik urruti egon arren, zerbaitengatik hunkitu nindutenak. (Bide batez esanda, lehertuko bainaiz esaten ez badut, ez dezagun akatsgabetasuna gailurrean jar. Bertso “akatsdun” asko ezagutzen dut nik erraiak iraultzen dituenik, eta, aldiz, akatsgabeko asko, hotz baino (euskal tradizioaren arabera) okerrago, epel uzten nauenik. Liburu honetan bertan bietarik aurkituko du irakurleak).

Bertsozaletu nintzen, beraz, baina ez zen nire egarria bertsoak entzuten bakarrik berdintzen zen horietakoa. Bertsolari zaharragoen bertsoen bila hasi nintzen, eta horretan bazen, beharrik, egarria non berdindu, Antonio M^a Zavalaren Auspoari eskerrak. Komunikazio ekintza miresgarri hari buruzko lan teorikoen bila ere hasi nintzen, ordea, eta horretan egarriak geratu beharrean nintzen. Gauza gutxi aurkitu nuen, bai; ez haatik, ezer ez, eta, bakoitzari berea baita legea, aipa ditzadan, besteak beste, Lekuona zaharraren aspaldiko lanak, haren iloba Juan Marirenak eta Zavalaren *bosquejoa*. Gainerakoan zegoentxoak bazuen, gainera, deskuido larria neure ustez, iritzi zabaldua baitzen, beharbada Aitzolen garaitik zabaldutakoa, goi mailako poesiaren arabera neurtu behar zela bertsolaritzaaren ekarria. Gaur egun, zorionez, garatzen eta zabaltzen hasita dago ikerketaren barrutia. Bi funtsezko alderditatik zabaltzen eta garatzen ari, gainera: Bertsolaritza kanpotik bizi dutenen aldetik eta barrutik bizi dutenenetik (inoiz ez zaie merezi duten bezala eskertuko Egañari eta Sarasuari egiten ari diren barrurako begiratuaren hustuketa). Alderdi askotatik begiratuta da interesgarria lan teorikoa kezkatzen gaituen auzi honetan, bertsolariak loreak udan ihintza bezala behar baitu bere lana kanpotik ikusten duenaren iruzkina; eta kanpokoek, berriz, txoria gari tartean goseak ez hiltzeko moduan behar dugu barruan ari direnen berri jakin.

Alderdi horretatik begiratuta, argazki bat da, irakurle, irakurtzera prestatzen ari zaren liburu hau. Bi argazki, hobe esan. Lehen argazkian bertsoak aurkituko dituzu. Orotariko eta ororentzako bertsoak. Kantatzeko argazkia duzu, beraz. Bertso-liburuak, aspaldiko maisu batek esaten zuenez, ez baitira irakurtzen, kantatzen baizik, nahiz eta azken bolada luzeko bertsolariak belarri zaildugabeko gizagaixoontzat lana zailtzen primeran egiten duten lan. Bigarren argazkia duzu, berriz, bertsozaleak, bertso adituak edo aztertzaileak eta bertsolariak kezkatzen dituzten hainbat gai ukitzen dituen. Gaur-gaurko kezka horien argazkia ere bada liburu, beraz. Nik benetan nahi nukeena da argazki album itxuroso bat osatzeko gauza izan gaitezen. Kantatzeko albuma urtez urte eta txukun-txukun, nahiz argitaratzaileak salmentarekin kexu azaldu, emendatzen digute Bertsozaleen Elkarteko adiskideek: eta “Bapatean” sailari nagokio. Irakurtzeko argazkiak falta zaizkit. Corpus historikoaren azterketa serioa, eta, horrekin batera, urtero-urtero egiten denaren, ekarpenen, hitz batean, berrikuntzena. Eta ez bakarrik txapelketarena, urtez urteko emaitzarena baizik. Izan ere, paradoxa badirudi ere, bertsozaletu ninduenaren antzeko saioek, txapelketek, nola halako sentimendu gazi-geza sortu didate gerora. Okitze puntu bat, esango nuke. Liburu honetan bertan Joxerra Garziak ongi esaten duen bezala, ez alferrik da bera bide horretan urrutien iritsi dena, txapelketan bertsolariak entzulearengan eragitea ez ezik irabaztea ere badu xede, eta nago horrek ez ote duen gauza asko desitxuratzen. Ez naiz ni txapelketaren kontra mintzatuko, ez nolana behintzat —nola, txapelketa batean bertsozaletu banintzen?—, baina saiatu behar genukeela deritzat txapelketa bere lekuan jartzen.

Irakurtzeko eta kantatzeko zabaldu duzun liburu hau izan dadin aurreneko urrats ibilbide, ezen ez lasterketa, luze batena.

Inazio Mujika Iraola

SAIOETAK KRONIKAK
eta
BERTSO HAUTATUAK

DONIBANE GARAZI

2001-10-21, igandea, 16:30etan

Bauban zinegelan

Final-laurdenak: lehenengo ekitaldia

Bertsolariak:

Amaia Agirre

Ametz Artzallus

Arkaitz Goikoetxea

Iñigo Olaetxea

Fredi Paia

Ruben Santxez

Gai-emailea: Mikel Taberna

Epaileak: Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea, Joseba Santxo eta Beñat Soule.

(bertsolarien argazkiak)

Amaia Agirre	Ametz Arzallus
Arkaitz Goikoetxea	Iñigo Oletxea
Fredri Paia	Ruben Santxez

Heldu da eguna. Hastera doa 13. Bertsolari Txapelketa Nagusia. Ez da egun bakarreko lana izaten, asko da aurretik egin beharrekoa, eta aitzin ekitaldiari beti zor zaio halako beldur bat. Bertsolariei, gai-jartzailei, epailei, antolatzailei... denei igarri zaie urduritasun puntua. Antolatzailei, urtebetean zehar gertatutako eredu frogan jartzeko unea heldu delako; gai-jartzailei, zortzi hilabeteko lanaren lehen emaitza ezagutzeko amorratzen daudelako; epailei, berez urduri jartzeko moduko erantzukizuna delako beraiena; eta bertsolariei, aurreko guztiagatik eta benetan jokatzeko dutenak beraien direlako; gainera, lehen saioa izaki, seikote honi egokitu zaio lehen arrastoa jartzea.

Nahiz eta Nafarroa Oinez eta Iparraldeko laborarien sindikatuak ospakizun bana izan gaurko egunez, ez du honek jendea atzendu eta jende mordoxka ari da pilatzen atarian. Udazken eguraldi ederra egiten du kanpoan eta, beharbada horregatik, nekez hartzen du barrurako bidea.

Bien bitartean, aldameneko erretoretxera eramán dituzte bertsolariak; garaiz etorri dira eta, gehienek, nahiago dute jendarteko zurrumbiloan baino aparte egotea. Zozketak hala nahita, parte hartzen duten lurraldeek badute gutxienez ordezkari bana: Arabak Ruben, Bizkaiak Fredi, Gipuzkoak Arkaitz eta Amaia, Lapurdik Amets eta Nafarroak Iñigo. Zozketaren kapritxoa izan da, oro bat, Txapelketa Nagusian lehen aldiz parte hartzen dutenak izatea guztiak.

Areto polita, txukuna eta goxoa da Bauban. Ia-ia bete dute inguratu diren 240 lagunek, eta bero hartzen dituzte bertsolariak. Eserlekuen gorriari Txapelketa honetako pankartan nagusitzen den aho sabai kolore gorria gehitzen zaio. Gorriak ikusteko ote? Igo oholtzara, hartu bakoitzak bere lekua, eta Mikel Taberna sarrerako hitzaldia egiten ari den bitartean aurrean daukatenaz jabetzeko aukera izan dute bertsolariek. Aurre-aurreko ilaran daukaten epaile taldeak - antolatzaileen esanetan aretoak ez du eskaintzen kokapen egokiagorik - ordezkapen bat jasan du halabeharrez: Jon Abrilek, estatu espainiarrak asmatu dion auzia tarteko, debekua du estatu arteko muga igarotzeko, eta Beñat Soule jarri da bere lekuan.

Aurkezlearen sarrerako hitzaldia amaiturik, ohi bezala, beren agurra "askatu" dute bertsolariek, eta mikrofono aurrean dago lehen bikotea. Hasi da Txapelketa!

Bi ordu pasatsuren buruan, Emile Larreren eskutik antolakuntzaren eskerronezko oroigarria jaso eta agurrak kantatu ondoren, puntuazioak¹ jakinarazten dira. Pozik da Amets Artzallus: puntu gehien metatu dituenez, lortua du hurrengo faserako txartela. Itxaropentsu edo etsita, hurrengo saioen zain geratzen dira gainerakoak.

¹ A.Arzállus: 730,5; F.Paia: 716,5; A.Goikoetxea: 698; A.Agirre: 678; I.Olaetxea: 632,5; R.Santxex: 597,5. Arzállus, Paia eta Goikoetxea pasako dira hurrengo faserara.

F.Paia

Hasierako agurra

Neurria: Bederatzi puntukoa

Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Agur ta ohore Baxenafarra:
zure histori luzean
zapalkuntza ta mina egon da,
mendeen noraezean.
Leizarragaren hitza entzun dut
zuhaitzetako haizean,
begia jarriz zure zelaien
kolore berde hezean.
Bizkaitik nator, Getxo aldetik,
bertso kantuz arratsean;
hemen Lodosan antzean,
hainbeste eskualdun batzean,
barre egiten dut ezarritako
muga hori oroitzean,
etxetik hainbat kilometrora
sentitzen bainaiz etxean.

A. Goikoetxea

Hasierako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Lehen saioan ez da izango
eskuak zertan garbitu,
lehenaz gainera txapelketaren
zama egin zait handitu.
Hau Euskal Herrikoa,
ez gure neurrikoa,
bitxikeriak baditu,
haundiegia iruditu ta
ezin baigera kabitu. (bis)

A. Agirre-A. Arzallus

Gaia: Aspaldi honetan, zuen baserrian biok bakarrik bizi izan zarete. Amaia morroiak, edo etxeko mutilak, jakin duzu Amets zure nagusiak herentzia edo ondoriotasuna elizari uzten diola. Hiruna bertso, zortziko handian, Amaia hasita.

Neurria: 8ko bandia

Doinua: Uso zuri bat inguratu zait

A. Agirre Baserri hontan zu eta biok
bizi izan gera luzaro,
ez det esango izan geranik
zu nagusi ni esklabo;
santu itxura haundirik ez det
baina zukin bat ez nago,
gutxienean lana egin det
apaizak baino gehiago.

A. Arzallus Apaiz itxurik ez duzu eta
ez duzu lan egin ainitz:
oilategian zu eserita
zabiltza behin eta berriz,
ta herentzia zuri uzteko
nola emango dizut hitz?
Baserri zahar hau lurrean zegon
zuregatik izan balitz!

A. Agirre Beraz nigatik balitz etxea
eroriko zen lurrera,
inoiz ez dezu nigan eskeini
eskeini behar zen aukera;
morroi leiala izan nauzu ni
herritarren arabera;
zure ametsa zaindu dezaket
etxearekin batera.

A. Arzallus Orain ondotik kolpe ederra
bidalia didazu, ai!
Hori entzunik nagusi jauna
ez liteke egon alai;
zerura joaten naizen garaian
Jainkoan ondoan lasai...
Barkatu baina nik hil ta gero
ametsik ez dut izan nahi.

A. Agirre Aldamenetik ez det entzuten
hain hizketa xuabea,
uko egiten eta agintzen
zaitugu guztiz trebea.
Hil eta gero zuk zertarako
behar dezu ba fedea?
Daukan haretzek ez daukanari
ematea da legea.

A. Arzallus Nere kontura egin dituzu
ez dakit zenbat otordu!
Baina egindako lanarengatik
ezin zaitut zoriondu.
Honek dirua lortu nahi luke
ta gero hemen ezkondu.
Herentzia hori lortzezkerotan
apaizarekin konpondu.

A. Goikoetxea-F. Paia

Gaia: Zu, Arkaitz, futboleko epailea zara, eta Fredi milioi pila baten truke ekarri duten futbolari izarra, partidu guztian zehar zirikatzen eta protestaka aritu zaizuna. Azkenean, kanpora botatzea erabaki duzu. Launa bertso, zortziko txikian, Arkaitz Goikoetxea hasita.

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

A. Goikoetxea Aizu, juango zera
bide laburrean,
harrotasuna badut
naizen apurrean.
Nahiz ta izar ugari
eduki hurrean,
nik jarriko dizkizut
bi hankak lurrean! (bis)

F. Paia Gaur hanka sartu duzu
epaile, agian;
banoa dutxatzera
era nabarian,
baina hortxe daudenak
gradaren erdian,
hanka jarriko dute
zure aurpegian. (bis)

- A. Goikoetxea* Hori horrela denik
ez zait iruditzen,
epailea ez baita
hain gaizki aritzen.
Nahiz ta ohitua zauden
diru asko biltzen,
futbol zelaian ez du
diruak agintzen. (bis)
- F. Paia* Aztoratuta nabil
epaile hauekin;
protestaka hasi naiz
partiduan arin;
kanporatzea nahi nun,
behar duzu jakin,
milioi pila jaso
ta lanik ez egin. (bis)
- A. Goikoetxea* Gozatu behar duzu
aldagela ertza,
zapuztuko baitizut
daukazun ametsa;
etorkizuna duzu,
ez zazula pentsa,
nere elastikoa
dagon bezain beltza. (bis)
- F. Paia* Ai, gure epailea,
pertsone haundia,
esaldi bat badago
oso nabaria,
publikotik entzuten
duzun esaldia:
gaur zu beltzez ta bihar
zure familia. (bis)
- A. Goikoetxea* Horrela mehatxua
zuk bota didazu;
pausoa aurrera ez
atzera emazu;
zuk lepotikan gora,
eman zazu kasu,
baloiak baino haize
gehiago daukazu! (bis)

F. Paia Epaileak daukana
da frustazioa,
agintari izateko
bere ilusioa.
Nahiz epaiketan sartu
kontra akzioa,
lasai, irabazi dut
jubilazioa. (bis)

A. Arzallus

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

M. Taberna *Txapelketarik gabe*
ezin gera egon,
A. Arzallus bestela ez baitugu
hainbeste zorion;
ez al duzu ikusten
ni zer estu nagon?
Bakoitzak ahal duena,
besteak hor konpon!

M. Taberna *Lau urteren ondotik*
berri-z ere hemen,
A. Arzallus hortan pentsatzen jarri
beharko lehenbailehen,
baina gaurkoa egin
beharko bederen;
bestela ez baitakit
zertarako gauden!

M. Taberna *Inor etorri al da*
zu animatzera?
A. Arzallus Dexente heldu dira
betiko antzera;
begiratu ezazu
zineman atzera,
esku hutsik ez gera
joango etxera.

A. Goikoetxea

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

M. Taberna *Himalaiatik dator*
albiste tristea;
A. Goikoetxea tamalgarria zaigu
hori ikustea,
gora abitu eta
bizitza uztea.
Zergatik hiltzen zaigu
hain jende gaztea?

M. Taberna *Elurrak estali du*
gazteen ametsa,
A. Goikoetxea arriskutsua baita
Himalaia ertza.
Askotan gertatzen da,
nahiz ta guk ez pentsa,
elur zuri-zuria
bihurtzea beltza.

A. Arzallus-A. Goikoetxea

Gaia: Zu, Amets, diru eskasia dela eta, telefono erotiko batean hasi zara lanean. Telefonoa hartu eta zure mutilaren ahotsa ezagutu duzu, Arkaitzena. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Amets hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Ai gure antzinako

A. Arzallus Lehenagoko laguna
orain arerio,
mutilak deitu baitit
serio-serio;
ta nik erantzun diot
ze erremedio!
Nere mutilarekin
alta ez naiz fio.
Atzo egindakoak
ez al zun balio? (bis)

- A. Goikoetxea* Telefonoan bada
nahi aina jenero,
hotzetan dena ere
ipintzen du bero.
Bi minutu nahi ditut,
bi minutu edo...
Berriro saiatzerik
nola ez espero,
atzokoan hain ongi
portatu ezkerro. (bis)
- A. Arzallus* Ahotsa dardarka ta
bi masailak gorri,
hasieran jarri naiz
estu eta larri,
nere mutila dela
baitiot igarri;
telefonoan gabiltz
nahiko lotsagarri,
ta gehio nahi baduzu
honera etorri. (bis)
- A. Goikoetxea* Beti mintzatzen zera
hortik ezti-ezti,
ta ni ere jarri naiz
erabat amesti.
Hau gustagarria zait,
nola ukatu, noski;
ez naiz horra joango,
ez pentsatu gaizki,
telefonotik ere
badut eta aski. (bis)
- A. Arzallus* Hasieran entzun dut
dirring-dirring hotsa
eta ondorenean
mutilan ahotsa.
Hala ta guztiz ez naiz
ni sentitzen ontsa,
ta ez zaidazu egin
maitasun aitortza;
telefonotik ez da
sentitzen bihotza. (bis)

A. Goikoetxea Loreak bota dizkit
ero baten gisan,
maite ez duenantzat
ez litezke izan.
Bero-bero jarri naiz
ta ezin dut jasan;
gureak luzaroan
hola iraun dezan,
besteri holakorik
ez zaiozu esan. (bis)

KARTZELAKO LANA

Gaia: Guraso gazte bat zaitugu. Etxeko erantzungailu automatikoan mezu bat jaso duzu: “Barkatu, baina aspertu naiz etxean bizitzeaz; banoa eta ez nazazue bila”. Zure hamalau urteko alabaren mezua da. Hiru bertso, nahi duzun doinu eta neurrian.

A. Arzallus

Neurria: 10eko handia

Doinua: Zure eskaerak egia esan

Betidanikan izanagatik
txintxo eta formala,
gaur etxetikan alde egina du
eta hau ez da normala.
Jakin dezala nire barruan
samina handia dala,
baina edonora joan baino lehen
benetan jakin dezala,
inun ez dela biziko hura
bere etxean bezala (bis)

Agian nunbait aurkituko zun
bere gustoko mutila.
Agian hantxe kalerik kale
diru eskean dabila.
Bere amatxo hementxe dago
negarrez eta isila.
Baina alaba etor zaitezen
daukat esperantza pila,
ta zu etortzen ez bazerade
gu joango gara bila. (bis)

Pentsatua du etxetik kanpo
izango dela pakea,
eta hautsi du behin betirako
etxean zeukan katea,
beretzat igual onura baina
gurasoentzat kaltea.
Eta aurkitzen ez bazaitugu
nahiz jarri borondatea,
nahi duzunean itzuli zaitez,
zabalik dago atea. (bis)

A. Goikoetxea

Neurria: 10eko handia

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Horrelakorik mundu honetan
ez zaio pasa askori,
nahiz ta etxeetan izaten diren
makinatxo bat ixtori.
Hori entzun dut eta mundua
bera gainera erori;
ama batentzat ulertzeko ere
haundiegia da hori.
Nahiz eta hala pentsatzen nuen,
dena ez dut egin ongi. (bis)

Nere alaban sentimenduak
nahi nituen irabazi,
onez onean abiatu ta
bidean erdian nahasi.
Mezu horretxek ero puntuan
ipini nau kasi-kasi.
Hurren pausoa gogoetatik
beharko dudala hasi...
Aginpideak itsutu eta
entzuten ez dut ikasi. (bis)

Gogorra da bai, zertan ukatu,
hauxe da ezin jasana!
Orain neregan hartu beharko
alabaren erasana.
Bera joan da ta hutsunea
neri bilakatu zama,
lehenago ere alabak berak
egin zuen nahi zezana;
min bat badaukat: neri aurpegira
ezer ere ez esana. (bis)

LEGAZPI

2001-10-27, larunbata, 18:00etan
Bikuina kiroldegian
Final-laurdenak: bigarren ekitaldia

Bertsolariak:

Sustrai Colina
Nerea Elustondo
Oihane Enbeita
Joxe Munduate
Iñaki Murua
Aitor Sarriegi

Gai-emailea: Saroi Jauregi

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

(bertsolarien argazkiak)

Sustrai Colina	Nerea Elustondo
Oihane Enbeita	Joxe Munduate
Iñaki Murua	Aitor Sarriegi

Kiroldegi bikaina eta modernoa da Bikuina. Handia da, eta bi heren egokitzea erabaki du antolakuntzak. Legazpiko Udaleko langileek zoruko estalkiak eta oholtza jarrita utzi dituzte bezperan. Lan asko ordea egiteke, eta goizeko hamarrak ezkeror *Bertso Olariak bertso-eskolako* hamabost bat kide jo eta su aritu dira aretoa behar bezala atontzen: aulkiak jarri, mahaiak, saskibaloiko saski pisutsuak kendu... Seiehun ikus-entzulerentzat eserlekuak jarri dira. Ez da amaituko hemen beren lana: sarreraren salmenta eta kontrolaz arduratu beharko dute gero, eta bukatzeko, nola bihar kiroldegia erabilgarri egon behar duen, guzti-guztia jasotzeko ardura bereganatua dute: hogeita bost bat lagun arituko dira gau erdirako dena txukun-txukun egon dadin. Bertsotan ez ezik ez ezik, bestela ere ongi irabazia dute *Olari* izena.

Hau da Txapelketa osoko lan dinamika: batzuk profesionalak, besteak boluntarioak, bakoitza bere egitekoarekin. Helburu bera dute denek: saioa hasi baino bi ordu aurretik guztia gertu edukitzea. Honetan guztian herrietako laguntzaileon lana da, batik bat, goraiatzekoa eta eskertzekoa; ezinezkoa litzateke egungo Txapelketaren antolaketarik eta arrakastarik borondatezko esku-hartze hau gabe.

Legazpia-Urretxu herri-lasterketarekin egin dugu topo. Kiroldegiaren ondo-ondotik abiatu da bostak aldera, eta errepide nagusia duenez ibilbide, jendearen etorrera atzeratu du sarreraren azken orduko jende-pilaketak eraginez. Nahiz eta jendea sartzen ari den, seietan puntuan hasiera ematea erabaki da. Hasierako aurkezpenak egin eta agurrak bota bitartean jendea sartu da, eta ia denak beren lekua hartua dute saio neurtua hasterako. Laurehun bat ikusentzule bildu dira.

Gipuzkoako eskualde honetakoak, Goierrikoak, dira lau bertsolari, eta bizkaitar batek eta lapurtar batek osatzen dute taldea. Murua da esperientzia handiena duena, seigarren Txapelketa Nagusia du; Munduate, Sarriegi eta Oihane Enbeitak bigarren aldia dute, eta Elustondo eta Colina dira berriak.

Bertso saio parekatua eta kalitate onekoa izan da; hala erakutsiko dute gero epaileen puntuaketek. Saioaren hondarrean, Bittor Agirre bertsolari legazpiarraren eskutik oroigarriak jaso, agur bana bota, eta puntuazioak² entzutera prestatu dira nola bertsolariak hala entzuleak ere. Garazin lapurtar bat gailendu bazen, hemen, Legazpin, bestea: Sustrai Colinarentzat izan da finalurrekoetarako zuzeneko txartela eskuratzearen poza. Iparraldeko bertsolaritzaren susperraldia izango da hizpide ondorengo egunetan.

² S.Colina: 731; A.Sarriegi: 706; O.Enbeita: 698; N.Elustondo: 696,5; I.Murua: 692; J.Munduate: 649,5. Colina, Sarriegi eta Enbeita pasako dira hurrengo fasera.

Murua

Hasierako agurra

Neurria: 10eko handia

Doinua: Mutil koxkor bat itsnaurreko

Arratsalde on, ongi etorri,
hau da lehenengo pausoa.
Txapelketako xomorro honek
egin digu erasoa;
antibirusik ez daukagula,
horixe da arazoa;
txapelketetan zail izaten da
saio bikain ta osoa;
ia gutxinez pasatzen degun
arratsalde bat goxoa! (bis)

Munduate-Colina

Gaia: Zu, Joxe, azken hamar urteetan lantegi bat kudeatu duen zuzendaria zara.
Sustrai zure nagusiaren semea da. Gaurtik aurrera Sustrai izango da zuzendari berria.
Zortziko handian, hiruna bertso, Joxe hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

Munduate Ni banijoa eta zu zatoz
zeure etxearen kalte;
orain artean ibili zera
industriatik aparte.
Nahiz agintzeko klasea izan
eta hainbat borondate,
agintzen ezin liteke hasi
lanean ikasi arte.

Colina Agintzen oso ongi dakit nik,
nahiz ez saiatu luzaro.
Lehen hitzetik agertu ditu
aitzaki ta erreparo.
Aizazu, Joxe, zure tokia
hartu beharrean nago,
hemen odolak balio baitu
guztiak baino gehiago.

- Munduate* Zu heldu zera ta ni banoa,
baina zuk ez egin burla;
harrosko xamar iritsi zera,
ezingo da disimula.
Odolarena ez izan arren
erabat arrazoi ahula,
sartu orduko antzeman dizut
odolik ez daukazula.
- Colina* “Honek ez dauka bate odolik”,
hala kantatu du pozik;
halare honi ez diot hartzen
langile finaren antzik.
Makina aurrean egonagatik
ez duzu egiten deusik,
zer egiten den ez da kontua,
nun jaiotzen zaren baizik.
- Munduate* Nun jaio zaren eta nor zaren
nik ongi daukat gogoan,
baina gazteak heldutasuna
behar du bere alboan;
zure eskutan lantegi txar hau
aurrera ezin da joan,
zuen fabrika ehortziko da
zuk egindako zuloan.
- Colina* Lehen hitzetik etorri eta
bota didazu hordago,
amorrua ta gorroto hitsa
bere barrenean dago.
Nik zurekilan ez dut egin nahi,
gure kontua akabo!
Baina laguna ehortziko da
fabrika baino lehenago.

Colina-Elustondo

Gaia: Zu, Sustrai, hiltzat eman eta gaur lur eman dizute. Zeure onera etorri zara, ordea, hilkutxa barruan. Patrikan aurkitu duzu eskuko telefonoa, eta Nerea emazteari deitu diozu. Zortziko txikian, launa bertso, Sustrai hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Colina Heriotzak baditu
zenbait konpromezu,
gustora ez zaudela
nabaritzen zaizu;
baina bizirik nago,
emaztea, aizu!
Beraz orain lutoa
kendu dezakezu. (bis)

Elustondo Nere senarra dago
ondo-ondo hila,
beraz zertan atera
hainbat katramila?
Zu zaitugu lapurra
benetan abila,
nondik atera dezu
senarran mobila? (bis)

Colina Buruan gordea nun
hori, alafede,
apurutik joatea
nuelako xede.
Teknologi kontutan
ez al dabiltz trebe?
Kobertura baitago
inpernutik ere! (bis)

Elustondo Hara ze bota didan
neri kolpetikan,
hasarratu beharra
degu oraindikan!
Kobertura egon leike
gaur infernutikan,
baina hilkutxan ez dago
koberturarikan. (bis)

Colina Hilkutxan sartu naiz ta
sortu da problema;
urruti gelditu da
emaztean pena.
Kobertura badago,
gainera onena,
Euskaltel dugulako
batzen gaituena. (bis)

Elustondo Zure barruan bada
hainbat gauza bitxi;
hala ta guztiz ezin
dezaket ahantzi.
Horrek batzen gaitu bai,
eta ez da gutxi!
Baina nere senarra
ez da deitzen Patxi. (bis)

Colina Hemendik izan dugu
nahiko berriketa,
gezurra izan baita
senarran hilketa.
Deituiozu Patxiri
etor dadin xerka,
bertsota Legazpira
juan behar dut-eta. (bis)

Elustondo: Beraz Legazpin dezu
gaur bertso saioa,
nigana ekartzearren
dudan garraioa.
Hara joateko ez zaude
batere iaioa;
harrek jango ahal zaituzte
txotxo arraioa!

Murua

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Triste bizī naiḡ eta

S. Jauregi *Hain zara goxoa ta*
hain zara polita!

Murua Horregatik behinipehin
ez nago etsita;
limurtu egin behar nauzu
horrela jarrita!
Laztan bat emaidazu
ondora etorrita.

S. Jauregi *Zure begi ederrek
liluratzzen naute;*
Murua Begirada zorrotzez
hainbeste atake...
Nireganatu nahian
ari naiz jo ta ke!
Ez dut lorik egingo
hoiek lortu arte!

S. Jauregi *Zenbat maite zaitudan
ezin dizut esan!*
Murua Nahiz ta horretarako
ez nagon perezan,
maitasun gehiagorik
ez nezake jasan,
nere bihotz gaixoak
gehio sufri ez dezan.

Colina

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

S. Jauregi *Eskaleak atea
jotzen du sarritan,*
Colina gizajoa baitago
gure inbiritan,
barreanean samina,
negarra begitan.
Lagundu behar ditugu
guztiak egitan.

S. Jauregi *Jaunaren izenean
limosnaren eske*
Colina datozte burumakur
ta erabat triste.
Hala ere nerekin
lasaitu zaitzke,
nik ematen diet ta
sentitzen naiz aske.

S. Jauregi *Axola ote zaigu
haien egoera?*

Colina Neri axola dit ta
pila bat gainera!
Laguntzeko ezin gal
inolaz aukera;
aurreratu behar gara
guztiok batera.

O. Enbeita-Colina

Gaia: Ahizpa bikiak zarete Oihane eta Sustrai. Beti bizi izan zarete elkarrekin eta dena egin izan duzue batera, baita lo ere. Gaur Sustrai mutil-lagunarekin etorri da etxera. Hamarreko txikian, hiruna bertso, Oihane hasita.

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Lagundurikan denoi I

O. Enbeita Bertsotan ere aritu
gara gu luzaro,
taberna aldean hartu
makina bat trago!
Gure harremana doa
ondo ta oparo.
Mutil-lagun bat horra,
ni konforme, klaro!
Konpartitzeko beste
gauza bat gehiago.

Colina Neska, ikusten zaitut
kopeta beltzeko.
Nahiz orain arte bizi
bikien antzeko,
nik harreman honetan
ez dut deus galtzeko,
dena konpartitzerik
ez duzu usteko,
garaia iritsi da
bereizten hasteko.

O. Enbeita Salto bat eman nahirik,
hori da azaña!
Harremanari hartu
zenion tamaina;
orain aparte utzi
nahi nauzu ni baina,
beti maiteko zaitut
neska, alajaina!
Beti maiteko zaitut
baina zuk ni aina.

Colina Sentipenen bidean
eman dut pausoa;
laket ditut begiak,
laket bere soa.
Bikien egoera
ez da eroso.
Berarekin konpondu
ohi dut arazoa:
zurekin erdi bat naiz
berekina osoa.

O. Enbeita Ahizpa bikia, gero
urteen joanean
faltan izango nauzu
diodan legean.
Nahiz ta mutila izan
zure aldamenean,
nigana ez bueltatu
ni izan nahiean
osotasuna zulo
bihurtzen denean.

Colina Orain bereziak ta
lehenago batera.
Baliatu nahi nuke
daukadan aukera,
baina guzia irten
liteke kaltera;
berriz etorriko naiz,
gustora gainera,
zure beso goxotan
negar egitera.

KARTZELAKO LANA

Gaia: Egunero entzuten ditugu gerra albisteak. Oraingoan gainera, gerra humanitarioa omen da. Misilak eta janaria botatzen dituzte Afganistanen. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Elustondo

Neurria: 10eko handia

Doinua: Semaforoak gorri ta berde

Denok dakigu Afganistanen
badabiltzala guduan,
horrelakoak sarri gertatu
ohi direlako munduan.
Yanki aluek zer ote dute
oraintxe euren buruan?
Janari poltsak jartzen dituzte
misil batzun inguruan...
Hilobiratu nahi al dituzte
faraoi batzun moduan? (bis)

Gorputz pila bat erortzen dira
zeruetatik barrena;
errugabeak hiltzen dituzte
eta hori da txarrena.
Nork eman die halako zerbait
egin dezaten baimena?
Bonba bat dira misilak eta
bestea hipokritena,
eta ez dakit bietatikan
zein degun hilgarriena. (bis)

Gerra zikin bat dela tarteko
nor ez ote da gogaitu?
Telebistatik eginagatik
horiei hainbeste aipu,
gertatu dena ikusi eta
ezin gaitezke lasaitu:
begia begi truk saldu dugu
baina ez da hor amaitu,
hainbeste begi truka beharrak
denok itsutu baikaitu. (bis)

Murua

Neurria: 10eko handia

Doinua: Mutil koxkor bat itsnurreko

Amerikarrek beren barruan
ze lotsa gutxi daukaten!
Gizarte-gerra omen dala hau
ari zaigu ba esaten!
Lehendabiziko misil ta bonbaz
herriak hautsi ta eten,
eta ondoren hegazkinetik
jana nahikua ematen;
ta tontoenak ere badaki:
hildakoak ez du jaten. (bis)

Hor ari dira dolar apurrak
gerra egiteko biltzen;
hor ari dira herri xumeak
behin betirako isiltzen;
hor ari dira apal ziranak
geroz gehiago umiltzen;
hor ari dira bonba erraldoi
kaltegarriak amiltzen;
hor ari dira gerra zikinaz
errugabeak garbitzen. (bis)

Kapaz dira hoiek mundu osoa
txikitu eta jateko!
Euki nahi dute planeta dena
Amerikaren menpeko.
Horri diodan gorrotoa nik
ez dut luzaro gordeko.
Batu gaitezen ta kontra egin,
ez ote degu hobeko?
Txiki geranak elkar gaitezen
haundiai kontra egiteko! (bis)

Munduate

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Munduan libre bizī izatea

Azkenaldian gerra kontuak
entzun litezke edonun:
Afganistanen erail dituzte
nik ez dakit zenbat lagun!
Nahiz gure herrian horrelakoak
gertatzen diren ezagun,
ezbaian zergatik jardun?
Arren lagundu ditzagun!
Horrelakoak nola arraio
gerta litezke gaur egun?
Bi herri dira errugabeak,
bi agintari errudun. (bis)

Umeak erdi hilean daude,
ez al da gauza tristea?
Komeniko da gure laguntza
eurengana iristea;
emanagatik helduko dala
zaila degu sinistea.
Hor dagon jende trastea!
Hoi en eskutan uztea...
Bin Laden txarra edo eta Bush,
zer-nolako kontrastea!
Bat hiltzailea izanagatik
normala ez da bestea! (bis)

Munduan ongi bizi behar da
zergatik eman hainbat min?
Albokoari erasotzea
ez zait gertatzen atsegin.
Batzuk herritik ihesi doaz,
noraezean aldegin.
Nahiz kontzientzia den fin,
beharko zaio eragin.
Ejenplu horri begira nago
oroituz Euskadirekin...
Armak albora utzi behar dira
eta gehiago hitz egin. (bis)

AMURRIO

2001-10-28, igandea, 17:00etan

Udal pilotalekuan

Final-laurdenak: hirugarren ekitaldia

Bertsolariak:

Arkaitz Estiballes

Ekaitz Goikoetxea

Bixente Gorostidi

Juanjo Respaldiza

Jokin Sorozabal

Iñaki Zelaia

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

(bertsolarien argazkiak)

Arkaitz Estiballes	Ekaitz Goikoetxea
Bixente Gorostidi	Juanjo Respaldiza
Jokin Sorozabal	Iñaki Zelaia

Bertsozale Elkarateak antolatzen duenetik Txapelketa Nagusia, beti hartu da kontuan Araba; lan handia egiten ari dira lurralde honetan euskara berreskuratzeko, eta baita bertsolaritza ere. Euskara da bertsoaren pagotxa eta, zoritxarrez, herrialde honetan ez da oso ugaria, eta landa horretan saiatzea bera da aski meritu. 1980ko hamarkadan hasitako lanari esker, Araban egun badira bertako bertsolariak, antolatzen dira saioak, antolatzen da txapelketa, bertso-eskolak hedatzen ari dira...

Gainerako saio guztietan bezala, *Hitzetik Hortzera* telebistako bertso-programako ekoizleek hiru kamera jarri dituzte gertatzen den guztia jasotzeko; hor dira *Canal Gasteiz*koak ere. Hedabideen jarraipena dexentea da hasiera-hasieratik, eta areagotzen joango da Txapelketa aurrera joan ahala. Bertsolariak badakite beren lanaren oihartzuna ohi baino zabalagoa dela, eta horrek ere eransten dio tentsio puntua lehiak berez duenari.

Bertsolariak eta gai-emailea, ordu erdiko aurrerapenaz etorri dira eta pilotalekuko gimnasioan daude; ez da leku txarra ezinegonari irteera ematen ahalegintzeko. Sorozabal eta Respaldiza dira beterranoenak, eta Zelaia eta Gorostidi ere badakite zer den Txapelketa Nagusi batean parte hartzea. Ekaitz Goikotxea eta Estiballes ditugu berriak. Gainerako saio guztietan bezala, gai-emaileak, Mandalunizek gaurkoan, bertsolarien ordena zozketaz erabakitzeko eta beharrezko argitasunak emateko baliatuko du itxaronaldia: nor norekin aritu beharko duen binakako saioetan, zein ariketa dituzten gogorarazi, eta izan ditzaketen zalantzak argitu.

Jendea berandu dator eta, eguraldi goxoa dagoenez, sartzeko presarik gabe. Orduan-orduan, bostetan, igo dira bertsolariak eta gai-emailea oholtzara saioari ekiteko. Orduantxe hasi dira asko eta asko barrura sartzen.

Saioa hasi eta gero ere jendeak sartzen dihardu, aleka-aleka edo taldeka. Azkenerako berrehun eta berrogeita hamar bat lagun bildu dira. Ikusmira desorekatua eskaintzen digu pilotalekuak: harmailak erdi paretik eskuinaldera bete-bete eginak daude, eta ezkerraldera huts-hutsak. Detale honek ez du eraginik izan. Bertsolariak eta zaleak berera jarri dira eta, egia esan, oso giro politean burutu da saio guztia.

Bukaerako agurretan, ageriko utzi dituzte bertsolariak saioko sentsazioak. Gaur, Serapio Lopez bertsolari baranbioarrak banatu ditu oroigarriak. Berehala, zenbakien³ txanda etorri da. Sorozabalek eskuratu du finalurrekoetarako zuzeneko txartela. Saio ona egin du, eta gustura egoteko motiboak ditu, ez baita beti erraza pronostikoak berrestea.

³ J.Sorozabal: 722; I.Zelaia: 692; E.Goikotxea: 687,5; A.Estiballes: 671; B.Gorostidi: 559; J.J.Respaldiza: 635,5. Sorozabal bakarrik pasako da hurrengo fasera.

Gorostidi

Hasierako agurra

Neurria: 8ko handia

Doinua: Arratsalde on lewendabizitik

Arratsaldeon, egin nahi nahi degu
bertso saio dotorea;
gaurko saioak berezitasun
bat dauka ezin gordea;
ahal dan neurrian lehia kutsua
ken dezaiogun ordea;
zenbat ta saio lasaiagoa
guztiontzako hobea. (bis)

Estiballes

Hasierako agurra

Neurria: 10eko handia

Doinua: Mutil koxkor bat itsuarreko

Gaur Amurrion elkartu gara
hainbat zahar eta gazte;
pena da baina zu agurrean
erratu zara Bixente,
hona jendea etorri baita
burruka ta lehia eske.
Bi ordutako lana badugu,
lasai eseri zaitezte;
ea gozatzen duzuen zuok
guk sufritzen dugun beste! (bis)

Sorozabal-E. Goikoetxea

Gaia: Lantoki berean lan egiten duzue biok. Zu, Jokin, adinez heldua zara eta Ekaitz gaztea. Zuk, Jokin, autoa duela hamar urte erosi bezalaxe mantentzen duzu oraindik. Ekaitzek, zure aldameneko gazteak, gaur ekarri du bere laugarren auto berria. Hiruna bertso, zortziko handian, Jokin hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Soroꝯabal Diru aldetik juxtu gabiltza
langileak izatean,
hau bezelako pribilegiatuk
izanagatik tartean.
Kotxe honekin etorri naiz ni
lanera hamar urtean
eta nerekin ibiliko da
ni jubilatatu artean. (bis)

E. Goikoetxea Kotxe berria ekarri ohi det
pozik urtean-urtean;
nere nahia ta egitasmoak
beti dabiltz apartean.
Aita ta ama, aiton-amonak,
guztiak borondatean;
aprobetxatu beharra daukat
ahal dezakedan artean. (bis)

Soroꝯabal Aita ta ama bizi zaizkizu
aberatsaren klasera,
aitonak eta amonak ere
propina eman gainera,
eta patrika diruz beteta
eramateko aukera...
Hainbeste suerte baldin badezu
zertara zatoz lanera? (bis)

E. Goikoetxea Hiru urtean zure alboan
lanean fin naiz aritu,
nere izerdiz ere egin det
behar hainbeste meritu.
Izanagatik laneratzea
sekula ez da delitu...
Golfak eduki dituen batek
Portxeak amesten ditu. (bis)

Soroꝯabal Lehenengo izan zuen Clio bat,
bota zuen bazterrera;
gero ondoren Ford Fiesta bat,
txarra atera gainera.
Alper-alperrik pasako zera
orain Golfetik Portxera,
edo kotxeak txartzen ai dira
edo txofer txarra zera! (bis)

E. Goikoetxea Ona duenak amestu ohi du
hoberenaren itzala;
gazte txoroon ero haizeak
luzaz ibili nazala!
Zure jarduna ta esamesa
ez dugu gero normala!
Zaharkitua geratu zera
zure kotxea bezala. (bis)

Zelaia-Soroazabal

Gaia: Euroa datorrela eta, zuk Iñaki, bilobak, Jokin aitonari etxean gordeta dauzkan diru guztiak eskatu dizkiozu, eurotara aldatzeko. Launa bertso, zortziko txikian, Iñaki hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

Zelaia Euroaren garaia
iristen ari da,
ta biloba jarri da
geroai begira.
Aitona eman dirua,
tira, tira, tira,
zuregatik usteldu
egingo baitira! (bis)

Soroazabal Etxean zulo bat det
horma bakoitzeko;
pezetak gordetzeko,
hori ez da kalteko.
Ez ditut aterako
zuri emateko;
Europan ez dituzte
hobeto gordeko! (bis)

Zelaia Europa zer dan zuk zeuk
badakizu ondo;
teilatuan ez dute
primeran iraungo.
Zure bilobak ditu
ederki asko jango,
eta Europa aldera
ez dira juango. (bis)

Soroꝯabal Ez dizkizut emango,
diot mila aldiz.
Ehun ta hirurogei pezta
euro bat da berriz;
emango nizkizuke
denak gusto haundiz,
multiplikazioa
alderantziz balitz. (bis)

Zelaia Nere aitonak dauka
hainbeste umore,
teilatuan gordea
hamaika balore.
Zatiketa eginda
ez dago dotore;
hala ere gutxi da
zero baino hobe. (bis)

Soroꝯabal Txiki-txikitatikan
egin nuen lana;
ederki kostata nik
egin det hau dana!
Eta igartzen dizut
zuk daukazun plana;
ni zaharra naiz baina
gaztea izana. (bis)

Zelaia Lehenago etxe guztian
egin det aproba;
zahartutako gazteaz
ez nago gustora.
Ibili beharrea
zulotik zulora,
etxea botatzea
hobe izango da. (bis)

Soroꝯabal Etxea botatzeko
egiten du plana;
hau aberastasuna
etxeak daukana!
Botatzen dutenian
lurreraino dana,
arkeologoentzat
izango da lana! (bis)

Gorostidi

Gai baten inguruan hasierako puntua emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

B. Mandaluniz

Gosez dagoenari

zerutik misila,

Gorostidi

ta gainera utziko du
han betiko hila.

Horrela zigortzen da
gaur jende umila.

Nola ez dakit baino
konpondu dadila!

B. Mandaluniz

Gerra egiten dute

korбата jantzita

Gorostidi

miserableen penak
albora utzita;

gerra bukatu ostean
haruntza bisita.

Hola antolatzen dute
bizitza polita.

B. Mandaluniz

Sua pizten duenak

nabi du etekina,

Gorostidi

hari ez zaio inporta
jendearen mina.

Egin behar genduke
denok ahalegina,

eurek jasan dezaten
sugarren gordina.

Sorozabal

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Triste bizij nai z eta

B. Mandaluniz *Egurrak ematen du*
Soroꝯabal *biꝯkarrean mina,*
 ta hori saihestea
 gure ahalegina.
 Ez zenuke izango
 hain irri arina,
 zu're hortik hartuta
 etorri bazina.

B. Mandaluniz *Zuk ipintzen al duzu*
Soroꝯabal *beste aurpegia?*
 Ez nuke ipini nahi,
 hori da egia.
 Bi aldiz hartzea da
 nahiko aberia;
 bat jasatea ere
 a ze komerial!

B. Mandaluniz *Barkatzea ez dugu*
Soroꝯabal *hain gauza samurra;*
 aurreragi ez degu
 sartu behar muturra.
 Bertsotan ere sarri
 araudiak urra;
 ez dutela barkatzen
 badaukat bildurra.

Zelaia-E. Goikoetxea

Gaia: Iñaki eta Ekaitz Himalaian sarritan izandako bi mendizale zarete. Azken gertakarien ostean, zuk, Iñaki, lehen adina maite duzu Himalaia. Ekaitz ez da iritzi berekoa. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Iñaki hasita.

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Lagundurikan denoi I

Zelaia *Gure bizitzan bada*
 horrenbeste hobby!
 Gurea polita da
 ez uka inori.
 Ez zaitetz tristuraren
 zuloan erori;
 nahiz ta denon ahotan
 dagoen Pumori,
 istripu bat besterik
 ez da izan hori.

E. Goikoetxea Zinez maite degunez
mendiko jarduna,
bera izan da gure
zoriontasuna.
Baina orain gailendu
zaigu behazuna;
hilotz begitantzean
betiko laguna,
gorroto bihurtzen da
nere maitasuna.

Zelaia Sarritan patua da
guretzat eskasa,
ta zuri hartu dizut
tristearen traza.
Badakizu bizitza
nola den jolasa,
berriro hilabete
bertan nahi det pasa,
gertutik sentitzeko
beraien arnasa.

E. Goikoetxea Heriotza beti da
triste ta tamala
hildakoa mendiak
kulunka dezala!
Zuk jarraitu nahi dezu
irmo nola-hala;
mendia izpi bat da
dionun bezala,
baina argi guztiek
daukate itzala.

Zelaia Gertatuak odola
jarri irakiten,
hasi naiz plan berriei
gogoz eragiten.
Nahiz zure iritzian
naizen astakirten,
hegazkina hartuta
berriz nahi det irten,
arriskua nun dagon
ez baita jakiten.

E. Goikoetxea Ni ezin naiz murgildu
minaren gerizan,
pasatu ondoren bi
gertakari hits han;
nahiko dira gogoak
bertan galdu nitzan.
Oh, Iñaki laguna,
orain arte gisan,
zoritxarren bidean
zoriontsu izan.

KARTZELAKO LANA

Gaia: Igandero joan ohi zara mezetara, baita zintzo-zintzo bostehun pezetakoa bota ere zorrora, Elizaren beharretarako. Jakin duzu Elizak milioiak inbertitu dituela burtsan. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Sorozabal

Neurria: 10eko handia

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Nik igandero egin izan dut
eliza aldeko jira;
otoitz egin ta jaun hartu ere
lehengo ohituren harira;
bostehun pezeta edo gehiago
bota ere bai saskira.
Ta orain hoiek hasi omen dira
boltsa aldera begira;
hoien beharrak ta Euskaltelenak
berdinak izango dira. (bis)

Haserre biziz jarrita nago
ta zerbait esan nahi nuke:
lepoa moztu zieten haiek
bazuten hainbat bertute;
norbera pobre behar zuela
besteren laguntzen truke...
Itxura danez santujaleok
buelta emana digute;
pobreziaren legea hauek
alderantziz hartu dute. (bis)

Ni bezelako kristau xumeei
a ze ostiko itzela!
Zin dagizuet gehiago honuntz
etorriko ez naizela.
Kristok entzungo balu hau dena
ziur mugituko zela,
apaizei eta gotzai guztiei
emanaz zigor epela,
latigazoka tenplo hartara
sartu zenean bezela. (bis)

Respaldiza

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko handia

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Joan beharra joan da eta
kasik hori da onena;
gaur aurrerako ez da izango
Errespalditza izena.
Badakizue, txapelketea
ez dogu gustukuena;
zuek aurrean izatea da
gustu emoten dauena. (bis)

LESAKA

2001-11-03, larunbata, 18:00etan
Udal Pilotalekuan
Finala-laurdenak: laugarren ekitaldia

Bertsolariak:

Ainhoa Agirreazaldeg
Iratxe Ibarra
Aitor Mendiluze
Asier Otamendi
Xabier Silveira
Arkaitz Ugartetxea

Gai-emailea: Mikel Taberna

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea, Joseba Santxo eta Josu Telleria.

(bertsolarien argazkiak)

<p>Ainhoa Agirreazaldeg</p>	<p>Iratxe Ibarra</p>
<p>Aitor Mendiluze</p>	<p>Asier Otamendi</p>
<p>Xabier Silveira</p>	<p>Arkaitz Ugartetxea</p>

Fase honetako azkenurreko saioa da gaurkoa, eta igarri egiten da. Saioa seietako iragarria dago, eta ikus-entzuleak beren eserlekuetan daude ordurako. Pilotaleku bildua da Lesakako hau. Ez du mukuru egin, baina betekada polita eman diote inguratu diren 450 bat ikus-entzulek.

Bertsolariak aldageletan daude beren txanda noiz helduko; hegoaldeko lau herrialdeak ordezkatuak daude: Otamendi dator Arabatik, Ibarra eta Ugartetxea Bizkaitik, Agirreazaldegia eta Mendiluze Gipuzkoatik, eta Silveira lesakarra da anfitrioi. Antolakuntzak, taldeak zozketaz osatu baditu ere, arbitrarioki erabaki du talde bakoitzak non kantatu, eta tokian tokiko bertsolariren bat taldeko izatea izan da irizpideetako bat.

Joxean Goikoetxea soinu-jole hernaniarrak txapelketa honetarako prestatutako sintonia jarri dute entzungarri seietan puntuan. *Amodioa zoin den zoroa* izenez ezagutzen den bertso-doinuaren moldaketa da. Doinu lasaia eta goxoa; Goikoetxearen beraren hitzetan, neurketa legez txapelketari darion tentsio eta transzendentzia saihestaraztea, lasaitasuna transmititzea, du helburu.

Hiru aste badaramatzagu irratietan, telebistan eta saioetan sintonia hau entzuten, eta ezaguna zaigu jada bertsolariei zein zaleoi. Hauek ongi dakite hastapenetako jarrialdi honen esanahia. Gero nor lehena izango dena, nor azkena da orain. Baina honek ez du atzera bueltarik: oholtzara igotzeko ordua da.

Epaimahaiaren osaketan aldaketa bat nabari da: Mirari Azula bizkaitarrak ez du etortzerik izan, eta horrelakoetarako ezarritako irizpideei jarraituz, herrialde bereko ordezkioak, Josu Telleriak, hartu du bere lekua.

Giro bikaina egon da saioan zehar. Bertsolarien lanak zerikusi nabarmena izan du horretan, eta aurreko saioetan izandako ustea berretsi daiteke: maila handiko txapelketa izango da aurtengo hau. Manolo Arozena bertsolari nafarraren eskutik oroigarriak jaso eta agurrak bota dituzte bertsolariek, eta Tabernak jakitera eman ditu puntuazioak⁴. Aurrekoetan bezala, gehien lortu dituenetik gutxienera esaten ditu. Mendiluze aipatu du lehenik; beretzat da finalaurrekoetarako zuzeneko txartela. Silveiraren izena bota du bigarren; zazpiehun puntutan jarri dute sailkapen marra pronostikoak egiten aritzen direnek, eta hortik gora jaso ditu. Sekulako harrera egin diote zaleek etxeakoaren puntuazioari. Xabierrek, ukabil keinu batez agerian utzi du bete duela bere helburua; sentipenak gisa honetara azaltzea ez da normala bertsolarien arteko lehietan, eta areagotu egin du jendearen harrera sutsua.

⁴ A.Mendiluze: 745; X.Silveira: 703,5; A.Agirreazaldegia: 691,5; I.Ibarra: 686,5; A.Otamendi: 666,5; A.Ugartetxea: 660,5. Mendiluze eta Silveira igaroko dira hurrengo fasera.

Mendiluze

Hasierako agurra

Neurria: 8ko handia

Doinua: Saltarina da txepetxa eta

Arratsalde on esango degu,
izango balitz nahiago!
Baina jakina joku hauetan
sentitzen gera arraro;
ondo bagoaz larri gabiltza,
irristatu ta akabo!
Ia ba zeinek bukatzen duen
ta nork proba hau igaro;
txanpona airean dago!

Agirreazaldegia

Hasierako agurra

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Hamalau beriotzena

Giroa ikusita
ez nator kexaka;
lagunak heldu zaizkit
animo esaka.
Ardorik goxoena
duzu gaur Lesaka;
ez nuke edan nahiko
irrikaz presaka,
izan ez dadin bihar
goizeko resaka.

Silveira-Ibarra

Gaia: Zu, Xabier, bainugelako pisua zara. Iratxe egunero jartzen zen zure gainean.
Badira, ordea, bi hilabete begiratu ere egin ez dizula.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Kantatzera nijoa

Silveira Lehen beti zen nerekin,
zen kontu larria;
gaur berriz ahaztua nau,
hau ez da berria,
haundi du ipurdia
ta zabal gerria...
Goxo al dago Iratxe
aitaren txerria? (bis)

Ibarra Lehen tipo fina neukan,
nik hori badakit;
baina ez da bakarrik
txerriarengatik.
Hor goian ipintzea
beldurra ematen dit,
kirola egiteari
utzi nionetik. (bis)

Silveira Aspaldi ez zarela
joan aerobikera,
aspaldi ahaztu duzu
mendi irteera;
baina halare lasai
etorri gainera,
oraindik politena
zerorri baitzera. (bis)

Ibarra Oraintxe jarri nauzu
zuk umore alaiz,
baina penaz nago ni
zerbait argaldu nahiz;
mendira lehen joaten
nintzen sarri ta maiz,
ta orain berriz Silveiran
tabernan sartzen naiz. (bis)

Silveira Zu lehenago mendira
joaten zinen sarri,
ta loditu zarela
urrundik igerri.
Halare nire gainin
lasai-lasai jarri,
baina hori bai, Silveira
ez zazu ekarri! (bis)

Ibarra Zu Silveiraren aurka
hasi zara ozen,
baina nire ustetan
jokatzen du zuzen.
Ez naiz hasiko hura
zugana ekartzen,
hura urte osoan
ez baita pisatzen.

Silveira Silveira ez dezagun
solas kontutzat har,
zu oraindik ez zara
hura bezain zatar.
Jarri gainin, ez duzu
aztoratu behar,
beti jarriko baitut
berrogeita hamar. (bis)

Ibarra Berrogeita hamarrekin
lehen egon nintzen fin,
baina azkenaldian
ai, hirurogeikin!
Kokoteraino nago
bertso afariekin.
Korrika hasi behar dut
Andoni Egañakin! (bis)

A. Otamendi

Gai baten inguruan hasierako puntua emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Haiñeak bidali du

M. Taberna Euroa hemen da-ta
egon zaitez adi;
A. Otamendi euroari buruz ni
hasi behar kantari;
pobrea nagoela
ez al da nabari?
Hoiek ere ez ditut
izango ugari.

M. Taberna *Diru beltzak oraintxe*
zuritu beharko!
A. Otamendi Gaur gastatu ahal dena
ez utzi biharko!
Pobreak bota behar
majina bat malko!
Lehen lodi ez zeudenak
segi behar plako.

M. Taberna *Zerbait gennela ta*
azkenean butsa!
A. Otamendi Gero ta beherago
omen doa burtsa.
Euskal ekonomia
nahi genuke bultza;
hortarako behar da
guztion laguntza.

Mendiluze

Gai baten inguruan hasierako puntua emanda

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Xarmangarria zera I

M. Taberna *Berriro hemen dugu*
Garxon ate joka;
Mendiluze nunbait ez da bukatu
hasi zen borroka;
bat eramaten du ta
beste hiru bota,
errudunak al diren
ez zaio inporta!

M. Taberna *Presoei laguntzea*
delitua ote?
Mendiluze Nik ezetz uste arren
han baietz diote.
Baina jasotzen dute
horrenbeste kolpe!
Beraz gure laguntza
merezia dute.

M. Taberna *Martxa bonetan laixter
denok kartzelara!*
Mendiluze Sinistea bakarrik
delitu al da ba?
Hori aitzaki dela
gu bagoaz hara,
bertsotan denak hantxe
arituko gara.

Agirreazaldegia-Ugartetxea

Gaia: Bi alargun zarete, duela urtebete inguru alargunduak. Igande goizak oso era desberdinean pasatzen dituzue biok. Zu, Ainhoa, lagunekin paseatzera joaten zara. Arkaitz, berriz, hilerrira joaten da.

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Espainian behera

Agirreazaldegia Guztiz lehertu nintzen
aizu, lehenago;
pentsatzen nuen “nire
bizitza akabola!”.
Baina alaituz noa
gero ta gehiago,
igandeak pasian
ohi ditut igaro;
senarra hil zen baina
ni bizirik nago! (bis)

Ugartetxea: Baina azkar ahaztu zaizu
egia esanda;
ez zait asko gustatzen
zure propaganda.
Senarra asko maite dut,
hain ona izan da!
Hilerrira joateko
beti hartzen dut txanda,
ta pozez bueltatzen naiz
muxu bat emanda. (bis)

Agirreazaldeg

Animoak ez ditut
ahul edo plako;
ederki jantzi eta
irteten naiz bapo;
gaur egin litekeena
ez utzi biharko.
Pozik pasiatzen dut,
aitortu beharko,
senarra nire ondoan
daramadalako. (bis)

Ugartetxea

Nun ibiliko diren,
hori batek daki,
mundutik urrun hainbat
leku eder izaki!
Muxu ematen diot
han argazki bati;
zuk ondoan daukazu
ta oso ederki;
neri ere bueltatzeko
esaten dit beti. (bis)

Agirreazaldeg

Senarraren bisita
duzu zuk gurari,
muxua emateko
zure lagun hari.
Nik emango dizkizut
aholku ugari,
hiltzen ari zarela
baitizut nabari:
muxua emaiozu
zeure buruari. (bis)

Ugartetxea

Nere senarra beti
daukat nik gogoan,
lehen'be beti izaten
bainuen alboan.
Zoritxarrez mundutik
hain urrun zen joan.
Heriotza iristen
bazait hurrengoan,
lurperatu nahi nuke
beraren ondoan. (bis)

Mendiluze-Silveira

Gaia: Aitor semea eta Xabier aita zarete. Teorian biok ados zaudete gauzak hitz egin ez eta elkarrizketaren bidez konpontzen direla. Kontua da hilabete badaramazuela elkarrekin mintzatu gabe, zuk Aitor, porrua erretzen duzula Xabierrek jakin duenetik.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Lagundurikan denoi I

Mendiluze Lehenago elkarrizketan
jardunak jo ta su,
aspaldi mutututa
gabiltza ni ta zu.
Hitz egin behar dela
maiz esan didazu;
teoria berezi
xamarra da, aizu!
Zeuk erakutsi eta
zeuri ahaztu zaizu.

Silveira Beti zilegia da
solasaren lana,
baina zurea zabaldu
da herrian barna;
eta zuk ere uler
zenezake dana,
pentsatuko bazenu
semetxo lastana,
batzokira sartzean
sufritzen dudana.

Mendiluze Erantzun hau hartzerik
nik ez nuen uste
ematen dizkizudan
arrazoien truke.
Batzokira patxadaz
heldu nahi zenuke;
aita, gauza bat behintzat
jakin nahiko nuke:
besteen hitzek gehio
balio al dute?

Silveira Balio ez, baina bai
sortzen dute minik,
ozpindutako hitzek
badute saminik.
Ni ulertzeko badut
modu bat oraindik:
zure oniritzia
izango al dut nik,
kalera joaten banaiz
kresta bat eginik?

Mendiluze Itxuraldatzen behar
badezu aritu,
nere kejarik ezin
liteke aditu.
Baina porruarena
ez degu amaitu,
nonbait zeuregan bildur
asko sortzen baitu:
ezagutzen ez denak
beldurtzen al zaitu?

Silveira Eztabaidarena da
egizko baratza,
arrazoia han bertan
ereitean datza.
Zertan areagotu
haserreen dantza?
Gaurkoan moldatzea
ez al da erraza?
Egin porro bat eta
kalada bat pasa.

KARTZELAKO LANA

Gaia: Kristorenak eta bi pasatuta, patera zahar batean iritsi zinen amesten zenuen lurraldera. Ailegatu eta segituan atxilotu zintuzten. Orain, hegazkin dotore batean sartu eta berriz ere zure lurraldera eramane zaituzte.

Ugartetxea

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Leibo ertzetik entzun dezaket

Nere alboan izan nituen
neurekin hainbat bezero;
denok amets bat egin genuen
burukatuz egunero.
Itsasoan zehar ez pentsa gero
pasatu dugunik bero!
Orain hainbeste endredo
ez nuen asko espero! (bis)
Baina negarrez hasteko oso
berandu da honezkero;
nere ametsa zapuztu dute
hainbeste kostata gero! (bis)

Orain artean zorte haundirik
ez dut eduki bizitzan.
Maroko aldean jaio ta hantxe
urte luzez bizi nintzan,
eta saiatu beti egin naiz
tokatutako langintzan.
Gaur hartu naute sorpresan,
haserrez egia esan. (bis)
Patera baten denok sartuta
ilargiaren gerizan,
nere bizitza osoan ez dut
horrelako pozik izan! (bis)

Bizitza hontan pobrezia da
zoritxarrez gu denon gaitz,
eta munduko leku batean
pobre han jaio zen Arkaitz.
Baina halere etxera bueltan
nijoa umore alaiz,
askatasunaren usaiz,
lehen ez bainaiz egona maiz. (bis)
Ta abisu bat emango diet
hemengo guztiei garaiz,
gaur eramango nauzue baina
berriro bueltatuko naiz. (bis)

Silveira

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Arratsak lotan pasatzen ditut

Gose artean, negar artean
ezin da bizi oparo,
eta ametsak jartzen dituzu
dauden baina haratago.
Abiatuta hementxe nago
zoritxarraren esklabo:
sentitzen naiz hain arraro;
askatasunean ez nago.
Nere ametsak ez al dirudi
amesgaiztoa gehiago?
Guk azal beltza baina hauek bihotza
ez al daukate beltzago? (bis)

Han utzi nuen ene sendia,
ene bihotzeko laguna;
neskalaguna zena lehenago
orain erdi alarguna.
Sufritze hauek gainera ez dute
behar duten oihartzuna;
jendearen erantzuna
gaiztoa eta iluna.
Askatasuna, askatasuna
zen guk amesten genduna,
eta gaur ez dut kezka bat baizik:
hau al da askatasuna? (bis)⁵

Senegaletik iparralderantz
abiatua astiro,
eguzkia bai baina han behean
ez geneukalako giro.
Erran bezela bertzerik ez da
gose, malko eta tiro;
ni nintzen horren testigo,
ta izango naiz berriro.
Hegazkinean nahiz sartu naizen,
ez ninteke horra igo;
nahiz eta hara eraman orain,
itzuliko naiz seguro. (bis)

⁵ Errepikan aldatu egin zuen esaldia: *ta orain ez dut kezka bat baizik...*

Agirreazaldegi

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko txikika

Doinua: Espainian behera

Batzutan motel eta
bestetan presaka,
neronen buruari
“ez etsi!” esaka;
ez ahal zait etorriko
lagunik kexaka!
Azken ardo tragoa
bazaitut Lesaka,
txikia izango da
biharko resaka. (bis)

ELORRIO

2001-11-04, igandea, 18:00etan

Arriola antzokian

Final-laurdenak: bosgarren eta azken ekitaldia

Bertsolariak:

Unai Agirre

Estitxu Arozena

Bittor Elizagoien

Igor Elortza

Igor Muniategi

Aritz Zerain

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

(bertsolarien argazkiak)

Unai Agirre	Estitxu Arozena
Bittor Elizagoien	Igor Elortza
Igor Muniategi	Aritz Zerain

Bereziki erakargarriak izan ohi dira sailkapen ekitaldietako azkeneko saioak. Tentsio berezia izaten dute. Horren baitan, saio bikain bat entzuteko itxaropenak erakarriko ditu batzuk, beste batzuk, berriz, sailkatzeko aukerak dituzten lagun haien helburuak gauzatuko direnentz zuzenean bizitu nahiak; morboa ere lagun ona du txapelketak. Arrazoi apartekorik gabe, bertsozale direlako soilik etorritakoak ere ez dira gutxi izango. Final txiki baten modukoak dira. Eta garbi geratu da hori Elorrioko honetan ere. Fase honetako saiorik jendetsuena da: ia 600 lagun bildu dira Arriola antzokian.

Bertsolarientzat ere saio gogorak dira final txiki hauek. Hasierako saioarekin batera, hau zaie gogorrena: hura erreferentziarik gabe hasten direlako, eta hau erreferentzia guztiak dituztelako. Saioa irabaztea da biderik zuzenena, gainerakoan, puntu dantzari itxaron behar.

Hau guztia tarteko, jauzi nabarmena egiten dute txapelketak bere-bereak dituen urduritasunak eta tentsioak. Elortza eta konpainiaren musajeari erreparatu besterik ez dago hori horrela dela antzemateko: labana sartuta ere odol tantarik isurtzeko itxurarik ez lukeenik bada hor. Begi-bistakoa da zer nolako tratua hartzen duen bertsolariak txapelketan. Saioak erakutsiko du onerako ala txarrerako izango zaien, bietara eragin dezakeela esaten baita.

Saioan, gehienetan bezala, denetik izan da; ondorengo orrietan dago onetik izan duenaren lekukotasuna. Baina ez du zalea asebeste: "halakoak ez dik bererik eman", "bestea lotuta aritu dun", "beti berdin gertatzen duk saio hauetan"... dira komentarioak. Betiko topikoak; zaleon klitxeak.

Saio hauetako protokoloa betetzeko, Karmelo Uriarte, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko lehendakari-ordea igo da oroigarriak banatzera. Gaur artekoetan, bukaerako agurren txanda amaitzerako epaileen akta eskutan zuen aurkezleak, baina gaur ez! Ordenagailuaren inpresorak arazoak ditu, nonbait. 8-10 minutu beranduago eman ahal izan ditu Mandalunizek puntuazioak⁶. Igor Elortza da saioko garailea. Bera da, beraz, aurrerako. Bigarrena, Unai Agirre. Puntuak: 692,5. Ez dauka sailkatuen zerrenda entzun beharrik, badaki zerrenda ixten duena bera dela, baina sailkatu egin dela.

Ondoren, sailkatuen zerrenda ematen du Bernardok: Mendiluze, Colina, Arzallus, Sorozabal eta Elortza taldeetako garaile legez, eta Paia, Sarriegi, Silbeira⁷, Arkaitz Goikoetxea, Enbeita, Elustondo eta Unai Agirre puntuazioz. Sailkapenetik puntu erdira geratu dira Zelaia eta Murua, eta bakarrera Agirreazaldegia.

⁶ I.Elortza: 731; U.Agirre: 692,5; A.Zerain: 671,5; I.Muniategi: 657; B.Elizagoien: 640; E.Arozena: 638,5

⁷ Arkaitz Ugartetxea esan zuen Bernardok Xabier Silveiraren lekuan. Hala zioen idazkariak emandako oharra: inpresorarekin zituzten arazoak eragindako urduritasunaren ondorioa. Baina batak zein besteak bazekiten zien zen bere lekua.

I. Elortza

Hasierako agurra

Neurria: 10eko handia

Doinua: Misiolari baten moduan

Arratsalde on bertsozaleok,
ordua da ta goazen;
zuen nahia ta gure beharra
batzen ez dago errezen.
Baina isildu ditzagun penak,
kantatu dezagun ozen;
ea okerrik gertatu barik
jardun dezakegun zuzen,
bertsoak onak eta gu ere
onik atera gaitezten.

I. Muniategi

Hasierako agurra

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Agur sagar beltzeran

Denok batu gara gaur
bertsoaren jaietan,
kanturako gogotsu
ta giro alaietan.
Batzuk adi egongo
dira epai-mahaian;
Elorriora nator
adierazi nahian
beste Igor bat ere
badela Bizkaian.

Zerain-I. Muniategi

Gaia: Zu, Aritz, urduritasunez beteta, gidatzeko karneta ateratzeko azterketa egiten ari zara. Kale estu baten gora zoazela, Igor aitona tirriki-tarraka zebrabidea gurutzatzen hasi zaizu.

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Kantatzera nijoa

Zerain Karneta ateratzek
zailtasuna dauka;
aspaldi hasi nuen
horretan burruka.
Aitonari ari naiz
kotxetik ijuka...
nahiago nuke honen
patxada baneuka! (bis)

I. Muniategi Patxadaz nago orain
neroni hizketan;
abantaila ederra
dugu hau benetan.
Zeroa ziur duzu
azterketa honetan;
preferentzia neuk dut
zebrabideetan. (bis)

Zerain Gainera haundienak
berak esateko!
Gertatu daitezke gaur
zuretzat kalteko.
Hori ez dakidanik
ez duzu usteko.
Baina pasatzeko bai,
ez geldi egoteko. (bis)

I. Muniategi Zapaldu ta zapaldu,
ekin eta ekin...
buruan zer edo zer
baleuka behinepin!
Zapaltzen banauzu zuk
behar duzu jakin:
buruan joko zaitut
makuluarekin. (bis)

Zerain Makulu eta guzti
paretik ez kentzen!
Oraintxe ari zaigu
burua zuzentzen.
Baina honen kasurik
nik ez det ulertzen;
testetan ez da inoiz
aitonik agertzen! (bis)

I. Muniategi Neure bidean noa
pozik lasai-lasai,
ta pasatu nahiean
hau hementxe dut zai.
Esplikaziotxo bat
dizut nik eman nahi:
testetan agian ez,
baina kalean bai. (bis)

Zerain Dirudinez hori da
kaletako moda.
Benoa, aitona da ta
ez det nahi aztora,
lagun gisan hartzea
ona izango da.
Igo kotxera eta
goazen pasiora. (bis)

I. Muniategi Azterketa kontua
ahaztu zaio jada.
Pasio kontuekin
hona eta hara;
ideia nahiko ona
dugu beharbada;
karneta duzunean
biok joango gara. (bis)

Elizagoien-I. Elortza

Gaia: Zuek biok txerrikumeak zarete. San Martin laster den beldurrez zu, Bittor, zeure dieta erdira jaisten hasi zara. Igorrek berdin jaten jarraitzen du.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

Elizagoien Txerrikumea ez da
bizitzen oparo;
gainera bizi gera
gero ta okerrago.
Nahiz ta jatea nuen
nik ere nahiago,
jana maite dut bainan
bizia gehiago. (bis)

I. Elortza Barka, baina nik ere
maite dut bizitza;
San Martinez hiltzea
hain litzake hitsa!
Nahiz ta erabakia
zuk hartu bortitza,
berez eskasa nahiz ta
alperrik zabilta! (bis)

Elizagoien Arazo asko duzu
orain gizentzeko,
nunbait jaio baizinan
denak tentatzeko.
Bainan hilko zaituzte
askoren antzeko,
besterik ez bada're
trabatik kentzeko! (bis)

I. Elortza Nik hori entzuteko
ez nuen usterik;
behin entzun ta zer esan
ote dezaket nik?
Lasai, ez naute eta
botako hemendik;
traba ez dizut egiten
nik zuri besterik. (bis)

Elizagoien Lagunak gera eta
ederki gabiltza;
janaria're ez da
batere murrirtza.
Baina ez da hain txarra
orain nire ditsa;
gutxinez luzetu dut
urteko bizitza. (bis)

I. Elortza Ni ere pozik bizi naiz
gaur bazterrik bazter,
nagusian etxean
jabe eta maizter.
Laguntzat hartzen nauzu,
beraz mila esker;
baina bat gutxiago
izango dut laister. (bis)

Elizagoien Nausiak onartu du
nere malezia;
gainera utzi behar dit
aurtengoz bizia.
Zuk egin behar dezu
alkira jauzia,
ta gero neretzako
jateko guzia. (bis)

I. Elortza Ez dakit iritzia
daukazun zuzena;
engainaturik zaude
niri ematen pena.
Jatekoa zuretzat,
entzun dut ordena,
baina zeu zara hemen
jango zaituztena! (bis)

U. Agirre-E. Arozena

Gaia: Zu, Unai, gotzaina zara, eta orain jakin duzu, Estitxu apaizak, elizara jende gutxi etortzen dela eta, meza amaitu ostean hamaiketako emoteko asmoa duela. Zeure bulegora deitu diozu kontuak argitzeko.

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat

U. Agirre Gotzaiak apaiz zahar hau
ezin du babestu;
jende gutxi elizan
eta dabil estu;
orain nornahiri jana
emateko prestu,
baina horrek fedetik
askorikan ez du. (bis)

E. Arozena Langintza zail samarra
da elizarena,
aita, semea eta
izpirituarena.
Ederki saiatu naiz,
alferrik da dena;
urdailean daukate
fedea haundiena! (bis)

- U. Agirre* Horren ados nagonik
ez dezu usteko;
hamaika hemen badago
gaur nolabaiteko!
Hamaiketako latza
mezari ekiteko;
aitzekia bihar⁸ du
berak egiteko. (bis)
- E. Arozena* Nere aitzakiaren
parea buruan,
nahiz ta ni baztertzea
duzun helburuan.
Jarraituko al zenuke
eliza munduan,
letxuga jarri ezker
zure otorduan? (bis)
- U. Agirre* Letxuga txarra da ta
ni ninteke ito;
gotzaiak egon behar du
sendo eta tinko.
Erdi bide bat jarri
dezagun betiko:
ostiak nozillakin
eman eta kito! (bis)
- E. Arozena* Hemen elkartzen dira
pozak eta penak;
gotzaiaren ideiak
dira ederrenak;
ostiak nozillarekin
ez dira okerrenak...
txistorra nahiago du
gosez datorrenak! (bis)
- U. Agirre* Pixka bat gehio nahi du,
ni ez nago lotan.
Ezin hasiko gera
zu ta ni borrokan;
ostiak txistorrakin
eman egun hortan,
baina busti itzazu
Don Simon ardotan. (bis)

⁸ *bihar du* = behar du

E. Arozena Hamaiketakoa ta
ta ardo ez-titan;
jendea mezetara
heldu da birritan.
Nik proposamen bat dut
ta diot egitan:
gauza bera egiteko
eliza guztitan. (bis)

I. Elortza

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

B. Mandaluniz *Diruaren morrontzan*
bizi da pertsona,
I. Elortza ta begi-bistan dago,
hori ez da ona.
Mundua izango bada
inoiz guztiona,
aldaketa behar du
bizkor ta sakona.

B. Mandaluniz *Asko daukana beti*
gebiagoren bila;
I. Elortza nik esango nioke
konforma dadila,
hortik etortzen baita
hainbat iskanbila;
denontzako mundua
ez da borobila.

B. Mandaluniz *Guztiori sobratuko*
zaiagu azkenean;
I. Elortza dirua alperrik, bai,
hiltzen garenean.
Beraz daukazuena
poltsa barrenean,
baliatu aukera
daukazuenean.

KARTZELAKO LANA

Gaia: Pailazoa zara. Urte guztiko lanaren ondoren, oporrak hartzeko garaia heldu zaizu. Zure oporraldia lurralde txiro bateko hurrekin pasatzea erabaki duzu.

Zerain

Neurria: 12ko bandia

Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Pailazoa nun aitona eta
pailazoa aita zena,
eta nola ez nik ere hartu
pailazoaren izena!
Irriparren bat sortzea da guk
jasoa degun ordena,
eta horretan jarri ohi det nik
indarra eta kemena.
Hemen irrika utzia det ja
nik Euskal Herri gehiena;
orain urruti hartu behar det
nunbait nere atsedena.

Afganistango paraje hori
ez litzateke hain txarra,
nagusi baita han gerratea,
nagusi bonben indarra.
Haurrak dabilta hara ta hona
gurasoekin tirri-tarra,
eta bertatik ikusi nahi det
hain egoera zakarra.
Eta gainera neronek ere
daukat probatu beharra
nola lortzen dan benetan behar dun
umearen irriparra.

Herri honetan badet ospea,
hemen badaukat nik sona;
irradi eta telebistetan
hainbat alditan egona.
Baina Afganistan aldean orain
dagona ez da gero broma!
Norbaitek junda egin behar du
horrelako lan sakona;
eta noizbait'e lortuko banu
haurtxo baten zoriona,
betiko hantxe geratuko da
pailazoa ta gizona.

I. Muniategi

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Ligoi bizitza ez da izaten

Nire herrian egiten dut nik
pailazo bezela lanik.
Derrepentean hona etortzeko
pozik egin nuen planik;
nire buruan ez zen falta ez
ez gogorik ez afanik.
Hona etorrita jadanik,
zera esan nahi nuke nik: (bis)
gure herria horren polita
eta alaia izanik,
ez nuen uste hemen jendea
hain triste biziko zenik. (bis)

Neure herrian egin ditudan
lan guzti horien truke,
nagusiek ta nire lagunek
honaino bidali naute.
Herri honetan pasa dituzte
gerran makina bat urte;
nahiz eta saiatu fuerte,
ez dute nahiko suerte. (bis)
Guzti-guztici azaltzen diet
daukadan aina bertute;
gauza haundia ez dugu baina
pozarren txalotzen dute. (bis)

Zer gertatzen den azaldu nahi dut
hemen astiro-astiro,
inortxo ere ez baita bizi
ondo edo egokiro;
batek ez dauka alerik ere
ta bestea ere txiro.
Hona natorren aldiro
entzun dut hainbeste tiro... (bis)
Sondika aldean hegazkinera
pozarren behar naiz igo;
lankide batzuk alboan hartu
ta etorriko naiz berriro. (bis)

U. Agirre

Neurria: Sei puntukoa

Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz

Oporrak hartu ditudanean
hasi da nere azaña;
urte osoan zirko batean
lan eginaren ordaina.
Afganistana joan nahi nuke,
hori lurralde bikaina!
Saiatu naiz, alajaina! (bis)
Hemengo umeei parre eragiten
gauza zaila degu baina,
irripar batek balioko du
hango guztienak aina. (bis)

Erdi gordean muga pasatu
ta etorri naiz propio;
taliban batek bilatu ezker
banuke mila sesio!
Sudur gorria, zapata haundiak
ta hainbeste ilusio...
Ume txikiak sozio; (bis)
esaten diet: gure lurretaz
zuek ez zaitezte fio,
hango jendeak pozari ere
prezioa jartzen dio. (bis)

Zuek negarrez ikusi ezker
banuke nahiko frakaso,
baina ahaleginak ondorio bat
ekarriko dit akaso.
Bizitza oso luzea dezute
ta animo hoiek jaso;
pozik eta gozo-gozo. (bis)
Zuen lurrean ibili beharra
arriskutsua zait oso;
nere buruan pentsatu banu
ordea ez nintzen pailazo. (bis)

Elizagoien

Neurria: 10eko handia

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Pailazoa naiz, herri osoak
oraintxe dezala jakin,
gazte-gaztetik nere lanari
gogor bainion nik ekin.
Euskal Herrian urte osoan
ni ibiltzen naiz haurrekin;
atzerrian'e ume guztiak
hemen dabilta nerekin;
egia erran urte osoan
ez dut hainbeste lan egin. (bis)

Beti izan naiz ni pailazo bat
eta kategorikoa;
Euskal Herrian egina nuen
nere leku ta txokoa.
Urrutiraino etorri eta
hau ez al da poztekoa?
Haurtxo guztiak nere atzetik,
hori da hori gakoa!
Sakela ez dut askorik bete,
bainan bihotza nahikoa. (bis)

Herri hontara iritsi nintzen
hona turista moduan;
deskantsutxo bat egitea nun
besterik ez nun buruan.
Hainbeste ume irrifarreka
ikusten ditut onduan.
Orain lanean hasi naiz eta
hauxen dadukak asmuhan:
egun batzutan etorri eta
gelditu urte osuan. (bis)

ETXARRI ARANATZ

2001-11-17, larunbata, 18:00etan
Udal pilotalekuan
Finalaurreak: lehen itzuliko lehenengo ekitaldia

Bertsolariak:

Jexux Mari Irazu
Maialen Lujanbio
Amets Arzallus
Nerea Elustondo
Xabier Silveira
Jokin Sorozabal

Gai-emailea: Mikel Taberna

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

Argazkiak: MAIALEN LUJANBIO
JEXUX MARI IRAZU

Astebeteko atsedena hartu du Txapelketak. Finalurrei ematen zaie hasiera gaur, eta hiru aste bete-beteak dauzkagu zain: hemezortzi bertsolari nor baino nor, larunbata eta igande, geratu gabe. Azken-laurdenetan sailkatutako hamabiei 1997ko finalean aritu ziren sei gehitu zaizkie: Irazu, Iturriaga, Lopategi, Lujanbio, Maia eta Mendizabal. Haiek erakutsi dute zer eman dezaketen, ez dute gutxiago emango, eta hauengandik asko espero da. Txapelketaren tenperaturak gora egin du berez.

Badirudi naturak aurre egin nahi diola tenperatura igoera horri, eta azken astean nabarmen hoztu du. Elurra gerturatu zaigu, eta sekulako hotza egiten du Etxarri Aranatzen. Pilotalekuko horma soilak eta beirateri zabalak areagotu egiten dute hotz sentazioa. Aspaldi samarrekoa da, gainera, eta ez du berogailurik. Osterantzean, pilotaleku bildua da, baina urtaro honetan izanda txapelketa, negu erpinean, posibilitate hauek ere kontuan hartu beharko lituzke antolakuntzak bere hautuak egiterakoan. Zaleentzat ez da ona hotzez dardarka egotea, are gutxiago kantuan ari behar dutenentzat: hotzez kizkurtuta dagoen gorputzak ez du pentsatzen uzten. Bertsolariek badute beste desafio bat gaur: bertsoaren indarra da hemengo giroa berotu dezakeen bakarra.

Seietan hasi behar du saioak eta sintonia jarri orduko oholtzan dira bertsolariak. Irazu eta Lujanbiok estraineko saioa dute. Bi gipuzkoar hauei beste bi gipuzkoar, Sorozabal eta Elustondo, nafar bat, Silveira, eta lapurtar bat, Arzallus, gehitu dizkie zozketak.

Betekada ederra hartu du pilotalekuak. Seiehun bat lagun bertaratu dira, eta horrek apur bat epeltzen du giroa. Harrera beroa egiten die entzuleek bertsolariei, eta hauek gogotsu heltzen diote elkarren kontrako eta naturaren aurkako lehiari. Saioa aurrera joan ahala giroa berotzen doa. Gogotik txalotzen dute zaleek. Bertsoaren indarra ari da bere lana egiten. Txalo bakoitza, jaulkitako indar beraz itzultzen dute horma hotz hoztu egoskortuek; esku zartaden hotsa bikoiztua entzuten da (soinuaz arduratzen direnak izango dira izerditan ari diren bakarrak; baldintzak kontuan izanik, nahikoa lan txukuna egin dute). Bertsolari batek berokia kendu du; harentzat ongi doaz gauzak.

Saioaren hondarrean bertsolariek ohiko agurrak kantatu dituzte eta hotza sentitzen hasi dira berriro. Badatoz puntuazioak⁹. Bi itzulitara jokatu denez fase hau, saioan garaile ateratzea ez da aski, ahalik eta punturik gehien metatzea izan dute denek helburu. Maialen Lujanbio nabarmendu da goitik eta Sorozabalek jaso ditu puntu gutxien. Bera da gaurko galtzailea. Bukaerako agurrean argi adierazi du zein nekez aritu den gaur bertsotan, eta puntuek arrazoi eman diote.

⁹ M.Lujanbio: 757,5; J.M.Irazu: 739,5; A.Arzallus: 730; X.Silveira: 686,5; N.Elustondo: 679; J.Sorozabal: 660,5

A. Arzallus

Hasierako agurra

Neurria: 8ko bandia

Doinua: Hamaika aldiz daukazu lehendik

Asteartean istripuz hil zen
Souleren¹⁰ seme gaztea.
Horri esaten zaio aste bat
bide txarretik hastea.
Hargatik nahi dut Iparraldea
egun poztuaraztea,
gutxinez ondo bukatu dadin
gaizki hasitako astea.

A. Arzallus-Lujanbio

Gaia: Zu, Amets, kartzelatik ateratzera zoazela, Maialen presoainak urteetan eman ez zizkizuten amodiozko gutunak eman dizkizu. Hiruna bertso, hamarreko handian, Amets hasita.

Neurria: 10eko bandia

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

A. Arzallus Hainbeste gutun espetxeraino
heldu ziren egun batez,
sendiak zuzen ekarririkan
edo postari bitartez.
Zoritxarrean gutun guztiak
izan dira nere kaltez;
zure eskutan gehiegi zeuden
ta nere eskutan batez;
zuk gorrotoa zabaltzen duzu
amodioaren partez. (bis)

¹⁰ Beñat Soule, Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkarteko idazkari eta Txapelketa honetako epaile taldeko kidearen semea hil berria zen auto istripuz.

- Lujanbio* Lagun, azkenik iritsi zaizu
irteteko momentua;
orain nahikoa irrifarre ta
algara eta kontua.
Eman ezker eskutitz hauek
zuretzat zer pekatua!
Horrexegatik ez emateko
erabakia hartua,
ez nuelako gordinagotu
nahi zure sufrimentua. (bis)
- A. Arzallus* Hoge bat urte kondena neuzkan
epailearen epaian,
eta kartzelan hemen egon naiz
sari negar egin nahian,
berdin ziegako ohe gainean
edo bulegoko mahaian;
elkartasunik ez nuela ta
ez nengon modu lasaian;
ta orain berriz iritsi dira
behar ez diren garaiak! (bis)
- Lujanbio* Maitasun hitzak beti onak dira
maitasun hitzak izanik;
behar ez diran garaia denik
ezin nezake esan nik.
Espetxeraino iritsi ziran
hauek nundik edo handik,
maitasun hitzak kuttun gordeta
zuretzat norbaitengandik;
benetakoak baldin baziran,
iraungo dute oraindik! (bis)
- A. Arzallus* Zoritxarrean asko baitira
oraindik preso daudenak,
nere lagunak oraindik hemen
gelditu dira gehienak,
ta nik kalera joateko ditut
kristoren itxaropenak!
Handik bidali behar dizkiet
nik kaleko bizipenak,
ta zuzenean emaitzkiezu
nik bidalitako denak. (bis)

Lujanbio Bidali ezkerro jasoko dute,
ez dizut esango ezetz;
ixkutun bada ere eman ez
behin lagun zutenan partez.
Kalera zoaz, ez amorrazi
ta ez egon atsekabez;
etsai naiz baina aholkutxo bat
eman nahi dizut bihotzez:
ez zenuenan damuz ez bizi,
baizik duzunaren pozez. (bis)

Soroazabal-A. Arzallus

Gaia: Auzokideak zarete biok. Zu, Jokin, beheko pisuan bizi den berrogei urteko gizon ezkondua zara, eta Amets goiko pisuan bizi den neskatxa gaztea da. Gauaz, goian besta izugarria dela entzun duzu, eta hor joan zara protesta egitera. Ametsek erdi biluzik ireki dizu atea. Launa bertso, zortziko ttikian, Jokin hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Soroazabal Orain arte ez nizun
hartzen susmo txarrik,
baina susmo kontuak
jadanik alferrik.
Festa egin zazute
zuentzat bakarrik,
ez dauka herri osuak
susmatu beharrik. (bis)

A. Arzallus Burua goian zuna
gaur dator gorago;
nik porroari tiraz
kopatik bi trago,
baina patxaranikan
ez dugu gehiago;
zure etxean pixkat
ez duzu izango? (bis)

- Soroꝯabal* Uste det konbentzitu
 behar nauela errez,
 haseran etorri naiz
 aurpegi haserrez.
 Patxarana bada bai,
 diot irrifarrez;
 denok edatekotan,
 bestela batere ez! (bis)
- A. Arꝯallus* Gu festan ibiliak
 gerade jo ta su,
 baina zahar hauekin
 eman behar kasu.
 Denak edatekotan
 nahi zenuke, aizu;
 andrea ere ekarri,
 nahi baldin baduzu. (bis)
- Soroꝯabal* Ezkonduak gera gu,
 lagun ta kuttunak,
 baina aparta leizke
 gaur gure jardunak;
 gu gera progresista
 aurreatu lagunak,
 tarteka egun libreak
 hartzen ditugunak. (bis)
- A. Arꝯallus* Hau beheian bizi zela
 ez bainuen ahantzi,
 zu sartzeak badauka
 hamaika garrantzi!
 Hemen jardungo gera
 salto ta garrasi,
 baina lehendabiziko
 jertxia erantzi! (bis)
- Soroꝯabal* Zure aldamenean
 lotsetan naukazu,
 jertxea erazteko
 oihi egin duzu;
 jertxea kenduko dut,
 egon lasai, aizu,
 hortako motiborik
 jartzen badidazu. (bis)

A. Arzallus Xirrika han hasteko
prest daukat logela;
gaur egin behar dugu
gaupasa itzela,
ta bihar baja hartu
behar den bezela;
nagusiari esan
nere kulpa dela. (bis)

Lujanbio

Gaia: Jubilatuz zinenetik maiz joaten zara mendira bakarrik, nahiz zure seme-alabek, beste norbaitek inoiz joatea hobe dela esan. Gaur, maldan gora zoazela, ondoezak jota lurrera erori zara. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Neurria: 16ko handia

Doinua: Haizea dator ifarraldetik II

Hirurogeita hiru urtekin
lanpostutik erretira
egin nuen ta orain goizero
abiatzen naiz mendira;
maiz pentsatzen det “nere lagunak
animatuko balira!”,
baina alferrak izaki eta
bakarrik joango naiz, tira!
Aldapan gora arnas estua,
ezin ikus urrutira;
inor ez daukat aldamenean,
inor ez nitaz kupira;
erdi etzanda mareatuta
laguntza eskean di-da:
“Etorri bila, etorri bila!”,
baina beranduegi da.

Hanka meharrak eta adina
nere kontra, nere etsai;
nik nahi nuena aldapa hontan
abitu ta gora jarrai.
Erori egin naiz, baina gaitzerdi,
bihotzak taupaka darrai;
eta gizon bat hor inguruan,
salbazioa leike, ai!
Besoak altxa ta oiuhu egin det
“hemen etzanda nago, bai!”;
ez dakit asko iraungo dudan,
nago izerdi hotzez blai;
“etorri zaite ni laguntzera,
hementxe nago zure zai”,
baina gizonak ez nau ikusten
edo ez nau ikusi nahi.

Malkar batean, noraezean,
hemen nago parregarri;
une batean elkartu zaizkit
heriotz eta jatorri;
ezin naiz jeki, ezin oiuhu egin,
ezin dut etxera korri;
nere arnasa geratuko da
hemen estu eta larri.
Seme-alabek neri errita
ein izan didate sarri,
ta orain negar egingo dute
ta arrazoi eman elkarri.
Nik adio bat esaten diet
ta zuek hona etorri;
beti hainbeste maite nituen
arrosa gorriak jarri.

Irazu

Gaia: Orain dela hiru urte ez zenuen neska-lagunik, eta gurasoen etxean bizi zinen. Gaur, ezkondata zaude, ume bat duzue, bigarrena bidean eta izugarrizko hipoteka duzue banketxearekin. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Zer da bizitza, ondo errepara,
lehen ta oraina ezin konpara,
familiaran familiaraino
hainbesteko abiada! (bis)
Andrean ondoan gaba;
umea negarrez, hara!
Ta hoge milioiko paga.
Biak batera sentitzen ditut
poza eta hotzikara;
lehenago buru-arina nitzan
ta orain dena karga da! (bis)

Bankura beti, ze albistea!
Hipoteka det nik gerizpea;
honetaraino heltzerik ere
oain hiru urte sinistea! (bis)
Orain zain det bereiztea,
dena atzera uztea,
aukeretan zein bestea?
Gizarte honek agintzen du ta
hobe horrela hastea.
Zer izan nahi nun soltero triste
edo ezkondu tristea. (bis)

Askatasuna lehenago amets,
hura bukatu, dena dago beltz;
familia ta etxearekin
ote nago hain aldrebes? (bis)
Bankuak zenbat interes!
Ez det ordainduko errez.
Nagusia bera juez.
Putzu haundi bat ikusi nuen
eta salto egin berez.
Seme-alabek esan bezate
asmatu nuen edo ez! (bis)

Silveira

Kartzelako lana: gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

M. Taberna: *Euskarak Nafarroan
oztopo gehiegi;*

Silveira bortziritarra naiz ta
kontaidazu neri!
Hala ere borrokan
behar dugu segi,
gure amets zaharra
egin dadin egi.

M. Taberna *Agintariak aurka
herritarrak alde;*

Silveira agintariak txoro
daude alafede!
Miguel Sanz egon arren
gorenaren pare,
izan gaitezen gure
buruaren jabe.

M. Taberna *Nork irabaziko du
gure sokatira?*

Silveira Ez dakit baina ezin
gara erretira.
Nahiz ta garamatzaten
gomaren erdira,
dakargun arrazoia
gure alderdira!

Silveira-A. Arzallus

Kartzelako lana: binaka gaia emanda

Gaia: Bizitzari buruz oso ikuspegi desberdinak dituzue biok. Zuk, Xabier, uste duzu zoriona ametsa besterik ez dela eta oinazea dela nagusi bizitzan. Ametsek uste du zoriona ere badagoela. Hiruna bertso, hamarreko ttikian, Xabier hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Lagundurikan denoi I

Silveira Biziak jartzen ditu
makina bat traba,
sufrimendua ezin
bazterrean laga.
Irain eta pozoiez
betetzen da aba¹¹,
ta lehen anai ginenak
gaur etsaiak gara;
zoriona nun dago
lurpean ez bada?

A. Arzallus Dituzun uste hoiiek
otoi erretira,
horrela ez baitzara
joango urrutira.
Zu beti hor zabilta
zerura begira,
ta lurrera jeistea
sarri komeni da;
ametsak ere egi
bihurtzeko dira! (bis)

Silveira Nahiz ta polita izan
zure erantzuna,
zerorrek badaukazu
erantzunkizuna.
Ametsa egi egin
zen beti nahi nuna,
baina ez da egoten
sekula urruna
ametsak zapuztuko
dizkizun laguna.

A. Arzallus Nere izena ere
propio jarri zen,
esna ere ametsetan
maiz bainaiz aritzen.
Baina zu hasi zaite
neroni aditzen:
ez da inoiz iristen
ez dena abitzen,
bila joaten ez denak

¹¹ *aba* = ahoa

ez baitu aurkitzen.

Silveira Ni abiatu sarri,
abiatu nekez,
baina negarra aurkitu
irriaren partez.
Hizketan zabiltz baina
dena zure kaltez.
Apustu, lagun, laister
konturatu baietz!
Pixka bat helduago
zarenean Amets

A. Arzallus Oraindik gazteegi
nauzu beharbada,
baina adina ez da
inoiz izan traba.
Zure ametsgaiztoak
bazterrera laga;
zerutik noiz jausiko
zai bazaude, hara,
zu zerura lehenago
iritsiko zara!

Sorozabal

Kartzelako lana: gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Hai^zek bidali du

M. Taberna *Euskarak Nafarroan*
oztopo gehiegi;
Sorozabal aurrera ezin eginik
hortxe dabil nagi;
lagundu behar diogu
guztiok berari,
bestela ezin baitu
bizirauten segi.

M. Taberna *Agintariak aurka*
 herritarrak alde;
Soroꝗabal hala ta guztiz dabil
 juxtu eta grabe;
 euskara guk ez dugu
 altxako debalde,
 baina harek ez du iraungo
 guk lagundu gabe.

M. Taberna *Nork irabaziko du*
 gure sokatira?
Soroꝗabal Aspaldi hontan soka
 tenkatzen ari da;
 aldamenetik inor
 ez jarri begira;
 sartu ilaran eta
 soka hortatik tira.

Lujanbio-Irazu

Kartzelako lana: binaka gaia emanda

Gaia: Bizitzari buruz oso ikuspegi desberdinak dituzue biok. Zuk, Maialen, uste duzu zoriona ametsa besterik ez dela eta oinazea dela nagusi bizitzan. Jexux Marik uste du zoriona ere badagoela. Hiruna bertso, hamarreko ttikian, Maialen hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Lagundurikan denoi I

Lujanbio Ametsa ke hutsa da,
 alferrik zabiltza!
 Beti biharkotan da
 bizidunen ditxa.
 Mintzen gaituzten gauzez
 ezin gara mintza;
 familiar samina,
 lagunarte hitsa...
 Heriotzai itxoitea,
 hori da bizitza.

Irazu Ez malkorikan bota
zure bizitzari
ta egiozu kasu
behingoz bihotzari.
Zorionean gera
biok bertsolari;
mila lagun entzuten,
gu biok kantari;
egizko zoriona
ez ote da hori?

Lujanbio Bizitzeko motibo
hain eskasa ez zen;
mila lagun ez dira
askotan juntatzen,
ta gu aritzen gera
eurentzat kantatzen,
nahiz tabladu gainean
ez geran kejatzen,
guk siniste'z deguna
entzuleei saltzen.

Irazu Gurea hitz hutsa da
eta ez pentsua,
entzulea ulertzeko
berez ahaltsua;
dena detalleetan:
ze gauza goxua
benetan maite dezun
harexen muxua!
Horrek salba lezake
bizitza osua.

Lujanbio Beraz zure maitasun
faltsuan mirabe,
hori al dezu zure
bizitzan zutabe?
Nik ere egin nahi nun
esperantzaz jabe;
ateak zabal utzi
nitun parez pare,
beti beste batekin
egiten du alde.

Irazu

Bere errua al da
ihesi joatea?
Aska zazu bihotzak
dadukan katea;
zabaldu begiak ta
zabaldu atea;
beti negarrez zabiltz,
ohartu zaitea:
zure zoriona da
negar egitea.

Sorozabal

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko bandia

Doinua: Mundu honetan holako gauzak

Ez dakienik balego-edo
noa ni esplikatzer,
bertsoen lana izaten dela
kaka itearen antzera:
batzutan bera bakar-bakarrik
juaten da goitik behera;
besteetan berriz gogotik bultza,
halare ezin atera!
Gaur ezin zen ta beste batean
neurtu beharko gera.

MARKINA-XEMEIN

2001-11-18, igandea, 17:00etan

Udal pilotalekuan

Finalaurreak: lehen itzuliko bigarren ekitaldia

Bertsolariak:

Unai Iturriaga

Aritz Lopategi

Aitor Mendiluze

Igor Elortza

Aitor Sarriegi

Unai Agirre

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

Argazkiak: UNAI ITURRIAGA
ARITZ LOPATEGI

Markinakoa izango da Bizkaiko ohiko bertso plazen artean garrantzitsuenetakoa. Inguru bertsozalea da. Pilotaleku hau ohitua dago betekadetara.

Pilotalekuez ari garenez, ohiko jaialdiena ez ezik, Txapelketako saio asko eta askoren gertaleku izan dira eta dira. Baina pilotalekuak pilotarako daude egokituak, eta ez ikus-entzunezko muntaietarako. Gehienak arazoak ematen dituzte entzumenari dagokionez, ez dira oso erosoak izaten, eta ez dute berogailurik. Haatik esan behar da bertsoa eta pilotalekuen arteko harremana, urteetan zehar garatu dena, hain dela estua ezen askorentzat bera da, bere deserosotasun eta guzti, markorik naturalena bertso ekitaldi hauetarako.

Herri askotan, ordea, birmoldatzen ari dira beren pilotaleku zaharrak, egokitzen egungo funtzio anitzetara. Horietakoa da Markinakoa; atzo bertan txapelketa honek probatu zuenaren antitesia: sarbide erosoak, harmaila bilduak eta eserleku komodoak, entzumena hobetzeko neurriak hartuta, berogailu eta guzti. Kanpoan hotza eta euria, eta barruan giro. Honelako lekuak nahi lituzke antolakuntzak herri guztietan!

Jendea barra-barra etorri da, milatik gora lagun: harmaila eta kantxan jarritako aulki ia guztiak beteak daude. Gaurkoa seikote bikaina da eta ikusmina handia sortu du: Iturriaga eta Aritz Lopategi azken bi txapelketa nagusietako finalistak, Elortza egungo Bizkaiko txapelduna, Mendiluze Gipuzkoako txapelduna, eta Unai Agirre eta Sarriegi bertsoan galanki egin dezaketela frogatua dutenak. Lehen biak antolakuntzak saio honetarako izendatuak zeuzkan txapelketa hasterako eta besteak zozketak ekarri ditu hona. Talde-buruek, 1997ko bi finalistak, non kantatu behar zuten erabakitzerakoan, eragin zezaketen erakartasuna irizpidetzat hartzea deliberatu zuen antolakuntzak. Hori da bizkaitar horiek hemen kantatzeko arrazoietako bat.

Bost minutu atzeratu da hasiera jendea sartzen ari delako. Sintonia jarri orduko oholtzarako bidean ditugu bertsolariak: patxadaz, presarik gabe, kontzentratuta. Gogoangarria izan da saioa. Askotan sumatu ditugu bertsolariak pare-parean jotzen; ez neurri edo maiztasun berberarekin, baina denek egin dute kontuan hartzeko bertsoarik. Saioaren tenperatura goi-goian egon da; apena izan duen beherakadarik.

Puntuazioei¹² dagokienez, Iturriaga nabarmendu da. Osotara atzo baino puntu gehiago banatu dira. Epaimahaiaren parteak askotan sortzen du zeresanik, gaur da horietako egun bat: "ez al zituen halakok puntu gehiago merezi?" Betikoa, nola uztartu bihozkada beroak matematika hotzekin!

¹² U.Iturriaga: 756; I.Elortza: 739,5; A.Mendiluze: 731,5; A.Sarriegi: 721; A.Lopategi: 716; U.Agirre: 693

Iturriaga

Hasierako agurra

Neurria: 10eko bandia

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Arratsalde on pilotarien
unibersidade bakar;
badakit zuriz jaztea dela
frontoietako lege zahar;
alde hortatik nahiz ta guztiok
gauden desegoki xamar,
pilota hautatzen behintzat ez dugu
hemen galdu denbora lar,
bakotxak bina ekarri dugu
ta eurekin jokatu behar. (bis)

I. Elortza-Iturriaga

Gaia: Zu, Igor, hamabi urteko haurra zara, eta Unai zure aita. Orain dela urtebete hil zitzaizun ama, Igor. Gaur, Unai, aita, emazte batekin etorri da etxera “gurekin biziko da” esanez. Hiruna bertso, hamarreko handian, Igor hasita.

Neurria: 10eko bandia

Doinua: Aita izena kanta beharrak

I. Elortza Orain urte bat hil zen ama ta
ordutik ni naiz herabe.
Beste emakume bat orain hemen
gure etxeko zutabe.
Beraz gurekin bizi behar da,
ez didazu egin galde;
halere aita onartzen dizut
ez dezala egin alde;
bizidunekin bizi nahi dut nik,
baina hilak ahaztu gabe. (bis)

Iturriaga Eskerrik asko seme maitea,
aurkeztera noa Ana;
lehenengo ta behin matrail hoietan
emaiozu musu bana.
Nik ondo dakit maitatzea dala
zuk gehien nahi duzun arma;
zer izango dan zeure esku dago
nire semetxo laztana:
gura baduzu zure laguna,
nahi baduzu zure ama. (bis)

I. Elortza Ama zein lagun, gauza berdina
izan litezke funtsean,
aurrekaldera begira nago
ta atzekoak atzean.
Emakume hau maita dezaket
nik ere zure antzean;
aman lekurik ez du beteko,
gelditu baitzen hutsean,
baina maitatzen banau egingo
diogu bat bihotzean. (bis)

Iturriaga Eskertzen dizut ez agertzea
barruan duzun sustoa,
oraindik ere gertu izanik
aman oroitza freskoa.
Baina Anaren agerpen hori
bide hortatik ez doa,
nik onartzen dut amaganako
joera hori berezkoa;
nik zoriona aurkitu nahi dut
ta ez haren ordezkoa. (bis)

I. Elortza Beraz ordezkoik ez dugu behar
eta sikatu malkoa;
zoriontsuak izan gaitezen
bada aukera nahikoa.
Anak hartuko du beraz orain
gure amaren lekukoa;
badakit, aita, zu ere zara
ama ahaztu gabekoa,
baina Anak ere eskertuko du,
kendu ezazu lutoa. (bis)

Iturriaga Luto guztiak hostoak legez
erori baietz banaka!
Zure aitari hartu diozu
gizon tristearen planta,
baina ederto jakin dakizu
poza dudala galanta,
ta ekarri dizut pizza haundi bat
ta sei Coca-Cola lata;
ipini mahaia, egun eder hau
ospatu egin behar da-ta! (bis)

Sarriegi-A. Lopategi

Gaia: Zuek, Aitor eta Aritz, bi gazte zarete, herrigintzan lan asko egindakoak. Orain, bioi funtzionario izateko aukera etorri zaizue. Zuk, Aitor, aukeraz baliatzea pentsatu duzu. Aritzeri ez zaio burutik pasau ere egiten hori. Hiruna bertso, hamarreko handian, Aitor hasita.

Neurria: 10eko handia

Doinua: Bizia ez da neboiz egoiten

Sarriegi Guk herrigintzan hainbat urtetan
zenbat lan eta jardute!
Ta beste askok gure antzera
berdin-berdin egin dute;
orain postu bat ziurtatzeko
aukera eman digute,
eta nik behintzat nere aldetik
aprobetxatu nahi nuke;
bizi osoa ez det pasa nahi
lan eta lan musu-truke. (bis)

A. Lopategi A ze zalantza daukagun orain
alkarren aldamenean!
Funtzionaritzan aukera hori
heldu zaigu azkenean.
Herrian gogor aritu gara
biok jarrera onean;
euskeran alde, presoan alde,
gogotik eginahalean,
ta orain hasi behar al duzu
Aznarrentzako lanean? (bis)

Sarriegi Egia da bai guk Aznar jauna
ez dugula begikoa;
espero nuen erantzuna ta
esan duzu betikoa.
Baina pisu bat erosi nahi dut,
horrekin badut nahikoa,
ta salaketa gehiegizkoa
izan da alajainkoa!
Herria oso ederki dago,
baina lehenik poltsikoa. (bis)

A. Lopategi Herrian alde biok lanean
ibili gara ederto,
eta aitortu beharra daukat
ez dala izan kalteko;
herrian dana gu bioi esker
ez al da askoz hobeto?
Ta orain berriz hastera zoaz
funtzionario antzeko;
ez zazu zure burua saldu
poltsikoa betetzeko. (bis)

Sarriegi Esan nahi dizut gure atzetik
gazte asko dagoela
eta guk egin degun lan hori
haiek segiko dutela.
Uste dedana esango dizut
pentsatzen dedan bezela:
nahiz eta orain esan didazun
mutil saldua naizela,
bi hilabete baino lehenago
damu izango zarela. (bis)

A. Lopategi Ez dakit nola hartu nahi duzun
hain erabaki astuna?
Biok herrian eginak gara
kriston ekintza bilduma!
Ezkerra utzi ta aukeratu
gura baituzu eskuma;
nik herrigintzan jarraituko dut
ta zuk egin nahi duzuna,
baina hor sartzen baldin bazara,
ni ez naiz zure laguna. (bis)

Iturriaga-Sarriegi

Gaia: Zuek Unai, aitona, eta Aitor, biloba, neska gaztea, hondartzara joan zarete elkarrekin aspaldiko partez. Zuk, Unai, aitona, uretatik bueltan etortzean, hor dakusazu biloba gaztea top-lessean eguzkia hartzen. Launa bertso, zortziko txikian, Unai hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

Iturriaga Fresko ta ederra hartu du
uretan bustia,
toailara itzuli
ta hau da hostia!
Barruraino sartua
al zait eguzkia?
Zurea al da zintzilik
daukazu guztia? (bis)

Sarriegi Amona behin sortu zen
bi paxintxirekin;
amak ere txikiak
zituen berekin,
ta nik berriz ederrak
dauzkat gaur nerekin.
Pozik egon zaitezke
garapenarekin! (bis)

Iturriaga Nire iloba maitea
ez zara makala!
Esan behar dut oso
gustoko dudala.
Neuk ere kenduko dut
guztia ta, hala!
Amari esaiozu
altzeimerra dala. (bis)

Sarriegi Zahartu zera baina
hor daukazu sena,
zu ez zera etxean
pentsatzen dutena.
Baina erretzen ari zait
goiko parte dena,
potea hartu eta
emaidazu krema. (bis)

Iturriaga Gustora hurbilduko
natzaizu ondora,
halako egoerarik
ezin dut gogora.
Ez pentsa lotsa etorri
behar zaidanik gora,
ea hemen zeinek duen
halako iloba! (bis)

Sarriegi Begiztatu dituzu
titi punten ertzak,
berritzeko lehengo
zaharren ametsak,
baina gaizki pentsatu
ez dezan jendetzak,
gutxinez jantzi itzazu
antiaju beltzak! (bis)

Iturriaga Jendeak jakin beza
ez zaudela gizen,
neureak dituzula
behintzat bi abizen.
Jendea tapatzen zan
gehiau treintaiseisen,
baina hori egia esanda
oso aspaldi zen. (bis)

Sarriegi Orain artean nahiz ta
ni nauzun lausenga,
molestatzen nauzula
garbi ikusten da.
Segi pixka bat hara,
hartu nere prenda,
bestela surfistarik
ez da etortzen-da! (bis)

A. Lopategi-U. Agirre

Gaia: Zu, Aritz, hamar urteko mutikoa zara, eta Unai ama. Gaur eguerdian, amak bazkaltzeko bainak jarri dizkizu. Ez dituzu jan. Afaltzeko, eguerdian jan ez dituzunak atera dizkizu berriro. Launa bertso, zortziko txikian, Aritz hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Kantatzera nioa

A. Lopategi Bainak eguerdirako
platera beteta
ta gauerako ere bai,
niretzat gordeta.
Hara zergatik nagon
amatxo erreta:
niretzat beti bainak
ta aitari txuleta. (bis)

U. Agirre Aitak gogor lanari
nola ohi dion ekin,
ezin det konparatu
nik hura zurekin.
Orain jango dituzu,
ondo dakit jakin,
edo bihar goizian
kafesnearekin. (bis)

A. Lopategi Amatxo, badaukazu
nahikoa jenio,
ta jan beharko ditut,
zer erremedio!
Baina ez nauzu elikatzen
zuk oso serio;
Unaik bere haurrari
pizza ekartzen dio!¹³ (bis)

U. Agirre Unaiek eiten duna
nik ez det jasango,
hori ona danikan
ez dizut esango;
gainera gehio pagaik
ez dezu izango,
ta ez dezu kalean
txutxeririk jango! (bis)

¹³ Unai Iturriagak eta Igor Elortzak hamarreko handian egindako saioan esana hartzen du kontuan.

A. Lopategi Baina ta aza jaten
ekin eta ekin;
garbantzuz zein lentejak
ere bardin-bardin.
Noiz jarriko didazun
nahiko nuke jakin,
hanburgesa patata
frijidu batzukin? (bis)

U. Agirre Ume zahar honek sortu
dit mila endredo!
Hanburgesa, patatak
orain bero-bero,
seitun ateratzerik
ez zazu espero,
baina izango dituzu
bainak jan ta gero. (bis)

A. Lopategi Aguantatu behar
zure azterketa
eta hementxe nago
bainakin beteta.
Nola ez dizut egingo
hainbat berriketa,
ikastolan be hobeto
jaten dugu-eta! (bis)

U. Agirre Ikastolan ez dute
inoiz jaten bapo,
txerrikeria pranko
ta ez daude plako.
Honekin errietan
segitu beharko;
alkatxofa patatak
dauzkagu biharko. (bis)

Iturriaga

Gaia: Interneten nabigatzen ari zarela, haur pornografia duen orri batean sartu zara uste gabe. Konta itzazu zure burutazioak hiru bertsoetan.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Munduan libre bizirik izatea

Internet ei da gauza guztien
sorleku ta iturria,
nahiz ta jenteak pentsatzen duen
dala etorbide urria.
Nire bidaian eman didate
hortxe ongietorria.
Hain da gauza bihurria!
Nork du horren egarria?
Alperrik esan genezake gaur
dela ikaragarria,
azken batean ematen digu
gizartearen neurria. (bis)

Nik onartzen dut: Internetean
nauzue tipo nobela,
ez dut onartzen egun osoan
hortik dabilen tropela,
baina hara ze webgunetan gaur
etena zaidan kordela!
Pentsatzen nuen bezela,
iruditzen zait ustela,
zabarkeria lotsagarria
ta negozio itzela;
okerrena da norbait honekin
aberasten ari dela! (bis)

Egunen baten esan beharko da:
“gauza hauetaz aski da!”,
horrela hasi ezkerro nola
joan leiken urrutira.
Artikuluak ta esamesak
badaude honen harira.
Neri sortzen dit gupida,
norbait baidabil hor di-da!
Hor dabiltzanak bidali behar
genituzke deserrira,
eta laguntza eman behar zaie
gaixoak baldin badira. (bis)

Sarriegi

Gaia: Zu, Aitor, etxeoandrea zara. Gaur, Euskal Herri osoan greba eguna da. Lantokietan ez da lanik egin, baina etxean zortzi lagun dituzu bazkaltzeko orduan.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Beti lanean, beti ondradu,
urteetan hala jardun gera gu,
ta hala ere esperantzarik
ez degu sekula galdu. (bis)
Guztiak libre ni salbu,
honek zentzurik ba al du?
Pakerik ez da azaldu.
Gauza bakarra galdetzen det nik
ta noski zentzurik badu:
etxeoandreok zer ote garen
langile ala esklabu. (bis)

Gure aitonen, gure senarren
osaba-izeba ta gure haurren
lanak guretzat izaten dira,
ez jai ta ez urteurren! (bis)
Larri det kanpo ta barren,
ta denean nabil herren,
baina hori ez da txarren;
pixkat pentsatzen haste hutsak gaur
hara zertara nakarren:
esker onik ez dela jasotzen
beraiantzat bizi arren. (bis)

Gogorra baita gure jarduna,
sofan etzanda bizilaguna,
ta gero guk geuk egiten degu
nolako estuasuna! (bis)
Oraina daukat iluna,
berdintsu etorkizuna,
nondik jaso maitasuna?
Betikoa da baina halere
iritsiko da eguna
etxeoandreok gure iraultza
egin beharko duguna. (bis)

Mendiluze

Gaia: Erabat maiteminduta zaude neska bategaz. Badakizu droga arazo larriak dituela berak. Ezin duzu burutik kendu.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Sudurzulotik sator-zulora,
hilkutxa, meza, malko ta lora;
laburtuz zoaz horretarako
geratzen zaizun denbora. (bis)
Behin lortu zenuen droga,
egin zenuen aproba,
eta orduan gustora;
baina konforme ez eta hortan
jarraitu dezu gerora;
arrisku hori merezi badu
oso ona izango da. (bis)

Guraso jator batzun alaba,
daude ez irri ta ez algara,
gogorregia egiten ari
baitzaie azken bolada. (bis)
Ta inor kezkatzen bada,
berandu omen da jada;
betiko aitzakia, hara!
Saiatu egin omen zera ta
ezin omen duzu laga;
maite zaituzten guztien mina
baino gehiago al da ba? (bis)

Jada ez zaude zeure onean,
pozoia dezu zainen barnean
ta sinistu nahi ez duzun arren,
hilko zaitu azkenean. (bis)
Gainditu behar denean,
saiatu gogor lanean
lagun denen izenean;
eta ez zazu beldurrik izan
larritzen zeran unean,
zure ondoan egongo bainaiz
hala behar nauzunean. (bis)

I. Elortza-Sarriegi

Kartzelako lana: binaka gaia emanda

Gaia: Orain dela hilabete ezkondu zineten bikotea zarete. Zuk, Igor, emazteak, ezkondu aurreko koadrilarekin ateratzen jarraitu nahi duzu. Aitor senarrak jada sasoi hori pasa dela dio. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Igor hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Lagundurikan denoi I

I. *Elortza* Kejak eta ujuak,
nik ez dakit zenbat!
Behin ostirala heltzen
denean batipat,
afaldu ta irtetzen
bainaiz etxetik at.
Lagunekin joateko
eskubidea daukat;
batera bizi gara,
baina ez gara bat.

Sarriegi Zure hitz hoiek dira
neretzako burla,
ikusirik koadrila
beti zai duzula;
lasai geratu zera
ta bejondeizula!
Denbora behar dugu
ta ez disimula,
edo pentsatuko dut
maite ez nauzula.

I. *Elortza* Haundiegia bota
duzu oraingoan,
gure maitasun hori
ez dago jokoan.
Kalera noa, nire
koadrila dago han;
arnas eta atsegin
hartzen dut kanpoan;
gehiago maite zaitut
itzultzerakoan.

Sarriegi Itzultzean ni maite,
ez da hain arraro;
barka, baina zurekin
ezkonduta nago,
horregatik jotzen det
normaltzat zeharo.
Lagunak maitatzea
oso ondo dago,
baina maite dituzu
ni baino gehiago.

I. Elortza Hori ez da egia,
ez naiz joaten usu,
etorri eta eman
mesedez bi muxu.
Zure iritzi hoiek
kalteko dituzu;
barka senarra, baina
zeurekoi zara zu;
ez nauzu nahi zurekin,
zuretzat nahi nauzu.

Sarriegi Muxua eskatzeko
ez zaude isila,
zuk horrela konpontzen
duzu katramila.
Zuretzako kalea,
zuretzat koadrila,
ta ni ez baldin banaiz
nahi duzun mutila,
hasi beharko dezu
beste baten bila.

U. Agirre-Iturriaga

Kartzelako lana: binaka gaia emanda

Gaia: Orain dela hilabete ezkondu zineten bikotea zarete. Zuk, Unai Agirre, emazteak, ezkondu aurreko koadrilarekin ateratzen jarraitu nahi duzu. Unai Iturriaga senarrak jada sasoi hori pasa dela dio. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Unai Agirre hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Espainian behera

U. Agirre Amodio bakarra
ez dago bizitzan,
bainan Unai zurekin
ni txoratu nintzan.
Ezkondu ta hor gabiltz
zu ta ni peskisan,
bainan jarraitu nahi det
gaur arteko gisan;
nik bizi egin nahi det,
nahiz ezkondua izan. (bis)

Iturriaga Koadrila utzi zazu
bebingoan pakean,
galbidera lerratu
zaitezke berriz han.
Zerorrek esan zendun
eliza batean,
nigandik ez zinela
joango apartean,
heriotzak banatzen
ez gaitun artean. (bis)

U. Agirre Hura paripe hutsa
izaten da, aizu,
elizakoai ezin
zaio egin kasu.
Ni koadrilara joanda
parranda jo ta su!
Ezkondu ezkeroztik
aldatu zera zu,
Sarriegi bezela
esklabo nahi nauzu.¹⁴ (bis)

¹⁴ Aitor Sarriegiren bakarkako bertsoaldiari egiten dio aipamena.

Iturriaga Ez zait asko gustatu
zure adibidea.
Bide okerretara
doa adiskidea.
Zertarako behar duzu
kanpoko airea?
Ni zurea naizela,
hori da idea,
eta garbi esanda:
zu zara nirea. (bis)

U. Agirre Azkena esan dezuna
ez nezake ahantzi,
askatasunak badu
hamaika garrantzi!
Hori dela-ta egingo
dizkizut gaur hitz bi,
nahiz ta ez nazun hemen
juzga behar gaizki,
tori eskua baina
hankak libre utzi. (bis)

Iturriaga Ez al duzu gustoko
egin gendun proba?
Senarra izatea
ez al duzu hoba?
Damutu ez zaitez
emazte gerora,
alu-bero hoiekin
ez zoaz inora...
Hankak dauden lekuan
senarra egongo da. (bis)

Sarriegi

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko bandia

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Eskerrik asko, zuen txaloak
gordeko ditut kolkoan,
noizbait berriro ere entzungai
izango direlakoan.
Baina uste det ni etxekalte
jardun naizela gurkoan,
nahiz ta bakarka etxekoandreak
sartu nere poltsikoan,
lan gehixeago egin beharko det
etxera joandakoan. (bis)

AZPEITIA

2001-11-24, larunbata, 18:00etan
Izarraitz udal pilotalekuan
Finalaurreak: lehen itzuliko azken ekitaldia

Bertsolariak:

Jon Maia
Mikel Mendizabal
Sustrai Colina
Fredri Paia
Arkaitz Goikoetxea
Oihane Enbeita

Gai-emailea: Saroi Jauregi

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

Argazkiak: JON MAIA
MIKEL MENDIZABAL

Azpeitia! Joan den mendean Gipuzkoako, eta Euskal Herriko, bertsolari harrobi emankorrenetakoa izan zena, emankorrena ez esatearren: "Txapel", "Zepai", Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Anjel Larrañaga, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso, "Euskitze"... Bertsolari handiak guztiak ere: Euskal Herriko txapela jantzi dutenak, janzteko zorian izan direnak, eta txapelketak saihestu arren beren garaiko erreferentzia izan direnak. Denetik dago Azpeitiko bertsolarien artean. Baina, nola diren kontuak, aurtengo Txapelketa honetan ez da azpeitiarririk aritu. Sebastian Lizasok zuen parte hartzeko aukera, finalerako txartela zuen, baina uko egin zion.

Halere gogoz hartu du Azpeitiak finalaurreetako lehen itzuliko azken saio hau antolatzeko aukera. Udalak Izarraitz pilotalekua prestatu du, eta Erniarraitz Elkartekoen laguntzaz zaindu ahal izan dira detaile guztiak. Markinakoa bezala, pilotaleku bikaina da honelako ekitaldiak antolatzeko: eroso, garbia, argia, entzumen ona eskaintzen duena... On-ona.

Hamabi bertsolariren lanaz gozatzeko parada izan genuen aurreko aste-buruan. Gaur, beste seiak sartzen dira fase honetako jokoan: Mikel Mendizabal eta Jon Maia 1997ko finalistak, gipuzkoarrak biak, eta Fredi Paia eta Oihane Enbeita bizkaitarrak, Arkaitz Goikoetxea gipuzkoarra eta Sustrai Colina lapurtarra.

Frontoi handia da Izarraitz, eta jende asko behar da beteko bada. Markinakoa ikusi eta gero, espero zitekeena baino jende gutxiago etorri da. Itxura polita eman diote, hala ere, inguratu diren 900 lagunek. Seietarako gertu dago dena, bertsolariak bertan, entzuleak ere bai, eta puntuak-puntuak ekin ahal izan zaio saioari.

Aurreikusitako bezala burutu da saioa. Mendizabali, Txapelketa honetako aitonari, egokitu zaio hasiera ematea. Maia dauka aldamenen. Ondo dakite biek elkarren berri: bertso-eskoletako landan erretako bertsolaria da Jon, landa hori maitekiro lantzen aritu eta ari direnetakoa Mikel. Hala aitortu dio gero, amaieran, Maiak. Une hunkigarria izan da. Polita.

Ustekabean "mamu" koadrila bat igo da oholtzara. Zerbait salatzeraz datoz, antza, eta batek mikrofonoa hartu du. Hasi da bertsoa botatzen, ahaztu zaio, bera larri jarri da eta guri lasaitzeko eskatu digu. Egitekoak egin ditu nolabait, eta desagertu egin dira berriro.

Jarraitu ahal izan duenean, puntuazioak¹⁵ jaulki ditu Saroi Jauregik: Maia izan da puntuatuena eta Colinak Legazpian egindako inpresio ona berretsi du. Lehen itzuli hau amaituta, hauek dira finalean sartzeko postuetan geratu diren zazpiak: Lujanbio (757,5), Iturriaga (756), Irazu (739,5), Maia (739,5), Elortza (739,5), Mendiluze (731,5) eta Arzallus (730).

¹⁵ J.Maia: 739,5; S.Colina: 728,5, A.Goikoetxea: 722,5; F.Paia: 689; M.Mendizabal: 684; O.Enbeita: 653

Mendizabal

Hasierako agurra

Neurria: Sei puntuko motza

Doinua: Izarraitz izenarekin

Izarraitz izenarekin
kantari nahi nuke ekin,
bada mendi bat, bada frontoi bat
izen berarekin.
Egiten dizuegu zin
jokatuko degula fin,
pelotaleku eder haur malkar
bilaka ez dadin. (bis)

Maia-Colina

Gaia: Zu, Jon, erietxean zaude Sustrai zure aita zaintzen. Medikuek jakinarazi dizute egun gutxi geratzen zaizkiola Sustrai aitari. Gelan sartu eta aitak galdetu dizu: “Zer daukat seme?” Hiruna bertso, hamarreko handian, Jon hasita.

Neurria: 10eko handia

Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Maia Pentsatzen nuen hau jasateko
ez ote zinen kapaza,
gaixotasun hau eramatea
nola ez den gauza erraza.
Heriotzaren mugetan dabil
bizitza baten jolasa.
Baina ai, aita, ez zazu pentsa
bihar zer litekeen pasa;
bi gauza eder dauzkazu orain:
seme bat eta arnasa. (bis)

Colina Baina arnasa soilik hartzea
ez ote da miseria?
Nik parez pare ez ote dauzkat
majina bat komeria?
Zuri-zuriak daude izarak,
zuri-zuri aurpegia,
kopetan behera brausta ta brausta
izozturik izerdia...
Azken bisita al da gaurkoa?
Esan zaidazu egia. (bis)

Maia Azken bisita ez da izango,
oraindik ez da iritsi.
Medikuetan egon daitezke
ez dakit zenbat iritzi.
Animo hori altxa ezazu
eta ez beheraino jetsi;
suspirioa badezu ere,
bizitzari gogor eutsi,
bera bakarrik joan daiteke-ta
ihesi joaten ez utzi! (bis)

Colina Baina ihesi joaten uzteko
ba ote naiz hortako gai?
Kopeta-makur gabilta denok
lehen genbiltzanak hain alai,
mediku denak aztoratuta
ta familia ez lasai.
Semea hona etorri zara,
baina herio ere bai,
ta erdi hilda bizitzekotan
ez dut gehiago bizi nahi. (bis)

Maia Orain artean bizitza hori
joan zaizu nahiko ñabar,
mila sintoma izan dituzu,
emorragiak etabar.
Sufritu asko sufritu dezu,
esango det bidenabar,
baina halare eutsi zaiozu,
ez zera joango hain azkar;
erdi bizirik zaude oraindik,
nik ez dut egingo negar. (bis)

Colina Alde galanta ez ote dago
minetikan negarrera?
Aitortu zazu nere egoerak
egin duela txarrera.
Atarramentu onik ez dago
une hontatik aurrera;
agur banoa, agur banoa,
mesede edo kaltera;
testamentua hor uzten dizut
maitasunakin batera. (bis)

A. Goikoetxea-O. Enbeita

Gaia: Zuk, Arkaitz, lanbidez adinekoak zaintzen dituzu. Azkenaldi honetan, Oihane zaintzen ari zara. Gaur, Oihanek zurekin maitemindu dela esan dizu. Hiruna bertso, hamarreko handian, Arkaitz hasita.

Neurria: 10eko bandia

Doinua: Aita izena kanta beharrak

A. Goikoetxea Amona hauxe egina nuen
aspaldiko ezaguna,
zaintzaren zaintzaz bilakatu zait
oso gertuko laguna.
Gaur pasioa, bihar ere bai,
eta ondoren jarduna.
Nere gainera ez zazu bota
holako pisu astuna...
Nik ere asko maitatzen zaitut,
baina zer da maitasuna? (bis)

O. Enbeita Lehen beldurra ta kezka bakarrik,
adina bainuen etsai,
ta orain berriz heriotzari
aurrez begiratzeko gai.
Maitasuna da lore ximel bat
bihurtzen denean ernai.
Pasioetan zurekin nabil
pasioak sortuz alai;
nire bihotza gaztetu duzu,
maitasuna bera ere bai. (bis)

A. Goikoetxea Zure esanak ikuspegi bat
bota lezake gainbehera,
pentsatzen nago nere barruan:
“baina posible ote da?”.
Nola arraio egina duzu
nere aldeko aukera?
Nahiz eta jakin adinak adin
jo litekeela aurrera,
bide berean elkartu arren,
ez goaz leku berera. (bis)

O. Enbeita Dirudienez zure bidean
nirea ez da kabitzen,
dirudienez bihotzak ez du
askatasunez sentitzen.
Lasaitu zaitez pendejo hori,
ni ez bainabil erotzen;
badakit, nire kontua ez da
inoiz erreal bihurtzen,
baina ilusio hauek sortzea,
besterik ez zait gelditzen! (bis)

A. Goikoetxea Ilusioai eutsi zaiozu,
hori ez baita bekatu;
neri begira jar zaite eta
inoiz ere ez nekatu.
Egoerari aurre egiteko
beharko dugu prestatu;
maita nazazu nahi duzun aina,
ez duzu zertan kezkatu;
zuk ni bezala maita zaitzadan,
hori ez zaidazu eskatu. (bis)

O. Enbeita Maite nauzula esan didazu
ta ai ama, ez da gutxi!
Orain artean sentipen hori
inork ez dit erakutsi.
Zenbat alditan zabaldu naizen
ta gero kolpera itxi!
Bizitza on bat opa dizut nik,
bizitzari gogor eutsi;
zahartzarora ez zaitzela
bakardadean iritsi. (bis)

Colina-A. Goikoetxea

Gaia: Ama-alabak zarete. Sustrai alabaren ibilerak direla eta, Arkaitz ama kezkatuta dago. Asteburuetan, ohi bezala, dantzalekurako prestatzen ari zarela, Arkaitz amak esan dizu berak ere dantzalekura joan nahi duela zurekin. Launa bertso, zortziko txikian, Sustrai hasita.

Neurria: 8ko txikian

Doimua: Kantatzera nijo

Colina Haunditzen juana naiz
urteetan zehar,
bakarrik ibiltzeko
badut nahiko indar.
Gera zaite etxean
ta ez egin negar;
barkatu, baina ez dut
bizkarzainik behar. (bis)

A. Goikoetxea Alaba apaintzen da,
gainera nabarmen;
zeozer arraroa
pasatzen da hemen.
Gainera aztoratu
hau esan ondoren:
zuk ze behar daukazun
nik dakit ondoen! (bis)

Colina Hori horrela denik
zergatik izkuta?
Hementxe utzi nauzu
barrena histuta,
baina etxean hobe,
ez nezake uka,
zuk gure aita zaintzen
nahiko lan duzu-ta! (bis)

A. Goikoetxea Aita dela-ta ez egin
alaba marmarrik,
hura geratuko da
etxean bakarrik.
Gauetan ez baduzu
egiten deus txarrik,
amagatik ez duzu
beldurtu beharrik. (bis)

- Colina* Ez dut oso gustoko
zure enkantua,
ta adarra jotzeko
ez da momentua.
Parrandan izaten da
atarramentua;
ez naiz txintxo ibiltzen,
hori da kontua! (bis)
- A. Goikoetxea* Horrelako zeozer
baneukan gogoan,
horregatikan nahi du
bakarrikan joan.
Txintxo ez bada ibiltzen
ateratakoan,
ibili beharko du
amaren ondoan! (bis)
- Colina* Ama potxola honek
nun dauka zentzuna?
Bere arrazoi hori
askotan entzuna.
“Egon zaite etxean”
nere erantzuna,
ta kontatuko dizut
entzun nahi duzuna. (bis)
- A. Goikoetxea* Alabak ez du horren
gauz gutxi ikasi,
badaki nora joan
eta nondik hasi.
Eztabaidak ez digu
gehiago merezi;
nahi duzu baina ez zera
juango ihesi! (bis)

Mendizabal

Gaia: Ezkondua zara. Lana dela-eta astebete daramazu etxetik kanpo. Hoteleko tabernan, goizaldeko ordu txikietan, emakume bat keinuka ari zaizu alboko mahaitik. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Atmosferatik atera eta

Astebete bat lan kontuekin
etxetik kanpora irten,
saiatu nintzan familiari
neure laztanak ematen.
Afaldu eta bakardadean
nagoela hotel baten,
tentazioen ekarpen,
zu nola azaldu zeraden,
une honetan uste dudana
hasi behar naiz esaten:
etxetik kanpo ez da erreza
egizko gizon izaten. (bis)

Nere kontuak esan ohi ditut
behar bezela etxean,
ta gustatzen zait leialtasuna
izatea nere ertzean.
Emakume bat pretensiokin
gaur hor nereganatzean,
kezka daukat bihotzean
ta zalantza gorputzean;
aurreraegi ez det juan nahi,
momentuz nago atzean,
damutasunak ez nazan erre
biharamuna heltzean. (bis)

Pixkabanaka neskatxa horri
hemen hurbildu natzaio,
ta hasi gera biok hizketan
eta kontuak jario.
Trago batera gonbidatu det
hemen, zer erremedio!
Hainbat saltsa eta lio
gauza hau dela medio.
Ordu pare bat hizketan jardun
gerade biok serio;
“konpaini ona egin didazu,
mila esker ta adio”. (bis)

Maia

Gaia: Egunero bezala, ipuina kontatu eta lotaratu duzu zure haurra. Telebistaren aurrean eseri eta hauxe entzun duzu: “Hiru orduz egon zen guraso bat bere haurra saldu nahirik azokan”. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

Umeai halako baten
makurtu zaio lepoa,
aurpegi ederra dauka
lasaia eta bapoa.
Benetan ipuin luzea
atera zaigu gaurkoa,
baina pozik egiten det
eguneroko jokoa.
Telebista piztu det ta
honekin ez da nahikoa,
albiste hori entzun dut
ta erori zait malkoa,
baina ezin dut sinistu
oraintxe entzundakoa,
hori bai dela ipuin bat,
baina lo ez egitekoa!

Albisteetatik datoz
izugarrizko bildumak,
ze gauza jasotzen ditun
kazetariaren lumak!
Ia ez ditut sinisten
telebistatik entzunak,
azokan umeak saltzen,
hoiek bai kontu ilunak!
Horrelakoen aurrean
sobran daude erantzunak,
hainbeste guraso dira
gaiztoak bezain lizunak;
ez zaizkigu ahaztu behar
era hontako jardunak,
helduen miserietan
haurrak ez dira errudunak.

Horrelakoetan gaizki
sentitu ohi da norbera,
hori nola ez den inoiz
inor tratatzeko era.
Ume txikiak ze erru
izan dezake gainera?
Guraso hori izana
txikitxoaren kaltera.
Zoramenean dijoa
mundu txar honen karrera.
Ume bat saldu nahirikan
bete nahi zuen kartera.
Sofatik jaiki naiz eta
egongelatik atera;
banoa nere umeai
musutxo bat ematera.

A. Goikoetxea

Kartzelako lana: gai baten inguruan puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Xarmangarria zera I

S. Jauregi

*Abaztu ote zaiugu
barre egitea?*

A. Goikoetxea

Komeni da lehenbailehen
horri ekitea;
nahiz ezinezkoa den
zorion betea,
oso da garrantzitsu
hori jakitea.

S. Jauregi

*Irrifarraren ordeztu
aurpegi iluna,*

A. Goikoetxea

horixe da bizitzak
ekarri diguna,
baina iritsiko da
noizpait'e eguna,
guztiok irri lasai
egingo duguna.

S. Jauregi *Sarri ikusten zaitut*
A. Goikoetxea *serio-serio,*
halakua naiz eta
ze erremedio!
Hori ez dut egiten
halare propio,
hemen irri zuriak
ez digu balio.

A. Goikoetxea-F. Paia

Kartzelako lana: binaka gaia emanda

Gaia: Bi senide zarete. Gurasoengandik herentzian etxe zoragarria jaso zenuten. Azkenaldian, diru arazo larriak dituzuela eta, zuk, Arkaitz, etxea saldu nahi duzu. Fredik inola ere ez. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Arkaitz hasita.

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Hamalau beriotzena

A. Goikoetxea: Ia erori gera
gu biok gainbehera,
nolabait behar dugu
jarraitu aurrera.
Etxea hemen dugu
hortako aukera,
sal dezagun guzia
lurrekin batera,
edo ez al duzu nahi
hontatik atera?

F. Paia Dirua lortu gura
zenuke zuk errez,
arbasoen lotura
suarekin errez.
Aita zeruan dago
begira negarrez;
hemen geldituko naiz,
egin zazu ihes;
zure arima saldu,
baina aitarena ez.

- A. Goikoetxea* Anaia beti legez
dabil egurrean,
nunbait bere arima
galdu beldurrean.
Nik badut konfiantza
dugun apurrean.
Aita ta ama ez daude
anaia, hurrean;
guk segi behar dugu
bizitzen lurrean.
- F. Paia* Nahastu nahi zenituzke
aurre ta atzeak,
horretzek sortzen dizkit
barruan trantzeak.
Zutik iraun behar du
aitaren etxeak.
Lotsa ez al dizu ematen
etxe hau saltzeak?
Niri lotsa ematen dit
anaia deitzeak.
- A. Goikoetxea* Zure jardun horrekin
ari naiz nekatzen,
gure etorkizunaz
ez zera kezkatzen.
Deus txarrik anai maite
ez dizut eskatzen,
hemen oso errez da
besteez lotsatzen,
halare lotsak ez du
zorrikan pagatzen.
- F. Paia* Zure begiak adi
zure karterara,
itzelak esateko
zelako patxada!
Etxea ez da salduko
nahi duzun erara,
dirua behar baduzu
joan fabrikara;
etxeak ez du errurik
alperra bazara.

Colina-O. Enbeita

Kartzelako lana: binaka gaia emanda

Gaia: Bi senide zarete. Gurasoengandik herentzian etxe zoragarria jaso zenuten. Azkenaldian, diru arazo larriak dituzuela eta, zuk, Sustrai, etxea saldu nahi duzu. Oihanek inola ere ez. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Sustrai hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Lagundurikan denoi I

Colina Hau saldu behar dugu,
ez nago zure zai;
nahiz heriotza izan
gaur gu bion etsai,
hemen jarraitzen dugu
ekin eta jarrai;
etxia salduko dut,
saldu behar dut bai!
Gurasoak hil ziren,
nik ez nuke hil nahi.

O. Enbeita Anai-arrebak ginen
ta orain muturka,
printzipioak galdu
etxea galduta.
Erabakia nahiz ta
daukazun hartuta,
zure bihotz txikiak
beldurtuta nauka,
gurasoak saltzeak
etxea salduta.

Colina Bizitzak heriotza
dunez ondorio,
hementxe jarri gara
serio-serio.
Nahiz eta ez daukagun
nahiko bozkario,
saldu beharra dago,
ze erremedio,
ia negar egiteak
ez baitu balio!

O. Enbeita Malkoa alperrik da
zuk esan duzunez,
nahiz ta irribarrea
ez daukagun errez.
Etxea saldu nahia
utz zazu mesedez,
gurasoak gogoan
betiko izanez,
eurek altxatu zuten
ta guk zergatik ez?

Colina Gauza onik ez dago
lagunan hotsean,
dardarra somatzen dut
zure ahotsean.
Saldu beharra dago
azkar hotz-hotzean,
ta aurretik pasatzen
garen bakoitzean,
biak egongo dira
gure bihotzean.

O. Enbeita Zure bihotz barnean
daudela, bai zera!
Zergatik joan zara
ai, neba, atzera?
Horrela lur jotzea
posible ote da?
Maiteko bazenitu
neronen antzera!
Ez bota teilatua
hilkutxen gainera.

Maia

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Gogoratuko zera

Aipamen bat egin nahi
nuke apal-apal:
txapelketako aitona
ez da jardun makal;
bertsolari izan nahi
genuenon magal,
Gipuzkoan lanean
beti eskuzabal;
bertsolari izan nahi
genuenon magal,
tori omenalditxo hau
Mikel Mendizabal.

HENDAIA

2001-11-25, igandea, 16:30etan

Beltzenia udal pilotalekuan

Finalaurreak: bigarren itzuliko lehen ekitaldia

Bertsolariak:

Aritz Lopategi

Maialen Lujanbio

Amets Arzallus

Jokin Sorozabal

Aitor Sarriegi

Unai Agirre

Gai-emailea: Mikel Taberna

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

Argazkia: TALDEKOA

Ez dugu atsedunik. Atzo amaitu zen fase honetako lehen itzulia, eta gaur ekiten zaio bigarrenari. Maialen Lujanbio eta Aritz Lopategi 97ko finalistak, eta Unai Agirre, Amets Arzallus, Jokin Sorozabal eta Aitor Sarriegik osatzen dute gaurko lehiakide taldea. Bigarren itzulirako aldatu egin dira taldeak. Arzallus hendaiarrak, etxean jokatzeko du. Bera da, oraingoz, Lujanbiorekin batera finalerako postuetan dagoenetakoa. Sarriegik eta Lopategik ere badituzte beren aukerak. Urrunago daukate Agirre eta Sorozabalek.

Txapelketa Nagusiko ohiko plaza bilakatu da Hendaia. 1989tik hona antolatu diren guztietan jaso du saioaren bat. Gogoz hartu du beti proposamena bertako Herriko Etxeak, eta aurten ere bai. Orain artekoetan final-laurdenetako bat beti; aurten, berriz, finalurrekoetako bat: bigarren itzuliko lehenengoa.

Herriko Etxe edo Udalen parte-hartzea ezinbestekoa da txapelketaren antolakuntzan. Beren gain joaten da lekuan lekuko aretoa eta honen oinarritzko azpiegiturak prestatzea (oholtza, aulkiak, epaile eta hedabideetako kideentzat mahaiak...), eta diru-laguntza ematen dute antolakuntzako hainbat gasturi aurre egiteko: megafonia, argiak, hornidurak, publizitatea... Donibane Garazik izan ezik, txapelketa hau igaro den herri guztiek eskaini dute lankidetzaz hori, eta eskertzekoa da.

Lauak eta erdietan finkatu da haste orena. Iparraldean gaude eta hemengo ohituretara egokitu nahi izan da. Baina jende gehiena hegoaldeetik dator, azken orduan, presaka... Jendea sartzen ari delako, bost minutu gehiago itxaron behar izan dute bertsolariek eta gai-emaileak oholtzara igotzeko. 900 lagun inguru dituzte aurrean.

Saioa arazorik gabe doa. Zaleak gozatzen ari dira, eta errez jotzen dute txalo. Zurrumurrua piztu da entzuleen artean kartzelako lanean Maialeni "mutil beltzaran batez maitemindu zara" bota dionean gai-emaileak. Kartzelako gaia zen hori, eta aurrez jardun diren guztiei "neska beltzaran batez" maitemindu zirela esana zien. Baina laster itzali da.

Beti bezala, puntuazioak¹⁶ entzuteko txanda heldu da saioaren hondarrean. Lujanbio nabarmendu da gaur ere, koska dexentea atera die gainerakoei, eta finaleko aulki bat beretzat da, ziur. Aurreikuspenak egiten aritzen direnentzat Arzallus da aukerekin geratu den bestea, baina ikusi egin behar. Bigarren itzuli honetan bertso bat gehiago kantatu behar dute bertsolariek; hala agintzen du antolakuntzak ezarritako langintzak¹⁷. Beraz, ez digute balio lehen itzuliko puntu erreferentziek.

¹⁶ M.Lujanbio: 814; A.Arzallus: 758,5; A.Lopategi: 733,5; J.Sorozabal: 733,5; A.Sarriegi: 726,5; A.Agirre: 694,5

¹⁷ Ikusi eranskina: Txapelketaren antolaketaz eta egituraz, 6. puntua: Eginiko lanak.

Sarriegi-Lujanbio

Gaia: Ama-semeak zarete. Aitor, Maialen zure ama, alarguna, zu eta zure emaztearen etxean bizi da. Zuen bizimodua ez baitu onartzen, zaharretxera joatea erabaki duela erran dizu. Hiruna bertso, zortziko handian, Aitor hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Sarriegi Zu betidanik izanagatik
zure bizitzaren jabe,
etxe berean bizi gara gaur,
egunero parez pare;
ta horregatik eskatzen dizut
ez zazula egin alde,
famili hau ez baita osoa
gure ondoan ez bazaude. (bis)

Lujanbio Bizpahiru urte aita hil zela
ta orain naiz alarguna.
Etxekoandre gisan daukazu
etxean ama kuttuna;
lurra nahi duzu dizdiratsua,
erropa dena txukuna...
Aitor maitea, horixe da zuk
nahi duzun osotasuna. (bis)

Sarriegi Nik onartzen det nere arropak
sarri dituzula pranta,
baina hitz eginda konpon liteke,
txorakeriak lagata.
Mundu hontako zure ibilera
betiko ere ez da-ta,
ez det nahi haurrek antzematerik
beren amonaren falta. (bis)

Lujanbio “Ez joateko, ez joateko”,
geratzea nahi zenduke;
haurren aurrean itxura eginez
badezu nahiko bertute.
Zure semea eta alaba
motzak diranik ez uste,
etxea hautsez betetakoan
ondo antzemango dute! (bis)

Sarriegi Zure iritziz atera nahian
nabil nahi aina etekin,
baina lehen ere esan dizut ta
ados ez nago horrekin.
Umeek bizi nahi dutelako
beraien amonarekin,
neskame bat har dezagun baina
gelditu zaitez gurekin. (bis)

Lujanbio Zure andreak eta zuk, biok,
horrenbeste buruhauste!
Beti lanean, beti lepo ta
etxea erdi biluzte.
Zure semeak eta alabak
neskame bat euren truke;
eurek ez dute neskamerik nahi,
gurasoak nahi dituzte. (bis)

U. Agirre-A. Arzallus

Gaia: Zu, Unai, autoan zoazela, erregairik gabe geratu zara bidean. Amets jendarmea etorri, depositua gasolinaz edo ezantzaz bete, eta isuna jarri dizu. Launa bertso, zortziko txikian, Unai hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Dama gazte xarmant bat

U. Agirre Egunero etxera
iristen naiz nekez,
presaka ta korrika
askotan aldrebes;
despiste txikitxo bat
normala da berez;
gasolina kobratu,
bainan isuna ez. (bis)

A. Arzallus Jendarmearen kontra
hor dator laguna,
lehendik ere bistaz
nuen ezaguna.
Gasolina ordaintzeko
erantzunkizuna...
gasolinan kostua,
hori da isuna. (bis)

- U. Agirre* Gerra kontu honekin
hainbeste endredo!
Isuna emana dit gaur
astun bero-bero,
gasolinan kontua
omen dala edo,
hainbeste igo zanik
ez nuan espero! (bis)
- A. Arzallus* Litro baten kostua
dugu zortzi franko,
holaxe dago eta
onartu beharko;
orduan kexak utzi
beste baterako,
taxia merkeago
ez zan aterako! (bis)
- U. Agirre* Nahiz jendarmeak egin
bere propaganda,
eundoko hankasartzea
nun egin dun, danba!
Nik sartu behar dizut
gaur zuri demanda.
Gasolina bota dit
diesela izanda! (bis)
- A. Arzallus* Kolpe hori izan da
ikaragarria,
gasolina behar ta
diesel jarria.
Beraz oraintxe duzu
zuk trantze larria:
isuna ordaintzeko
ta kotxe berria. (bis)
- U. Agirre* Kotxe izorratua
behar aparkatu,
hau ze apajo degun
orain konturatu!
Restopera joan eta
ondo begiratu,
gasolina bakarrik
zuk ez dezu hartu! (bis)

A. Arzallus Holako gidariek
zenbat enbarazu!
Zuk gasolinarekin
eman zazu kasu,
baina isunarekin
bazaude hain kexu,
koktelak botatzeko
erabili zazu. (bis)

Lujanbio-A. Arzallus

Puntuka

Gaia: Biak bizilagunak zarete, eta igogailuan egin duzue topo. Bide erdian igogailua trabatuta gelditu da. Puntuka, zortziko txikian, zortzi bertso osatu arte, Maialen hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Mendiko umea naiz

Lujanbio Eguraldi ona ez da,
hara ze pasada!

A. Arzallus Hemen gelditu gara
gu biak ilaran.

Lujanbio Ez ateratzeko're
hobe gaude jada!

A. Arzallus Nahio nun erabili
banu eskilara!

A. Arzallus Zurekin geldituta
nolako trantzea!

Lujanbio Suertea izan dezu
nekin tokatzea;

A. Arzallus aldi berean hurbil
ta urrun etxea,

Lujanbio: hemen gaude ez aurrea
eta ez atzea!

Lujanbio Ba al dezu indarrrik
hau irikitzeko?

A. Arzallus Baina ezin erabili
zaudela tarteko.

Lujanbio Txirriketun batetik
zaude kabitzeko,

A. Arzallus igurtzi behar dizkizut
iztar eta lepo.

A. Arzallus Behingoan ez al gera
horretan hasiko?

Lujanbio Hori proposamen bat
ote zan mutiko?

A. Arzallus Lasai, senarrak hemen
ez zaitu ikusiko,

Lujanbio eta nik aitzakirik
ez dizut jarriko.

Lujanbio Pentsatuta al dezu
Amets, nundik hasi?

A. Arzallus Nahi deten lekutik ta
zuk ez galerazi.

Lujanbio Bide erdian geratu
ta suertea kasi;

A. Arzallus orain beharko degu
guztia ikasi.

A. Arzallus Zu hortan ona zera
nere arabera,

Lujanbio ni ona omen naiz ba,
hori zer ote da?

A. Arzallus Beste hori gorantza
edo eta behera;

Lujanbio ze morboa daukazun
gaztetxo tankera.

Lujanbio Gainera etorri zera
txandar xahar batekin,

A. Arzallus barruan paketea
dadukat nerekin.

Lujanbio Hori kendu dezaket
nik bi behatzekin,

A. Arzallus kantzontziloak ere
badauzkat behinepin.

A. Arzallus Baina hori kenduta
ez dezu nahikoa,
Lujanbio luze jotzea hobe
gaur gure jokoa.
A. Arzallus Zuk ere zerbait egin,
alajangoikoa!
Lujanbio Gogoan eukiko det
gertatutakoa.

A. Lopategi-Soroazabal

Puntuka

Gaia: Biok ohatze berean egiten duzue lo. Sekulako itaxura edo itogina hasi da bat-batean zuen gainera, gelako sabaitik. Ez da giro ohean! Puntuka, zortziko txikian, zortzi bertso osatu arte, Aritz hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Lurralde dena dabil

A. Lopategi Itoginan azpian
daukagu ohea,
Soroazabal kanpoan bageneuka
ez al zen hobe?
A. Lopategi Jeiki eta ekarri
ezazu baldea,
Soroazabal mugitzeko ez nago
oso dotorea.

Soroazabal Ohea mugitzea
ez ote da hobe?
A. Lopategi Beraz mugi dezagun
zalantzarik gabe,
Soroazabal ura etor ez dedin
goitik parez pare,
A. Lopategi bestela hemen bustita
ez gaude dotore.

A. Lopategi Ohea mugitzeko
 bultzatu ezazu,
Soroꝯabal baina hortako gainetik
 jetsi beharko dezu.
A. Lopategi Ni jetsi gabe ere
 mugi dezakezu,
Soroꝯabal nere aldean pisu
 haundia daukazu.

Soroꝯabal Ta behin jeki ezkerro
 baldea ekarri,
A. Lopategi ez gara baina egongo
 lagun horren larri?
Soroꝯabal Sukaldean han dago
 eta Aritz korri;
A. Lopategi ez naiz ni ibiliko
 horren parregarri.

A. Lopategi Ohea mugituta
 baldea zertako?
Soroꝯabal Urak beti putzua
 eiten duelako.
A. Lopategi Bestela be badugu
 guk putzua nahiko!
Soroꝯabal Lanik ez det utzi nahi
 fregonarentzako.

Soroꝯabal: Pisu merkea nola
 genuen erosi,
A. Lopategi orain ganoraz ere
 ezin gara bizi.
Soroꝯabal Komodidade asko
 guk ezin ikusi,
A. Lopategi hurrengo baterako
 begiratzen hasi.

A. Lopategi Baldea ekartzeko
 abilidadea,
Soroꝯabal hartu beharra dago
 harunzko bidea.
A. Lopategi Hortarako zeu zara
 ni baino hobea,
Soroꝯabal ipurdia bustita
 dadukat ordea.

Soroꝯabal Leihoan jarri beharko
 pijama legortzen,
A. Lopategi horixe egiterik
 nik ez dut pentsatzen.
Soroꝯabal Hemen beste aukerik
 ez zaigu etortzen,
A. Lopategi geure pisu honetan
 ez dugu asmatzen.

KARTZELAKO LANA

Gaia: Zure ustez hagitz guraso aurrerakoiak eta jatorrak zenituen. Poz-pozik erran diezu neska beltzaran batez maitemindu zarela. Gurasoen aurpegiak erabat aldatu dira berri hori eman diezunean. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

A Arzallus

Neurria: 10eko bandia

Doinua: Zure eskaerak egia esan

Ama hasi da negar malkotan
ta aita berriz eztulka,
lehen geneuzkan harreman denak
gelditu dira nahastuta.
Neska beltzaran bat ekarri dut
ustez asko gustatuta,
eta maitatzen segi behar dut
aurreiritziak ahaztuta,
sentitzen dudan maitasun horrek
kolorerikan ez du-ta! (bis)

Zoritxarrean entzun orduko
nere aitaren ahotsa,
nik sentitu dut nola azkartu
zaidan taupadaren hotsa;
oraintxe sartu duten ziria
neretzat hain da zorrotza!
Azala beltza ta iluna du,
baina ez naiz hortaz lotsa,
askoz beltzago ta ilunago
delako zuen bihotza. (bis)

Eskerrak behintzat nere maitea
aurkeztu diedan garaiz!
Nik hasieran pentsatzen nuen
“gustatuko zaie araz!”.
Baina aita-amak semean kontra
joan ohi baitzaizkigu maiz,
zuek maite ez baduzute ere,
neretzat hori ez da gaitz;
etxe honetan ez bada bizi
ni Afrikara joango naiz. (bis)

Lujanbio¹⁸

Neurria: 16ko bandia

Doinua: Hai_zea dator ifarraldetik II

Munduan barna bidai batera
joan nintzen pozik zeharo,
ikuskizunak ta esperientziak
izan nituen oparo.
Jordaniara iritsi ginen
bidaia hortan, akabo!
Aita ta ama hartu gogoan
ni maiteminduta nago,
mutiko hori bihurtu baizait
sentimentuen arrago;
bera beltza da, jakin zazue,
arabiarra zehatzago.
Aita ta ama horren zuriak
ez zerate, ba, izango?
Bera beltza da, baina halare
ez da ni baino beltzago.

¹⁸ Gaia moldatu egin zioten era honetara: "Poz-_zozik erran diez_u NESKA belt_zaran bate_z maitemindu _zarela"

Bera Ammanen ezagutu nun
bere aitan alfonbra-dendan,
sartu orduko begiratu ta
moldatu ginen primeran;
arabiar denak bezela zela
pentsatu nuen haseran,
baina gerora harreman hori
berezi zela antzeman;
besotan hartu eta laztanak
egin zizkidan ileran;
ezin dezute imajinatu
ze oroitzapen ona dedan!
Euskal Herrian nahiz ta hamaika
nobio izan aukeran,
inongo zurik sekula ez dit
holako musurik eman!

“Lagun min bila joan beharra
herritik horren aparte!”
Arrazoi dezu, nik ere hori
ukatzen nuen gaur arte,
baina zer esan, gure bizitzek
sorpresa hauek dauzkate;
eta eskerrak sorpresak dauden,
tristura litzake kalte.
Mohamed daukat nere ondoan
konplejorik ez det bate,
apurtu dugu kolorearen
ta arrazaren zenbait kate.
Zuek ere zabal utzi itzazue
zuen leiho zuen ate,
sufritu egingo duzuelako
ohitutzen ez bazerate.

BILBO

2001-12-01, larunbata, 18:00etan

Amaya antzokian

Finalaurreak: bigarren itzuliko bigarren ekitaldia

Bertsolariak:

Unai Iturriaga

Jon Maia

Sustrai Colina

Aitor Mendiluze

Xabier Silveira

Oihane Enbeita

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

Argazkia: TALDEKOA

Bilbo du gaur geltoki txapelketako bertso-karabanak. Bertsolaritzak ohiko plaza du Bizkaiko hiriburua. Txapelketari ere ez zaio arrotza Bilbo: Arenala, Arriaga, Euskalduna... ekitaldi garrantzitsu askoren testigu ditugu. Baina Ayala antzokian, gogoan dugula behintzat, lehen aldiz sartzen da bertso-gurdia.

Edo karroa? Izan ere, nola diren gauzak, behin etorriko hona eta Manolo Eskobar kantari espainiarrarekin topo! Gaur, gure saioa amaitu orduko eskainiko du bere emanaldia. Bere karroaren bila jarraitzen omen du oraindik (*donde estará mi carro? donde estaará mi carro?*). Zenbat urte ote daramatza!

Urruti gaudela uste izan eta zein hurbil bizi garen konturatzeko lain bederen balio izan digu esperientziak. Antzokiaren kanpoaldean Eskobarrez bete-bete egindako kartel edo afitxak bakarrik ikusten dira. Ez du ematen Bertsolari Txapelketako saiorik badenik ere. Bertsozaleek atarian geratzeko ohitura dute, ordea, eta ez dago hori baino erreklamo hoberik. Gaur-biharretan erabakitzen dira finalistak, eta hori da hizpide nagusia.

Bertsolariak gela batean bildurik daude. Ohiko zereginetarako baliatu nahi du egonaldia gai-emaileak: esertzeko ordena zozketatu, ariketak gogorarazi, bikoteak nola osatuko diren zehaztu eta esan... Baina bertsolari bat falta da. Etorri, etorri da, baina, urduri-edo, kalera eraman du ezinegonak. Beste bertsolariak, egin beharrekoak egin eta saioan kontzentratu nahi dute, eta antolatzaileak hor dabilta bila, baina ez da ageri. Ez dira brometarako uneak. Azaldu da halako batean: "Non habil motel!?"

Atzetik aurrera, adenik alde zeharkatu dute aretoa bertsolariak oholtzara igotzeko. Txalo eta oihu artean hartu ditu publikoak. Goitik, ikuspegi polita esakintzen die Ayalara etorri diren 800 lagunek: beheko solairua bete-betea dago, eta ia betea goikoa. Epaimahaia da ageri ez dena, baina hor dago, palkoko baxter batean. Gaur ez dute, ez bertsolariak eta ez epaileak, begiz begi aritzeak duen deserosotasunik "jasan"go.

Saioa ari da bere bidea egiten. Bere momentuan, Enbeitari izan ezik, kartzelarako bidea hartzeko eskatu die Mandalunizek bertsolariei. Berauekin batera atera dira entzuleen hirutik bi, denak tropelean. Sartzea ere ohi baino gehiago kosta zaie, erretzaileei batik bat. Zaleen komentarioetatik, maila handiko saioa doala ondorioztatu daiteke.

Saioa amaitu denean goi-mailakoa izan dela diote puntuazioek¹⁹. Gaur bat egin dute epaileen zein zaleen sententzioek. Iturriaga nagusitu da, eta ziurtatu du Belodromoko oholtzan tokia. Puntu mordoa bildu dute beste guztiek ere: Hendaiako bigarrenak baino gehiago ditu gaurko bosgarrenak. Aurreko itzuliko puntuak metatuta, Belodromorako hautagai garbiak dira gaurtik Maia, Colina eta Mendiluze.

¹⁹ U.Iturriaga: 813,5; S.Colina: 795; J.Maia: 790,5; A.Mendiluze:787; X.Silveira: 766; O.Enbeita: 716

Iturriaga

Hasierako agurra

Neurria: Sei puntukoa

Doinua: Trumoi ortzi beltzean boska

Lehenengo zale danak agurtu
eta harrera on hau eskertu.
Gero datorren Manolo horrek
ez gaitzala “eskobartu”!²⁰ (bis)
Saio serio bat egin dezagun,
nahiz neurona danak urtu,
ta ez erromeri bihurtu,
Belodromora doan karroa
ez diezaguten lapurtu. (bis)

Iturriaga-Silveira

Gaia: Lantegi handi bateko nagusia zara Unai, eta lantegirako kontratatu berri duzun sendagilea Xabier. Langileen osasun egoera gertutik zaintzea da sendagilearen ardura. Kontua da, Xabier lanean hasi zenetik, geroz eta langile gehiago dagoela bajaran. Hiruna bertso, zortziko handian, Unai hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Iturriaga Zure izena proposatuaz
sindikatu ta antzeko
etorri ziren, ta esan nuen:
“bueno, bueno, ba ederto!”
Baina gauza bat euki behar duzu
sekula ere ez ahazteko,
soldata altua daukazula zuk
hainbeste baja emateko. (bis)

²⁰ Bertso saioa amaitu ostean, Manolo Escobar kantari espaniarraren emanaldia zegoen Ayala aretoan.

- Silveira* Enpresa honek osasungintzan
hainbat arazo baditu,
nahiz ta Unairi nere jarrera
desegoki iruditu.
Zure langilek, zazpitik bostek,
ezin dute errenditu,
psikologo bat kontratatu ta
ezetz batere gelditu! (bis)
- Iturriaga* Langilea da langilea ta
behar du bere larruan,
ez zaite erori psikologien
faltsukerien erruan.
Baja eskatzen etortzen dira
hamabinaka karruan,
jakin nahi nuke zure pilulek
zer daramaten barruan? (bis)
- Silveira* Nere pilulez ez arduratu,
ez zaitez hargatik kezka;
zuk diozun hoiek soilik neretzat
gordetzen baiditut eta.
Langile batzuk etxean daude
baina ez egin protesta;
beraien lana zuk egin zazu,
aste bat besterik ez da! (bis)
- Iturriaga* Sasimediku bat niri agintzen,
hoixe baino ez zan falta!
Orain egin du patronalak ta
langile soil batek talka.
Benga Xabier, egizu ospa,
alde, korri, tira, hanka!
Baja bakarrak ekarriko du
beste guztientzat alta. (bis)
- Silveira* Ez zaitez hainen urrun iritsi,
bertzela dena akabo!
Zuk nahi baduzu berriz bihurtu
ditzazket zure esklabo,
ta baja denei kenduko diet
azkar baino azkarrago
nere soldata igotzen bada
milioi erdia gehiago. (bis)

Mendiluze-Iturriaga

Gaia: Zu, Aitor, aktorea zara eta egunero telebistaz ematen den telesail batean gaiztoarena egiten duzu. Etixerakoan, Unai zure auzokoak haserre bizian eraso dizu. Launa bertso, zortziko txikian, Aitor hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Mendiluze Nik gaizto paperean
 jana irabazi,
 auzora iritsi ta
 erasoan hasi;
 fikzioa bereizten
 ez dezu ikasi,
 orduak telesailik
 ez zazu ikusi. (bis)

Iturriaga Ezjakina naizela
 neri ez egin burla,
 zurelako gaiztorik
 munduan sekula!
 Jakizu eraso hau
 merezi duzula,
 ta neri ez kontatu
 zure pelikula. (bis)

Mendiluze Kontatzen dizudana
 pelikula omen,
 ulertu egin behar
 zenuke hau, zeren
 lehengo astean neure
 kidea hil nuen
 ta atzo elkarrekin
 bazkaldu genuen. (bis)

Iturriaga Gaiztoa ta laguna,
 gaiztoa topera,
 lagun bat hil zuela
 matxete kolpera.
 Gero harekin bazkaldu,
 normala ote da?
 Parasikologoa
 gaiztoaz gainera! (bis)

Mendiluze Adibide txarra zen,
hau da ezustea!
Hobe beste batekin
hau garbi uztea;
han gaur andregai bat da
ta bihar bestea,
ez al dezu ezagutzen
nere emaztea? (bis)

Iturriaga Gaiztoa izateko
sortua mundura,
orain formal itxuran
ezkondu modura.
Baina niri ez kontatu
hau, hori ta hura,
zure kantzontzilotan
ez dut sartu gura. (bis)

Mendiluze Zure buru-nahasteak
hortxe jo du goia,
ni omen naiz alua,
ni omen kabroia.
Dena ona izatea
zeure arrazoia,
hortarako egiten
da telekupoia. (bis)

Iturriaga Esandakoarekin
nik ia aski nuen,
kolpea emanda gero
nago ni ondoen.
Heriotza zuk duzu
laguna gertuen,
ia Maria Luisak
akatzen zaituen! (bis)

Maia-Colina

Gaia: Gaur, zuk, Jon, koadrilarekin zeure ezkon aurreko ospakizuna izan duzu.
Goizaldeko ordu txikietan, Sustrai zure neska-lagunaren leiho azpira joan zara abestera.
Launa bertso, zortziko txikian, Jon hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Kantatzera nijoa

- Maia* Aprobetxatu nahirik
ezkontza bezpera,
ni ondo ari nintzen
neure arabera;
orain baldeka uraz
ez zaite atera,
ez al zendun gustoko
nere habanera? (bis)
- Colina* Nahiz ta ez dudan egin
hemen gauza txarrik,
ez nuke nik hartu nahi
hain senar baldarrik.
Habanera maite dut,
ez da esan beharrik,
mantso-mantso abesten
baduzu bakarrik.(bis)
- Maia* Hori kantatzeko nik
badet zenbait truko,
lasai hasi naiz eta
zeuk balkoitik uko;
hemen nere kuadrila
daukagu lekuko.
Zu lasai, azkar inoiz
ez det kantatuko. (bis)
- Colina* Lehenik belaunikatu
ahalik ta ondoen,
habanera goxo bat
bota dit ondoren;
ikusirik Joanito
nolatan dagoen,
dibortziatuko gara
ezkondu baino lehen. (bis)
- Maia* Dibortziatzeakin
geure komerira,
sartu behar zinake
maitasun neurrira.
Nik kantuak ta honek
lorontziak tira...
Loreak botatzeko
bi kontzeptu dira. (bis)

Colina Ez al ditu kantatu
berriro epelak?
Hau zuzendu lezake
bakarrik kartzelak.
Loreak botatzeko
ze gogo itzelak!
Batzuk faltsuak dira,
besteak ximelak. (bis)

Maia Baina lore guztiak
ez daude gordeta,
hauxe izan da nere
azkenengo treta.
Ez zaite haserratu
maite zaitut eta;
badijoa Romeo,
adio Julieta.(bis)

Colina Habanera kantari
xuxen trebe-trebe,
ni enamoratzea
omen duzu xede;
baina zuregan badut
behar aina fede,
ez zara nitaz ahaztu
mozkortuta ere. (bis)

Iturriaga-Maia

Gaia: Bizilagunak zarete. Joan den larunbatean manifestaziora joan zineten biok: Unai Beasaingo manifestaziora²¹ eta Jon Baionakora²². Astebete pasa da, eta hizketan hasi zarete. Hiruna bertso, seiko motzean, Unai hasita.

Neurria: Sei puntuko motza

Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

²¹ ETAK bi ertzain hil zituela salatzeko azaroaren 24an egin zen manifestazioa.

²² Euskal iheslariak Euskal Herrian bizitzeko duten eskubidearen alde azaroaren 24an egin zen manifestazioa.

Iturriaga Oraintxe dugu tartea
ta komeni da esatea
nahiko nukeela biok manifa
berera joatea.
Baina, ai lagun maitea,
dena tiro, dena kea,
ez dut sinisten hortik etorri
leikenik bakea. (bis)

Maia Ezin ginenak ingura
geure etxean barrura,
orain berriro elkarrizketa
daukagu eskura;
eta garaia heldu da
kentzeko, ahal den modura,
Beasain eta Baiona arteko
ideologi muga. (bis)

Iturriaga Denok gara hanka biko,
jakina dugu mutiko,
jokaera batzuk hala ta guzti
ez ditut begiko.
Zuk zeureai eutsi tinko:
herria lehenik betiko.
Heriotzaren bidetik ez da
bizia etorriko! (bis)

Maia Diskurso hori da motza
ta gainera oso hotza.
Gure artean egin dezagun
egizko aitortza:
zuk badezu zertaz lotsa,
tiroa ez dezu arrotza,
bakarrik gure patrimonio
ez da heriotza. (bis)

Iturriaga Lehenengo ziren karguak,
pasatu ahala orduak
nora bajatu garen ez digu
esan akorduak.
Ai, gure hilotz karruak!
Onartu zeure erruak.
Zuri norbaitek agintzen dizu
ta niri barruak. (bis)

Maia Hoiek dira kontu hitsak,
oso ideia murrizak.
Berdin du armak nork dauzkan, ETAk
edo Jaurlearitzak.
Mantendu beti bizitzak,
jarri ditzagun baldintzak,
pistolak isil daitezen eta
mintzo bitez hitzak. (bis)

Colina-Silveira

Gaia: Adiskideak zarete biok eta ezkonduak. Orain dela gutxi arte maitale bana izan duzue. Zuk, Sustrai, gertatu zenaren berri kontatu egin diozu emazteari. Xabierrek sekretuan gordetzea nahiago du. Hiruna bertso, seiko motzean, Sustrai hasita.

Neurria: Sei puntuko motza
Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

Colina Hartu nun lehen tartean,
bota nion bat-batean,
berak marmarrez erantzun zidan
ta indar betean.
Bizirik nagon artean,
mesede edo kaltean,
guzti-guztia kontatu diot
liburu batean.²³ (bis)

Silveira Liburu bidez argitan
utzi du guztien bistan
andreagatik berak ez dula
sentimendurikan.
Erran baina zergatikan?
Berak ez du errurikan!
Zuk jasan ezin duzuna ez du
jasan beharrikan. (bis)

²³ Zortziko nagusian idazlearen paperean jardun zuen Sustrai Oihane Enbeitarekin.

Colina Pentsatu arren luzaro,
argitu nion zeharo
ta orain berriz gure artean
trabarik ez dago.
Ze kontu ta erreparo,
kontatu eta akabo!
Eta uste dut maite nauela
lehen baino gehiago. (bis)

Silveira Zure ustea da antzu,
zara gezurraren maisu,
eta andrea ere kristona
sartzen ari zaizu.
Engainatuko zaitu zu,
orain laztan, orain musu,
ordea txanpon berberarekin
ordainduko dizu. (bis)

Colina Zer-nolako deskontrola!
Maite dut andre potxola,
nere andreak ez daukalako
holako odola.
Ziplo bota nion hola,
orain ez dio axola,
eta uste du maitaleakin
utzita nagola. (bis)

Silveira Gezur eta irain zikin
entzungaitz diren hoiekin,
sentimendutzat pena dut soilik,
hau zait sinestezin.
Zuk nahi duzun hura egin,
nik jarraituko dut berdin,
sexuak ez du zerrikusirik
maitasunarekin. (bis)

KARTZELAKO LANA

Gaia: Azkenaldian oso pertsonaia ezaguna egin zara. Ospea eta arrakasta daramatzazu zurekin. Jende askoren begiradapean zaude. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Maia

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaiio nintzan (Habanera)

Ospetsuak izateak
beti badu bere xarma,
edozer gauza lortzeko
hori da askoren arma.
Ni ospetsu egin naiz ta
ez det piztuko alarma
zeharo argitu baitzait
bizitzaren panorama.
Urte luzeetan egin det
gora iristeko lana,
orain ez da kontu txarra
gailur honetan naukana,
baina ez det inoiz ahaztuko
jende ugarik esana:
egun bateko lorea
izan litekeela fama.

Bersolaritzan eman det
ia-ia bizitza dena
eta goraino heltzea,
hori zan nik nahi nuena;
orain fama izan leike
lehendabiziko problema,
baina egin dudan karrera
ez da hutsaren hurrena:
herriz herri ibili naiz
Euskal Herrian barrena,
orain bertsoa botatzen,
ondoren berriz poema.
Ez dakit nola izango den
nere karreran azkena;
izana mantendu nahi det
nahiz eta galdu izena.

Izana mamia degu,
izena berriz azala,
ta bien artean doa
ospearen martingala.
Orain artean ez dut nik
izandu suerte makala,
herria serbitu baitut
bertsoz nola edo hala.
Zalantzak etortzen zaizkit
bide horretan noala,
baina ez dut izan behar
etorkizun hain argala.
Nahiz ta bertso hau izandu
nere azkenengo bala,
herriak hartu nazala
mutil jator bat bezala.

Colina

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Leibo ertzetik entzun dezaket

Bertso kantuan noizbait izan nun
gora heltzeko aukera,
bi mila ta batgarren urtean
heldu nintzen finalera.
Orduz geroztik nere egoerak
ez du egin ez hobera!
Dena doakit gainbehera,
biziki fite gainera, (bis)
berez gozoa behar zuenak
atera baitzait kaltera,
paparazziak atzetik dauzkat,
hortik kontuak atera! (bis)

Jende aurrean, zuen aurrean,
jakin behar da egoten,
jende guztiak gure akatsak
ditulako itxaroten.
Kazetarikin pasa zaidana
ez da errexa izaten:
ti-ta santiamen baten,
harreman guztia eten. (bis)
Larrugorritan ipintzen naute
berdekariak egiten;
batzuk ez dakit arroxeta eta
beltza bereizten dakiten. (bis)

Zer naizen eta nora nijoan
nik biziki ongi dakit,
zuen aurrean eredutxo bat
izan behar naiz haatik,
baina norberak egon behar du
beste guztian gainetik;
“animo Sustrai” gogotik,
denak elkarren ondotik. (bis)
Naizen bezala agertuko naiz,
onetik eta txarretik,
ahal dela Sustrai izan nahi nuke
Colina izan aurretik. (bis)

TOLOSA

2001-12-02, igandea, 17:00etan

Beotibar udal pilotalekuan

Finalurreak: azken ekitaldia

Bertsolariak:

Jexux Mari Irazu

Mikel Mendizabal

Igor Elortza

Fredi Paia

Arkaitz Goikoetxea

Nerea Elustondo

Gai-emailea: Saroi Jauregi

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula,
Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta
Joseba Santxo.

Argazkia: TALDEA

Ohi bezala, aurrekoetan ere hala ezagutu dugu, sekulakoa da final handiaren atariko azken saio honek sortu duen ikusmina. Ez da bakarrik gaurko saioak eskain dezakeena ikusmin horren iturri! Gaur erabakiko da zein izango dituen alboan Egañak Donostiako Belodromoan. Oholtza igoko direnek ongi dakite zein den gaingitu beharreko muga, zenbat puntu behar diren. Atzoko saioak, Bilbokoak, oso goian jarri diete langa.

Beotibarren sartu eta honek eskaintzen digun argazkia kiroldegi eta pilotaleku guztiek eskaini digutenaren antzekoa da: agertokia ezker paretan harmailatarara begira; epaimahaia oholtzaren eskuinetara; soinu mahaia eta teknikoak aurrez aurre; komunikabideen mahaia; *Hitzetik Hortzerako* hiru-lau kamerak han-hemen... eta jendea, jende ikaragarri gaur.

Bete-bete-bete egin dute Beotibar bertaratu diren 1.500 bertsozalek, kantxan jarritako aulkietatik hasi eta goi-goiko harmailetaraino. Zaleen artean jende ezaguna ikusten dugu, batik bat bertsolariak. Hemen dira, behintzat, fase hau jokatzeko ari diren ia guztiak. Egaña ere ikusi dugu, goi-goiko harmailako eskailera zulo batean eserita. Berandu etorriko zen. Dagoen lekutik ez du ezer ikusiko, baina entzun, den-dena!

Saroi Jauregi da gaur gai-emaile lanetan. Txapelketa guztian zehar hiru gai-emaile aritu dira: Bernardo Mandaluniz Araba eta Bizkaikoetan, Mikel Taberna Iparaldea eta Nafarroakoetan, eta Saroi Gipuzkoakoetan. Lan bikaina egin dute hirurek hala hirurek.

Jexuxmari Irazu, Mikel Mendizabal, Igor Elortza, Arkaitz Goikoetxea, Nerea Elustondo eta Fredi Paiari egokitu zaie final-txiki honi aurre egitea. Orain arteko puntuazioak ikusita, Irazu, Elortza eta Goikoetxea dira finalean sartzeko aukerak dituztenak. Bostetan ekin diote saioari. Aurrera egin ahala, bertsolariak lasaitzen doazela dirudi eta azkeneko lanean, kartzelakoan jo du goia saioak. Hala dio txaloen neurgailuak.

Bi ordu eta erdiko saioaren ostean, ez dago atzera bueltarik. Agurrak botatzen amaitzerako Joxemari Altuna epaimahaiko idazkariaren eskutik jaso ditu Saroik gaurko emaitzak²⁴ eta finalerako sailkatu direnen zerrenda. Beti bezala punturik gehien lortu dituenetik hasita esan ditu. Irazu gailendu da 790,5 punturekin eta Elortza da bigarren 769,5rekin. Bi hauek erdietsi dute beren helburua, finalean sartzea; Goikoetxea (733,5), beste lauak bezala, kanpora geratu da.

Hainbestean, erabakia dago Belodromoan Egañari konpainia egingo diotenen zerrenda: Lujanbio (1.571,5), Iturriaga (1.569,5), Maia (1.530), Irazu (1.530), Colina (1523,5), Mendiluze (1.518,5) eta Elortza (1509). Amets Artzallus, Arkaitz Goikoetxea, Xabier Silveira, Aritz Lopategi... izan dira urrenez urren gertuen geratu direnak.

²⁴ J.M.Irazu: 790,5; I.Elortza: 769,5; N.Elustondo: 759; M.Mendizabal: 734,5; A.Goikoetxea: 733,5; F.Paia: 725

F. Paia

Hasierako agurra

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Zibilak esan naute

Lagunek esan naute
“kantatu egoki”,
Tolosan behar dala
gauza erabaki.
Sailkatzeko behar nituzke
beatzirehun ta zazpi,
barre egingo luke
nere amak baleki.

Irazu-I. Elortza

Gaia: Aitona-bilobak zarete. Herriko jaiak berehala datoz, eta zu, Jexux Mari, biloba, egun horiek noiz iritsiko zain, ilusioz beteta zaude. Igor, aitona, berriz, jaiak heltzeko beldurrez. Hiruna bertso, zortziko handian, Jexux Mari hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Irazu Gure herrian Iñauteriak
belaxe dute hasera;
lehendikan ere ezaguna da
aitonaren ibilera:
hiru-lau trapu hartu soinean
eta korrika kalera.
Bastoiarekin juango zara
amonakin ligatzera. (bis)

I. Elortza Bastoiarekin ere ez da hain
segurua karnabala;
lehengo urtean ere izan zen
nahikoa giro petrala;
kalera irten ta gogoan dut
dena plastikoa zala,
laban eginda erori nintzen
mezetara nindoala. (bis)

Iraçu Aitona xaharra xaharra da baino
gaztetasuna betiko,
txurruta lehen'e izandu zuen
gustoko bezain begiko.
Laban eginda erori zala
esaten ez da hasiko...
Tabernatikan pasa ez bazina
ez zinan ez eroriko! (bis)

I. Elortza Adarra jotzen hasia zara
iloba, xuabe-xuabe;
itxura denez asko ez duzu
zure aitonaren alde.
Nik iaz laban eta gerritik
hortxe ibili naiz grabe;
aurten tabernan sartu behar dut
ta hantxe mugitu gabe. (bis)

Iraçu Gerriko mina baina soinean
aguantea ta indarra;
festak etorri beldurrez baino
barruan sua ta garra.
Tabernan geldik edan litezke
Soberano ta pattarra,
bihotzekuak ematia da
zure arrisku bakarra. (bis)

I. Elortza Lasai, berdin zait niri hilda ere,
den orduko naiz erotu,
ta nere penak ardo bizitan
nahi ditut aurten lehortu.
Halere trapu bat ipintzerik
niri noski ez zait otu,
triste bizi naiz eta ez daukat
zertan alai mozorrotu. (bis)

F.Paia - Mendizabal

Gaia: Bi lagun zarete. Bizitza modu ezberdinean eratu duzue, baina biak zaudete gustura. Zu, Fredi, zure bikotekidearekin bizi zara. Mikel, berriz, bakarrik. Hiruna bertso, zortziko handian, Fredi hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Haiçe hegoak hurbiltzen ditu

F. Paia Fabrika baten behar eginez
pasatu ohi dut eguna,
gogorra baita makina artean
langilearen jarduna;
amaitu eta kokoteraino
etxera bidai txukuna...
Zein ederra den gauez heltzean
maitean berotasuna! (bis)

Mendizabal Zuk diozunez aurkitzen zera
norbaiten maitasunean,
bainan nik ere bilatu ohi det
tokatzen zaidan unean.
Zertan ibili konbibentziak
duen estuasunean?
Bakardadea lagun ona da
desiatzen dezunean. (bis)

F. Paia Ez zait gustatu niri sekula
ermitainoen konduta:
etxe haundi ta hotzen barruan
neurria ezin hartuta.
Gauetz ederra ohe barruan
maitearekin burruka...
Oraindik zuk lo eiten al duzu
pelutxea oratuta? (bis)

Mendizabal Nahi dan garaian oheratuta
goiza pozez argitzea,
nik gauza horri esaten diot
zoriontsu bizitzea;
eta zuk dezun zoritxar hori
nahiko nuke aipatzea:
aldamenean beti norbait ta
bakarrikan sentitzea. (bis)

F. Paia Bakarrik bizi ta bakarrik lo,
ene jaunak, hau da nazka!
Zeozer egin behar dugu Mikel,
nabil buruari hazka.
Ideia on bat daukat zuretzat
okurritu berri, zazta!
Mikel, aurkeztu behar dizut nik
nire maitearen ahizpa. (bis)

Mendiçabal Eskerrik asko, estimatzen det
daukazun borondatea;
bide hortatik ez nijoala
Fredri ohartu zaitea.
Ez zait gustatzen gauero inori
nere kontu ematea
eta gainera ez dut desio
zure koinadu izatea. (bis)

A. Goikoetxea - Irazu

Gaia: Zu, Arkaitz, hirurogeita hamar urteko agurea, gida-baimena berritzeko asmoz etorri zara Jexux Mari medikuarengana. Badaezbada, urdaiazpikoa besapean hartuta etorri zara. Launa bertso, zortziko txikian, Arkaitz hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Kantatçera nioa

A. Goikoetxea Ene mediku jauna,
agur ta ohore:
aitona xaharrak badu
behar aina adore;
dohai guztiak ditut
neronekin gorde,
aukerarik ez duzu
dudan jartzeko're! (bis)

Irazu Makulu eta txapel,
ez buru, ez zentzun!
Esplikatu nahi baino
al dezake entzun?
Urdaiazpikoa're
txarra bezain lizun...
Hortatik ezagun du
ze bista daukazun! (bis)

A. Goikoetxea Baina hala ta guziz
badaukat kemena,
kotxea gidatzeko
gertu dut barrena.
Bista txarra dudala
gauza nabarmena;
zuk ere egizu ez
ikusiarena. (bis)

- Irazu* Oraindik bihurtzen
segitzeko plana:
Benidorrera joan
idea, ai ama!
Ez ikusiarena
egingo dudana,
baina gero jua zaitez
seguroarengana. (bis)
- A. Goikoetxea* Aukera badut eta
hona naiz azaldu,
mediku honek ez dit
esperantza ugaltu.
Aitona errepidean
ez liteke galdu,
kotxia ona daukat
nahiz ta ni pattaldu. (bis)
- Irazu* Karnetaren eskian
zabiltza jo ta su!
Zu pattal xamar baino
kotxea indartsu.
Galdera erantzuteko
moduan zaude zu:
hanka herrenarekin
frenatzen al dezu? (bis)
- A. Goikoetxea* Hanka bat herrena dut
egia esanda,
baina esan duzuna
gogorra izan da.
Ez daukat zertan hartu
frenatzeko txanda,
segundatikan ere
ezin naiz jua-da. (bis)
- Irazu* Hau ez degu izango
gaur sinestekoa,
zahartu ta gero ere
txofer hastekoa...
Baimena izango da
bizi guztikoa,
ta zeurekin eraman
urdaiazpikoa! (bis)

I.Elortza - Elustondo

Puntuka

Gaia: Puentin egiteko asmotan etorri zarete biok Ibarako zubira. Une honetan, zubitik behera begira zaudete. Zortziko txikian, puntuka, zortzi bertso osatu arte, Igor hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Haižeak bidali du

I. Elortza Jentelmana naiz eta
lehenengo neska,
Elustondo entierroakin hasi
dadin gure festa;
I. Elortza egin zazu salto ta
ez egin protesta,
Elustondo sokak eutsiko didan
da nik dudan kezka.

Elustondo Hemen goian badaukat
bertigo galanta!
I. Elortza Nik hartzen dizut bada
sanoaren planta;
Elustondo behera joan nahi nuke
eta harrapaka;
I. Elortza benga, ein zazu salto,
zubi txikia da-ta!

I. Elortza Zuk aproba egin ta
ni joango naiz gero,
Elustondo zuloa egiterik
ez zazu espero;
I. Elortza agian sokak dauka
etenen bat edo,
Elustondo konprobatzeko orduan
nabil oso bero.

Elustondo Sokak igual etena
badauka berekin,
I. Elortza baina zuk lasai-lasai
jauziari ekin.
Elustondo Hemendik botata nun
azaldu ez jakin;
I. Elortza nik ez dut minik zure
kolpe sikuakin.

I. Elortza Agian onena da
erretiratzea,
Elustondo honaino etorri ta
nolako trantzea!
I. Elortza Hobe genuen dena
lehendik pentsatzea,
Elustondo edo parakaidas
on bat ekartzea.

Elustondo Igor zu bota zaitez
itxarongo det-ta,
I. Elortza ez naiz ni bihurtuko
zure marioneta;
Elustondo begiratu ezazu
horko furgoneta,
I. Elortza lehen ere aspertua
nago ni kolpeka!

I. Elortza Furgonetan sartzea
agian onena,
Elustondo horrela joateko
munduan barrena.
I. Elortza Ez naiz ausartu baina
hori ez da problema,
Elustondo baina sokekin degu
halako dilema.

Elustondo Furgoneta sartzeko
utz dezagun soka,
I. Elortza hemen nago ni ere
zugaz loka-loka.
Elustondo Keba, zu zaude bota
edota ez bota,
I. Elortza goazen etxera baina
inori ez konta.

KARTZELAKO LANA

Gaia: Zientziak aurkikuntza garrantzitsuak egin ditu azkenaldian. Hemendik aurrera posible izango omen da bizitzaren iraupena luzatzea. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuuan.

A. Goikoetxea

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Alai ote da, ote da hitsa,
bizi izatea gure ekintza?
Zenbait lekutan egoera da
triste eta murrizta. (bis)
Dirua dugu baldintza,
horixe omen da giltza,
eta halaxe gabiltza.
Nahiago nuke horren partetik
beste berri bat balitza,
inoiz bukatzen ez dena ere
ezin da izan bizitza! (bis)

Berrikuntzetan hainbeste mota
begien bistan hortxe dago-ta,
ikusi berriz zientzilariek
aurkeztu diguten sorta! (bis)
Hori zen beren borroka,
hori zen beren erronka,
garaipen edo porrota.
Ez dut esaten bizitza dela
erabili eta bota,
baina zergatik joan behar dugu
beti naturaren kontra? (bis)

Garaipen bat da sarri akatsa
berri on bat da maiz berri latza;
ibilbideak izan behar du
nunbaitetikan mudantza. (bis)
Mundu zahar honen balantza
etorri da guganantza,
ta egiten dut zalantza:
ikerketetan ez al da behar
noizbaite aldatu martxa?
Luza dezagun goseak hiltzen
dauden hoi en esperantza. (bis)

I. Elortza

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Munduan libre bizi izatea

Alde batetik begiratuta
ez da notizi zatarra,
baina zientziak ere behar du
bere atzetik oharra.
Ba ote dugu guk betirako
bizi izateko beharra?
Notiziak barra-barra,
bada nahiko zarraparra,
baina betiko bizitza ere
izan ahal da bizi txarra,
ta bizi ona eukitzea da
nik gura nukeen bakarra. (bis)

Kontaezina, sinestezina
aurrerapenen ilada,
berri bitxi ta sinesgaitzekin
betea azken bolada.
Gizakia ustez gaur egun dugu
guztiaren ugazaba;
zientziaren abiada,
noraino heldu den, hara!
Baina niri hori ez zait inporta,
esana baitaukat jada:
zertan luzatu bizimodua
sufritzeko baldin bada? (bis)

Baina hara zer lor dezaketen
buru batek ta esku bik,
“bizimodua luza liteke”
hor lagunak ohartu dit.
Nire ustetan horrek ez dauka
ez hankarik, ez bururik;
nire ahalmenak bildurik,
nik egina dut konturik
ta nahiago dut lehen bezelaxe,
halaxe uste baitut nik:
heriotzarik ez badaukagu
bizitzak ez du zentzurik. (bis)

Mendizabal

Bukaerako agurra

Neurria: Bederatziko txikia
Doinua: Gaztalondo handian

Mila esker Beotibar,
bersoaren kabi;
mila esker bersozale
ta bersolari.
Urteetan izan naiz
lehian ibiltari;
asko eskeini diot,
jaso dut ugari.
Eta belaunaldi
berri bat gidari,
lanean da ari,
animo berari;
bizitza inprobisatzen
segi kantari. (bis)

INALA
DONOSTIA, 2001-12-16
Anoetako Belodromoan

Goizeko saioa: 11:00etan

Arratsaldeko saioa: 16:30etan

Bertsolariak:

Andoni Egaña
Sustrai Colina
Igor Elortza
Jexux Mari Irazu
Unai Iturriaga
Maialen Lujanbio
Jon Maia
Aitor Mendiluze

Gai-emaileak:

Goizean: Saroi Jauregi

Arratsaldean: Bernardo Mandaluniz

Aurkezlea: Mikel Taberna

Epaileak: Jon Abril, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena, Patxi Larretxea eta Joseba Santxo.

Argazkia: ANDONI EGAÑA

Epaile baten finalaren eguneko kronika

JOSEBA SANTXO

Inguruari arreta larregi eskaini barik, epailegunerantz jo nuen, neure betekizun eta eginbeharrak gero eta jabetuago. Epailekideen aurpegiak ikusteak irribarrea marraztu zion neureari, talde lana bakarlana baino askoz eramangarriagoa baita. «Heldú dok egun handí!» esan nion neure buruari autora sartzean. Eta egun handi horren itxaropenean abiatu nintzen Donostiarantz, autobidea hartuta. Inguruko bazterrak ohiko eran azaltzen ziren. Ez zirudien egun handiaren etorrerak bereziki itxuraldatu zituenik zerumendi-soro-etxe-bideak. Nik, ostera, desberdin ikusten nituen, biziago, sentikorrago, erakargarriago... Irratian bai, han-hemengo euskal emisoreetan Txapelketa zen berba nagusia: datuak, iritziak, elkarrizketak... Donostiara sartzeaz batera, harritu egin ninduen irrati batek Andoniri egin zion elkarrizketak. Zuzenean ari omen zen azken uneko kontuak azaltzen: gosariaren berri, nerbioen eta presioaren aipuak... Omenak ere erdia ustel. Aurreko egunen batean grabatutako elkarrizketa horrek komunikabideen iruzurkeriaz eragin zidan gogoeta. Erdal emisoreetara ere eramane nuen irratiko diala, jakin-minez edo, eta orduan gogoratu zitzaidan erdaldunak kaka baino lasaiago bizi direla bertsoz gabe. «Euréntzako txárraul!» kontsolatu nuen neure burua. Eta ezjakintasunean bizi direnen sasizorientasunaz egin nuen zehar-hausnar. Belodromora hurbildu ahala, ugalduz joan ziren egun hura handia izango zelako zantzuak: ibilgailu andanak eta jende mordoak ari ziren apurka-apurka belodromoratzen. Autoa aparkatu eta sarrerara hurbildu ahala zantzu horiek biderkatu egiten ziren, begirada, aupada, irribarre eta keinu bihurturik. Nik ez dakit epaile batek zer sentitu behar lukeen egoera horretan, baina ni neu behintzat, une hartan, bertsozale sentitzen nintzen, bertsozale familia handi eta beroaren senide. Eta sentimendu xume horrek harrotasunez betetzen zidan barrua. Lehia kutsuak ere bazuen pisurik belodromora sartzen ari zen gizatalde haren baitan. Izan ere, ohiko bertsozaleak ohiko saioetan baino adierazkorrago eta zalapartatsuago zebiltzan, eta ohiko bertsozaleak ez zirenak, berriz, zer esanik ez! Lehia usain horrek berorrek oroitarazi zidan, hain zuzen ere, egun hartan epaile lana egin behar nuela, eta baita bizkar gainean erantzukizun handia nuela ere. Hori guzti hori, barrutik neraman baina. Eta kanpotik nahikoa lan nuen honelakoetan berez jartzen zaidan mozolo aurpegierari eusten.

Belodromoaren sabela beti bezain jende-egarri zegoen. Hango aulkiak beti bezain ipurdi-gose. Nik uste dut belodromoari berdintsu diola bere barrunbe erraldoian zein ekitaldi mota egiten den. Baina seguru nago Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, mitinetako berba-jario bortitzik eta makrokonzertuetako doinu gortzailerik ez badu ere, zirrara berezia sortzen duten ekitaldien multzoan duela sailkatu.

Txamarra, zorroa eta enparauak neure mahai zatian utzi ostean, mahai ondoan berez-berez sortu zen epaile ingurutxora sartu nintzen, azken orduko oharrak eta zirrarak neure lankideekin konpartitzeko. Belodromo barrua justuria baino arinago ari zen

metamorfoseatzen, bazterrak jendez josten. Gure ondotik pasatzen ziren bertsozaleek adi-adi begiratzen ziguten, batzuek jator, bestetzuek mehatxakor, gurekiko zuten sentimendu koiunturalaren adierazgarri. Ezagunen animuzko aupadarik, zorionez, ez zen falta izan zelanbaiteko trantze hartan. Ekitaldia hasteko hamar bat minutu falta zirela, miraria jazorik zegoen: belodromoaren behe maldatsuaren luze-zabalean buru itsasoa ageri zen, higikor, berritsu, dardarti. Orduan –honelakoetan gertatu ohi zaidan moduan– bakailao kazuelaren irudia etorri zitzaidan akordura. Denboratxo batez bertsozaleak gora eta behera, aurrera eta atzera, eta pil-pilean ibili ondoren hango aulki bitarte eta karrajuetan barrena bakailaoaren gelatinakiak kazuelako olio berotan ibiltzen diren antzera, jende-saltsa erabat ligatuta zegoen, ondo lodituta eta mahairik exigenteenean aurkezteko moduan. Hamaika-hamaiketan hasi zen entzuten txapelketa osoan zehar atzerakuntzarik gabe entzuten izan dugun sintonia lasai eta ezagugarria, oso era leunean bertsolanaren esparruan sartzan izan gaituena. Eta sintoniarekin bateratsu, egun handiaren protagonista nagusiak: zortzi bertsolariak eta txalo hots bihotz zulatzailea. Lehen agurrak aurikularretatik entzun nituen, bertso saioan murgilduz joateko, baina bihotzari nahi zuena sentitzeko bideak guztiz libre utzirik. Zortzi agur desberdin, zein baino zein original eta pertsonalagoa. Zortzi bertsolari are desberdinagoak, baina zortzi-zortziak entzuleria orotariko bezain bakana gogobete guran. Atariko gogoangarria, nire bihotz-belarriak nekez ahaztuko dutena. Konturatu orduko, finalaren ariketa puntuagarrietan sartuak ginen, edo bestela esanda, belarrietatik sartzan zitzaizkigun artelan neurtu eta errimatuak zenbaki bilakatzen hasiak ginen, lerroz lerro, puntuz puntu, aiez ale, lanez lan. Lanean dihardudala lasai nago, neure zereginean erabat kontzentratu. Bertsoek eta lanez aurrera egin ahala, begitantzioa daukat bertsolariak ez direla goia jotzen ari. Polito, sendo, txukun, kolpe bat hemen, ateraldi bat han, baina aparteko distirarik gabe. Begitantzioa diot, itxuraz begitantzen zaiguna eta puntuak batu ostean irteten dena sarri ez direlako bat izaten. Unai eta Sustrai zortziko txikian ari zirela gertatu zen lehenengo ustekabe zirkunstantziala: oholtza gaineko argi indarra joan egin zen bertsolari biak sexu jardunen inguruan ari zirela. Lehenik Sustrai baliatu zuen etena, bikain baliatu ere, argirik gabeko proposamena egiteko. Segidan Unai emango zion errematea, maisuki eman ere, *koitus interruptus*-aren arriskuaz ohartaraziz. Lanbide gutxitan bilakatzen da arte inork egindako hanka-sartze tekniko. Bat-bateko bertsozaintzan dabilzan zenbait artista, berriz, kapaz dira Murphyk egindako zangalatrabua euren artelanaren maila koska bi gorago jasotzeko igogailu bihurtzeko. Kantuak kantu eta kontuak kontu, lehen puntuen ariketara heldu ginen eta hemen gertatu zen, hain zuzen ere, Murphyren bigarren eraso. Halako batean gure aurikularretako soinua joan egin zen, Jesus Mari kantuan ari zela. Eskerrak aurikularrik gabe ere ondo entzuten zen!

Goizeko saioa amaitu bezain laster, jende oldea abiatu zen mokadu bila. Goizeko saioa luze joan zen, baina egia esateko ez zen aspertzeko moduko bertso-lanik egon. Saio bakoitzak izan zuen bere xarma, bertso bakoitzak bere ukitua. Bertsolari guztiek utzi zuten euren karismaren arrastoa han edo hemen. Eguerdiko otordurako plan desberdinak zeuden aukeran: etxetik ekarritako bokatak bazterren batean jattetik hasi, eta Donostiako Alde Zaharrera joanda tabernaz tabernako pintxo jana egiterainoko

guztiak. Epaileok belodromoko kafetegian bazkaldu genuen, zenbait kazetari, aditu eta antolatzaileekin batera. Honelakoetan ulertzekoa denez, bazkaldu bitarteko komentarioak oso orokorrak izan ziren: honen estiloa, haren jarrera, hangoaren akatsa... Jangurarik, behintzat, ez zuen inork galdu gure mahaian. Kafea barran hartu genuen batzuek, eta han kontu gehiago: hau makal dabil, hura polito ari da, arratsaldekoa hobea izango da... Arratsaldeko saioa ere sasoiz hasi zen, eta nik esango nuke bazkalosteko lehenengo txaloetatik hasi zela berotasun handiagoa igartzen. Bertsolariek eurek ere arratsaldekoari beroago ekin ziotela begitandu zitzaidan niri. Edozelan ere, bertsolariek arratsaldean, goizean legetxe, bertsotan egin egin zuten. Eta holaxe, bertsoak eta txaloak tartekatuz-tartekatuz, egun handiaren klimaxetako batera ailegatu ginen. Buruz burukoa nortzuek jokatu behar zuten erabakita zegoen: Andoni eta Maialen ziren guk emandako puntuak baturik gailen ageri ziren bertsolari biak. Orduan finala fase apoteosikoan sartu zen. Buruz burukoa ezin izan zitekeen zirraratsuagoa. Andonik indar guztiz –ene irudiko beti ere– ari zen uztai beltza defenditzen, Baina Maialenek ez zuen atzera egin, eta txapelerako bidea estu bai estu ipini zion azken txanpako bere lehiakideari. Halako batean 2001eko Txapelketaren irabazlearen izena eman zuten. Andoni maratoia irabazi berri duen atletaren gisan bi besoak jasorik ikusteak orduko garaipena kostatakoa izan zela iradoki zidan niri neuri. Hortik gorako detaileak plusak izan ziren: Andonik bere lehiakideei txalo jotzeko bertsozaleriari egin zion keinuzko eskea, Andoniren eta Maialenen arteko besarkada neba-arrebakorra, zortzi bertsolarien jarrera apal, dotore eta solidarioa, jendearen eskuak minberatu arteko txalo joaldi hitzez deskribatu ezinekoak... Zilegi bekit konparazio gorrotagarrien –baina batzuetan argigarrien– arlora jotzea, maila pertsonalean baino ez bada ere. Ni epaile aritu izan naizen hiru Txapelketa Nagusien artean (1993, 1997 eta 2001), azken hau izan da, dudarik gabe, gehien hunkitu nauena, bai eta gehien gogobete nauena ere.

GOIZEKO SAIOA

Gai-emailea: Saroi Jauregi

Irazu

Hasierako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Saioa umorez hasi nahi nuke,
lagunei adarra juaz:
Egaña igual etorriko zan
txapelerako asmuaz;
Lizaso eta biak,
bertso torre bikiak,
beren ke ta beren suaz...
bat bere kaxa erori da-ta
bestearen bila guaz. (bis)

Egaña

Hasierako agurra

Neurria: Bederatzi puntukoa

Doinua: Banator bagatozela

Banator bagatozela
neroni eta txapela,
alperrik nator bestela.
Ia egoki betetzen dudan
tokatzen zaidan papela,
baina zer naiz ni tipo txikia,
zer naiz ni tipo txepela?
Nere burua ikus dezaket
birus bat banitz bezela,
ta susmoa dut beste zazpiak
gripearekin daudela;
ni behin betiko gainditzekotan
izerditu dezatela,
bila datozen piloto hoiek
preparatu ditezela.

Maia-Irazu

Gaia: Elkarrekin bizi zareten neska-mutilak zarete. Jon, neska, egunero joaten zara lanera. Jexux Mari, mutila, etxean gelditzen da etxeko lanak egiten. Lana bukatu eta gosez amorratzen etorri zara, Jon, etxera, baina mahai gainean lore sorta eder bat aurkitu duzu. Hiruna bertso, zortziko handian, Jon hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Balentin Berriotxoarena

Maia Non ote daude maitasuna ta
 adeitasunaren marrak?
 Orain makalak izan gaitezke,
 hurrena berriz azkarrak.
 Krabelin batzuk mahai gainean,
 ez dira bat'e zatarrak,
 politak dira baina agian
 digestiorako txarrak. (bis)

Irazu Gaur hiru urte biok batera
 elkarrekin ginen hasi,
 harremanak ta etxeko lanak
 behar nituen nahasi.
 Arrazoi dezu, krabelin batzuk
 jarri dizkizut lehenbizi,
 ta afaria gelan daukazu
 bere postre eta guzi. (bis)

Maia Mutil jatorra topatu nuen,
 baina agian epela;
 ez nuen uste lanetik bueltan
 sentitzerikan horrela.
 Tranpa eginaz ote zabilta
 ikusten dudan bezela?
 Nik uste nuen gela kontua
 afalostekoa zela. (bis)

- Irazu* Zure esperantza afaria zen,
hori zenuen espero.
Biok sarritan izandu gera
mantapearen bezero.
Afaririkan ez dizut jarri
ta gaurkoa hala bego;
igoal goserik ez zan izango
hortik afaldu ta gero. (bis)
- Maia* Lore sortakin zuzen liteke
harremanaren norantza;
lore sorta bat izan liteke
detalle baten ardatza;
lore sortaren gozamenean
egin dezakegu dantza,
baina gaurkoan lore sorta horrek
sartu dit neri arantza. (bis)
- Irazu* Zure zai negon bakar-bakarrik
maitasunean urtua;
zuretzat al da lore polit hau
arantz zorrotz bihurtua?
Kopet beltzeko jarri zera bai,
jenioz oso txartua,
nere lorerik nahi ez badezu
badaukat zeinek hartua. (bis)

Mendiluze-Lujanbio

Gaia: Zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. Aitor, ENA edo Euskal Nortasun Agiria zara, eta Maialen, Espainiako nortasun agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran. Hiruna bertso, zortziko handian, Aitor hasita.

Neurria: 8ko handia

Doinua: Ludi bizitzza abesti gozoz I

- Mendiluze* Gaur bi agirik topo egin degu,
baina zer demontre da hau?
Bistakoa da: bere buruan
aurretik eginak dirau.
Nahi ez duela heldu zaizkio
hainbat lege, hainbat arau.
Zu jarrarazi egin zaituzte
eta ni berak jarri nau.

- Lujanbio* Baina bidea nik libre daukat
ta zuk bete-bete trabaz;
ni gazteleraz inprimatua
eta zu berriz euskaraz.
Gure jabea beti dabil zu
beste baterako lagaz,
argazkia ere munituta dezu
izango zuen dardaraz!
- Mendiluze* Biak batera zeuzkan ordea
dardara eta zentzuna.
Ni egitea izan da beraz
zurekiko erantzuna.
Nik azaltzen det jabeak duen
berearen maitasuna;
zuk bere izena azaltzen dezu
ta nik bere nortasuna.
- Lujanbio* Biak patrika berean gaude,
biak elkarren hurrean;
ni zurekin ez baina zu zaude
nerekiko haserrean.
Zu nortasuna omen zerala
diozu modu errean,
nortasuna ere galtzen du batek
goardia zibilen aurrean!
- Mendiluze* Goardia zibilen aurrean nahiz ta
susto bat duen hartua,
ni atera nau nahiz eta izan
zuregatik galdetua.
Jarrera horrek ni indartzen nau
ta zeu zera kaltetua;
indarra dezu baina horrela
kenduko dizut lekua.
- Lujanbio* Neri lekua kendu nahiean
al da zure jo ta kea?
Oraindik indar haundia daukat,
beharko dezu tartea.
Nere aurpegiak sortarazten du
patxara eta pakea;
zure aurpegiak irekitzen du
kalabozoko atea.

Lujanbio-Maia

Gaia: Zuk Maialen, asteburuan diskotekan mutil batekin dantza egin ondoren zeharo lotsatuta bukatu zenuenez, dantza akademiara joatea erabaki duzu. Han, atea ireki eta Jon, igandeko neska bera, irakasle. Launa bertso, zortziko txikian, Maialen hasita.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Dama gazte xarmant bat

Lujanbio Kontxo, a ze sorpresa,
mutiko gailena!
Gogoratu zait zure
anuntzioarena.
Zu al zera munduko
irakasle onena,
pasodoblea hiruko
egiten zuena? (bis)

Maia Ni naiz mutiko hori,
har zazu kontura;
nik han ikusi nizun
zeneukan ardura;
zu zera neska hori,
a ze abentura,
pasodoblea erdi
bihurtu zun hura! (bis)

Lujanbio Oraindik naiz zurekin
dantzatu desiran,
hankapalon bat edo
ia komeni dan.
Mejikanetan ere
jiran eta biran,
belaunarekin tripan
ematen zenidan. (bis)

Maia Nik honi ezin diot
ezer erakutsi,
baina etorri da ta
hori ez da gutxi.
Lehenengo aholkua:
indarrakin eutsi,
lepotik heldu eta
hankak libre utzi. (bis)

Lujanbio Gero nahi nuen euskal
dantzak dantzatzea,
besoak gora jaso,
buruan haizea.
Hanka haundi hoiekin
normal nekatzea,
kosta behar zaizu hanka
puntetan jartzea! (bis)

Maia Ez zen mejikanarik,
ez pasodobleka,
euskal musika ere
ez zegon uneka.
Musikaz ezer ere
ez dakizu neska,
han soilik bakailaua
entzuten zen-eta. (bis)

Lujanbio Baina nik nahiko nuke
musika hura ken,
bakailauak ez baitzun
nahi aina iraupen.
Nola mirari haundirik
ein ez genezakeen,
ia ikasten degun
kalejiran joaten. (bis)

Maia Kalejirakin egin
liteke balantza;
nik orain hartzen dizut
ahateen antza.
Partikularretara
zatoz etxerantza,
nik ondoen etzanda
egiten det dantza. (bis)

Iturriaga-Colina

Gaia: Zuek, Unai eta Sustrai, lagunak zarete. Zuri, Unai, amodioa era tradizionalan egitea gustatzen zaizu. Sustrairi, ordea, ohiko ez diren leku eta egoeretan. Launa bertso, zortziko txikian, Unai hasita.

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Kantatzera nijoa

Iturriaga Tradizionala naiz ni
bizar eta guzti,
modu tradizionalaz
gura dut nik busti;
misionero postura
ez dago hain gaizki,
ta, hori bai, kaltzontzilo
zuriekin noski! (bis)

Colina Lehenik igogailuan
goxo bapo-bapo;
parkean izaten da
buruhauste pranko;
kateekilan edo
armariotik salto...
Bizi geran artean
probatu beharko. (bis)

Iturriaga Edonoiz ta edozelan
sexuari ekin,
zer etorri litekeen
Sustrai, ezin jakin;
kontuz hainbeste salto
ta hainbeste puentin,
esperimentuak beti
gaseosarekin. (bis)

Colina Gaseosa behar da
lagunan epaian,
morbo kontutan gabiltz
hementxe ezbaian.
Nik gero jo behar dut,
ta era lasaian,
Iturriaga bakarka
ari dan garaian. (bis)

Iturriaga Ontxe geratu zara
Sustrai barregarri,
zu sexu jardunean
ta ni larri-larri;
naturala izaten
naizenez ni sarri,
ni entzuterako orduan
kondoirik ez jarri. (bis)

Colina Gozatu bat hartzea
da nere erronka,
hementxe ibiltzen naiz
kota eta kota.
Belodromoarena
gaur zaila dago-ta,
argirik gabe ere²⁵
ez dio inporta. (bis)

Iturriaga Neroni ere egon naiz
horixe pentsatuz,
argiaren kontua
larruari lotuz.
Argia joan ta etorri...
ibil zaitez kontuz,
hori izan liteke
coitus interruptus. (bis)

Colina Hori're probatzea
ona da tarteka,
behera, gora, nun kristo
al dago oreka?
Baina buka dezagun
azkar ta lasterka,
neska-lagunarekin
geratu naiz eta. (bis)

Lujanbio

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Haižeak bidali du

S. Jauregi *Gorrotoaren suak*
 bartu du indarra,
Lujanbio barruan dabilkigu
 sua eta garra;
 zorroztu begirada
 eta atzaparra,
 baina noizbait daukagu
 hitz egin beharra.

²⁵ Hori kantatu baino segundo batzuk lehenago argia joan zen oholtza inguruan.

S. Jauregi *Gerra urrunean ta*
Lujanbio *gerra hurbilean,*
ta begirada sarri
kanpora bidean.
Afganistanen dabiltz
beldurrak aidean,
baina zer konpondua
badugu geurean.

S. Jauregi *Pertsona pertsonaren*
Lujanbio *etsai handiena,*
horretzek ematen du
mina eta pena,
baina Belodromoa
gaur da nabarmena,
pertsonek lagun eta
herri bat garena.

S. Jauregi *Laguna ez den hura*
Lujanbio *etsaia ote da?*
Askok pentsatzen duna
gutxi gorabehera;
gorrotoaren harra
da gure kaltera,
hitz eginez bakarrik
egin leike aurrera.

Iturriaga

Gai baten inguruan hasierako puntuak emanda

Neurria: 8ko txikia

Doimua: Haižeak bidali du

S. Jauregi *Geroak sortzen digu*
Iturriaga *makina bat kezka!*
Hori nire ustetan
normala da neska;
zer datorren ez jakin
eta ezin presta...
Gainera kezka hori
gaur egungoa ez da.

S. Jauregi *Zer eskatzen diozu*
etorkizunari,
Iturriaga aske eta librea
bihurtzea Euskadi;
elkarlanari lotu
ta eutsi lanari,
nor garen jakin beza
mundu denak garbi.

S. Jauregi *Norberak nahi duena*
lotu ahal baleza...
Iturriaga Hori da euskaldunok
daukagun amesa,
badakigu gainera
ez dala erreza
ta ez dela lagun ona
holakotan presa.

S. Jauregi *Baina arriskatzeak*
ez al du merezi?
Iturriaga Koldarrak joaten dira
bakarrik ihesi;
merezi dun jentea
behar da berezi,
guztieri entzun ta
hortatik ikasi.

Colina-I. Elortza

Gaia: Zuek biok itxaropena zarete. Zu, Sustrai, txiroen itxaropena zara, eta Igor aberatsen itxaropena da. Hiruna bertso, sei puntuko motzean, Sustrai hasita.

Neurria: Sei puntuko motza

Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

Colina Topera nago aurrena,
ez naiz ezer'e hurrena,
gauzak aguro aldatzen dira
bizitzan barrena.
Esperantza etsipena
ez ote da txiroena?
Ni nautelako bizitzan duten
armarik onena. (bis)

- I. Elortza* Nahiz ta ez naizen krudela,
aberatsekin fidela;
nahi dut diruak segi dezala
lehenago bezela,
dirudunentzat horrela
beti irabazi itzela,
ta esperantza daukat halaxe
gertatuko dela. (bis)
- Colina* Jokatzen badute trebe,
egiten diet mesede,
auzo batzutan nahiz etsipena
den beti errege,
animatzea dut xede,
normala da alafede,
aberats egin nezakeelako
pobreena ere. (bis)
- I. Elortza* Bota duzu mila mezu
ta ni ez naiz horren kexu,
nigatik bada pobre artean
segi dezakezu;
eta sinets nazakezu,
gaur hartzen dut konpromezu
geroago ta gehiagorena
izan zaitezzen zu. (bis)
- Colina* Izan arren atsegina,
ni gozo ta hau gordina,
zentzu berean ez baitijoa
gure ahalegina.
Hori da daukazun mina,
zure nahia ta ezina,
anbizioa ta esperantza
ez dela berdina. (bis)
- I. Elortza* Zu ikusten zaitut gazte,
ene, zenbat buruhauste!
Esperantzaren bila burua
hor dijoa aske.
Aberatsentzat nahi beste,
pobreak zorion eske;
horrela bada biok egia
bihurtu gaitezke. (bis)

Egaña-Iturriaga

Gaia: Zuretzat, Andoni, mundu honetan garrantzitsuena, onena, lehena izatea da. Unai, orde, nahiago du ez nabarmentzea. Hiruna bertso, seiko motzean, Andoni hasita.

Neurria: Sei puntuko motza

Doinua: Aizak bi mutil mainontzi

Egaña Zizpuru eta hasperen
beti glorian ondoren,
geroak gutxi balioko du,
beti carpe diem;
beti goian, beti lehenen,
ez dakit berdin ez zaren;
bestela esan hemen gaurkoan
zergatikan zauden? (bis)

Iturriaga Hori ez da zure problema,
nik badut neure barrena
eta hor dudan bertsoen maila
nahiko nuke berma.
Ondo doakizu dena,
orain bai, baina hurrena
kazetariak esango dute
noiz zaren azkena. (bis)

Egaña Anbizioan zimendu,
hortikan sortu bi mendu,
zeuk ere hobe nere jarrera
hartuko bazendu:
nabarmendu, nabarmendu,
gailendu, beti gailendu.
Apaltasuna ez al da ezin
dutenen ukendu? (bis)

Iturriaga Zu zaude laudorioz blai
ta ez zara ikusteko gai
gautik goizera nola aldatzen
diren mila epai:
“ Bertsolaria ez da Unai,
baina tranposo bada bai...”
Nik neuk ez nuke sasijakintsu
hoien eskutan nahi. (bis)

Egaña Zure etorri bustia,
sari zedarrri whiskia,
ez du merezi hemen ezina
goratzen hastia.
Badator une tristia:
arbolatikan jaistia;
orduan nik neuk tapatuko dut
neronen uzkia. (bis)

Iturriaga Ez zan arrazoi makala!
Baina tapatu ahala
ikusiko da beste Andoni bat
normal ta apala.
Segi orain arte bezala:
famatu ta zerbitzala;
bide ertzean egongo gara
ni ta nere itzala. (bis)

Irazu

Gaia: Sei urteko semearekin batera bizi zaren ama ezkongabea zara. Gaur, semea ikastolan, “aita, ama eta ni” deritzan marrazkia egin duela esanez datorkizu. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Itsaso hori dago zatarra

Haren goxoa, haren epela,
orain malkoek musu umela,
aita ta hirurok marraztu eta
ume hona zatozela. (bis)
Zu jaiotzeko zinela
istripu batean bela...
a ze destino krudela!
Ta orain berriz marraztu dezu
bera balitza bezela;
banekien bai ikusi ez ta're
bihotzean zenuela! (bis)

Umea zuri zenbat goraintzi,
oroimenak du mila garrantzi,
zuri barrutik atera zaizu
zenbat maitasun ta antsi! (bis)
Aita gabe ezin etsi,
ta marraztera iritsi;
haurra ezin det sinetsi!
Bere argazki bat badago gelan,
sekula ez dizut utzi,
ta ze marrazki egin diozun
zoaz eta erakutsi. (bis)

Istripu hura ez zan makala
baina sortu da bere ezpala,
bere irudia bere aurpegian,
soinean, daramadala. (bis)
Haurra eder ta kabala,
maitekorra ta apala,
aitak nahiko zuen hala!
Marrazki horrek etorkizuna
zerbait goxatu dezala,
eta ez zazu sekula ahaztu
etxean hiru gerala. (bis)

Lujanbio

Gaia: Ezindua zara. Zure gurpil-aulkia duzu derrigorrezko ibilgailu. Aulkiari erantsita duzun motxilatik kartera ostu dizute gaur. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Neurria: 16ko bandia

Doinua: Hai^zea dator iparraldetik II

Inpotentzia sentitzen det nik
besterikan ezinean,
bizi guzia pasa beharra
arantzez bete minean;
hanka bikoak tratatu nahia
berdinean-berdinean,
zurikeria hutsa baino ez da
gizartean mingainean.
Aulki gurpildun gainean nabil
nahiz gazte izan adinean,

bestela ezin-ta kartera eta
motxilatxoa soinean.
Baina bizia, bizi alu hau,
ikus litekeen heinean,
gurpil gainean goazenontzat
ez doa kurpil gainean.

Atzekaldetik etorriko zan,
gu horretan ahulak gara,
ispilurik ez ta ezin luza
atzerako begirada.
Motxila beltzan patrikatxoan
egingo zun labankada,
nerea zena, kartera, doa
orain bere patrikara.
Inork ez nau ni laguntzen, inork
ez nezake gaur anpara;
salduta nago, etsita nago,
ume galduen gisara.
Dena ezina, dena bide estu,
dena arantza ta traba,
ta okerrena ohitu ein naizela
sensazio honetara.

Zer egingo det, gurpilei eman
ta etxeratu beharko;
nere kartera zaborren baten
azalduko da biharko.
Ezinduaren karneta hantxe
ta dirua da faltako,
ta lapur esku-zurin bat noski
dotore eta galako.
Hemen exeri ta negar egin
nezake, baina zertako?
Bihozgabeak nere dirua
hartu dezala aintzako;
gozatu eta aprobe txatu,
hori jotzen det ontzako,
beretzat baino askoz gutxio
balio du neretzako.

Egaña

Gaia: Hemezortzi urteko ikasle batez maitemindu zaren berrogeita bost urteko irakaslea zara. Zure burua eta bihotza ezin dira bat etorri. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Neurria: Bederatzzi puntukoa

Doinua: Munduko ilunabarra

Sentimentuen ardagai,
nere izar denen sabai,
ikuspegi oron talai,
jaiotza eta hil kanpai.
Nere ikasle bat ezagutu nun,
hasieran ez nuen nahi;
begi aurrean jartzen zitzaidan,
ez nintzen sentitzen lasai.
Ezkondua naiz, orain artean
banuen hainbeste dohai;
hainbesteraino txatxutu al naiz?
Nik zer egin behar dut, ai!
Ulertu ez dut ulertzen baina
bizi eta sentitu bai. (bis)

Bizitza dugun ruleta,
beti jira eta buelta,
hari begira zer gerta,
pasibokeriz beteta.
Alde batetik nere andrea
dut bihotzean gordeta;
bestekaldetik orain sortu zait
nexka horrekin apeta.
Egia esan maitemina da,
ez da gero berriketa!
Zer egingo det, nola jokatu,
aidera bota pezeta?
Azken batean bizitza ere
leon-castillo da-eta. (bis)

Nere bihotz ta teilatu,
behin behar eta banatu,
batek bestea ukatu,
erabakiak nekatu.
Leon-castillo esan det baina
patua beti da patu;
ez dakit ziur nere andrean
ondoan neu orekatu,
edo bestela gazteaz joan,
abentura ferekatu.
Pentsatzen ia ahitu naiz eta
ohean nahi nuke sartu,
ta erabakia almohadakin
ta halare nik neuk hartu. (bis)

GOIZEKO PUNTUAKETA METATUAK

Egaña	836,5
Lujanbio	815,5
Mendiluze	814,5
Iturriaga	793,0
Colina	783,5
Maia	777,5
Irazu	774,5
Elortza	771,0

ARRATSALDEKO SAIOA

Aurkezlea: Mikel Taberna
Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz

Mendiluze

Hasierako agurra

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Ai hori begi ederra

Bakoitzak kantatu ahala
aurrera doa finala
eta gure eginahala.
Nahiz ta zortzirok present daukagun
goizeko lanen itzala,
eskatu ohi den bezala,
ibilian gabiltzala
buruak eman dezala.

Lujanbio

Hasierako agurra

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Sagutxo batzuekin

Nik ez nuen nahi zortzi,
nik ez nuen nahi bat,
baina papel tikiak
zeuden gu bezainbat.
Goizean laua nintzen
ta pozik erabat;
orain Sustraik esan dit
“segi, segi harat”;
txapela gero eta
hurbilago daukat²⁶.

²⁶ Zortzigarren eserlekuaren alboan mahai bat zegoen, gainean bertsolariantzako sariak zituena, txapel preziatua besteak beste.

Egaña-Maia

Gaia: Zuk, Andoni, hamabost urte daramatzazu kartzelan. Gaur, aurreneko aldiz kartzelara sartu duten Jon gaztea ekarri dute zelda berera izaturik. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Andoni hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Espainian behera

Egaña Lau horma beltz hauekin
luzaroan teman,
sentimentu pila bat
bildu det niregan;
zu lehenbiziko aldiz
gaur zaude ziegan,
ez zaite dardar hasi
lertxun hosto eran,
satisfakzio hori
ez zaiezu eman. (bis)

Maia Kartzela ezin izan
ametsen arrago.
Komisaldegi baten
egon naiz luzaro;
torturatu egin naute,
ez da hain arraro;
nik eutsi egin diet,
nahiz ta jo hordago!
Txikitu egin naute,
baina zutik nago. (bis)

Egaña Aurpegia dakarzu
oskorri kolore,
atzapar bi zuriak,
hainbat kolpe more.
Barreneko beldurra
barrenean gorde;
hemen egongo zera
gaur eta gero're,
bilakatu ezazu
ikara adore. (bis)

Maia Ikaratzea beti
gaiztoen gurari,
ni zutik egotea
ez al da mirari?
Zuri jarri natzaizu
begiratzen adi;
zuk hel zaiozu nere
gaztetasunari,
eta nik berriz zure
duintasunari. (bis)

Egaña Goardian dagon hori
a ze marrazoa!
Erori zera eta
hark ezin jaso.
Nere burruka fede
trinko temoso,
zure gaztetasuna
herabe goxo...
Biok osatzen degu
preso bat osoa. (bis)

Maia Biok bat gera noski,
benetan hala da,
nahiz eta egoera
ezin den konpara.
Zuk sortuko didazu
nahi dudan zirrara,
ta ni baino lehenago
irtetzen bazara,
nigan gordeko zaitut
eredu gisara. (bis)

Colina-Lujanbio

Gaia: Zu, Sustrai, hamasei urteko gaztea zara. Etxean ikusten dituzun diru arazoez ohartuta, zeu lanean hasteko proposamena egin diozu Maialen, gurasoari. Hiruna bertso, hamarreko txikian, Sustrai hasita.

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Hamalan heriotzera

Colina Etxea bihurtu da
etsipen arrago,
denak sentitzen gara
triste ta arraro.
Guztiak gose eta
jatekoik ez dago,
ni lanean hasteko
gertu-gertu nago,
etxean izan nahi dut
beste bat gehiago.

Lujanbio Aita elbarria da
ta ni langile fin,
eta zuk Telepizzan
ze kontratu zikin!
Eskertu nahi nizuke
nik bihotzarekin,
baina gazteegi zara,
ez lanari ekin;
ikas'zagun bizitzen
gutxiagorekin.

Colina Holako bizitzarik
ez gendun amestu,
egokitu zaigu ta
beharko sinestu.
Etxean denak gaude
larri eta estu,
lanean hasi nahi dut
bihotz eta esku;
tamalez pobreziak
adinikan ez du.

Lujanbio Adinik ez du eta
zu harrapatu ote?
Badezu nahiko bihotz
ta nahiko bertute,
baina gaixo, bakarrik
hamasei bat urte;
badakit: zuk ikasi
egin nahi zenduke;
ez zure ametsa saldu
lau peztaren truke.

Colina Kontutan hartuko dut
amatxok esana,
ta ez ditut salduko
izen ta izana.
Zoritxarrez beharrak
hortara narama;
egunez eta gauez
egingo dut lana,
harro egon daitezen
aita eta ama.

Lujanbio Lehen ere harro gaude
zu zeu zarelako,
zure laneko grina
uztazu biharko.
Nik promes egin nuen
zu izaterako:
nere seme-alabek
sekula santako
ez zutela behin ere
zer janik faltako.

Maia-Colina

Puntuka

Gaia: Zu Jonen ama, eta zu Sustrairen ama zarete. Zuen etxeakoak dira azkenik txapela jokatzeko gelditu diren biak. Nork irabaziko ote du? Zortziko txikian, puntuka, zortzi bertso osatu arte.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Triste bizji naiç eta

Maia Ai, gure kankailua
ederki ari da!

Colina Egoki luzitu du
bersoen harira.

Maia Hor dabil puruari
tira eta tira,

Colina eta amatxo aurrean
arretaz begira.

Colina Hala ere gurera
heldu da txapela.

Maia Zuen semea ere
ez baita txepela.

Colina Horrela irabazi
behar dut kiniela.

Maia Ziur Jonen atzetik
geratuko dela.

Maia Guriak gosaldu du
arraultza pareta.

Colina Guriak'e ta agian
hor dago klabea.

Maia Jaten gutxinez badu
abilidatea.

Colina Jaten bikaina da-ta
bersotan hobea.

Colina Bietan ez daduka
Sustraik parekorik,

Maia baina aukera badu
ezer hartzekorik.

Colina Gaur txapeldun dugula
irizten diot nik.

Maia Jonek hartu ezkeru,
ez du egingo lorik.

Maia Entzun al dezu Jonen
gaurko habanera?

Colina: Barkatu, une hortan
juan naiz kumunera.

Maia Txanpainez beteta dut
etxeke bainera.

Colina Hala ere ederki
moldatuko gera.

Colina Bi ama hemen gabiltz
ta biak sufritzen,

Maia nahiz ta bertsoz ezer
ez deun entenditzen.

Colina Semea dabil eta
hor gabiltz sentitzen.

Maia Gazteago banintza
neu hasiko nintzen!

Maia Hau da sufrimentua
 ta ezin bukatu!
Colina Luze ari direla
 zertako ukatu?
Maia Bakarkako lanari
 ezin ondo hartu.
Colina Beatziko txikian
 behar du kantatu.

Colina Horrela're ez badu
 azkar bukatuko.
Maia Gureak mantsotzeko
 badu mila truko!
Colina Musu emango diot
 ikusitako orduko.
Maia Ez dela nerbiosoa
 Euskadi lekuko.

KARTZELAKO LANA

Gaia: Aturritik Ebrora herri bat badela Belodromoa izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Egaña

Neurria: Bederatzzi puntukoa
Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Aturritikan Ebro tartean
 gauza onik ezin soma,
 inondik ere egin baidegu
 erreten sakon-sakona;
 nere aurretik aita nuen ta
 aitan aurretik aitona...
 Ez degu lortu baina haurrentzat
 desio dugun zoriona.
 Behingoagatik lortu nahi nuke
 jendearen jaramona!
 Kartzeletako lau horma,
 eskoltak hara ta hona...
 Herri aske bat utzi nahi diet
 ta herrian aske gizona,
 ta horretarako egin nahi nuke
 nere eskutan dagona.

Lortuko degun ala ez degun
denbora bera da juez,
ilusioa behintzat badegu,
horretan gaude indarrez.
Baina zergatik gabiltza denok
aurpegi ilun samarrez?
Hemen oihu bat egin nahi nuke
esperantza gorazarrez.
Etorkizuna hobe dela
egingo nuke nik trabes:
gure helburu ta amets
guztiak kunplitu baietz!
Badakit ondo asko gaudela
pentsakera desberdinez.
Postura denak onartzen ditut,
baina ajolik eza ez.

Bizi dadila gure herri hau,
bizi bedi iritzia!
Askatasuna izan dadila
bake bidez iritsia!
Orduan pozik egingo nuke
askatasun irrintzia.
Maiz helburuak aipatu arren,
bideak du garrantzia;
bidea zein den nik neuk bederen
ez dut oraindik ahantzia.
Zenbat gogo ta antsia!
Eta ate bat itxia.
Nik Euskadi bat amestu nahi dut
inortxok ez irentsia;
hori litzake nere haurrentzat
nik nahi dudana herentzia.

Maia

Neurria: Zortzi puntukoa
Doinua: Zuek borrela ikusi eta

Aturri ez da bakar-bakarrik
bide baten doan ura;
hamaika aldiz amets eginez
sartu naiz bere barrural
Tamalgarria izan da sarri
gure herriko itxura.
Aspaldian arregura
heldu da euskal mundura.
Gainera, hor dago muga.
Askatasuna nahi det zuentzat,
hizkuntza eta kultura,
hain zuzen ere gure herriai
lapurtu dioten hura. (bis)

Belodromoa batasuna da,
hori denontzat argi da;
hemen herri bat ikus dezaket
Lizarratik Garazira.
Gure herria ikusi nahi det
gaurko egunan neurrira,
ta ez sasitik sasira,
beti mila tira-bira...
Ta azkenengo orrira
sartu gaitezen, gero artian
esperantzaren harira,
iraganari lotuak baina
etorkizunai begira. (bis)

Herri bat gera, Euskal Herria,
horixe bere izena;
sentimentutan beretzat daukat
sentimenturik gorena;
zin egiten det berarekiko
loturikan nagoena.
Seme-alabaren pena,
bihotzeraino zuzena,
alda dezagun ordena.
Benetan diot: nik emango det
barruan dudan onena,
seme-alabek izan dezaten
guk izan ez genuena. (bis)

Irazu

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

Aturritikan Ebrora
mendetako ibilera,
joan daneko aspaldian
ez ote doa gainbehera?
Buruak ez du ematen,
bihotzak berriz minbera,
bidea baidijoa hor
bakar batzun arabera;
kolpeka bakarrik goaz,
baina norantza gainera?
Irriparrerik ez dago,
sufrirentua sobera.
Herri bat omen gera bai,
baina ezin egin aurrera
lau urtean behin bakarrik
elkartzen baldin bagera.

Ekintzarikan ez dago,
hitz politak mingainean;
geroari guk zer utzi
hor ari gera lanean.
Ezer geldituko ote
saiatzean ordainean?
Bertsoak elkartzen gaitu,
elkartzen gaitu sailean.
Herri hau Belodromoa
bere zentzu gordinean,
txirrindularitza pista
hor daukagu eskinean,
Euskal Herria horixe
baidegu azken finean:
buelta ta buelta gabiltza,
baina irten ezinean.

Gerorako nahi det herri
bat ederra ta anitza,
sinbolo ez du zertan izan
betiko bertsolaritza.
Atertu behar hortako
alde bietako ekaitza,
geldi beharko hortarako
hainbeste eraso bortitza.
Zein ote irtenbidea
ta zeinek ote du giltza?
Denek berea jarri nahi,
denek daukate baldintza.
Kontua hala omen da:
erabakia ta hitza.
Hau konponduta zegoen
hori bakarrik balitza!

Iturriaga

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

Orain arteko bizitza
izan da nahiko tristea,
ta noizbait iristen bada
noanaren albistea,
nahi nuke orain arteko
kate lodia haustea,
gozoa izan dadila
gure etxeko gerizpea,
lagun bihurtu daitezela
bai bata ta bai bestea,
errespetuan lehenbailehen
ta guztiok sinestea.
Nik gure ondorengoei
gura nieke uztea
gure duintasuna eta
gure Euskal Herri askea.

Ohikoak izan ditugu
gure herrian liskarrak,
nahiz ta batzutan estali
Belodromoko aparrak.
Badakit gu ez garela
sufritu dugun bakarrak.
Aurrez aurre jarri gaitu
aurrera egin beharrak.
Nahiko nuke bukatzea
behingo baten garai txarrak,
kartzela eta torturen
testimonio zatarrak,
etxera etor daitezela
preso berri eta zaharrak,
kartzelan bakarrik utziz
joandako egunen marrak.

Denetik izan daiteke
komedia edo drama;
euskaldunok izan dugu
borrokalarien fama;
hitza bihurtu liteke
egunen batean arma;
alaba bihurtu leike
noizbait nere iloben ama.
Egindakoa eginda
herria ezin da bana;
orain artean eraman
badugu guk gure zama,
ez pentsa gero horrela
bukatuko danik dana;
jakin zazue: oraintxe
hasten da egizko lana.

I. Elortza

Neurria: Zortzi puntukoa
Doinua: Gure lurrian hedatua da

Gure lurrian hedatua da
bildurra ta gorrotoa,
ilusioa ta gero ere
dator belarrondokoa.
Herria dugu jokoa,
geu al gara oztopoa?
Baina herri hau beti izan da
zintzoa ta berbakoa;
aurki dezagun gakoa,
behar den bezalakoa,
hurrengoeri ez emateko
lehengoei jasotakoa. (bis)

Elkarrizketai zer dela eta
horrenbeste erreparo?
Gero etxe ta tabernan zehar
badabil mila barbaro!
Sufrimenduan zeharo
bizi izan gara luzaro,
baina aurretik dugu oraindik
egun bat baino gehiago;
berandu baino lehenago,
joan gaitezen azago;
gure herriak duen onena
oraindik gordeta dago. (bis)

Belodromoan bizi-bizirik
herri baten sentimena,
ez dugu behar geu izateko
beste inoren baimena.
Oraina eta lehena,
gero bihur litekeena,
mila arazo dauzkagu baina
geu ez al gara problema?
Izango ahal dugu ahalmena
ta beharrezko den dena
beste noranahi eramateko
hemen batu gaituena! (bis)

Lujanbio

Neurria: 16ko handia

Doinua: Haizea dator iparraldetik II

Konponbidea duena al da
gure herriko kasoak?
Handik atake pozoitsua ta
bestetikan erasoak.
Barnean ere pozoia sobran,
ta hori da arazoa;
herria hola ezin liteke
egon goruntza jasoa.
Bertsolari lez eman nuen nik
nere bizitza osoa;
erretiratu nintzen ta orain
ikusleen aulkitik soa.
Aturritikan Ebro bitarte
oso luze da pausoa,
tartean dago Belodromoa,
txaloaren itsasoa.

Lehen esaten “zer eingo degu
gure hizkuntza hiltzean?”,
baina hori ere jasotzen gabiltz
orain hitzean hitzean.
Bersolaritza ere ez dago
hain egoera hitsean,
ez dago behintzat garai bateko
kinka larriko trantzean.
Nere alabai esaten diot
zaharrek neri antzean,
arreta jarri dezala ongi
Belodromora sartzean,
begiratua luza dezala
jarriz han goiko ertzean,
ta esperantza dasta dezala
zuen txalo bakoitzean.

Gaur da finala, zabal begiak
 ta ikustazu alaba,
 lehengo egoera latza orain da
 zorionaren balada;
 begira zenbat gazte datorren
 gaur berso saioetara;
 denak elkarren lagun gera gaur,
 batera herri bat gara.
 Mikrofonoai begira hara
 hamar mila begirada;
 isiltasuna eta ondoren
 zuen txalo zaparrada,
 zorionaren irrifarrak ta
 emozioan dardara...
 Alaba, hementxe herri bat dago
 ikusi nahi dunik bada.

GOIZ-ARRATSALDEKO PUNTUAKETA

	Goiza	Arratsaldea	Metatua
Egaña	836,5	520,5	1.357,0
Lujanbio	815,5	498,5	1.314,0
Mendiluze	814,5	460,0	1.274,5
Maia	777,5	480,0	1.257,5
Colina	783,5	473,0	1.256,5
Iturriaga	793,0	459,0	1.252,0
Elortza	771,0	464,5	1.235,5
Irazu	774,5	447,5	1.222,0

AZKEN FASEA

Egaña-Lujanbio

Gaia: Euskal Herrian aspalditxotik bizi dugun gatazka honetan seme bana galdu duzue biok. Zuk Maialen, seme iheslaria galdu zenuen; Andonik seme ertzaina. Hilerritik etxera bidean hizketan hasi zarete. Hiruna bertso, Iparragirre doinuan, Maialen hasita.

Neurria: Berezia

Doinua: Iparragirre abila dela

Lujanbio Nere semeak alde egin zuen
herri urrun batetara;
han minbiziak jo zuen eta
ez da itzuliko jada.
Ni behin ama izana,
eta zu ere ama,
ulertu zaitzaket, hara:
modua ez da berdina baina
hutsunea berbera da. (bis)

Egaña Zure semea herriz kanpora
joan, hori zuen xede,
borroka baten ilusioak
egin baizituen bere.
Nere zenak soldata
nominaz aterata
bizibehar, alafedel!
Nere semeak ez zuen izan
aukeratzerikan ere. (bis)

Lujanbio Ez batentzat ta ez besteantzat
ez da amaiera polita,
amak ez dauka zertan sufritu
bere semearen kinka.
Zurea zan polizi,
boterean kutizi.
Nerea tiroz hasita...
Baina ama baten ideologia
maitasuna bakarrik da. (bis)

Egaña Nere semean oroitzapenik
ez zait ahaztuko sekula,
hain gendun mutil gazte sanoa,
formala eta mardula.
Zatoz nere ondora,
bihotzetik kolkora
zera nahi dizut xuxurla:
gauza batean seguru nago,
berdin maite genitula. (bis)

Lujanbio Atzapar beltzak harrapatu zun
ta hura nigandik kendu;
ez esker on ta ez animo hots,
gaur ezer ez da ukendu.
Zu ere zabiltz berdin,
bizitza dezu samin,
ta nahi nuke nabarmendu:
seme-alaba bat hiltzen duenak
bere ama ere hiltzen du. (bis)

Egaña Ez det pentsatzen geranik ere
zu laiotz, ni egutera;
biok daukagu gure bihotza
sufrimenduz egarbera.
Kontuak esateko,
lagunak izateko,
goazen taberna batera;
gure hutsunea berdina bada,
bete dezagun batera. (bis)

KARTZELAKO LANA

Hitza-gaia: Eskua. Bertso bat bederatziko txikian.

Gaia: Zure lagun min bat hil zen joan den astean Himalaian. Gaur jaso duzu berak handik bidalitako postala. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan.

Lujanbio

Hitza-Gaia

Neurria: bederatziko txikia

Doinua: Betroiarena

Langileek lakar ta
pianistek fin-fin,
instrumentua joaz
bost hatz hoiekin.
Eskua eman leike
edo kendu berdin.
Sinbolizatu nahi det
nik herriarekin;
hemen hainbeste min
eta biziezin,
hainbat negar gordin,
behingoz buka dedin,
heldu eskutik eta
aurrera egin. (bis)

Gaia

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

Kaixo Maialen: zer moduz?
Oroimena daukat zugan,
presente zauzkadalako
nere mendi abenturan.
Zorionean gabiltza
mendiarekin loturan;
badakizu, beti gisa,
nahi ta ezinaren mugan.
Makaluko gailur horrek
gu jartzen gaitu liluran;
etzirako egongo gera
gailurrarekin joskuran.
Har zazu muxu bero bat,
jarri konfiantza gugan.
Zein bero zen muxua ta
nik zeinen hotz hartu dudan!

Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nijoa aguantatzera.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan bera...
Bere ilusio ta amets
guzia juan da gainbehera,
ikurrinarekin juan nahi
zazpi milako batera,
ta orain Makalun dago
heriotzaren bandera.

Irratiak eman zuen
elur-jauzien abisu,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste konpromisu
bazendun, ta holakotan
egoskor bat dirudizu;
aurrera segiko zendun,
beti egin dezu berdintsu.
Bizitzan ilusioa
herioren paradisu;
gero arte esaten ere
ez didazu utzi, aizu;
ta zuri azken hitz batzuk
esan nahiean naukazu,
karta bat egingo dizut,
akaso jasoko dezu.

Egaña

Hitza-Gaia

Neurria: Bederatziko txikia

Doinua: Gaztalondo bandian

Sarri ikusi dezu
atzamar erara,
alde hortatik ere
a ze bolada!
Hertsiko bagenuke,
indarran islada;
ukabil deitzen zaio,
nolako pasada!
Hemen lagun gara,
aitortzen dut hara,
ta Maialen jada
hor doa bertara:
gehien estimatzen dut
bosteko bada. (bis)

Gaia

Neurria: Zazpi puntukoa

Doinua: Munduan libre bizji izatea

Hasera baten jasan izan dut
halako negar krisia,
etsipena ta amorrua zen
sentimentu nagusia.
Himalaiako *serac* txar baten
gaiztakeri malizia;
nere zorion dosia
haundia edo poxia..
Ze pena dedan azkenaldian
laguna ez ikusia!
Orain postal hau izan dadila
zure oroipen bizia. (bis)

Postala heldu da eta zu falta,
destinoa azkenean
etorri zaigu Himalaiatik,
gezi gisan zuzenean.
Zure postala nere eskutan
dardarka hasi denean,
nahiz pena izan barnean,
ez nengon etsipenean.
Barru-barruan gordeko zaitut
nere oroitzapenean,
leihora irten ta Ernio gaina
elurtuta dagonean. (bis)

Ze ederra den Himalaiako
 haizearen zirimola!
 Era hontako gairik ez nuen
 espero hemen inola.
 Jakin zazute hau Felixekin
 ni neu bizia nagola;
 hargatik bor-bor odola,
 ia galdu dut kontrola.
 Bertsozalea genuen hura
 eta hau da parabola:
 iruditzen zait Belodromoan
 gure artean dagola. (bis)

SAILKAPENA

	Goiz-Arrats	Azkena	Metatua
Egaña	1.357,0	565,0	1.922,0
Lujanbio	1.314,0	592,5	1.906,5
Mendiluze	1.274,5		1.274,5
Maia	1.257,5		1.257,5
Colina	1.256,5		1.256,5
Iturriaga	1.252,0		1.252,0
Elortza	1.235,5		1.235,5
Irazu	1.222,0		1.222,0

BUKAERAKO AGURRAK

Irazu

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

Mila zorion Andoni,
ez daukak buru urria!
Ta neri eman didate
zortzigarrenan harria;
karrerilla hartzeko igual
leike mesedegarria,
lau urte barru behar det
puntu-puntuan jarria.
Aturritik Ebroraino
gaur zabaldu da irria;
bi hitzetan esateko:
benetan hunkigarria.
Belodromoa degu bai
gure biharko neurria:
sentituarazten eta
sentitzen duen herria.

I. Elortza

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Gure lurrian hedatua da

Ea gai garen gaur gai zirenak
gaindi ditzagun lehenbailehen,
hilak ez baina falta direnak
hurrengoan hemen diren.
Orain arnas ta hasperen,
hartu dezagun atsedeen;
sufritu baino askoz gehiago
gozatu egin dut hemen.
Andoni eta Maialen,
mila zorion dena den,
ea bi mila eta bostean
berriz hemen batzen garen. (bis)

Lazkano²⁷

Neurria: 10eko handia

Doinua: Aita izena kanta beharrak

“Bertsolaria izan behar det”
sinistuak egun batez,
zortzi artistak luzitu dute
beren bertsoaren artez.
Adinez behera jetsi da baino
oso gora kalitatez;
zer gozatua herri zahar honi
ama hizkuntzaren bitartez!
Beste behin harro egon gintezke
gure euskaldun izatez. (bis)

Iturriaga

Neurria: 12ko handia

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak

Mila zorion zuri Andoni
zurikeriak utzita;
beste hainbeste zuri Maialen,
duzu ondo merezita.
Parka une hontan egiten badut
desegokia den zita:
bertso asko joan da gaurkoan gure
herria gaitzat jarrita;
bertsoz ta txaloz egin diogu
geure buruei kritika;
hitzok gogoan hartu ditzagun,
baina geugandik hasita.

²⁷ Imanol Lazkano, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariak saria ematerakoan bota zuen bertsoa.

Colina

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

Ametsekin pasatako
marroirikan marroienak,
berso eskolan ezinez
igarotako orenak,
lagunek bizitakoak,
zein norbere bizipenak,
e-mail bidez jasotako
animorik goxoenak,
berso eskolako guztiak,
neure lagunik onenak,
gugan sinisten dutenak,
gu osatzen gaituztenak;
ez ditut denak gogoan,
oroitzen ditut gehienak;
honera ailegatzeko
beharrezko dira denak.

Maia

Neurria: Zortzi puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzan (Habanera)

Mila zorion Andoni
ta Maialen Lujanbiori,
miraria da leku hau
ez baldin bada erori.
Besarkada bat kartzelan
sartuta dauden deneri,
ta hainbeste sufritzen duten
neure etxeko bi neskeri;
baita ere neska horrengan
bidean datorrenari,
apur bat ta bihotzetik
Joanito Dorronsorori,
bertso eskoletan lanean
ari zeraten orori;
zuei eskerrak bizi da
herri hau bertso kantari.

Mendiluze

Neurria: Sei puntukoa

Doinua: Gregario edo laguntzaiile nai

Hasteko noski Andoni ezin
zoriondu gabe laga;
gero eskertu zuek guztion
pazientzia ta patxada.
Finala zer zen lagunen bidez
ezagutzen nuen jada;
hainbeste lagun bertara
etorri gera ta, hara:
ez haserrerik, ez gogo txarrik,
hau plazerra, hau pasada!
Lagunek esan didaten baino
askoz haundiagoa da. (bis)

Lujanbio

Neurria: 16ko handia

Doinua: Hai

Mila zorion zuri Andoni,
gehiago ezin zen eska,
txapela jarri duzu jokoan
ta berriz txapelaz buelta.
Ta zuei berriz ia zer esan?
Nago emozioz beteta;
zein betegarri, kariñoz bete,
zuen txaloen fereka!
Gu hemen egon gaitezen askok
lana egin du gordeta;
Lazkano gure patriarka haundia
aipatzen ezin naiz neka,
ta bertso eskolen bultzatzaileei
ohore eta arreta,
euren lanari esker ez balitz
gu ez geundeke hemen-ta.

TXAPELDUNAREN BUKAERAKO AGURRA

Egaña

Neurria: Bederatziko txikia

Doinua: Gaztalondo handian

Nere berezko dohai
apalen legami,
hau eskeini nahi diot
Xebastiani,
Mikel, Millan, Iñaki,
Anjel eta Joni,
berso belaunaldiko
hari eta honi.
Baina hik Andoni,
pentsatzen ipini,
badituk bi nini,
hau nori eskeini:
gaurkoa Saioari
eta Juleni. (bis)

KRITIKA

TO ARRAPOSTUAK

KARLOS AIZPURUA

HITZ BI

Lantxo honetan final laurdenetako saioetan barrena bertsolariek erakutsi duten erantzuteko jarrerari erreparatu diogu, ihardesteko moduari buruzko iruzkinak egiteko asmoz. Erantzuteko jarrera hori, Antton Kazabon eta Josu Telleriaren galbahean pausatu harri bitxietan xerkatu dugu.

Bat-bateko erantzunak gozatu ohi gaitu, bat-batekotasun berarengatik eta erantzunaren ederrarengatik. Kantu kidearen arrazoia edo gai-emailearen puntua arrazoi berri batez iraultzeko bat-bateko gaitasunak urte gorria balio du. Erantzuteko modua ez da bat, eta bidea ez da bakarra. Gaia emanda bakarka kantatu bertsoak bazter utzi ditugu, gure xedea gogoan, hemen ez baitzaizkigu aztergarri. Binakako lanetan elkar erantzuteko jarreran eta bakarka hasierako puntuari emandako arrapostuetan ipini dugu arreta. Izan ere, bertsolariek final laurdenetako ariketetan bi kasu horietan baizik ez zuten ihardesteko parada. Binakakoan ez da bertso-aldi orotan gertatzen, baina bertsolariek erantzuteko nahikari hori erakutsi dutelarik, bertso-aldiaren emaitza ona izan da arduarenean. Zer esanik ez hasieran emandako puntuaren kasuan. Azkenik esan, aitatzera merezi zuela iruditu zaigularik, bestelako iruzkin arinik ere egin dugula, testuinguruari, joskerari edo errimari buruzkoak besteak beste.

1. BINAKAKO SAIOETAKO ERANTZUNAK

Bat-bateko bertsolaritza liburuan Andoni Egañak dion bezala, bertsotan jarduteko binaka aritzea izango da bertsotan egiteko molderik jatorrizkoena. Eta Juan Garziari kasu eginez "berezkoena" adjektiboa emendatuko diogu arestiko definizioari. Kantu kideari eragin eta honek arestiko arrazoia arrazoiz iraultzea. Une, leku eta baldintza jakinetan botatuko bertso batek holako edo halako emozioa sor diezaike entzuleari, nola edo hala eragin diezaike. Zirrarik sortu ohi digu bi bertsolarik elkarri egoki ihardetsiz entzuteak, arrazoietan aritzeak. Berrikeretan ari garelarik bat-bateko erantzun orijinala, jeniala edo ironikoa maite badugu, zer esanik ez, neurtu, errimatu eta kantatua baldin bada.

Binaka aritzeak esan nahi du bi bertsolarien baitan dagoela sortuko den emaitza, eta beraz, bertsoa osatzerakoan bakoitzak kontutan hartu beharko lukeela bere kideak bota arrazoia, merezi badu behintzat, hurrengo bertsoan erantzuteko. Ez badu merezi, hobe da kidearen arrazoia bazter utzi, eta hura kantuan ari zen bitartean pentsatu arrazoia heldzea. Baina, alderantzizkoa gerta liteke, hots, lagunaren arrazoia erantzuteak merezi izatea, eta, hala ere, besterik otu ez edo sortze prozesuan bestelako arazoak ukanik, kideak kantatu duen bitartean pentsatutako bertsoa kantatzea. Hori aldioro eginez gero, elkarrizketa barik bi bakarrizketako saioa litzateke. Eta horrelakoetan bertso-aldiko emaitzak ez du elkarrizketaren benetakotasunik transmitituko entzuleengana. Elkarrizketarako, entzuteko eta erantzuteko borondatea, jarrera edo *txipa* behar-beharrezkoa da; belarri, begi eta sudurra horretarako gertu behar dira. Iduriz, zortziko txikiak konfiantza handiagoa ematen die bertsolariei elkarri ihardetsiz aritzeko. Txapelketan zehar elkarrizketarako saioak ugariagoak izan dira zortziko txikian aritu beharreko

saioetan, beste edozein neurrietan baino. Hori izan liteke, akaso, erantzuteko arrazoia bera aski izan ohi delako zortziko txiki bat betetzeko. Neurri handiko ahapaldietan arrapostuaz gain beste zerbait behar da, bertsoa erdi hutsik ez dadin geratu; neurri handiak diskurtsoa galdegiten du, eta beraz, kasu horretan konplikatua da erantzuten aritzea, printzipioz.

Noiz edo noiz, bertsozale batzuk kexu sumatu izan ditugu egungo bertsolariak ez omen diotelako elkarri aditzen, eta beraz, erantzuten ere ez. Egia izan liteke. Eguneroko bizitzan, konparazio batera, ez dakit zenbat entzuten diogun hurkoari; batek galdera egiten bukatu aitzin besteak erantzuna ematea ez da gutxitan gertatzen. Ez ditugu, ordea, elkar entzuteko, eta beraz erantzuteko jarrera argi uzten duten bertso-aldi gutxi entzun Txapelketan barrena. Guk final laurdenetako batzuk ekarri ditugu hona; ezinbestean batzuk, ez guziak. Eta halabeharrez, bazter utzi ditugun bertso-aldi aztergarri horietarik landa, baziren bertso-aldi bezala aztergarri izan gabe, arrapostu bikain baina bakar bateko bertso-aldiak. Horiek ere, gure xedearen baitan ez ditugu aztergarritzat jo, erantzute jenial bakarrari bainoago erantzuteko jarrerari erreparatu baitiogu binakako lanetan.

DONIBANE GARAZI

Donibane Garazin abiatu zen Txapelketa. Lehendabiziko saio hartatik Arkaitz Goikoetxeak eta Fredi Payak zortziko txikian egin bertso-aldia bereizi dugu. Hauxe ukan zuten gaia: "Zu, Arkaitz, futboleko epailea zara, eta Fredi milioi pila baten truke ekarri duten futbolari izarra, partidu guztian zehar zirikatzen eta protestaka aritu zaizuna. Azkenean, kanpora botatzea erabaki duzu."

Doinua: Kantatzera nihoa

A. Goikoetxea Aizu, juango zera
bide laburrean,
harrotasuna badut
naizen apurrean.
Nahiz ta izar ugari
eduki hurrean,
nik jarriko dizkizut
bi hankak lurrean! (bis)

Lehen bertsoa izanik ez dio deusi erantzuteko aukera, beraz, bere arrazoia botatzea beste modurik ez du bertsolariak. Gainerakoan, bertsoaren azken puntuetan asko eta ongi esaten du. Baliabide poetikoak egoki erabili ditu, esan nahi duenari indar handia ematen baitiote, pertinenteak dira. Hori gutxi balitz bezala, azken bi puntuak sintaktikoki loturik doaz eta errima bikaina da.

F. Paya Gaur hanka sartu duzu
epaile agian;
banoa dutxatzera
era nabarian,
baina hortxe daudenak
gradaren erdian,

hanka jarriko dute
zure aurpegian. (bis)

Fredik Arkaitzen bertsoa entzun du. Beharbada, beste ideiarik pentsatua zuen, baina hura bazter utzi eta erantzuna oturik, azken hau botatzea deliberatu du. Batzuetan ez da erraza erabakitzen zer egin, hots, lagunari erantzutea edo aurretik pentsatutakoa kantatzea.

Etorriko bazaio, erantzuna bat-batean etorriko zaio bertsolariari, bestela kideak kantatu duen bitartean pentsatutako hura botako du. Erantzunik pentsatu badu, fite behar du ibili, ezin du astirik galdu. Kidearen azken puntuaren errepikapenak eta esku zartek irauten duten denbora baizik ez du arrazoi tolestatu eta gainontzeko oinak xerkatu eta apartatzeko. Azken puntua tolestatzen denbora gehiegi pasatuz gero, litekeena da oin egokienak hautatzeko betarik ez izatea; edo areago, oinak atzeman gabe kantuan hastea. Eta ondorioz, ez asmatzea zatirik inprobisatuena taxuz inprobisatzen, dela eduki aldetik, dela forma aldetik. Orduan sortzen zaizkigu bertsozaleoi "bukaera ederra huen baina..." bezalako sentsazioak. Oraindik orain, azken puntuaren errepika aipatu dugu. Zenbait bertsozalek bertsolariarekin batera azken puntuaren errepika kantatzea maite du. Alabaina, azken puntuaren errepika hori erritmoaren eta emozioaren apalgarri izan liteke. Errepikarik egin gabe saio biziagoa eta beraz emozio handiagokoa zatekeen. Eta hari horretatik tiraka hasiz gero, bertso bakoitzaren ondoko txalok ere emozioa moteltzen dutela iruditzen zaigu. Jaialdi edo bertso saio arruntetan izaten da horrezaz ohartzeko parada, tarteka-marteka batek bukatu ahala beste bertsolaria hasten baita, azken bertsoa arte publikoari txalo egiteko aukerarik eman gabe. Ohitura kontua ere bada. Orain, ohikoena bertso bakoitza txalotzea bada ere, ez da beti eta leku guzietan horrela izan. Atzo arte, bertso bakoitza bukatu eta gero txaloka aritu gabe, bertso-aldia txalotzen zen zenbait herritan.

Frediren bertsoan, eta ondokoetan, ezagun da erantzutera jo duela bertsolariak. Txalogarria da jarrera hori. Arkaitzen "nik jarriko dizkizut bi hankak lurrean" arrazoiari, "[zaleek] hanka jarriko dute zure aurpegian" batekin erantzun dio. Ez hori bakarrik; lehen puntuan "hanka sartu duela" esan baitio epaileari, eta hitz joko hori ere izan zitekeen nolabaiteko sasi-erantzuna. Dena den, azken puntuaren tolestatzeari eta oinen egokitasunari so, iduri luke behar beste denbora ez duela ukan Fredik.

A. Goikoetxea

Hori horrela denik
ez zait iruditzen,
epailea ez baita
hain gaizki aritzen.
Nahiz ta ohitua zauden
diru asko biltzen,
futbol zelaian ez du
diruak agintzen. (bis)

Lehen bi puntuei erreparatuz gero, bistan da Arkaitzek Frediren bertsoa entzun duela. Bi lehen horietan ematen dio bere erantzuna. Dena den, bertsoan hori ez da erantzun peto-pettoa. Arkaitzek berak benetako arrapostutzat joz gero, azken bi puntuetan kokatuko baitzukeen. Arkaitzek egiazki egin duena, Fredik kantatzen zuen bitartean pentsatutako arrazoi berria botatzea izan da, hori egitea hobetsi du. Horrela, elkarrizketak ez du haririk galtzen eta bide

berri bat jarri dio aukeran Frediri. Bestela, Arkaitzen bertsoari erreparatuz gero, berriz ere puntuen arteko joskera bikoitza. Eta baliabide poetikoaz gainera, hizketan legez ari da bertso honetan: ez da trabarik sumatzen, puntu estilizatuak dira eta ez du deus bortxatzen errimatzearren.

F. Paya Aztoratuta nabil
 epaile hauekin;
 protestaka hasi naiz
 partiduan arin;
 kanporatzea nahi nun,
 behar duzu jakin,
 milioi pila jaso
 ta lanik ez egin. (bis)

Arkaitzek diruaren aipamen nabarmena egin du aurreko bertsoan, eta Fredik ere aipagai du bere azken arrazoiaren, baina ez dio erantzuten inondik ere; arrazoi berri bat kantatzen du.

A. Goikoetxea Gozatu behar duzu
 aldagela ertza,
 zapuztuko baitizut
 daukazun ametsa;
 etorkizuna duzu,
 ez zazula pentsa,
 nere elastikoa
 dagon bezain beltza. (bis)

Elkarrizketak indarra galdu du. Arkaitzek, aurrekoan Fredik bezala, kideak kantatu bertsoaren arrastoari muzin egin eta hark abesten zuen bitartean eraikitakoa bota baitu. Agian, Arkaitzek bazuen arrazoirik Frediri erantzuteko, baina oso ona behar zuen, kantatu zuen bertso hau baino hobea izatekotan. Erantzuteagatik erantzutea ere ez da kontua. Ideia berri bat kantatu du, arbitroaren paperean sartuta. Bestalde, ideiarene formulazioa (konparazioa baliatzen du) biziki pertinentea da. Abantzu ikusi egiten dugu arbitroa, elastiko beltzez jantzia. Gainerakoan, arestian geniona: binaka josi ditu puntu estilizatuak, "dagon" hori salbu, betegarria baita.

F. Paya Ai, gure epailea,
 pertsona haundia,
 esaldi bat badago
 oso nabaria,
 publikotik entzuten
 duzun esaldia:
 gaur zu beltzez ta bihar
 zure familia. (bis)

Bertso honekin elkarrizketa berpiztu du, nolabait, Fredik. Arkaitzek aipatu elastikoaren belztasunaren oihartzunik bada bere bertsoaren azken puntuan. Horri esker suma dezakegu Fredik Arkaitzen bertsoa aditu eta horren haritik sortu zaiola ideia on hori. Nahiz eta ez dion

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Soroꝯabal Diru aldetik juxtu gabiltza
langileak izatean,
hau bezelako pribilegiatuk
izanagatik tartean.
Kotxe honekin etorri naiz ni
lanera hamar urtean
eta nerekin ibiliko da
ni jubilatuta artean. (bis)

Arrazoi sendo bat pentsatu eta hori bota du Jokinek lehen bertsoan. Ez dauka beste aukerarik, kantatzen hastea egokitu zaionez ez baitu zeri erantzun. Ekaitz erasan beharrean, bereari heltzen dio. Jokinek hizkuntza erraza darabil, behartu gabea. Puntuak binaka josi ditu.

E. Goikoetxea Kotxe berria ekarri ohi det
pozik urtean-urtean;
nere nahia ta egitasmoak
beti dabiltz apartean.
Aita ta ama, aiton-amonak,
guztiak borondatean;
aprobetxatu beharra daukat
ahal dezakedan artean. (bis)

Ekaitzek ez dio erantzun. Litekeena da Jokinen bertsoa entzun izana, baina Ekaitzek ere bere jarrera defendatzea erabaki du. Horrelakoetan, bertsolariak denbora gehiago du bertsoa apailatzeko; bere lagunaren bertsoak irauten duena eta txalo-tartea. Usaian, bertsolariak lagunari entzuten dion anartean bere arrazoiak pentsatzen du, badaezpada. Izan ere, ezer prestatu ez eta gero kidearen bertsoak erantzuteko modurik ematen ez badu, edo nor berari erantzuteko deusik ez bazaio otutzen, askoz ere denbora gutxiagorekin prestatu beharko du, bestela lasaia eta hobeki apailatuko zuen bertsoa.

Soroꝯabal Aita ta ama bizi zaizkizu
aberatsaren klasera;
aitonak eta amonak ere
propina eman gainera;
eta patrika diruz beteta
eramateko aukera;
hainbeste suerte baldin badezu
zertara zatoz lanera? (bis)

Jokinek Ekaitzen bertsoari kasu eman dio, eta pentsatua zuena (pentsatua baldin bazuen, bederen) alde batera laga du. Ekaitzen azken bi puntuak aditu eta gero, hain segur, erantzuteko arrazoiak etorri zaio. Jokinek Ekaitzen aurreko bertsoaren azken bi puntuak heldu, eta etekina atera die. Jokinek Ekaitzen azken arrazoiari bere azken puntuarekin erantzun dio: "hainbesteko suertea baduzu eta aprobetxatu behar baduzu, ez dut ulertzen zu lanean aritzea". Kontua da, baina, azken arrazoi horrek askoz ere dirdira handiagoa duela Jokinek bere bertsoan barrena testua antolatu duen bezala antolatu duelako. Azken errematea erremateago da, aurreko hiru

puntuak bere zerbitzura baitaude. Ekaitzen hirugarren puntuari heldu "aita ta ama, aiton-amonak guztiak borondatean" eta ederki baliatu du: hiru puntuetan gaindi Ekaitzen aberastasuna agerian utzi du Jokinek, azken arrazoi ironikoaz errematatzeke.

E. Goikoetxea Hiru urtean zure alboan
 lanean fin naiz aritu;
 nere izerdiz ere egin det
 behar hainbeste meritu
 izanagatik laneratzea
 sekula ez da delitu;
 Golfak eduki dituen batek
 Portxeak amesten ditu. (bis)

Ekaitz ez da giblean gelditu. Elkarrizketan sartu da bete-betean. Jokinen bertsoa entzun, eta haren galderari egoki erantzun dio, modu grafiko batez: dirua ukan arren zergatik datorren lanera? Diru haboro eskuratu eta Portxea erosteko.

Sorozabal Lehenengo izan zuen Clio bat,
 bota zuen bazterrera;
 gero ondoren Ford Fiesta bat,
 txarra atera gainera.
 Alper-alperrik pasako zera
 orain Golfetik Portxera,
 edo kotxeak txartzen ai dira
 edo txofer txarra zera! (bis)

Elkarrizketak segitzen du. Ez dugu uste Jokinen azkeneko arrazoia Ekaitz kantuan ari zela pentsatutakoa denik, Ekaitzen azkena entzunda otutakoa baizik. Jokinek Ekaitzen aurreko arrazoia ziri berri batez irauli du. Jokinen aurreko bertsoan gertatu den bezala, azken honetan ere, neurri handi batean testu antolaketan datza bukaerako arrazoiaren dirdira. Lehen hiru puntuak eraikitzeke bere aurreko bertsoaren antzeko formula darabil Jokinek. Ekaitzek Golfak eta Portxeak aipatu ditu, progresioan. Jokinek, bukaeraren mesedetan progresio horri heldu eta osatu egin du. Lehen hiru puntuetan bilakaera grafikoki azaldu du, gero eta auto handiagoak aipatuz. Auto marken paradigmatari egoki heldu dio Jokinek. Progresio horri esker izugarri irabazi du bukaerako duda ironikoak. Entzuleari erreparatuz gero, bigarren punturako ohartu da Jokinen progresio jolasaz, hirugarrengoa nabarmenago zaio progresio horrek sortu zirrara eta bukaerako sententzia entzun ostean gogotik txalotu du. Hondarreko arrazoiaren indarraz gain, azken puntuak badu beste edergarri estetikorik: "edo" aurkariaren anafora hurbila, eta "tx" afrikariaren aliterazioa (port**tx**era/kot**tx**ek/**tx**artzen/**tx**ofer/**tx**arra)

E. Goikoetxea Ona duenak amestu ohi du
 hoberenaren itzala;
 gazte txoroon ero haizeak
 luzaz ibili nazala!
 Zure jarduna ta esamesa
 ez dugu gero normala!

Zaharkitua geratu zera
zure kotxea bezala. (bis)

Oraingoan Ekaitzek ez dio elkarrizketari segidarik eman. Ez dio Jokinen arrazoiari erantzun. Beharbada ez zaio fisik otu. Beharbada zartako handiegia izan da Jokinena. Beharbada erdipurdiko zernahi erantzun barik, bota duen bertso hori kantatzea hobetsi du, segundo hamarrenetan erabakita hain segur. Jokin kantari ari zen bitartean eraiki bertsoa kantatu du. Edo ez. Izan zitekeen bertso-aldiko beste une batean pentsatutako arrazoi txukuna, baina orduan Jokinen arrazoiari erantzutearren, supituan alde batera lagatakoa. Eta orduan bota beharrean, hondarrean bota du. Oraingoan ez du erantzutearren arrazoi hori betiko alde batera utzi nahi izan. Auskalo!

Hirugarren bertsoetik bosgarrena artekoa izan da bertso-aldiaren pasarterik onena, hots, elkarri eta segidan erantzunez jardun duten zatia.

LESAKA

Atal honetarako hautatu dugun azken bertso-aldia Lesakan entzun genuen. Xabier Silveira eta Iratxe Ibarra aritu ziren kantuan, zortziko txikian. Hauxe zuten gaitzat: "Zu, Xabier, bainugelako pisua zara. Iratxe egunero jartzen zen zure gainean. Badira, ordea, bi hilabete begiratu ere egin ez dizula."

Doinua: Kantatzera nihoa

Silveira Lehen beti zen nerekin,
 zen kontu larria;
 gaur berriz ahaztua nau,
 hau ez da berria,
 haundi du ipurdia
 ta zabal gerria;
 goxo al dago Iratxe
 aitaren txerria? (bis)

Xabierrri egokitu zaio hastea. Airea edo doinua kantu lagunarekin adostu ostean, hasierako bertsoa pentsatzeko bakarka aritzean ematen dituen urrats berak eman ditu bertsolariak: lehendabiziko bertsoaren bukaerako arrazoa pentsatuko du, oinak atzeman eta kantuan hasi da. Hondarreko arrazoa aurretiaz deliberatzeak asko errazten du bertsoaren eraikitzea, horrela nora doan bai baitaki bertsolariak. Eta gainera, futboleko partidetan bezala, hastapen ona eta erdipurdiko bukaera bainoago, alderantzizko formulak sentsazio hobea uzten du publikoarengan.

Lehen bertsoaren bukaeran edozein arrazoi emateko libre da kantuan hasten den bertsolaria. Hortik aurrerakoetan, ordea, lagunaren arrazoa kontutan hartu beharko luke. Binakako ariketan lehen bertsoarako, bertsolariak nahiko denbora izaten du, lagunaren bertsoa ihardetsi behar duelarik baino dezente gehiago. Xabierrren azken bi puntuetan egin deskripzioa eta galderaren ironia gustatu zaizkigu. Domaia da ez zuela lehen parteko kontrastea (lehen / gaur) txukunago adierazi.

Ibarra Lehen tipo fina neukan,
 nik hori badakit;
 baina ez da bakarrik
 txerriarengatik.
 Hor goian ipintzea
 beldurra ematen dit,
 kirola egiteari
 utzi nionetik. (bis)

Xabierrek galdera batekin urrendu du bere bertsoa, eta beraz Iratxe erantzutera behartuta dago. Itsusi ematen du lagunak propio egin galderaz futitzea. Galdera ironikoa dela kontutan izanik, Iratxek aldez edo moldez erantzuten dio, adierazten baitu txerria jan duela. Baina, arestian aipatu legez, hori ez da arrazoiari arrazoi batez erantzutea. Iratxek kasu honetan egin duena da, Xabier kantuan ari zelarik pentsatutakoa azken bi puntuetan bota, eta lehen bietan sasi-erantzuna kantatu. Txukun asko josi ditu azken bi puntuak.

Silveira Aspaldi ez zarela
 joan aerobikera;
 aspaldi ahaztu duzu
 mendi irteera,
 baina halare lasai
 etorri gainera,
 oraindik politena
 zerorri baitzera. (bis)

Xabierrek aditu du Iratxeren bertsoa, lehen bi puntuai erreparatu besterik ez dago hortaz jabetzeko. Azken biak beharbada Iratxe kantuan ari zelarik pentsatutakoak dira, edo beharbada ez. Beharbada ezetz diogu, Iratxeren "hor goian ipintzea beldurra ematen dit" puntuari Xabierren "lasai etorri gainera" ederki datorkiolako. Guztiarekin ere, ezin hobeki uztartu ditu bi zatiak, dotore. Iratxeren "kirola egiteari utzi nionetik" ongi baliatu du Xabierrek lehen bi puntu horietan; "aspaldi" hitza puntu hasieran birritan kantatzearekin (anafora), Iratxeren "nionetik"-en lehen aldia nabarmendu du, eta bi kirolen aipatzeak ederrari lagundu dio. Bukaerako arrazoiak lehendabiziko bertsoaren ironia eta trufa tonua dakar.

Ibarra Oraintxe jarri nauzu
 zuk umore alaiz,
 baina penaz nago ni
 zerbait argaldu nahiz;
 mendira lehen joaten
 nintzen sarri ta maiz,
 ta orain berriz Silveiran
 tabernan sartzen naiz. (bis)

Honetan prozesua igartzen gaitzago da, eta asmatu egingo dugu. Iratxek ez dio erantzuten Xabierren arrazoiari. Batzuetan hobe da erantzunaren grazia sakrifikatzea, norberaren ideia, ustez distiratsua goa, kantatzearren. Ez da erraza erabakitzen, baina. Xabier kantuan ari zelarik, ideia bat bururatu zaio Iratxeri: "Silveiraren tabernan sartzen naiz". Silveira aipatze hutsak bati baino gehiagori eragingo zion. Kontu egin saioa Lesakan dela, Xabierren herrian, Xabierrek

bertan ostatu bat duela, eta Xabierrek estereotipo jakina duela. Testuingurua iturri duen ideia horren efektua intuitu du Iratxek, eta Xabierri erantzun beharrean, horixe kantatzea deliberatu du. Tabernara joaten delako gizendu dela esanda ez da deus gertatzen. Bai, ordea, ostatu hori Xabier Silveirarena bada. Izan ere, horrekin fikzioa eta errealitatea nahasi baititu: Xabier fikzioan pisua da, baina errealitatean Xabierrek taberna bat du. Gainera, Iratxek bukaera horrekin publikoa bera jolasaren konplize egiten du; entzuleria errealitatearen planoan baitago. Bestalde, hirugarren puntuak badu Xabierren bertsoarekin loturarik, Xabierrek bezala mendia aipatzen baitu Iratxek, "lehen mendira / orain tabernara" kontrastea egiteko pare-parera datorkiona.

Silveira Zu lehenago mendira
joaten zinen sarri,
ta loditu zarela
urrundik igerri.
Halare nire gainin
lasai-lasai jarri,
baina hori bai, Silveira
ez zazu ekarri! (bis)

Iratxek testuinguruari egin apelazioak arrakasta izan du entzulerian, eta Xabier horrezaz ohartu da. Lesakarrak ez dio arrazoiari beste arrazoi batekin bete-betean ihardetsi; bere estereotipoari atera dio etekina. Bistakoa da erantzuteko jarrera aktibatua duela. Iratxeren bertsoa aditu gabe nekezago abestuko zukeen hondarrean bota duena. Iratxek aipatu duenari lehen puntuan heldu dio Lesakarrak. Markinarrak ireki bidetik doa; testuingurua baliatzera jo du Xabierrek ere. Eta horri esker, nahiz eta ez dion bete-betean erantzun, elkarrizketak badu indarrik. Ironiaz, fikziozko pisua, errealitatean Xabierrek duen pisuaz trufatu da.

Ibarra Zu Silveiraren aurka
hasi zara ozen,
baina nire ustetan
jokatzen du zuzen.
Ez naiz hasiko hura
zugana ekartzen,
hura urte osoan
ez baita pisatzen.

Xabierren arrazoiari erantzun dio Iratxek; pisuaren kontura adarra joaz pisuari. Bertsoa Xabierrek kantatu eta gero eraiki du beraz, denbora laburrean: azken puntuaren errepika eta txalok irauten zuten artean. Litekeena da, Xabier kantuan ari zen bitartean, Iratxek beste ideiarik pentsatu izana. Baina bazter utzi du, erantzute eta bat-batekotasunaren fabore. Seigarren bertsoa iristerako, Xabier Silveiraren pertsonaia bihurtu da bertso-aldiko protagonista nabarmena. Azkeneko hiru bertsoak Xabierri buruzkoak izan dira. Agian, norbaitek gaitik lekora ari direla iritzi dio. Guri ez zaigu hala iruditzen. Nahiz eta gaiak ez aipatu, testuinguruak

eskaintzen dituen erreferentziak baliatzea haizu dela iruditzen zaigu, zer esanik ez horren pertinenteak direlarik.

Silveira Silveira ez dezagun
solas kontutzat har,
zu oraindik ez zara
hura bezain zatar.
Jarri gainin, ez duzu
aztoratu behar,
beti jarriko baitut
berrogeita hamar. (bis)

Beharbada Xabierri gehiegi edo arriskutsua iruditu zaio berari buruz kantatzen segitzea. Lehen puntuan espres dioen bezala, uko egin dio bide horri. Agian ez zaio erantzuteko arrazoirik otu. Edo bai, baina ezetsi egin du. Edo, guk hainbeste pentsatu gabe, ideia berri bat kantatzeko unea dela iruditu zaio. Eta Iratxek kantatzen zuen bitartean pentsatutako arrazoia bota du. Oraindik orain genionez bertso-aldi guzua elkarri erantzuten aritzea zaila da, eta tarteka ideia (bide) berri bati heltzea egokia izan liteke. Xabierrek azken bertso honetan, aurrekoan ez bezala, bere lehen bi bertsoen jomuga bera du: Iratxe. Dena den, lau ahapaldietan trufaka aritu da ironikoki; orain Iratxeri buruz, orain Silveirari buruz. Pisu bihurriaren rola bikain bete du Xabierrek.

Ibarra Berrogeita hamarrekin
lehen egon nintzen fin,
baina azken aldian
ai, hirurogeikin!
Kokoteraino nago
bertso afariekin;
korrika hasi behar dut
Andoni Egañakin! (bis)

Nahiz eta lehendabiziko bi puntuetan Xabierren bertsoari erreferentzia eginez maskaratzen saiatu, Xabierrek kantatzen zuen bitartean pentsatutako ideia bota du Iratxek. Ideia berria, baina arestiko harrobi berera jo du, hots, testuingurura. Eta balio du, han eta orduan funtzionatu baitzuen. Ez da harritzekoa bertsozaleok badakigu jakin Andoni Egaña bertsolaria dela, eta gisa bera korrika aritzeari ekin zionetik kilo franko argaldu dela.

Azken puntuko arrazoiari haren arabeko beste arrazoi batekin ihardesteari deitzen zaio bertsoan erantzutea. Bertso-aldi batek horrelako batzuk baldin baditu, erantzun onak izan edo ez, bat-batekotasun karga handia izango du. Halaber bertsoak hari batez josita nabaritutako ditugu. Xabier eta Iratxeren saio horretan, hari bat nabaritu dezakegu, baina ez hainbeste arrazoiari arrazoiz erantzun diotelako, kideak egin erreferentzia (testukoa edo testuingurukoa) norberak bere hurrengo bertsoan aipatu duelako baizik. Lehendabiziko bertsoetik hasita, hauek lirateke hari hori osatuko luketen erreferentziak: "txerria", "goian ipini/beldurra", "etorri gainera/lasai", "mendi irteera", "mendira", "Silveira", "berrogeita hamar".

HITZ ERDI BAT:

Elkar erantzutearen azterketarako hiru saio horiek bereizi ditugu. Hiru saioetan, ardurenean bezala, norgehiagoka dialektikoa gertatzen da. Eztabaidak dira, elkarrizketak baino gehiago; bestea gailendu nahia suma dezakegu. Halarik ere, Txapelketan entzundako bertso-aldi guziguziak ez dira horrelakoak izan. Finalerdi eta finaleko binakako zenbait bertso-aldietan bi bertsolariak teman aritu beharrean elkarrekin aritu dira, elkar hartuta, eta ez du horregatik bertso-aldi kaxkarra izan.

Noiz edo noiz, binakako bertso-aldia ixteko, azken bertsoa kantatzea egokitu zaion bertsolariak halako adostasuna adieraziz edo amore emanez bezala kantatu izan ohi du azken bertsoa. Eta hori gutxi balitz bezala, kideak koroekin lagundu ohi dio errepikan. Horrekin binakako lana borobilduta geratu den sentsazioa sortu ohi da, eta gustatzen da. Esan gabe doa, hori egitekotan azken bertsoan behar duela, bestenaz, gaia agortu edo kideari bidea ixteko arrisku latza baitago.

2. BAKARKAKO SAIOMETAKO ERANTZUNAK

2.1. Hasierako puntuak

Pernandorena dirudi, baina erantzunak emateko egokierarik behinena binakako ariketa da. Bakarkakoetan (gaia emanik, lau oinekin, hitza gai bezala hartuta...) ez da horretarako paradarik, batean izan ezik: bertsolariari hasierako puntua eman eta bertsoa berak bakarrik osatu behar dueneko.

Txapelketa orok badu berrikuntzarik bere baitan. Horiatarik batzuk, bertsolariak gauzatu behar dituzten ariketetan ikusten ahal dira. Euskal Herriko XIII. Bertsolari Txapelketako final-laurdenetan bat behintzat ikusi dugu: "Bakarka, gai baten inguruan hasierako puntuak emanda, hiru bertso zortziko txikian" zioen ariketa. Txapelketa batean hasierako puntuari erantzutea ez da inondik ere zerbait berria, bai ordea gai berari buruzko hiruri ihardestea. Guk dakigula, ariketa hori inoiz egin izan da bertso jaialdietan, ez ordea txapelketetan.

Ohiko saiotan ez bezala, Txapelketan gaindi bertsolariari ez zitzaion gaiari buruzko oharrik eman puntuak erantzuten hasi baino segundo batzuk lehenago. Jaialdietan puntuak eman baino lehen mikrotik esan izan zaio "Maitasunari buruzko bost puntu emango ditiat" edo "Alkoholari buruzko hiru puntu dituk". Baina Txapelketan ez zen horrelakorik adierazten. Besterik gabe, hotz-hotzean ematen zitzaion lehen puntua. Eta beraz, lehendabiziko puntu horrekin bertsolariak bi lan zituen: hiru puntuen gaia zein zen igartzea eta erantzutea bera. Gaia argi ikusiz gero, erosoago ekingo zion bigarren puntua entzuteari. Aldiz, gaia oraindik definitu gabea bazuen urduriago egongo zen, ea zezena nondik etorriko.

Egia esatera, bertsolariari ematen zitzaizkion hiru puntuetarik lehendabizikoan, gehien-gehienetan garbi asko adierazten zitzaion gaia, eta beraz kantuan hasterako ez zukeen gaiari buruzko ezbaierik ukan behar. Inoiz puntuaren gaia, subjektua edo objektua nabar samarra izaki, edo aski zehaztua ez bederen, bertsolariak ez zuen garbi ukan zeri edo nori kantatu. Konparazio batera, Legazpiko saioan lehen puntu anbiguo hau eman zioten Iñaki Muruari: "Hain zara goxoa ta hain zara polita" Gaia nahiko argi dago, baina nork dio puntuak dioena? Eta nori diotso? Eta ondorioz, nori kantatu behar dio bertsolariak? Anbiguotasun horrek galdera gehiegi sortu ditu erantzun baterako; are gehiago segundo hamarrenetan behar bezala

erantzuten hasteko. Gure ustez, lehen puntua konkretua eta anbiguotasunik gabea beharko zuen, eta salbuespenak salbuespen, halaxe izan zen final laurdenetako saioetan bederen. Bigarren eta zer esanik ez hirugarren puntuak ez zuten zertan izan behar horren argiak, gaia lehendabizikoan emana baitzegoen, ontsalaz.

Horretarik landa, final laurdenetan izan ziren behin entzutekotan antz gehiegi zuten puntuak. Eta ondorioz, bertsolari berari zaila zitzaion antzeko enbidoari hordago berria jotzea, jarraian gainera. Legazpiko saioan, adibidez, "Eskaleak atea jotzen du sarritan" eman zioten lehen puntu bezala Sustrai Colinari. Eta gai-emaileak kantatutako bigarren puntuak "Jaunaren izenean limosnaren eske" zioen. Guri bat-batean eta segidan erantzuteko antzekoegiak iruditzen zaizkigu. "Jauna" hitza aipatze hutsak diferentzia nabarmena marka zezakeen garai batean, baina gaur egun ez dugu uste.

Gai-emaileak emandako puntuen harira, bada beste ñabardura bat: gako-hitza puntuaren zein hemistikiotan emana dagoen. Puntu gehienetan bada informazioz mukuru den hitz klabe bat, gaia zein den abantzu salatzen duena. Giltzarri hori puntuaren eten musikala arteko zatian entzutea (lehendabiziko zazpi silabak, hots, lehen hemistikioa) edo etenetik oina arteko zatian entzutea (azken sei silabak, bigarren hemistikioa) ez da gauza bera. Entzulearentzat berdin izan arren, bertsolariarentzat diferentzia ederra dago "euroa" puntuaren lehen hemistikioko lehen hitz bezala aditu edo bigarren hemistikioko azkena bezala. Modu baten eta bestearen arteko aldea da, bertsolariak lauzpabost segundo lehenago jarri duela abian "euro" hitzaren inguruko ideia multzoa. Eta lauzpabost segundo horietan barna, bestela bururatuko ez litzaizkiokeen oin eta ideiak etor dakizkioke bertsolariari.

Dakartzagun gero aztergai izango ditugun hasierako puntu batzuk, lehendabiziko puntu bezala eman zirenak. Beltzez nabarmendu ditugu gako-hitz bezala jo ditugunak:

- **Himalaiatik** dator // albiste tristea
- **Eskaleak** atea // jotzen du sarritan
- **Diruaren** morrontzan // bizi da pertsona,
- Berriro hemen dugu // **Garzon** ate joka

"Himalaia", "eskale", "diru" eta "Garzon" bezalako hitzak entzun orduko bertsolaria erreferentzi mundu jakinekin akordatu da, eta beste mordo bat alde batera laga ditu. Egia da puntua osorik entzun arte bertsolariak ez duela jakiterik zehatz-mehatz zeri buruz kantatu beharko duen, baina hitz klabe horiek nabarmen argitzen dute bidea. Ideietarako bidea beti ere, ezen errima zein izango duten ez baitago oina entzun arte jakiterik, bistan denez.

Lehendabiziko hiruretan lehen hemistikioan aipatzen da gako-hitza, berau da gainera lehenengo hitza. Kasu horietan lehen berba entzun orduko bertsolariak badaki, gutxi gorabehera, puntuaren nondik norakoa. Oraindik orain aipatu puntuetako laugarrengoa, berriz, lehen hemistikioa entzun ondoren ("Berriro hemen dugu") bertsolariak ez daki oraino zeri buruz kantatuko duen, gauza asko egon baitaiteke "berriro hemen". "Garzon" aditu ostean hasi da bertsolariaren eihara martxan.

Gai-emaileak puntua ematerakoan, gaia, neurria, errima eta airea ezarri dizkio bertsolariari. Final laurdenetan zehar puntua emateko baliatu diren aireak "Xarmagarria zira I", "Triste bizi naiz eta" eta "Haizeak bidali du" izan dira. Aire horiek tradizio handia dute puntua emanda

ariketan, abantzu ez da besterik baliatzen. Doinu pausatuak dira, errepikarik gabeak eta bertsolari guzietan ezagutzen dituztenak. Horregatik baliatzen dira, hain segur. Haatik, batzuetan, puntuaren edukia eta airea ez dira hain bat etorri (eduki alai bat eta "Xarmagarria zira I" doinua, esaterako), eta beharbada, uztarketa egokiago egite aldera, errepertorio zabalagoa erabili beharko litzateke.

2.2. Puntuari erantzunak

Puntua ematea gai-ematearen egitekoa da. Hortik aurrerakoa sortzea bertsolariaren afera da. Puntuari erantzutea ariketa zaila da. Bertsolariari ez dio askorik balio eskuarki darabilen teknika erretorikoak, bertsoa atzekoz aurrera eraikitzean datzana. Izan ere, gehienez bi segundo baino ez baititu puntua erantzuten hasteko, eta usu, bertsoa nola bukatuko duen jakin gabe hasi behar izaten du arrapostua ematen. Hemen ez da azken arrazoia prestatzeko edo oinak lasai apartatzeko astirik. Hasi eta bukatu, inprobisazio hutsa da dena. Bertsozaleak badaki bertsolaria arropa gorde gabe abiatu dela igeri egitera. Beste ariketa motekin alderatuz gero, puntua erantzuteak bat-bateko eta bertigo tasunetatik gehiago du. Binaka puntutan aritzea izango da, alde horretatik begiratuta, antza handiena duen jarduna. Zaleak badaki bertsolariaren atakaren berri, eta hori dela medio, gaitzeko arreta eskaintzen dio ariketa honetan. Puntua erantzutea kale edo baleko ariketatzat dute batzuek. Alta, emaitzei so, bertsolariek eman arrapostuak ezin dira hain manikeoki bereizi, ezen erantzun anitz hor nonbait gelditzen baita, ez zero eta ez infernu.

Bestalde, ez dago finkatua zenbat segundo pasa eta gero hasi behar duen bertsolariak erantzuna ematen, baina berehalakoan izan behar du. Denbora gehiegi pasatuz gero alferrik da izugarriko erantzuna ematea, ariketa honetan meritua bat-batean ihardesteko erreflexuan baitatza, hein handi batean.

Puntuari erantzuna ematerakoan, bigarren puntuarekin gaitzeko zirrara eragin digu inoiz bertsolariak, baina hori oso noizbehinka gertatzen da. Horrelakoetan bigarren puntuan erantzuten dio puntuari, ezin egokiago. Kolpe latza izan ohi da. Bertsolaria *esku-buska* ari da; pilota etorri bezain pronto bortizki jo ohi du, boleaz, eta bi pareta egin gainera. Tanto. Bigarren puntuko hori danbateko bakana eta betea izan ohi da, aho bete hortz uzten ohi gaituena. Kasu horretan, bertsoaren gailurra ez dago ohi legez azkeneko puntuan, bigarren horretan baizik. Bertsolariak, bigarren puntu jenialaren ostean, bukaeraraino segitzen du, apalago baina txapapera gabe. Tamalez, horrelakoak oso urriak izan ziren final laurdenetan.

Begira Arkaitz Goikoetxeak Garaziko final laurdenean erantzundako puntu hau:

M. Taberna

A. Goikoetxeak

*Elurrak estali du
gazteen ametsa...*

arriskutsua baita
Himalaia ertza.
Askotan gertatzen da,
nahiz ta guk ez pentsa,
elur zuri-zuria
bihurtzea beltza.

Chapean! Bertsolaria ez da aritu esku-huska, *erremontean* baizik. Bigarren puntuan, kolpea barik, pilota xisteran jaso, eta gero jaurti egin du, erreboteraino. Tanto. Bigarren puntua ez da danbateko jeniala; lehenengo puntuko esaldiaren luzapen txukuna da, kausazkoa. Bertsolariari ez zaio instantean erantzun borobilik bururatu, eta gai-emailearen puntua *jaso* egiten du, denbora hartu nahirik bezala, anartean ideia (eta oin) egokirik etorriko zaiolakoan. Oraingoan etorri zaio, izugarri ederra gainera. Bertsoak hirugarrenean abiadura hartu eta laugarren puntuan biziki goiti egiten du, 8.848 metrotaraino. Metafora eta antitesi arras pertinateekin lortu du hori. Gainera, hasieratik bukaerarainoko estilizazioa eta azken bi puntuak josi izanak are indartsuago bihurtu du azkeneko arrazoia. Kasu honetan bestelako ariketetan bezala, bukaera heldu da gailurra; ez da, ordea, bertsoa hasterako pentsatutako bukaera, bidean sortutakoa baizik, puntua erantzuteko ariketan, usaian ez baita zerekin bukatuko dugun pentsatzeko astirik. Akaso, ideia etorri zaio lehenik. Apika, beste oinekin batera "beltza" oina ere etorri zaio eta horrekin otu zaio "elur zuri / elur beltza" antitesi metaforaduna.

Hara puntua erantzuteko bi modu. Bi-biak dira gozagarri, baina beharbada esku-huskakoari erantzunago irizten diogu, finean, hitzetik hortzerako jenialtasuna baita. Final laurdenetako zenbait punturen erantzunak aztertuko ditugu. Gure uste apalean, bertsolaria esku-huska, *erremontean* edo zertan dabilen azaltzen saiatuko gara, eta bidenabar, bestelako iruzkin laburrak egingo ditugu tarteka.

GARAZI

Garaziko saioan puntuei eman erantzunetan, bi bereizi ditugu: Amets Arzallusena da lehena, eta Arkaitz Goikoetxearena bigarrena.

Doimua: Xarmangarria zira I

M. Taberna	<i>Inor etorri al da zu animatzera?</i>
<i>A. Arzallus</i>	Dexente heldu dira betiko antzera; begiratu ezazu zineman atzera, esku hutsik ez gera joango etxera.

Ametsek bigarren puntuan (bere lehenean) ematen dio arrapostua gai-emaileak egin galderari. Bigarren puntuan eta txukun; baina ez da kolpe bakan eta betea, esku-huskakotzat jotzeko jenialtasuna ments du. Hirugarren eta laugarren puntuetan testuingurua egoki baliatzen du. Hirugarrenean, bigarren pertsonan ari den arren, gai-emaileari ez ezik entzule orori ere zehatz definitu dio jomuga. Hirugarren puntu horrek bukaera gorago izan dadin bidea ematen du. Eta azken puntu erronkatsu horrekin goian bukatu du bertsoa. Hor denoi ari zaie hizketan; gai-emaileari eta publikoari oro har. Izan zitekeen, ordea, lagun talde horri soilik esandakoa, indartsuagoa litzateke kasu horretan. Berdin du, anbiguotasun hori ez da kalterako. *Erremontean* aritu da.

Doinua: Xarmangarria zira I

M. Taberna	Himalaiatik dator albiste tristea;
<i>A. Goikoetxea</i>	tamalgarría zaigu hori ikustea, gora abitu eta bizitza uztea. Zergatik hiltzen zaigu hain jende gaztea?

Arkaitz erremontean ari da. Kasu honetan, gai-emailearen puntuari buruzko komentarioa bigarren eta hirugarren puntuetan barna egin du. Ohikoagoa da, hirugarren puntua azkenaren tranpolin gisa erabiltzea, bertsoa goian buka dadin. Haatik, honetan ez da tranpolinik izan, ordeka zenak goiti egin du bat-batean. Azken arrazoia indartsua da. Batetik, testuinguruak ematen dio indarra: Himalaiako azken istripuen erreferentzia testuan ez ezik entzuleen baitan ere bazen, zuela gutxi gertatu baitziren. Halaber, Garaziko saioan ziren bertsozaleei egin galdera da. Eta bestetik, galdera horrek erantzunik ez duten galderen pisua du bere baitan.

LEGAZPI

Legazpiko saioan Sustrai Colinak puntuari eman arrapostua apartatu dugu.

Doinua: Haižeak bidali du

S. Jauregi	Jaunaren izenean limosnaren eske
<i>Colina</i>	datozte burumakur ta erabat triste. Hala ere nerekin lasaitu zaitezke, nik ematen diet ta sentitzen naiz aske.

Aztertuko dugun erantzuna, gai-emaileak Sustrairi eman bigarren puntuari dagokiona da. Honen aurretik gai-emaileak emandako lehen puntuaren baitan, Sustrai eskaleei buruz kantatu du. Bertsolariak gai-emailearen puntua jaso egiten du. Ez du iraultzen. Lehen puntuari adizkia harrigarriro emendatu eta bigarren puntuarekin esaldi luzeago bat osatu du. Batzuek zatartzat joko dute aditz sintagma erritmoa dela-eta etenik kantatzea (eske // datozte), baina Urruñarraren erreflexua uka ezina da. Bigarren puntuko deskripzioa ederki geratu zaio. Pilota jaso ondoren, azken puntu horrekin erreboteraino heldu gabe baina goian bururatu du bertsoa. Erremonteko erantzuna da.

AMURRIO

Bixente Gorostidiren puntuari eman erantzun hau iruditu zitzaigun onenetariko Amurrion jokatu zen kanporaketan.

Doinua: Xarmagarria zira I

B. Mandaluniz ***Sua pizten duenak
nahi du etekina***

Gorostidi

hari ez zaio inporta
jendearen mina.
Egin behar genduke
denok ahalegina,
eurek jasan dezaten
sugarren gordina.

Aurreko puntuetan Afganistaneko gerra eta AEBen esku hartze militarri buruz kantatu behar izan zuen Bixentek. Bigarren puntuko erantzuna ez da jeniala, baina indartsua da; abantzu esku-huskakoa. Segidan, sintaktikoki jositako bi puntu bete bota ditu. Goian bukatu du, ederki. Bixenteren bertsoak badu zartakotik bigarren puntuan eta ondoren behera gabe, goiti egiten du, dotore. Erantzun osoa da.

Hasiera batean, pentsa daiteke singularra eta plurala nahasi dituela (hari / eurek). Ez zaigu hala iruditu. Bigarren puntuko "hari" hori, lehendabizikoaren "hark"-ekin doa. Subjektua "hark" da. Bigarren puntuan bukatzen da gai-emaileak esan duenari buruzko erreferentzia. Azkeneko bi puntuetan beste gogoeta berri bat dator, beste subjektu batekin (denok).

LESAKA

Lesakako kanporaketatik bi punturi eman erantzunak bereizi ditugu, zer azterturik bazuten beste batzuk gogoan ditugun arren. Aitor Mendiluzek eta Asier Otamendik emandako erantzunak dira. Hara Otamendirena:

Doinua: Haižeak bidali du

M. Taberna ***Diru beltzak oraintxe
zuritu beharko!***

As.Otamendi

Gaur gastatu ahal dena
ez utzi biharko!
Pobreak bota behar
majina bat malko!
Lehen lodi ez zeudenak
segi behar plako.

Gai-emaileak kantatutako lehen bi puntuak euroaren etorrerari buruzkoak izan ziren. Hori izan zen Asierrek erantzun beharreko hirugarrena. Gure iritziz, hasierako puntu hori ez da

erantzuteko hain erraza, ondorio bat baita. Printzipioz, ondorio bati ekitea gaitzagoa da, galdera edo aipamen soil baten ondoren segitzea baino.

Otamendiren erantzuna bigarren puntuan dago. Bigarren puntu hori hein batean lehendabizikoaren errepikapena da, baina badu zartakotik; dirdira horretan *beharko/biharko* oin pareak badu zerikusirik (eta beharbada *zuritu/ ez utzi* pareak ere bai), musikaltasun handia ematen baitio bertsoari. Hirugarren eta laugarren puntuetan dioena, arrazoi politak izanagatik, ez zaigu iruditzen oso-oso harira datozenik. Hirugarren puntuak ez du azken arrazoiaren tranpolin funtzioa betetzen; "oin bat = ideia bat" formularekin ari da; puntuak metatu ditu Asierrek.

Mendiluzek, berriz, horrelako erantzuna eman zion puntu honi:

Doinua: Xarmangarria zira I

M. Taberna **Berriro hemen dugu**
 Garzon ate joka;

Mendiluzē nunbait ez da bukatu
 hasi zen borroka;
 bat eramaten du ta
 beste hiru bota,
 errudunak al diren
 ez zaio inporta!

Bertso honetan erremontekoa da Aitorren erantzuteko modua. Bigarren puntuan lehendabizikoan entzundakoari buruzko gogoeta egin du; ez da kolpe jeniala baina bai aski txukuna. Hirugarren puntuan goiti egiten hasten da. Hirugarren puntua ez da tranpolin hutsa. Zenbakiekin egiten duen joko estetikoari esker, azken puntuko arrazoiak gehiago nabarmendu da, eta bertsoa goi-goian du urrendu.

ELORRIO

Elorriokoa zen azken kanporaketan Igor Elortzak eman erantzun bat aztertu dugu.

Doinua: Xarmangarria zira I

B. Mandaluniz **Guztioi sobratuko**
 zaigu azkenean;

I. Elortza dirua alperrik, bai,
 hiltzen garenean.
 Beraz daukazuena
 poltsa barrenean,
 baliatu aukera
 daukazuenean.

Gai-emaileak aurretiaz diruzaletasunari buruzko puntu bi eman zizkion. Hau izan zen hirugarrena. Eta erantzuna erremontekoa da. Lesakakoan Asier Otamendik egin legez, Igorrek

bigarren puntuan gai-emaiak esandakoa errepikatu du hein batean, modu ulergarriago batean emanez. Horrela jaso du pilota xisteran. Orain artekoari erreparatuz gero, xisteran jasotzeko hainbat era badira. Hirugarren eta laugarren puntuak testualki bi lehenengoei lotuta daude, aurreko bien ondorioa dakarte. Azkeneko arrazoia elkarrekin sintaktikoki josi bi puntuetan kantatu du. Joskera horrek berak eraman du gorago bertsoaren azkena. Izan ere, puntua emanda ariketan horrelako loturak egitea ez da beste ariketetan bezain aise, bertsolariak ez baitu deusetako astirik.

BESTE HITZ ERDIA

Final-laurdenetako saioetan esku-huskako erantzunak biziki urriak izan dira, eta izan direlarik azken bi puntuetan sobera galtzen zuen bertsoak, kontra-kantxan egin du punpa pilotak. Bertsolarien erantzun gehienak erremontekoak izan dira, eta horietatik asko onak. Ondorioz, pentsa genezake "errazagoa" dela erremontean aritzea. Beharbada txapelketan ari denez gero, bertsolariak erremontera jotzen du, seguruagoa baita. Aztertu beharko genuke ea jaialdi arruntetan, presio eta arriskurik gabe, esku-huskakoak txapelketetan baino gehiagotan gertatzen diren. Dena den, erremontekoa landu edo prestatu daitekeela iruditzen zaigu; esku-huskako ateraldia, ordea, nekezago landu daiteke, ingenio kontua da.

Gaiak ere badu ikututakoan nabarmen geratzen den aldea

RUFINO IRAOLA

Gauza asko dira garrantzitsuak bertsoaritzan; gaia dugu horietako bat. Gaia da, aldi berean, bertsoaren ibilbidea eta jomuga. Gaiari heltzeko eraren eta garatzeko moduaren baitan dago, hein handian, bertso-saioaren izatea. Gaiari heltzeko moduak erruz baldintzatzen du bertsolariaren diskurtsoa edo kontakizuna. Gaia garatzeko erak adieraziko digu berbaldiaren orijinaltasun maila. Gaiaren trataerak azalduko digu, sarri askotan, bertsolaria publikoarengana iristen ari den ala ez; bertsoa entzuleari eragiten ari den ala ez, eta beste anitz gauza gehiago.

Hala ere, malgutasun handia dago gaia enfokatzeko garaian, nola bertsolarien aldetik hala epaimahaikoen partetik. *Bat-bateko bertsoen epaietarako arauak* izeneko txostenak hauxe dio "Gaiari dagozkion irizpideak" ataleko lehen puntuan: "Gaiak logika baten barruan eskaintzen dituen bide guztiak dira onargarri".

"Logikaren barruan" dio, eta horrek bide ematen dit niri adibide txoro bat ipintzeko. Mutikotan, eskolan, hauxe ikasi genuen: "Península es una porción de tierra rodeada de agua por todos los lados menos por uno que se llama istmo"²⁸.

Zer esan nahi ote nuen konparazio ahul horrekin? Gaiak ia-ia enfoke guztiak onartzen dituela. Ez, ordea, guztiak, eta enfoke batzuk beste batzuk baino askozaz egokiagoak dira. Gaiaren enfokean asmatzea bertsoaren erdia kontrolatuta edukitzea da. Lan hau burutzeko, 2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren final aurreko sei saioak aztertu ditugu. Garbi esateko, Antton Kazabon eta Josu Telleriak libururako egin duen hautaketan oinarritu gara. Beraz, maila batetik gorako bertsoak dira guztiak. Gainera, guk ez dugu epaituko bertsoaren balio orokorra, baizik eta gaiari heltzeko eran tinkatuko ditugu belarriak.

Besterik gabe, jo dezagun adibide praktikoetara, polit askoak baditugu eta. Etxarri-Aranazko saiotik ekingo diogu. Honela dio, esate baterako, Maialen Lujanbio eta Jexux Mari Irazurentzako gaiak: "Bizitzari buruz oso ikuspegi desberdinak dituzue biok. Zuk, Maialen, uste duzu zoriona ametsa besterik ez dela eta oinazea dela nagusi bizitzan. Jexux Marik uste du zoriona ere badagoela. Hiruna bertso, hamarreko ttikian, Maialen hasita."

Maialen hasten da. Modurik zabalenean, markorik orokorrean eta filosofikoenean kokatzen du gaia:

Ametsa ke hutsa da,
alferrik zabilta!

²⁸ Istmo deritzan alderditik izan ezik beste guztietatik urez inguratutako lurraldea da penintsula.

Beti biharkotan da
bizidunen ditxa.
Mintzen gaituzten gauzez
ezin gara mintza;
familiar samina,
lagunarte hitsa...
Heriotzai itxoitea,
hori da bizitza.

Irazuk, aldiz, ipin dakizkiokeen hesi eta mugarik estuenean finkatzen du, zoriona bertsolari izatearekin loturik. Ez dugu esango gaia absurdoraino eramán duenik, baina bai formula edo ikuspegi guztiz murriztailea darabilela:

Ez malkorikan bota
zure bizitzari
ta egiozu kasu
behingoz bihotzari.
Zorionean gera
biok bertsolari;
mila lagun entzuten,
gu biok kantari;
egizko zoriona
ez ote da hori?

Bertso-saio horretan bada gauza gehiago ere komentatzeko modukoa. Adibidez, Irazu nola dabilen punta batetik bestera, hemen ikutu eta han jo, eta Maialen, berriz, Irazuri erantzun nahian, hark ipinitako konpasean dantzatzen.

Hurrengo puntua topikoen erabilpenari buruzkoa da. Agian, polemika piztu lezake, nire asmoa eta gogoá hori ez badira ere. Honela dio txostenak: "Topikoen gehiegizko erabilera ez da ontzat joko". Hurrengo adibidea ez ote hor sartzen? Markina-Xemeinen, Aitor Sarriegi eta Aritz Lopategiri emandako gaia ipiniko dugu lehenik: "Zuek, Aitor eta Aritz, bi gazte zarete, herrigintzan lan asko egindakoak. Orain, bioi funtzionario izateko aukera etorri zaizue. Zuk, Aitor, aukeraz baliatzea pentsatu duzu. Aritzi ez zaio burutik pasatu ere egiten hori. Hiruna bertso, hamarreko handian, Aitor hasita."

Sarriegik kantatu du berea eta Lopategik honela dio:

A ze zalantza daukagun orain
alkarren aldamenean!
Funtzionaritzan aukera hori
heldu zaigu azkenean.
Herrian gogor aritu gara
biok jarrera onean;
euskeran alde, presoen alde,

gogotik eginahalean,
ta orain hasi behar al duzu
Aznarrentzako lanean? (bis)

Garbi dago Aznar aipatzeak publikoarengan eragina izango duela. Beraz, izan liteke ondo pentsatutako estrategia, baina oso nekeza da topikoan ez erortzea. Gainera, Aznarrentzat aritu gabe ere izan daiteke bat funtzionario.

Aipatu eta aipatu ari garen txosten horren arabera: "Zilegi da denbora eta espazio aldetik errealitatea eta fikzioa elkartzea". Markina-Xemeinen jarraitzen dugu. Aitor Sarriegi eta Unai Iturriaga dira protagonistak. Hauxe zuten gaia: "Zuek Unai, aitona, eta Aitor, biloba, neska gaztea, hondartzara joan zarete elkarrekin aspaldiko partez. Zuk, Unai, aitona, uretatik bueltan etortzean, hor dakusazu biloba gaztea top-lessean eguzkia hartzen. Launa bertso, zortziko txikian, Unai hasita."

Oso bertso-saio arrakastatsua izan zen. Guk Iturriagaren bertso bat aztertu nahi genuke. Konkretuki, 36ari egiten dion erreferentzia. Data esanguratsua, makurra eta nahi duzuen guztia izan liteke. Horrez gain edo hain zuzen ere horregatik, zenbaki sinbolikoa da; eta, denok dakigun bezala, *Joxantonio Arana* pertsonaiaren bidez, *Sorginen Laratzak* asko promozionatua. Euskarari buruzko konnotazio berezia ere badu: data erderaz esatea auskalo noizko kontua den! Iturriagak badaki hori guztia, eta, inolako oharrik gabe, zuzenean botatzen du bertsoa. Beraz, bertso horrek grazia egingo badu, entzuleak aurrejakintza behar du, eta Unai aitortzen dio aurrejakintza hori. Berak sarritan botatzen dituen ateraldi horietako bat da, txiste moduko bat. Hori da Iturriagaren estiloa eta gaia enfokatzeko modua, askotan. Besterik ere aipa daiteke. Esaterako, ez dio jaramonik ere egiten Sarriegiren arrazoiari; honek irekitako bidea alde batera utzi eta bereari jarraitzen dio. Entzun Sarriegiren bertsoa eta ondoren Iturriagarena:

Begiztatu dituzu
titi punten ertzak,
berritzeko lehengo
zaharren ametsak,
baina gaizki pentsatu
ez dezan jendetzak,
gutxinez jantzi itzazu
antiaju beltzak! (bis)

Jendeak jakin beza
ez zaudela gizen,
neureak dituzula
behintzat bi abizen.
Jendea tapatzen zan
gehiau *treintaiseisen*,
baina hori egia esanda

oso aspaldi zen. (bis)

Testuinguruari buruzko aipamenak ditugu orainoan. Beti bezala txostenera joko dugu. 2.7. atalean hauxe dio, besteak beste: "...ez dira txartzat joko entzulei, giroari nahiz gaiari buruzko erreferentzia erretorikoak". Markina-Xemeingo saioan bada adibide aipagarri bat. Aritz Lopategi eta Unai Agirre honako gai honen harira ari dira kantuan: "Zu, Aritz, hamar urteko mutikoa zara, eta Unai ama. Gaur eguerdian, amak bazkaltzeko bainak jarri dizkizu. Ez dituzu jan. Afaltzeko, eguerdian jan ez dituzunak atera dizkizu berriro. Launa bertso, zortziko txikian, Aritz hasita."

Amatxo, badaukazu
nahikoa jenio,
ta jan beharko ditut,
zer erremedio!
Baina ez nauzu elikatzen
zuk oso serio;
Unaik bere haurrari
pizza ekartzen dio! (bis)

Goian ezarri dugun bertso hori Lopategiren bigarrena da. Zertaz ari ote da Gernikako bertsolaria? Unai Iturriagak egun hartan bertan, Igor Elortzarekin 10eko handian egindako saioaren erreferentzia da. Hona, Lopategirena testuingurualizatze aldera, Iturriaga eta Elortzaren gaia eta Unairen bertsoa: "Zu, Igor, hamabi urteko haurra zara, eta Unai zure aita. Orain dela urtebete hil zitzaizun ama, Igor. Gaur, Unai, aita, emazte batekin etorri da etxera "gurekin biziko da" esanez. Hiruna bertso, hamarreko handian, Igor hasita."

Luto guztiak hostoak legez
erori baietz banaka!
Zure aitari hartu diozu
gizon tristearen planta,
baina ederto jakin dakizu
poza dudala galanta,
ta ekarri dizut pizza haundi bat
ta sei Coca-Cola lata;
ipini mahaia, egun eder hau
ospatu egin behar da-ta! (bis)

Ikusi dugunez, Lopategiren bertsoa ulertu ahal izateko, testuingurua errekuperatu behar izan dugu. Zenbat jenderi ihes egin ote zion bertso horrek? Ez dakit, baina saio bat aurren samarren eta bestea azken aldera zela kontutan harturik, agian bati baino gehiagori. Beraz, zilegi izango da, baina arriskutsua ere bai. Nire bigarren eta azken

galdera hauxe da. Errekurtsu erraza zelako erabili zuen Aritzek ala, hain zuzen ere, argudioak indartzeko, berbaldiari izaera dialogikoa emanez?

Gaiari lotzeko beste modu bat elkarrizketa sutsuan eta bizian murgiltzea da. Ikus dezagun Sustrai Colinak eta Arkaitz Goikoetxeak Azpeitian egindako saioa. Elkarrizketari hobeto igartzeko eta adibidea luzeegia suerta ez dadin, bertsoak soildu egingo ditugu, elkarrizketaren hariak ametitzen duen neurriraino. Aurrekoetan bezalaxe, jakin dezagun gaia: "Ama-alabak zarete. Sustrai alabaren ibilerak direla eta, Arkaitz ama kezkatuta dago. Asteburuetan, ohi bezala, dantzalekurako prestatzen ari zarela, Arkaitz amak esan dizu berak ere dantzalekura joan nahi duela zurekin. Launa bertso, zortziko txikian, Sustrai hasita."

(...)
barkatu, baina ez dut
bizkarzainik behar. (bis)

(...)
zuk ze behar daukazun
nik dakit ondoen! (bis)

(...)
baina etxean hobe,
ez nezake uka,
zuk gure aita zaintzen
nahiko lan duzu-ta! (bis)

Gauetan ez baduzu
egiten deus txarrrik,
amagatik ez duzu
beldurtu beharrik. (bis)

(...)
ez naiz txintxo ibiltzen,
hori da kontua! (bis)

Txintxo ez bada ibiltzen
ateratakoan,
ibili beharko du
amaren ondoan! (bis)

"Egon zaite etxean"
nere erantzuna,
ta kontatuko dizut
entzun nahi duzuna. (bis)

Eztabaidak ez digu
gehiago merezi;
nahi duzu baina ez zera
juango ihesi! (bis)

Saio horretan elkarrizketak hain indar handia hartzen du, bati ahaztu egiten zaio gaia zein den ere. Elkarrizketa da aski bertsoak eman behar duen hori emateko, publikoarengana iristeko, hura irriz jartzeko, emozionatzeko...

Hendaian gaude orain. Bertsolaritza, batez ere, dialektika eta argudiozko testuen alorra izan da; nolabait esateko, diskurtso teorikoarena. Baina kontakizuna ere ari da sartzen. Esku artean dut etsenplu garbi bat. Maialen Lujanbio da protagonista. Kartzelako lanerako hauxe izan zuen gaia, beste guztiak bezalaxe, Hendaian: "Zure ustez hagitz guraso aurrerakoiak eta jatorrak zenituen. Poz-pozik erran diezu mutil beltzaran batez maitemindu zarela. Gurasoen aurpegiak erabat aldatu dira berri hori eman diezunean. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan."

Hona hemen lehenengo bi bertsoak:

Munduan barna bidai batera
joan nintzen pozik zeharo,
ikuskizunak ta esperientziak
izan nituen oparo.
Jordaniara iritsi ginen
bidaia hortan, akabo!
Aita ta ama, hartu gogoan
ni maiteminduta nago,
mutiko hori bihurtu baizait
sentimentuen arrago,
bera beltza da, jakin zazue,
arabiarra zehatzago;
aita ta ama horren zuriak
ez zerate, ba, izango?
Bera beltza da, baina halare
ez da ni baino beltzago.

Bera Ammanen ezagutu nun
bere aitan alfonbra-dendan,
sartu orduko begiratu ta
moldatu ginen primeran.
Arabiar denak bezela zela
pentsatu nuen haseran,
baina gerora harreman hori
berezi zela antzeman.

Besotan hartu eta laztanak
egin zizkidan ileran;
ezin dezute imajinatu
ze oroitzapen ona dedan!
Euskal Herrian nahiz ta hamaika
nobio izan aukeran,
inongo zurik sekula ez dit
holako musurik eman!

Gaitik aterako balitz bezala ematen du momentu batean, baina kontakizunean ari da, istorio bat montatzen, eta uste dut ondo biltzen dela harira, eta osatzen duen istorioa ere, polita izateaz gain, aski sinesgarria da, nahiz eta gurasoenganako haserre edo oposizio hori nahiko ezkutuan geratzen den.

Erregistro egokiaren kontua ere aipatzen da txostenean. Ahozkoaren eredu polita delako, Unai Iturriagaren bertso bat gogorarazi nahi nuke. Jadanik Bilbon gaude. Xabier Silveira zuen kantu-lagun. Hauxe zen gaia: "Lantegi handi bateko nagusia zara Unai, eta lantegirako kontratatu berri duzun sendagilea Xabier. Langileen osasun egoera gertutik zaintzea da sendagilearen ardura. Kontua da, Xabier lanean hasi zenetik, geroz eta langile gehiago dagoela bajaran. Hiruna bertso, zortziko handian, Unai hasita."

Sasimediku bat niri agintzen,
hoixe baino ez zan falta!
Orain egin du patronalak ta
langile soil batek talka.
Benga Xabier, egizu ospa,
alde, korri, tira, hanka!
Baja bakarrak ekarriko du
beste guztientzat alta. (bis)

Esklamatio horiek guztiak horrela sartzeak badu meritua, badu sinesgarritasuna, elkarrizketa interaktiboaren ezaugarriak dira, guztiz hizkera konatiboa darabil.

Iturriagaren sailean badira erregistro egokiaren adibide gehiago ere. Bilbotik aldendu gabe, jo dezagun Aitor Mendiluzerekin egin zuen saiora. Entzun dezagun, ordea, lehenik gaia: "Zu, Aitor, aktorea zara eta egunero telebistaz ematen den telesail batean gaiztoarena egiten duzu. Etxerakoan, Unai zure auzokoak haserre bizarden eraso dizu. Launa bertso, zortziko txikian, Aitor hasita."

Nik gaizto paperean
jana irabazi,
auzora iritsi ta
erasoan hasi;
fikzioa bereizten

ez dezu ikasi,
orduan telesailik
ez zazu ikusi. (bis)

(...)
Jakizu eraso hau
merezi duzula,
ta neri ez kontatu
zure pelikula. (bis)

(...)
lehengo astean neure
kidea hil nuen
ta atzo elkarrekin
bazkaldu genuen. (bis)

Gaiztoa ta laguna,
gaiztoa topera,
lagun bat hil zuela
matxete kolpera.
Gero harekin bazkaldu,
normala ote da?
Parasikologoa
gaiztoaz gainera! (bis)

Adibide txarra zen,
hau da ezustea!
Hobe beste batekin
hau garbi uztea;
han gaur andregai bat da
ta bihar bestea,
ez al dezu ezagutzen
nere emaztea? (bis)

(...)
baina niri ez kontatu
hau, hori ta hura,
zure kantzontzilotan
ez dut sartu gura. (bis)

(...)
ia Maria Luisak
akatzen zaituen! (bis)

Gauza asko aipa liteke bertso horietan, gaiaren ikuspegitik. Bertsoz bertso joango gara. Gaiari berari erreferentzia eginez, gaia errepikatuz, hasten da Mendiluze. Esana dago zilegi dela. Hala ere, erreferentzia erretoriko horiek askoz ere ugariagoak ziren lehengo bertsolaritzan.

Hurrengo aipamena Iturriagarentzat dut. Ikusi zeinen egoki datorren testuinguruan "Neri ez kontatu zure pelikula" klitxea edo esamodua. Aitor ondo defenditzen da. "Laguna hil eta berarekin bazkaldu" dio. Baina Iturriagak bikain hartzen dio neurria; erantzun ez ezik gaia garatu egiten du: "Parapsikologa gaiztoaz gainera". Aitor, berriro ere, ondo defenditzen da, baina Iturriagaren "mespretxua" izugarria da, "hor konpon" esanez bezala eta bere rolari irmo eutsirik: "Zure kantzontzilotan ez dut sartu gura". Ez dago metafora bat argudiatzeko hobeto ibiltzerik. Azkenik, Maria Luisaren aipamena ere guztiz pertinentea da, serie bateko pertsonaia aski gaiztoa baita; heriotzarekin erlazionatzeko modukoa, nahiz eta horretarako *Goenkale*²⁹ ikusi behar den eta aurrejakintza dexente aitortu behar zaion entzuleari.

Sustrai Colina eta Jon Maiaren txanda da. Giroari buruzko erreferentzia aipatu behar dugu ostera ere. Lehenik, ordea, gaia: "Gaur, zuk, Jon, koadrilarekin zeure ezkon aurreko ospakizuna izan duzu. Goizaldeko ordu txikitian, Sustrai zure neska-lagunaren leiho azpira joan zara abestera. Launa bertso, zortziko txikian, Jon hasita."

(...)
Orain baldeka uraz
ez zaite atera,
ez al zendun gustoko
nere habanera? (bis)

(...)
Habanera maite dut,
ez da esan beharrik,
mantso-mantso abesten
baduzu bakarrik.(bis)

Azpimarratu dugun esaldi horrek izugarrizko irriak eragin zituen. Berez ez dirudi hain esaldi indartsua denik; baina Maiari kantatuta... Izan ere Maiak, bakarka ari denean, habaneraren doinua hartzen du sarri, eta oso mantso kantatzen du. Beraz, adar-jotze handiagorik... Bistan da testuinguruak duela garrantzia.

Iritsi gara Tolosara eta, horrenbestez, azken geltokiraino. Zalantza bat planteatu nahi nuke: hurrengo saioan Jexux Mari Irazuk egiten duena gaia garatzea ala gaitik apur bat ihes egitea ote da? Hona hemen gaia: "Aitona-bilobak zarete. Herriko jaiak berehala datoz, eta zu, Jexux Mari, biloba, egun horiek noiz iritsiko zain, ilusioz beteta zaude.

²⁹ Euskal Telebistak bere lehen katetik emititzen duen serie ezaguna.

Igor, aitona, berriz, jaiak heltzeko beldurrez. Hiruna bertso, zortziko handian, Jexux Mari hasita."

Gure herrian Iñauteriak
belaxe dute hasera,
lehendikan ere ezaguna da
aitonaren ibilera:
hiru-lau trapu hartu soinean
eta korrika kalera.
Bastoiarekin juango zara
amonakin ligatzera. (bis)

Niri, behintzat, ihes egitea iruditzen zait. Gertatzen dena da Igor Elortza erantzule ona dela eta ederki bideratu eta garatzen duela gaia:

Bastoiarekin ere ez da hain
segurua karnabala,
lehenago urtean ere izan zen
nahikoa giro petrala;
kalera irten ta gogoan dut
dena plastikoa zala,
laban eginda erori nintzen
mezetara nindoala. (bis)

Hortik aurrera elkarrizketa bizian sartzen dira, batez ere Elortzari esker, eta, lehen esan dugun legez, gaia estalita bezala geratzen da; hala ere, zalantza handiak ditut Irazuren saioarekin. Bai, gaia gehiegi ixten duela uste dut.

Berriro ere Larrauldarra hartuko dut hizpide. Oraingoan, Arkaitz Goikoetxea du lagun. Hauxe dute gaia: "Zu, Arkaitz, hirurogeita hamar urteko agurea, gida-baimena berritzeko asmoz etorri zara Jexux Mari medikuarengana. Badaezbada, urdaiazpikoa besapean hartuta etorri zara. Launa bertso, zortziko txikian, Arkaitz hasita."

Irazuren lehenengo bertsoa (saioko bigarrena) duzue hurrengoan:

Makulu eta txapel,
ez buru, ez zentzun!
Esp likatu nahi baino
al dezake entzun?
Urdaiazpikoa're
txarra bezain lizun...
Hortatik ezagun du
ze bista daukazun! (bis)

Hemen berriro ere gaiaren aipamena egitea zilegi delako atal horretan gaude. Baina aipamen hori ez da erretoriko hutsa, baizik eta bere argudioari indarra emateko darabil. Gainera zeinen ondo uztartzen dituen entzumena eta ikusmena edo, hobeto esan, zentzumen horien gabezia.

Hauxe da dena. Ez nuen azterketa sakona egiteko asmorik eta pretentsiorik, lagin bat eskaintzekoa baizik. Ez da tesi handi baten oinarria ere; har dezagun hipotesi txiki baten moduan.

Finaleko matazan

JOXERRA GARZIA

Aulki itxurako eskultura egiten duen eskultorearen arte lana juzkatzerakoan, astakeria galanta litzateke eskultura horren “eserigarritasuna” hartzea juzkuaren oinarri nagusitzat. Orobat litzateke astakeria artisau batek egindako aulkia parametro estetiko hutsetatik juzkatzea. Hots: zerbait juzkatu nahi denean, dena delako zer hori zer den eta zer izan nahi lukeen, horrexen arabera juzkatu behar da, juzkua taxuzkoa izango bada. Zehatzago esanda, izan nahi lukeena izatera iristen den ala ez, hori da neurri jator bakarra.

Gure lantxo honek, 2001eko Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko azken saioa du aztergai. Ikusiak ikusi eta —batez ere— entzunak entzun, nahitaezkoa deritzat saio hori zer den eta zer ez den hasieratik beretik argi eta garbi uzteari, horrelako saio batek eman nahi eta ezin duenik eska ez diezaiogun.

Txapelketa Nagusiko finala bertso saio bat da, ez gehiago ez gutxiago, baina bertso saiotik bertso saiora bada alde pittin bat, eta ez naiz ari finalak sortarazten duen miraz bakarrik: bertsolariak saio bakoitzari ezartzen dion xedeaz ari naiz, batez ere.

Bertsolariak —eta horretan badirudi bat gatozela denok— entzulearengan eragitea du xede nagusi: entzulearengan emozioak sortaraztea, entzulearengana “iristea”. Hori, nire ustez, ez da aldatzen saiotik saiora: dela afalosteko saioa, dela plaza libre nahiz ohiko jaialdia, bertso trama zein saio monografikoa, entzulearengan eragitea lortu ezean alferrik dira gainerakoak. Txapelketako finalean, ordea, xede nagusi horrekin batera honako beste bi xedeok ukan ditzake bertsolariak:

—Irabaztea, edo/eta

—Ekarpen berriak egitea.

Bi xedeotatik lehena, irabazteko (edo ahalik punturik gehien lortzeko) asmoa da, dudarik gabe, txapelketak bereen duena, txapelketako saioei beren izaera propioa ematen diena. Gainerako saioetan bezala, saioa ona irten dadin ahaleginduko dira bertsolariak, baina saio arruntetan baino arreta handiagoa jarriko diote, beti ere, norberaren emaitzari. Hori hala da, eta komeni ere komeni da hala izan dadin. Besterik da ahalik eta punturik gehien lortzeko bidea eta jendearengana iristeko bidea bide bat bera ote diren, ala diren bide kontrajarriak. Beste hainbeste esan daiteke ekarpen berriak egiteko xedeari dagokionez. Batetik, saio arruntetan ere ez dio inork debekatzen bertsolariari ekarpenak egitea. Are gehiago, nago orain, duela urte batzuk ez bezala, txapelketaz kanpo ez ote diren egiten ekarpenik aipagarrienak.

Aitortu zein ez, uste dut hiru xedean arteko gatazkak eragin dezentea izan duela azken finalean. Ez dakit bertsolariak garbi ote duten hiru xedetan zeinek duen horrelako saio batean lehentasuna. Ezetz esango nuke: jokoa jolas eta jolasa joko bihurtzearena

errazagoa da esaten izaten baino. Entzuleen artean, berriz, garbi dago batzuek, bertsolariek sortarazi dieten emozioen arabera egiten dutela finaleko juzkua. Beste batzuek, adituek-eta, saioan zehar bildu dituzten perla eta berrikuntzen arabera. Ez da, beraz, harritzekoa, iritzi kontrajarriak aurkitzea gero finalari buruz.

Bertsolariak eta entzuleak, horiek dira bertso saio batean, edozein eratakoa delarik ere bertso saio hori, ezinbesteko diren osagarri bakarrak. Gainerakoei (antolatzaile, gai-jartzaile, soinu-arduradunei eta abarri), gauzak bertsolariek beren xedea lortzeko eta entzuleen beren igurikapenak betetzeko moduan antolatzea baino ez dagokie. Saio arruntetan, xedeak eta igurikapenak argi eta garbi daudelarik, erraza da lan hori. Huts egin liteke, noski, baina ez xedez nahastu garelako. Txapelketan, berriz, errazagoa da nahastea, xedeak eta igurikapenak ere nahasi baitabiltza bai bertsolariengan bai entzuleengan. Hori dela eta, buruhaute bat baino gehiago sortzen dituzte horrelako saioek, bai ariketak finkatzerakoan, bai gaiak proposatzerakoan. Bada gairik bertsolariari eragiteko bidea lautzeko propio jarrita dirudienik. Atturritik Ebrorainokoa, esaterako, halakoxea zen: Herria, Belodromoa, biba-guka hasteko moduko gai potolo maiuskulo antonomasikoa. Barrea ere eragin behar izaten da, ordea, tarteka, eta horretarako ez dago surrealismo ukitu bat bezalakorik: aitona baratzean bilobaren neoprenozko jantzian, esaterako. Gaiak ez ezik, ariketak ere baziren, bertsolarien trebetasun teknikoa neurtzeko propio jarriak. Gai beraren inguruko lau puntuak, esaterako, edo hitza emanda bederatziko txikia osatzekoa.

Bestela esanda: ohiko saioetan gaiak izaten dira. Txapelketan, berriz, gaiak eta ariketak. Bitxia bada ere, badirudi zenbat eta eginarazten zaion bertsoaldiak ariketa itxura nabarmenagoa izan, orduan eta erosoago jarduten du, oro har, bertsolariak. Beharbada, ariketaren izaerak ebazten diolako gatazka: teknikoki luzitzea da kontua, eta ariketa bera zaio, kasu horretan, koartada.

Gaia gai denean, aldiz, litezkeen hiru helburuetatik zeini men egin ez dakiela geratzen da bertsolaria. Ez, ordea, bertsolaria bakarrik: entzuleak ere, entzule arrunt zein adituak (epaile, kritikari, ikertzaileak...) halaxe geratzen dira-eta. 2001eko finalean, gerora zer esanik gehien eman duen gaien ikus liteke hori argien: Atturritik Ebrorainokoa, alegia. Gai hori baliatuko dugu, hain zuzen ere, finalari buruzko iruzkinen mataza askatzeko hari muturtzat.

1. Atturritik Ebrora Belodromoan barrena

Honela zioen, hitzez hitz, arratsaldeko saioan bertsolariei kartzelako ariketan jarri zitzairen gai gerora hain harrotuak:

“Atturritik Ebrora herri bat badela Belodromoa izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke. Hiru bertso, nahi duzun neurri eta doinuan”.

Gaia bakarra da, baina bada hor, baldin ez banago gor, gai bakar baterako baino gehiagorako mamirik edo hari muturrik. Gutxien jota, honako hauek:

1. Muga guztien gaintik, herri bat gara.
2. Euskal Herria Belodromoan bildurik dago gaur.
3. Trakets jokatzan ari gara (tristura).
4. Zer utzi nahi zenieke zure ondorengoei herentzian?

Horra hor lau genero gauza (gai) bakar batean. Lau azpigaiotatik hiru (1, 3, eta 4) testuinguruari dagozkio, hots, bertsolariak eta entzuleek partekatzen (omen) dituzten uste, sineste, balio eta erreferentziei. Lehena eta hirugarrena, iraganari eta orainari dagozkio hurrenez hurren. Laugarrena, berriz, etorkizunari. Alde horretatik, fikziorako bide gehien ematen duena bera da, gairik gaiena, nolabait esateko. Hirugarren azpigaia, aldiz, egoerari dagokio, saioa jokatzan ari zeneko uneguneari. Gauzak horrela, bertsolariak bi jokabide har zitzaizkien:

- A. Gai nagusiaren baitako azpigai bakarra hartu eta, gainerakoak ahaztu, eta
- B. Ahalik eta azpigai gehien nahasten saiatu.

Ikus dezagun zer jokabide hartu zuten bertsolariek Aturritik Ebrorainokoan. Aurrera dezagun, hala ere, bakar batek ere ez zuela A estrategia hartu. Gutxienez bi azpigai uztartu zituzten bertsolari guzti-guztiak.

Andoni **Egañak** 4. azpigaia hartu zuen ardatz, ondorengoei utzi beharreko herentziarena. Tristurarena, berriz, abiapuntutzat erabili zuen, bertsoaldi osoa antitesiz antolaturik: gaizki gabiltza, baina ahalegina egin behar dugu herentzia txukuna uzten. Hartara, Egañak:

-Gaizki gabiltzala aitortzetik abiatzen da, bere lehen bertsoaren lehen puntua honako hau baita: “Aturritikan Ebro tartean / gauza onik ezin soma”.

-Lehen bertsoaren hurrengo puntuak, gaizki zertan eta zergatik gauden azaltzeko baliatzen ditu, eta segidako puntu motzetan ematen du klabea, bide batez bere ikuspegiaren berri ematen digula: “Kartzeletako lau horma, / eskoltak hara ta hona...”. Hori da Egañaren diagnostikoaren muina, eta, diodan bidenabar, horrek eman behar lieke zer pentsatua bertsolari guztiak kolore bereko ideologiaz tindaturik ikusten bide dituztenei.

-Lehen bertsoaren amaieran, bigarren bertsoaren muina izango den arrazoia aurreratzen digu Egañak: gaizki gaude, baina ez dugu etsitzeko eskubiderik. Bide batez, bertsoaldiaren ardatz nagusitzat aukeratu duen azpigaiarekin (herentziarekin) lotzen du oker dauden gauzak hobetzeko ahalegindu beharra: “Herri aske bat utzi nahi diet / ta herrian aske gizona, / ta horretarako egin nahi nuke / nere eskutan dagona”.

-Bigarren bertsoa askoz soilagoa da arrazoi eta estrategiei dagokienez, eta baita formulazioetan zabarxeagoa ere. Ahalegintzea da kontua, zuzen zein oker. Gaitzesteko moduko jokabide bakarra pasotismoa da: “postura denak onartzen ditut, / baina ajolik eza ez”.

-Hirugarren bertsoa, azkenik, ondorengoei utzi nahi liekeen herentzia zehazteko darabil, itxura batean, Egañak. Baina —eta hori da, nire ustez, bertsoaren baliorik handiena— behar genituzkeen arren falta ditugun gauzak aipatuz egiten du berak herentzian utzi nahi lituzkeen zerrenda, hartara lehen bertsoarekin lotura eginez. Hemen ere, bertso amaiera baino askoz aberatsagoa da, nire ustez, bertsoaren arrankea: “Bizi dadila gure herri hau, / bizi bedi iritzia! / Askatasuna izan dadila / bake bidez iritsia! / Orduan pozik egingo nuke / askatasun irrintzia, / maiz helburuak aipatu arren, / bideak du garrantzia”.

Nahi den bezala atera litezke kontuak. Bati baino gehiagori entzun diot esaten bertsoaldi horretan Egañak ez zuela gaia behar bezala hartu, ez baitzuen ez lurraldetasuna (1. azpigaia) ez Belodromoa (2.a) kontuan hartu. Entzunak entzun, nago ez ote garen ari gaiak fetitxe bihurtzen. Nire ustez, gaia kanturako aitzakia baino ez da, bertsolariaren eta entzuleen arteko zubi hutsa, eta horrela hartu behar litzateke beti, bai saio arruntetan bai txapelketetan. Zenbaitetan, gaiak berak bere formulazioan eskainitako hari mutur bat bakarra hartu eta garatzera mugatuko da bertsolaria. Beste batzuetan, berriz, gaiaren formulazioa osatu eta espreski aipatzen ez den hari mutur berri bat erantsiko dio. Eta jardunbide horiek guztiak zilegi zaizkio, nire ustez, bertsolariari.

Jon Maiak ere 4. azpigiaren inguruan osatu zuen bere bertsoaldia, eta, Egañak bezala, gaur egungo egoera tamalgarria hartzen du abiapuntutzat: “Tamalgarria izan da sarri / gure herriko itxura”, dio lehen bertsoan. Bigarren bertsoan, Belodromoaren aipamena egiten du: “Belodromoa batasuna da, / hori denontzat argi da; / hemen herri bat ikus dezaket / Lizarratik Garazira./ Gure herria ikusi nahi det / gaurko egunan neurrira”. Aipamen horrek, ordea, ez du zerikusi zuzenik bigarren bertso horren arrazoi nagusiarekin: “sartu gaitezen esperantzaren harira, / iraganari lotuta baina / etorkizunai begira”. Nolabait esateko, gauzak zenbateraino gaizki dauden jakinarazteko darabil Maiak Belodromoa, antitesiaren bidez, berriro ere.

Irazuk egungo egoeraren tamala hartzen du ardatz nagusitzat (hirugarren azpigaia): “Iriparrerik ez dago, / sufrimentua sobera”, diolarik lehen bertsoan. Lehen bertso horretan bertan sartzten du, ordea, gaiak segurutzat jo zuenarekiko zalantza, “omen” bortitz baten bidez “Herri bat omen gara, bai”. Bigarren bertso horretan bertan egiten du Belodromoaren aipamena. Irazuren kasuan, ordea, zentrala da aipamen hori bai bertsoan bai bertsoaldi osoan. Batetik, aurreko “omen” horren ildotik doa aipamena, segurutzat emana zalantzan jarririk. Bestetik, berriz, Belodromoaren irudia gaiak iradokitzen duenaz oso bestela darabil. Gaiak sinbolotzat hartzen du Belodromoa. Irazuk, aldiz, hitzez hitz, eta gaiak eman dion erreferentzia uste ez bezala baliaturik,

kartzelako gai horretan nire ustez egin zen ekarpenik ederrenetakoa egiten du: belodromoetan txirringulak jira eta bira inora gabe nola, halaxe dabil gure herri hau ere. Azken bertsoaren hasieran egiten du herentziaren aipamena, baina badazpada ere bezala, berehala itzultzen baita hari nagusira, konpondu beharrekoen azalpena alegia.

Iturriagaren bertsoaldiak ere egoeraren kaxkarra du ardatz, eta egoera horren kaxkartasuna deskribitzerakoan. Irazuk egoeraren erreferentzia maixuki baliatzen duen bezala, Iturriagak testuingurutik ehuntzen du bere bertsoaldiaren testua, ez Irazuk baino maixutasun txikiagoz. Lehen bertsoan herentziarekikoak kitatu eta gero, Belodromoaren zeharkako aipamena eginez ekiten dio bigarrenari, gaiak eman bide dion garrantzia erlatibizatuz: “Ohikoak izan ditugu / gure herrian liskarrak, / nahiz ta batzutan estali / Belodromoko aparrak”. Azkenik, egoera hobetuko bada egin beharreko lehen urratsa presoak askatzea litzatekeela dio. Espero zitekeen arrazoiak da hori, jakina, baina formulazioak egiten du gogoangarri: “etxera etor daitezela / preso berri eta zaharrak, / kartzelan bakarrik utziz / joandako egunen marrak”. Zein bere haritik, bikainak dira, nire ustez, bai Irazurena eta bai Iturriagarena. Iturriagaren kasuan, ideia abstraktu baten ordez paretako arrastoak aipatu izanak ematen dio indarra. Metonimia deitzen zaio horri, baina izena da gutxienezkoa: izen hori denik ere ez dakienak ere senti dezake esapide horren indarra. Ni neu, Xalbadorren ospetsu hartaz oroitu nintzen, eta halaxe daukat nire apunteetan jasoa: “Bere arropa hortxe dilindan / penaz ikusten dut hutsa”. Emazte hilaren hutsmina ez da oso arrazoi originala. “Tristatu egiten naiz andrea gogoratzen didan edozer ikusita” esan balu, jakin jakingo genuen, noski, penatuta zebilela. Xalbadorrek, ordea, ez digu jakinarazi nahi penatuta dagoela; sentiarazi nahi digu bere penaren handia. Eta horretarako “haren arropa dilindan” ikusarazi beste biderik ez dago. Beste hainbeste Iturriagaren kasuan.

Igor Elortzarena, ordea, ez da gutxiago bikain. Maileguan erabili zuen doinua ederra zen guztiz, nahiz, aurrerago ikusiko dugun bezala, arazo txiki batzuk sortzen dituen, nire ustez, errimari dagokionez. Abiapuntua egoeraren kaxkarra badu ere, herentziaren azpigaian iritsi zuen Elortzak, nire irudiko, bere puntu gorena. Kartzelako ariketan zehar entzun zen bertso alerik onenetakoa baita, izan ere, Elortzaren lehena. Herentzia zer utzi nahi liekeen ondorengoei, hori zen galdera. Eta galdera horri erantzuterakoan, Elortzak azpikoz gora jartzen du usadiozko esapidea. Aurrekoek guri utzia guk ondorengoei uztea, hori da beti esan izan dena. Elortzak, beharbada oharkabean pasatu zen bertso bukaera ezinago indartsuan, guztiz bestela dio: ahalegindu gaitezen “hurrengoeri ez emateko / lehengoek jasotakoa”. Herentziaz ari da, baina ba ote dago zeinen gaizki ari garen gordinago adierazterik? Bigarren bertsoan hobera bidean eginkizun duguna asko eta asko dela dio, baina baikor ageri da. Hirugarren bertsoari Belodromoaren aipamenarekin ekiten dio. Ez da, ordea, kumplimentu hutsezko aipamena. Irazuk ez bezala, Elortzak onartu egiten du Belodromokoa sinbolo gisa, baina ez da konforme egun bakar bateko loraldiarekin. Horrexegatik errematatzen du bertsoa baiezko erantzuna bere baitan dakarren honako galdera erretoriko bikain jositako honekin: “Izango al dugu ahalmena / ta beharrezko den dena, / beste noranahi eramateko / hemen batu gaituena?”

Luzeegi joko liguke —jo digu dagoeneko— zortzi bertsolarien lana aipatzea. Mendiluze eta Kolinarena saltatu egingo ditugu.

Estrategien aldetik, Lujanbioren bertsoaldia izan zen, kartzelako ariketa hartan, bereziena. Gerora Maialenek berak aitortu duenez, kartzelako txandan zortzigarren izateak baduke horretan zer ikusirik. Oker ez banago, bere aurreko bertsolariak kantatu eta guk hemen zakarki azaldu ditugun arrazoiak buruan behin eta berriz erabiltzeko aukera izan zuen Lujanbiok bere itxaronaldi luzean. Lujanbiok, ordea, arrazoi horiek guztiak entzuten jendea asper-asper eginda egon zitekeela eta, gaiaren azpigai bat hartu, eta bere kalkuluen arabera inork gutxik emango zion taxua eman nahi izan zion bere bertsoaldiari, gai-gurtzaileen eskandalurako. Bigarren azpigai, belodromoa, hartu zuen Maialenek ardatz, egun hartako egoera eta emozioak muturreraino baliatzeko asmoz. Horrez gainera, lehen bertsoetik bertatik markatzen du bere bertsoaldia etorkizunean kokatuko duela: “Bertsolari lez eman nuen nik / nere bizitza osoa; / erretiratu nintzen ta orain / ikusleen aulkitik soa”. Horrek, bistan da, finaleko saioa gertakari historikotzat hartzeko aukera ematen dio. Gaiaren denbora ez ezik espazioa ere aldatzen du bide batez Lujanbiok: oholtzatik ari da noski, baina fikzioan entzuleen artean eserita dago. Errealitatea eta fikzioa horrela nahasteak tentsioa ematen dio bertsoaldiari. Ez dio gaiari ihes egin, aberastu egin du eman zaion gaia. Bikoiztasun hori lehen bertso mugatu izan balu, asko jaitsiko zen bertsoaldiaren maila. Maialenek, ordea, bide beretik segitzen du bigarren bertsoan ere, fikzioa errealitatearen gainean jarritz, xehetasunak aipatuz: alaba bat duela jakinarazten digu. Eta hirugarren bertsoan alaba horri hitz egiten dio zuzen-zuzenean. Graduazio horrek ematen dio indarra bertsoaldiari. Bide batez esanda: lehen bertsoaren amaiera iruditzen zait bertsoaldi osoko pasarterik kaxkarrena: “Aturritikan Ebro bitarte / oso luze da pausoa, / tartean dago Belodromoa / txaloaren itsasoa”. Metafora bat dago hor, bertsoaldiko bakarra, baina, esan dezadan berriro ere, baliabide poetiko-erretorikoak ez dira berez deus ere: diskurtsoan duten egitekoa betetzen duten edo ez, hori da kontua. Eta, kasu honetan, itsasoaren metafora horrek traba egiten dit, indartu ordez pitzatu egiten baitu (baitit, esan behar nuke) diskurtsoa.

Albo-alboko kontutxo bat baino ez, ataltxo honi dagokionez. Ez naiz ni gai-jartzaileen lana kritikatzeko hasiko. Batetik, lanbide asko probatua naizen arren ez dudalako, beharbada bertso epailearena salbu, gai-jartzailearena baino ofizio gogorrago eta esker txarrekoagorik ezagutzen. Bestetik, gainera, zinez uste dut txapelketa honetan oro har eta finalean bereziki lan ona egin duela gai-jartzaileen taldeak. Denon gustua egitea ezinezkoa da, baina gustu diferente gehienak asetzeko moduko gaiak izan dira txapelketan zehar. Bertsolariak bere baitatik esan beharrekoak esateko modukoak, surrealista samarrak, umorezkoak, serioak... Ez dago, beraz, zer kexaturik.

Txapelketa pasatu eta gero gehiegi hitz egin eta idatzi da (dugu) txapelketaz, eta gaien artean aipatuena Atturitik Ebrorainoko hau izan da, ez bairik gabe. “Zenbat buru, hainbat aburu” esaera asmatu zuena pozik legoke, entzun eta irakurri izan balitu gai horri buruz esan eta idatzi diren guztiak. Nik neuk uste dut erreparo handiegiz jarritako gaia dela, landuegia. Ikusi dugun bezala, lau gaiz osatutako gaia zen, eta bertsolari

gehienak larri ibili ziren laurak uztartzen. Gaia aitzakia hutsa baino ez dela ikasten ez dugun bitartean hobe zatekeen, nire ustez, gaia honela formulatzea: “Zuk zer utzi nahi zenieke herentzian zeure ondorengoei?”. Formulazio horrek, nire ustez, bere baitan ditu gainerako hiru azpigaiak ere, alde koxkor batekin: ez du bertsolaria behartzen beste hari muturrak kosta ahala kosta sartzera. Belodromoarena galduko litzateke akaso, baina hori ere abantaila da, nire ustez. Izan ere, gaia horrela soildurik, Belodromoa aipatzea bertsolariaren meritu litzateke (eman zaion gaia egoerarekin uztartzea, alegia), eta ez bertso-lasterketan nahitaez gainditu beharreko hesi. Eta, azkenik, umoretik jotzeko bidea ere zabalik geratuko litzateke. Agian bertsolariren batek Xabier Leteren bidea hartuko zukeen. Izan ere, Letek, Brassenen kantu zoragarri baten moldapen are zoragarriagoan, bere testamentua egiterakoan, honako hau baitio: “Izan ez ditudan maitale guztiak, / nire gelan dauden zapata bustiak / Eliz amari (“Jaurlearitzari”, geroko bertsio batean) uzten diozkat”.

Formulatu zen bezala, ezinezkoa zen gaia umorez hartzea. Ezin izango dugu inoiz jakin gaia nik proposatzen dudan bezala formulatu izan balitz bertsolariren batek bide hori hartuko ote zuen. Burutik pasatu, bati baino gehiagori pasatuko zitzaion. Ausartzea, ordea, beste kontu bat da, puntuak jokoan daudenean apenas izaten baita jolaserako gaitarik.

Kontraesan hori, ordea, ez da bertsolariena, txapelketarena berarena eta gu guztiona baizik.

2. Testua, testuingurua eta egoera

Bat-bateko bertsoa ez da testu hutsa, testu inguratua baizik. Bertsolaria, orobat, ez da testugile soila: testuak sortzen ditu, baina testuinguru jakin batean eta testuinguru horretan eragitea duela xede. Testuinguru horretan bi osagarri bereiz litezke, nahiz ez diren beti-beti argi eta garbi bereizten erraz: testuingurua (bertsolariak eta entzuleek partekatzen dituzten uste, sineste, balio, bizipen eta erreferentzien multzoa), eta egoera (bertsolariak eta entzuleek partekatzen duten unegune berezi hori bere osagarri guztiekin). Testuingurua eta egoera baliatzen ditu bertsolariak bere testua sortzeko. Testu hori, gainera, kantatua da, eta bai doinua bai kantaera ezinbesteko baliabide zaizkio bertsolariari.

Adituek diotenez, kultura jakin batek aldi jakin batean sortzen dituen testuak aztertu eta testu horietan egiten diren erreferentziak zerrendatuz gero (alegia, testu horien testuingurua esplizitatuz gero), kultura horretan eta aldi horretan nagusi diren ideiak, arrazobideak eta ikusmoldeak begi bistan geratuko lirateke. Bertsolaritzari dagokionez, ikerketa hori (ere) egiteke —eta, beraz, egiteko— dugu oraindik, eta honako lan honetan ez lekurik ez modurik dugu horrelako zerrenda egiten hasteko ere. Axaleko hainbat kontu aipatuta egingo dugu, bada, berez sakonago eta zabalago behar lukeen alor horren azterketarekikoa.

Esan dezadan, hala ere, bertsoa ez dela bertsolaritzak sortzen duen testu bakarra. Gaiak ere testu dira, eta sarri adierazgarriagoak dira gaiak bertsoak berak baino. 1980ko txapelketan, esaterako, honako bertso amaiera eman zitzaien bertsolariei, kartzelako lanean, hamarreko txiki bana osa zezaten: “Arrazorik ez dugu / gutxi garelako”. Esan beharrik ere ez dago, bere burua herri txiki eta bortxaz menderatutako baten arrazoibidea baino ez daitekeela izan hori. Iazko Atturrirenak ere izan zuen bere aurrekaria, 1980an bertan, eta bertso amaiera gisa. Belodromoa ordez Balda zen orduan, baina arrazoibidea bera da bi kasuetan: “Oraindik bagerala / Balda da testigu”.

Testuinguruarekiko erreferenziak, ordea, ez dira agortzen maila ideologiko-politikoan. Kolina eta Egañak 70 urteko andreen paperean kantatu zuten goizean, zortziko handiko ofiziotan. Senarrarekiko sua aspaldi itzalita sumatzen zuten biek hala biek. Kolinak, hortaz, senarrarengandik bereizteko aukera ari zen hausnartzen. Egañak, berriz, nahiago ordu arte bezala segitu. Egañak, une batean, honako hau esaten dio lagunari: “Nahiz banatzea gerta litekeen / hautu egoki samarra, / ez det jasango gure herriko / beste atsoen marmarra”. Hori entzunda, Kolinak indargabetu beharra zeukan lagunaren arrazoa. Esamesei aurre egiteko prest dagoela esatea otu zaio, eta, ideia hori formulatzeko orduan, txutxumutxuka ari diren atsoen atsoa, paradigma erabatekoa etorri zaio burura: Hortentsi, Goenkaleko pertsonaia. Kontuak atera ditu: apenas egongo den inor entzuleen artean pertsonaia hori nor eta nolakoa den ez dakienik. Arazo asko konpontzen dizkio kolpetik burutapen horrek. Garrantzitsuena, ordea, zera da: hiru silabaz adieraz dezakeela bestela gutxienez puntu bat osorik hartuko liokeena: “Zu zaude lasai, ni Hortentsiri / aurre egiteko prest nago”. Horra hor, diodan bidenabar, hedabideek euskal gizarteari egin beharko liokeen zerbitzuaren adibide egokia: gure testuinguru propioa eraikitzea, alegia. Alde horretatik, nahi den beste kritika liteke *Goenkale*, baina hori behintzat aitortu behar zaio. Beste horrenbeste Sorginen Laratzean Anjel Alkainek gorpuzten dituen pertsonaiei. Handi zein txiki, horrelakoen bere ekarpena egiten diote euskal kultur proiektuari, eta hori da, legeak dioenez, EITBren egiteko behinena. Sorginen Laratzeko beste atal batzuek eta bigarren kateko gehienek, aldiz, *Lo que faltaba* buru dela, proiektu hori oztopatu baizik ez dute egiten. Eta horretan ez dago erdibiderik: zenbat eta audientzia handiagoa, kaltea ere handiagoa. Euskaraz zein gazteleraz, Espainia dute (Espainiarik afrusena, ordea) programok erreferentzia bakar, eta euskal sorlekua badute ere, erdarazko testuinguruan txertatzen gaituzte ezarian-ezarian.

Testuinguruaren antzeko erabilera egin zuen Egañak ere, zortziko txikian, Elortzarekin ari zela. Gaia aski surrealista zen berez: Igor aitona baratzean ari da Andoni bilobaren neoprenozko jantzian. Une batean, eszenaren bitxia indartsu adierazi nahi, eta Kutxaren egutegiak datozkio Egañari burura: “Kutxako fotografo / handi bat hor doa; / kalendariorako / nolako kuadroa!”. Aipamen horrek baditu bere arriskuak, baina baita abantail galanta ere: zer den esaten ez genuke asmatuko, baina guztiok dakigu zer nolako estetika darien bankuetxeek argitaratzen dituzten egutegietako irudiei. Estetika hori kalifikatzen hasi izan balitz, sekulako arriskuan sartuko zen Egaña (egutegion estetika gustuko duten entzuleak zapuzteko arriskuan, esaterako, nik susmatzen dudan

bezala Egañak aipamen horrekin iradoki nahi zuen “kutretasun” edo “jatorkeria” kontzeptuak esplizitoki aipatu izan balitu).

Unai Iturriagak testuinguru hurbila baliatu zuen Egañarekin “mainontzi”rean egindako saioan. Txapelketa zela eta hainbat kritika jaso zuen Iturriagak adituen aldetik, eta, berez ospari buruz hitz egitekoa zen gaian txertatu zuen bere kontrakritika, fikzioaren planotik errealitatera jauzi eginik: “Bertsolaria ez da Unai, / baina tranposo bada, bai; / nik neuk ez nuke sasiakintsu / hoiien eskutan nahi”. Aipamen hori ere ez da arrisku gabea, komunikazioaren aldetik, behintzat: entzuleen artean zenbatek igarri ote zioten zertaz ari zen Unai hori esatean? Une horretan, nire ustez, berea esateko grina gailendu zitzaion jokoan gailentzeko grinari.

Testuinguruaz ari garela, esan dezagun bertso bakoitzaren testuinguru hurbilena bertsoaldia dela, eta bertsoaldi bakoitzarena, berriz, bertso saio osoarena. Saio arruntetan, aurrez kantatu diren bertsoekiko erreferentzia asko eta asko egin ohi dituzte bertsolariek, entzuleen gozamenerako. Saio gehien azken aldera agindu ohi den puntutako saioak entzuleen artean izan ohi duen arrakasta ez dago, nire ustez, bestela arrazoitzerik. Berez, nahiko testu kaxkarreko saioak izan ohi dira puntutako horiek, puntu bakoitza bere aldetik baitoa sarri. Saioan zehar kantatu edo gertatu direnak aipatzean, ordea, konplizitate halako bat sortzen da entzuleen eta bertsolarien artean, sekula gehiago errepikatuko ez den bizipen bat bera partekatu izanaren kontzientzia areagoturik edo. Txapelketako finalean, berriz, apenas izan zen horrelako aipamenik, eta izan ziren apurrak puntuagarri ez ziren bertsoetan azaldu ziren (agurretan eta). Puntutako bertsoaldietan ere (aurrerago berriz aztertuko dugu ariketa hori), bertsolariek, plazan ez bezala, txintxo-txintxo saiatu ziren testutik (edo, sarriago esan ohi denez, gaitik) ez irteten. Zer dela eta testutik irteteko beldur hori? Ez ote dauka horrek zer ikusirik puntuak galtzeko arriskuarekin? Nik baietz uste dut, badaukala. Tamalez.

Horra berriz gaien fetitxismoarekin topo egin. Alde horretatik, bada kontu bat are tamalgarriagoa. Irazuk bakarka osatu zuen bertsoaldiaz ari naiz. Gaiak, hitzez hitz, honela zioen: “Sei urteko semearekin batera bizi zaren ama ezkongabea zara. Gaur, semea ikastolan, “aita, ama eta ni” deritzan marrazki bat egin duela esanez datorkizu”. Nire aburuz, finaleko bertsoaldirik bikainenetakoa izan zen Irazuren hori. Gai-gurtzaileak, ordea, berehala hasi ziren marmarka: “Irazuk ez dik gaia ondo hartu”. Seko harritu ninduten, baina aurki jakin nuen zein izan zen Irazuren ustezko bekatu mortala. Gaiak “ezkongabe” zioen, eta berak “alargun” egin zuen bere burua. Ederra arrazoial Duela berrogei urte, normaltzat joko nuen agian hori, orduko testuingurua gaur egungoa baino askoz ere trinkoagoa baitzen. Badirudi, ordea, zenbaiten garunondoa ez dela munduarekin batera aldatu, eta duela berrogei urteko eskemekin segitzen dutela. Ni neu, esaterako, aita ezkongabea nintzateke andrelaguna galduko banu, eta gaur egungo munduan gero eta ohikoagoa da hori (ez, zorionez, andrelaguna galtzea, ezkondu gabe familia izatea baizik). Kontuak kontu, gaiarekiko fetitxismoak (kasu honetan arrazorik gabe, gainera), bekatuaren hautsez estali du finalak eskaini zigun bertsoaldirik

ederrenetako bat. Ezkongabe zein alargun, gaia entzunda espero zitekeena (nezakeena) baino askoz gehiago eskaini zigun Irazuk: iragan bat asmatu zion bere pertsonaiari, bizia eman zion semeari, harekiko bere harremana sentiarazi zigun, bertsoaldi gogoangarrian. Eta bertsolaritzaaren antologia guztietan sartu beharreko pasarte hau: “Aita gabe ezin etsi, / ta marraztera iritsi; / Bere argazki bat badago gelan, / sekula ez dizut utzi, / ta ze marrazki egin diozun / zoaz eta erakutsi”. Testuinguru gutxiko eta egoera gutxiagoko gaia zen Irazurena, eta testua aberastea beste erremediorik ez zeukanez, bide horretatik abiatu zen Irazu, sekulako maixulana eginez. Meritu handikoa, gainera, emozio eragiteko elementuak berak sortu behar izan baitzuten.

Lujanbiok eta Egañak egin zuten bigarren kartzelaldia (Himalaiako postalarena) da hitzetik hortzera ibili den finaleko beste bertsoaldi bat. Hor ere, bi estrategia guztiz kontrajarriak ikusi ahal izan genituen, eta ni, egia esan, harritu egin ninduen bi bertsolariok egin zuten lanak. Lujanbiok, Irazu komentatu berri dugun bertsoaldian bezala, testu soilean aritu zen, emandako gaia xehetasunez hornituz (gutunak zer zioen, bere pentsakizunekin tartekatuz), aberastuz, lagun hilaren pertsonaia hezur-mamizko bihurtuz... literatur lana eginez, alegia, bikain. Harritu nintzela esan dut, eta ez bakarrik lanaren bikaintasunarengandik, baizik eta otu zitzaidalako ustez Egañari dagokion estiloan ari zela Lujanbio. Ohargarria da Lujanbiok bertsoaldi horretan (eta aurrerago aipatuko dugun besteren batean) bertsoan ari ez balitz bezala aritu zela, bai teknikari dagokionez (errima aski lasaia, ikusiko dugunez), eta bai bertsoaren antolamenduz (kargarik handiena bertso hasieran, eta ez amaieran, jarririk). Dena ezin, eta hona hemen, diodanaren adibidetzat, bertsoaldi hartako bigarren bertsoaren hasiera zoragarria: “Negar egin nahi dut baina / ez egitea hobe da, / malkoak jausiko dira / bestela postal gainera, / ta korritu ta borratu / hemengo muxu ta zera...”. Gaia entzun orduko, deseroso sentitu nintzen. Nola zitekeen gai hori aukeratu izana azken kartzelarako, jakinik oso zitekeena zela Egaña izatea bi bertsolarietako bat, eta Inurrategi anaian oso lagun ez ezik haien teleaioaren (*Oinak izarretan* saioaren) gidoigile zela? Egia esan, ez nekien Egañari mesede ala kalte gertatuko zitzaion hain barrutik ezagutzen eta hainbestetan erabili behar izan duen gaia jartzea. Eta apustu egin nion neure buruari, baietz Andonik testu hutsetik osatu bertsoaldia! Himalaiako mendi kaskoen izenak ezagutzen baititu, eta Xerpena, eta espedizioetako gorabehera asko eta asko. Seguru nengoen hortik joko zuela. Eta ez, uste nuenaz bestaldera, Egañak ez zuen esku-eskura zuen bide hori hartu. Aitzitik, jokuaz une batez ahantzi, eta barne bizipenen baten inguruan osatu zuen bertsoaldia, lagun hilari izen-abizena jarriz: Felix Inurrategi. Egañarentzat zorionez, bere lagun ez ezik entzule gehien-gehien erreferentzia ezaguna ere bada Felix, eta horrek bidea ematen zion bere bizipena entzuleen bizipen bihurtzen saiatzeko. Sentipen-garraioa segurtatzeko, testuingurutik egoerara ekartzea baino ez zitzaion geratzen: Himalaiatik Belodromora, alegia: “Bertsozalea genuen hura / eta hau da parabola; / iruditzen zait Belodromoan / gure artean dagola”. Testuan egiten duen lanarengatik famatu izan dugu beti Egaña, eta horra hor, aukera-aukeran zuenean bide hori, teoriarik ez dagokion estiloa aukeratu.

Gainerakoan, saio arruntekin alderatuta, egoeraren aipamenak bakanak izan ziren jaialdian, eta nago hori ere ez ote zaion gaitik ateratzeko beldurrari zor. Egin ziren aipamen bakan horietako gehienak, edo gaiak hartaratuta egin ziren (Belodromoaren aipamena, kasu), edo puntuagarri ez ziren saioetan egin ziren. Horrenbestez, testutik ez ateratzearen testuinguruan eragiteko balabide egokia alferrikaldu zuten, nire ustez. Oker ez banago, Kolina izan zen baliabide hori baliatu zuen bertsolari bakarra. Zortziko txikian Iturriagarekin ari zen Kolina, Unai ohiko sexu bideen aldeko paperean, eta Sustrai ezohiko bideen aldekoan. Kolina kantuan ari zela, bat-batean, oholtzako argiak apaldu egin ziren, ia itzaltzeraino, eta Sustrai, gertatutakoa abiatua zuen bertsoan maixuki txertatu zuen: “Gozatu bat hartzea / da nere erronka, / hementxe ibiltzen naiz / kota eta kota / Belodromoarena / gaur zaila dago-ta, / argirik gabe ere / ez dio inporta”.

Testu hutsean jardun, testuingurutik tira egin, egoerari heldu... bat-bateko bertso gintzak bere-bereak ditu jardunbide horiek guztiak. Gustuak gustu, hautatzen den bidean zer lan egiten den du axola. Bideak, ordea, bidezko dira hirurak ala hirurak. Gaia nolako, bertsolariak erabakiko du zein alorretik helduko dion. Zenbait baik, ordea, bidea gutxi-asko markatuta daroma. Atturritik Ebrorainokoa, esaterako, behin baino gehiagotan aipatu duguna. Gai surrealista samarrek testu lana bultzatzen dute, itxura batean (aitona neoprenoz jantzita, pobreen eta aberatsen itxaropenarena, mesanotxeko pastilla eta esnagailuarena...). Beste hainbeste gertatzen da ariketa izaera nabarmena dutenekin (bederatziko txikia, puntukakoa, puntuak...).

Azkenik, ataltxo honekin amaitzeko, Iturriaga eta Elortzari puntukako ariketan egokitu zitzaien gaia aipatu nahi nuke: mendi osteratxo bat egitera joanda, mendira gabe beheko tabernan geratu eta berrikeretan aritu behar izan zutenekoa, alegia. Zorte txarra ere bada, gai hori bi bizkaitarrei suertatzea, baina hala gertatu zen, Murpheyren legea lege unibertuala dela garbi gera zedin. Gai-jartzaileek ez baitzuten gaia nik arestian formulatu dudana bezala formulatu, zehatzago baizik: Txindokira bidean jarri zituen bizkaitarrak, eta Larraitzen aritu behar izan zuten berrikeretan. Horrek, nire ustez, bertso bidea estutu egin zien, fikzioan eman zitzaizkien erreferentziak ezagutzeko motibo handirik ez zuten eta. Alegia, gipuzkoar batentzat errazagoa zela gai hori, bizkaitar batentzat baino, edo izan zitekeela behintzat. Besteak beste, paraje hartako toki izenak, pertsonaiak eta horrelako beste xehetasunik ezin balia ditzake ingurua ondo ezagutzen ez duenak. Kontu apur bat gehiago izan behar genuke gaien formulazioekin.

3. Arrazoibideak eta dialektika

Uste aski hedatu baten arabera, gaur egungo bertsolariak teknika alorrean dirateke, ezertan izatekotan, lehengoak baino hobek. Arrazoitan eta dialektikan, aldiz, lehengoak omen nagusi. Nik, egia esan, ez dakit zertan oinarritzen den uste hori, baina aski da finaleko ofiziotako lanak erreparatzea (edota liburu honetan bertan Karlos Aizpuruaren azterketari gainbegiratu bat ematea), uste horrek usteletik erdia baino gehiago duela egiaztatzeke.

Zaila da doi-doi zehaztea zertaz ari garen “arrazoiak” diogunean. Nago, ordea, gazteleraz “ingenio” esaten zaion dohai definigaitz horren inguruko zerbait ote den. Gazteleraz, J.A. Marinak aztertu du, nik dakidala, kontu hori sakonkien (MARINA, *Elogio y refutación del ingenio*, Anagrama). Euskaraz, berriz, Juan Garziarena da, nire ustez, azterketarik taxuzkoena (GARZIA GARMENDIA, Juan, *Txirritaren baratzá Norteko Trenbidetik*, Alberdania). Juanek “ateraldia”rekin lotzen du ingenio kontua. Nik neuk, berriz, “pindartasuna” proposatu izan dut gaztelerazko “ingenio” horren ordaintzat.

Esan bezala, kontu aski zehazkabeak dira horiek, eta luzeegi joko liguke finalean bertsolari bakoitzaren arrazoi pindartsuen zerrenda osatzeak. Horietako asko eta asko, gainera, aipatuak ditugu dagoeneko, bidenabar bada ere, beste kontuez ari ginela, eta beste batzuk ezinbestean aipatu beharko ditugu aurrerantzean. Ikerketa sakonagorik ezean, nire irudipena da lehengo bertsolarien eta gaurkoen arteko aldea ez dagoela inola ere horretan. Finaleko lehen bertso puntuagarrian bertan bada diodanaren aldeko adibide bat. Entzuleek hotz samar hartu zuten, baina atzeko aulkietan eserita zeuden bertsolariak ez zitzairen oharkabean pasatu Maiak lehen bertsoan kantatutakoa. Irazu ofiziodideak mahai gainean loreak jarri zizkiola eta, honela amaitu zuen Maiak: “Krabelin batzuk mahai gainean / ez dira bat´e zatarrak; / politik dira baina agian / digestiorako txarrak”. Berez elkarren urruti dauden esparruetako kontzeptuak elkartzean omen datza pindartasuna, edota gauzei ohikoa ez den ikuspegitik begiratzean. Ezin uka, beraz, Maiak pindartsu diharduela horrako horretan, pindarkeraiaren erori gabe, afaltzeko ordua izateak eta loreak mahai gainean egoteak bidea ematen baitiote elkartze bitxi hori egiteko. Beste hainbeste esan liteke bertsoaldi bereko bigarren bertsoaz. Irazuk honela erantzuten baitio Maiari: “Arrazoi dezu, krabelin batzuk / jarri dizkizut lehenbizi, / ta afaria gelan daukazu / bere postre eta guzti”.

Baina horrenbestez jauzi egin dugu arrazoi solteetatik dialektikara, beharbada bat-bateko bertso gintzak berezkoen duen alorrera. Horri dagokionez, ondo teorizazio pobrea genuen orain arte. Bertsolari batek besteari erantzun dion ala ez, horixe zen dena. Horretan ere, nola ez, lehengo bertsolariak omen jaun eta jabe. 1980ko txapelketaren inguruan, Amuriza eta Enbeita zirela eta, apur bat zorrotzu genuen teoria amutsu hori. Gaurko bertsolariak erantzuteko itxura egiten dute, esaten zen, baina kontuz, itxura hutsa baino ez da hori: lagunak aipatzen duena norberaren bertso hasieran errepikatu egiten dute orain bertsolariak, baina gero berea esaten dute, argi eta garbi. Lehengoek, ordea, arrazoiari arrazoiak erantzuten zioten, bertso osoa horretarako baliaturik.

Zorionez, txapelketa honen aitzakian, aurrerapausu galanta egin dugu dialektika kontuak aztertzeko. Aurrerapausua, gainera, bertsolari batek eskaini digu, Andoni Egañak, jarduna harturik abiapuntu (GARZIA, EGAÑA eta SARASUA, *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta Azterbideak*, EHBE-Bertsolari. “Temako jarduna, bertsolaritzaaren sustrai” atala). Bakarka ari dela bertsoa antolatzeke bertsolariak erabili ohi dituen estrategiak azaldu, eta honela dio Egañak temako jardunaz:

“Norberak arrazoitu eta aurkariaren arrazoitari aldi berean erantzutea oso da zaila. Hiru joera daudela esango genuke:

A- Aurkaria kantuan ari dela arrazoi bat pentsatu eta huraxe bota aurkariaren arrazoia dena dela ere.

B- Aurkariaren bertsoa osorik entzun eta gero oso segundo gutxitan hari erantzuna prestatu eta bota.

C- Arrazoi bat pentsatu aurkaria kantuan ari delarik, honen arrazoia entzun eta bertso bakarrean nahasi, hasieran erantzuna eta bukaeran lehen pentsatutakoa.”

Aipatu berri dugun Irazuren bertsoa, dudarik gabe, B motako bertsoa da: Maiaren ateraldia entzun eta gero moldatua, alegia. Maiarena aski eraginkorra izan ez balitz, Irazuk beste zerbait kantatuko zuen, dudarik gabe. Berez, hori da lehengo bertsolariek oraingoek baino hobeto egiten omen zutena, baina ikusi dugu finaleko lehen saioko lehen bertsoaldian bertan oraingoek ez direla horretan ere batere amutsak. Askok eta asko izan ziren finalean B motako bertsoak, aurkariaren arrazoia entzun eta gero antolatutakoak.

C motakoetan, berriz, bereizketa egin behar litzatekeela uste dut nik. Batzuetan, aipatu aipatzen da aurkariak esana, baina mekanikoki guztiz. Hori horrela egiten denean, bertso horiek A sailean sartu beharrekoak dira, ordea. C sailekoa izango bada, aipatzea baino zerbait gehiago eskatu behar zaio bertsoari. Ez derrigorrez arrazoi horri erantzutea, baina bai behintzat aintzat hartzea. Nahi adina bertsoaldi aipa nitzake azter-edu hau adibideratzeko, baina irakurle interesatuek aski dute Andoni Egañaren aipatu azterketara jotzea, edota, liburu honetan bertan, Karlos Aizpuruaren lanera. Funtsean, ikuspegi bera darabil Aizpuruak, nahiz A-B-C terminologiak ez erabili.

Kontuak kontu, dialektika kontuak uste baino korapilatsuago eta nahasiagoak dira orain arte uste izan dena baino. “Elkarri erantzutea” ez da bai-ala-ezko kontua, graduazio kontua baizik. Lehengo bertsolariak eta oraingoak alderatu nahi badira, bertso korpus zabal bat hartu eta estatistikak egin beharko lirateke, ezer esaten hasi baino lehen. Estatistikok gero tentuz interpretatu behar lirateke, Egañak ondo dioenez saio orekatu batek hiruretatik behar baitu, A, B eta C:

“Temako saio baterako ez dago alde zure berririk zer bertso motarekin jokatu behar litzatekeen aholkuak ematen hasterik. Litekeena da lau bertso bota behar badira A bat, bi B eta C bat eginez oreka polita lortzea. Hartara A bat eginez gure ahotsa eta gure arrazoiketa ziurtatuko genuke eztabaidaren baitan. Bi B eginez aurkariaren arrazoiketak apurtuko genituzke. Eta C horrek bietarako balioko liguke neurri batean.

Baina bi A, B bat eta C bat sartu behar direla esaten duenari aurre egiteko ez dago arrazoirik. Eta beste edozein konbinazio ere izan daiteke ona eta baita onena ere. Zalantza asko sortzen dituen alorra izan daiteke nolanahi ere”.

Andoni Egañak lanabes berri bat eskaini digu, bat-bateko bertsoaren alderdi dialektikoa aztertzeko. Guri dagokigu orain (ikertzaile, kritikari, epaileoi) lanabes horren baliagarritasuna probatzea. Eta probatu, Xenpelarren eltzea bezala, sutan jartzean probatuko dugu lanabes hori ona den edo ez.

Nolanahi ere, dialektikaren kontu honen inguruan bada beste kontu bat ere, finaleko bertsoaldi batean aski deigarri gertatu zitzaidana. Diodan, ordea, aurrera baino lehen, A, B, C kontu horiek gerora ateratako eskemak direla, bertsolariak, teman ari dela, kinkatik ateratzea beste estrategiarik ez duela erabiltzen. Finalean deigarri egin zitzaidan kontu hori zera da: aurkariaren arrazoiari erantzun zein ez, bertsolari bakoitzak bertsoaldian zehar zaindu beharreko koherentzia. Aurkariari itsu-itsuan erantzuteak, izan ere, bertsoaldiaren hasieran jarrera bat eta amaieran beste bat hartzera bultzatzen lezake bertsolaria. Hori gertatu zitzaion, esaterako, Jon Maiari, Lujanbiorekin ari zela, zortziko txikian, dantza irakaslearen gaian. Ikus dezagun:

Bere lehen bertsoan, Maia dantza irakasleak aitortu egiten du pasodoblean —baldar, baina hala ere— aritua zela Lujanbiorekin: “zu zera neska hori, / a ze abentura, / pasodoblea erdi / bihurtu zun hura!”. Gero, berriz, bertsoaldiko azken bertsoan, honako hau dio: “Musikaz ezer ere / ez dakizu neska, / han soilik bakailaua / entzuten zen-eta”. Gehiago ere izan ziren horrelakoak, baina ezin hemen denak aipatu, eta bego horrenbestez auzi horri dagokiona. Ez, ordea, esan gabe kontu horri nekez errepara dakiokeela bertsoak banan bana juzkatzen edo epaitzen diharduenak. Baina horrek urrutiegira eramango gintuzke.

Lehenengo eta oraingo bertsolarien dialektikotasunaren kontura itzulirik, Egañarenaz gainera beste ekarpen aipagarri bat eman digu iazko urte hondarrak: Pello Esnalek Eusko Ikaskuntzako Kongresurako prestatutako txosten bikaina. Ezin hasiko gara hemen txostenak dioena xehe-xehe azaltzera, baina uste dut merezi duela Esnalen ikuspegia aintzat hartzea. Funtsean, bi paradigmaren arteko gatazka ikusten du Esnalek lehenengo eta oraingo bertsolaritza alderatzerakoan: modernitateak jo gabeko paradigma (edo ikusmoldea), eta modernitateak jotakoa. Paradigma horietako bakoitzak bertsolaritza ulertzeko bere modua du, eta kontrajarriak dira batarena eta bestearena. Paradigma zaharretik teman ari den bertsolariak, aurkaria gaunditzea, haustea, hitzik gabe uztea du xede, eta xede horrekiko juzkatuko du halakoak saio batean nor ondo eta nor gaizki ibili den, teknika alorreko eta entzuleekiko zerei jaramon handirik egiteke. Paradigma modernoan, berriz, temako saioa ere entzuleentzat osatzen da, norgehiagoka zena norhobeagoka bihurturik.

Barkatuko ahal dit Pello Esnalek bere txosten bikaina hain modu zabarrean maixeatzea, baina ezin etsi nuen aipatu gabe, hor ere iker alor zabal eta emankorra ikusten baitut nik.

Jakina, Egaña eta Esnalen ekarpen teorikook ia oharkabeen pasatu dira, ez baitira kontuok hedabideetako jaki gustuko. Nik neuk, ordea, horixe ikusten dut txapelketa hau historiko izendatzeko arrazoi bakarra: behingoz, txapelketaren olatua baliatu dugula bat-bateko bertsogintza irizpide propio eta egokiz hobeto ulertu ahal izateko tresnak lantzeko. Teoria ez dago (ez dugu) oraindik jardunak merezi lukeen mailan, baina uste dut lehen urratsak norabide egokian egin ditugula.

4. Bertsoa berbaldi: estrategiak, estiloak, ekarpenak

Bertso laburretan (bost puntu edo gutxiagokoetan), bertsolariak ez du, jeneralean, barne-egituraren beharrik izaten: kudeatu beharreko errimak aise har litezke gogoan, eta ideia bat aski izan ohi da bertsoa egoki moldatzeko, ia dena dago azken arrazoiari begira antolatuta, nahiz, ikusi dugunez, teman ari dela aurkariaren arrazoiari erantzuteko gorde dezakeen bertso hasiera. Bost puntutik gorako bertsoetan, ordea, asko korapilatzen dira gauzak. Gaur egungo bertsolarien ezaugarri behinenetakoa hori da, hain zuzen: bertso luzeak antolatzeko estrategiak ohartuki erabiltzea. Estrategia ohartu horiek askotarikoak dira. Errima-hitzak modu berezi batean antolatzea eskatzen du, bertsoa ataletan bereiztea eta atal bakoitzari egiteko erretoriko bat ematea, eta beste hainbat gauza, Andoni Egañak lehenago ere aipatu dugun liburuan bikain azaldu duen bezala.

Estrategia ohartu horiek, besteak beste, alde zuzeneko lana, etxeko lana alegia, eskatzen dute, eta hori da, nire ustez, gaurko bertsolarien eta lehengoen arteko aldea, Amuriza delarik horretan ere gaur egungo bertsolaritzaren aitzindari eta aitaponteko.

Nolanahi ere, inon bilatzekotan, bakarkako bertsoaldietan bilatu beharko ditugu bertsolari bakoitzaren estiloaren ezaugarriak. Esan nahi baita, temako bertsoetan ahal izango dugu hortik bertsolari bakoitzaren estiloaren arrastoa. Are gutxiago norberaren ingenioa agertzen da, eta ikusmoldea, eta erreferentziak, eta nahi dena, baina nekez atera estrategia ohartuak erabiltzea eragozten dituzten ariketetan, hala nola puntua jarrita kantatutako bertsoetan, Oñati aldean ikasi nuen kontsigna baita horrelakoetan bertsolarien estrategia bakarra: “En caso de apuro, hankak ibili agudo”. Hankak, edo oinak, edo burua, baina agudo behintzat.

Aurtengo finalistek (eta finaleko atarian geratutako batek baino gehiagok) gauza bat erakutsi dute argi eta garbi: iaioak direla bertso luzeak antolatzerakoan. Badirudi Amurizarekin hasi eta Egañak-eta landutako estrategiak guztiz berendu dituztela belaunaldi berriko bertsolariak. Eta hori berez da pozgarri. Berez, hots: “historiko” adjektiboaren laguntza beharrik gabe. Jai egunetako jaki sibarita zena eguneroko jaki bihurtu dela, alegia. Hori erakutsi dute, eta ez da gutxi. Hortik aurrera, ordea, ezer gutxi

eman du, nire ustez, azken txapelketak, ekarpen berriei dagokienez, behintzat. Nik neuk, bertsolariek erakutsi duten maila eta txapelketan utzi dituzten arrasto batzuk gogoan, itxaropenez begiratzen diot etorkizun hurbilari. Ez hurrengo txapelketari, garbi gera bedi hori, plazaz plazako jardunari baizik. Maixuen pare daudela erakutsi dute, eta nik behintzat ezin igarri diot bertsolari bakoitzak aurrerantzean hartuko duen bideari. Bidea egingo dutela, ordea, dudarik ez dut.

Amurizak bere garaian edo Egañak berean egin izan duten mailako ekarpenik ez dut, beraz, ikusi. Arrastoak, ordea, bai.

Lehen arrastoa areago da sintoma arrasto baino: apenas doinu berririk erabili duten bertsolariek. Aipagarriena, nire ustez, Igor Elortzak finalean birritan edo erabili zuena. Horrez gainera, ezer gutxi, eta gehienak moldapenak. Doinuak berez ere badu bere garrantzia, baina dakarren bertso-moldea da, batez ere, axola duena, eta horretan ere, Elortzarena salbu, betiko joerak ikusi ditut nik: molde handia oinarritzat hartu, eta horren inguruko bariazioak. Zaila da esaten zergatik ez den molde berririk plazaratu. Nire ustez, eta horregatik nioen sintomatizat hartu beharrekoa dela doinuena, bertsolariek horretarako premiarik sentitu ez dutelako gertatu da hori, bertsolariek beste nonbait zutelako bere arreta, bertsogintzaren beste alor batzuk lehenetsi dituztelako.

Non, ordea? Zein izan da bertsolarien arretagune nagusia? Nire ustez, unean uneko gaian ahalik lanik txukunena egiteari, horrixek eman diote arreta, ekarpen historikoak egiteari eta enparauei jaramonik egiteke. Aldez aurreko lan dezente eginik, gaur egungo bertsogintzaren estrategia eta prozedurak guztiz berendurik, estrategia eta prozedurok unean uneko gaiari aplikatu eta ahalik bertsoaldirik egokienak egitea izan dela esango nuke nik kontsigna nagusia. Eta, horren barruan, edukiari arreta handiagoa jarri diotela esango nuke, gainera, alderdi formalei eta teknikoei baino.

Esan bezala, molde berririk apenas agertu den. Igor Elortzaren doinuak behartzen duen hori dateke, alor horretan, aipagarriena. Doinua zoragarri horrek honako bertso molde hau eragiten du: 10 / 8A / 10 / 8A / 8A / 8A / 10 / 8A / 8A / 8A / 10 / 8A. Zortzi errimako bertso moldea da, beraz, eta neurri handiko paradigma du oinarri. Zortzi silabako hiru larraiko bi puska ditu, eta horrek ematen dio berezitasuna, horrek ematen zailtasuna. Elortzak, oro har, maixuki erabili zuen hain molde zaila. Ez diot hori potarik egin ez zuelako (hainbesteko abildadea suposatzen zaio Igorri), baizik eta hiru errima segidako horiek teknikoki txukun betetzeaz gain bertso bakoitzaren diskurtsoa taxuz, oso taxuz antolatzen asmatu zuelako, eta hori du molde horrek zailtasun nagusi. Atturritik Ebrorainokoan, esaterako, sekulako ale biribilak ondu zituen, berbaldiko lehena eta hirugarrena, bereziki, antologikoak baitira begiratzen zaien aldetik begiratzen zaiela ere:

Gure lurrean hedatua da
bildurra ta gorrotoa,
ilusioa ta gero ere

dator belarrondokoa.
Herria dugu jokoa,
geu al gara oztopoa?
Baina herri hau beti izan da
zintzoa ta berbakoa;
aurki dezagun gakoa,
behar den bezalakoa,
hurrengoeri ez emateko
lehengoek jasotakoa. (bis)

Belodromoan bizi-bizirik
herri baten sentimena,
ez dugu behar geu izateko
beste inoren baimena.
Oraina eta lehena,
gero bihur litekeena,
mila arazo dauzkagu baina
geu ez al gara problema?
Izango ahal dugu ahalmena
ta beharrezko den dena,
beste noranahi eramateko
hemen batu gaituena? (bis)

Erreparo txiki bat jartzekotan, aurrerago sakonkiago jorratuko dugun kontu bat aipatuko nuke: oker ez banago, Igorrek hautatutako doinu horrek “eme” egitera behartzen du lehen eta bigarren errima-hitzak (lehena bai behintzat). Aipatu dugun azken bertsoan, esaterako, “sentiména” kantatu behar da. Horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, arazoak sortarazten ditu erriman, eta ez nolana hikoak.

Gainerakoan, beste behin ere argi geratu zen gaur egungo bertsolariek neurri handia lehenesten dutela. Estrofa mota aukerako zenean, 10 / 8 silabako formator jo zuten ia beti. Joera hori ez da berria, eta seguru nago baduela zerikurisirik asko eta era matizatuan esateko premiarekin. Konstatazio bat da, besterik ez.

Bertsolariek txapelketarako propio egindako etxeko lanen artean, errima jokoen lanketak toki nabarmena du, dudarik gabe. Hala ere, nik ez nuen alderdi horretatik ekarpen handirik sumatu. Are gehiago, esango nuke zaharrenak saiatu zituela berrikuntzarik gehien, eta bereak izan ziren ekarpenik egokienak, nola hoskidetasunez hala konnotazioz ere (“egitamu-damu-amu”, “zimendu-bi mendu-nabarmendu”, “egarbera-egutera”, “dosia-poxia”...). Egañarekin batera, Elortzaren batzuk ere aipagarri iruditu zitzaizkidan, berri ez ezik berritzaile baitira, eta egoki. Aipatu berri dugun bertsoaldiko lehen bertsoan bada horren adibide polit bat: “berbakoa”. Bai, badakit hitz hori korriente samarra dela bizkaieraz, eta niretzat ere halaxe zen. Kontua

da, ordea, korriente asko diren hitz batzuk ez direla ia sekula bertsotan erabiltzen errima-hitz moduan, eta hori da axola duena. Beste hainbeste esan liteke "berbarozago" bikoari buruz ere.

Gauza bera gertatzen da Egañak bakarkako gaian erabilitako "ruleta"rekin, eta horretaz ez dut omenka jardun beharrik. Egañak berak esana zidan, aste pare bat lehenago, bitxia iruditzen zitzaiola oso zenbait hitzekin bertsotan gertatzen dena. "Karneta" eta "ruleta" jarri zizkidan adibidetzat. Biak errima-sail berekoak dira, baina "karneta" sarri erabili da errima-hitz moduan. "Ruleta", berriz, behin ere ez, nahiz "karneta" baino askoz iradokitzaileago izan. Kosta ahala kosta "ruleta" sartzen saiatuko zela iragarri zidan, eta bai egin ere: "Bizitza degu ruleta, / beti jira eta buelta, / hari begira, zer gerta..."

Zera: errima aldetik ekarpenak egitea ez da hoskidetasun bitxi, estu eta zailekin jolas egitea (ez behintzat hori bakarrik, ezta bereziki hori ere), bertso osoa den diskurtsoa egituratzeko lagungarri gertatzen diren piezak asmatu edo/eta erabiltzea baizik. Halakoxea izan zen, bere garaian, "hara" hitza, lotura sintaktikorik gabe puntu-muturrean txerta zitekeena (kasu horretan, hain zen baliagarri, nazkatzeraino eralibi baita, eta, nirekiko behintzat, baliogabetu egin da: urduri jartzen naiz entzun orduko; baina hori beste kontu bat da). Uste dut "zeharo" ere ekarpen polita izan zela, baina final honetan sarriegi agertu da gauza onerako, eta, arraioa, beti "oparo" gertuan duela, eta "arrago" urruti ez. Metaforak eta gainerako baliabideak bezala, sarriegi erabiltzen den errima jokoak ere galdu egiten du indarra, eta horretaz ohartun behar lukete bertsolariek.

"Ruleta" eta "berbako" bezain arruntak ez diren errima-hitz batzuk ere izan ziren: "azago", "interruptus", "ardagai", "uzkia", "carpe diem"... Horrelakoak erabiltzean, bistan da, arriskua hartzen du bertsolariak: entzuleek —eta epaileek noski— ez ulertzekoa. Bitxia iruditu zitzaidan, hala ere, Rufino Iraolak horretaz egindako iruzkina. Bat-bateko bertsoak bat-batean ulertzeko modukoa behar duenez, bertsolariek hobe omen lukete "carpe diem" bezalako esaerak ez erabili, asko eta askori ulertezin gertatuko zaizkio eta. Bitxia iruditu zitzaidan, seguru nagoelako Belodromoan bildu zen entzule gehienek arazorik gabe ulertuko zutela besteak beste *Poeta Hilen Kluba* filmetik hain ezagun egin den esapide hori, eta arazoak izango zituztela, aldiz, "ardagai" ulertzeko. Bertsogintzari dagozkion geure eskeman baserritik hirira aldatzeko ahalegin nabarmenak egin ditugu, baina sustraiak, antza, baratzean ditugu oraindik.

Errima zahar zein berri, baserriko zein hiriko, hoskidetasun handiko zein txikiko, kontua da hori ere, gainerako guztia bezala, bertso-berbaldiaren, diskurtsoaren zerbitzurako dagoela, eta zerbitzua egiten duten neurrian direla errima ekarpenak on edo txar (eta ez errimak bakarrik, baizik eta baita gainerako baliabide guztiak ere, metafora eta irudiak barne). Kotsidera dezagun, esaterako, Egañaren "ruletarena":

Bizitza dugu ruleta,

beti jira eta buelta;
hari begira, zer gerta,
pasibokeriz beteta.
Alde batetik, nere andrea
dut bihotzean gordeta;
bestekaldetik orain sortu zait
neska horrekin apeta.
Egia esan, maitemina da,
ez da, gero, berriketa.
Zer egingo det? Nola jokatu?
Aidera bota pezeta,
azken batean bizitza ere
Leon Castillo da eta.

Bertso horrek, bistan denez, hiru puska edo atal ditu. Errima-hitz berria lehen atalean dago, eta atal horrek segidako lau errimak hartzen ditu. Zer funtzio du atal horrek osotasunean? Marko bat jartzea, giro bat sortzea. Kinka larrian dago pertsonaia, baina kinkaren larria xehe-xehe azaltzen hasi ordez, urrutiagotik ekiten dio bertsolariak, amaiera gogoan: uste dugu zerbait bagarela, baina patuaren esku gaude, hein handi batean. Horretarako, eta horregatik, da egokia “ruleta”, giro hori ezin hobeto dakarrelako. Antzeko zerbait egiten zuen Egañak Luis Ocañaren heriotzari buruzko bertso gogoangarrian, hau baitzuen hasiera:

Geure buruen txotxongilo, ta
sarri besteren titere,
ustez antuxun ginenak ere
bihurtzen gera titare.

“Titere” eta “titare” akordatu izana bada zerbait, noski, eta baita “txotxongilo” eta “antuxun” ere. Hori, ordea, deus ez litzateke egoki ekarrita ez balego. Alegia, irudi horiek ez dira onak pindartsuak direlako, burua sano edukitzetik burua galtzera doan marra zenbateraino hauskorra den sekulako indarrez adierazten dutelako baizik: Luis Ocañak bere buruaz beste egin du, baina gutako edonor dago horrelako zerbait egiteko arriskuan, uste dugun baino askoz ezdeusago gara eta. Txotxongilo gara, titere; titare huts, ez antuxun. Hitz bakar batek giro jakin bat sor dezake.

Ruletak ere antzeko eragina du bertsoan: patuaren esku gaude, etorkizuna geure esku dagoela uste dugun arren. Hasiera marko gisa erabiltzeko estrategia horrek antz nabarmena du Manuel Lekuonak hain egokiro bistaratu zigun koplaz zaharren teknikarekin. Ruletarenean, patuaren esku egotearena berretsi egiten da bertsoaren azken atala osatzen duten azken bi puntuetan: txanpona airera botata hartu ohi ditugu erabaki potolo asko eta asko. Patu hutsa, beraz. Hori da ideia nagusia, hori da mezua. Bertsoaren erdiko atalean, berriz, bestela ere balio duen ideia hori gaiak eman dion egoera konkretura aplikatzeko erabiltzen du Egañak. Deskriptiboa da erdiko atal hori,

pertsonaiak emaztearekiko leialtasunaren eta ezagutu berri duen neskarekiko liluraren artean bizi duen gatazkaren azalpena.

Bertsoaldiaren lehen alean, aldiz, ezin hobeto adierazia zuen Egañak bigarreanean modu arruntagoan errepikatu diguna. Maitemina da neskarekiko sentitzen duena, eta halaxe aitortu digu bigarren bertsoan. Esan beharrik ez zuen, hasiera-hasieratik genekien eta:

Sentimenduen ardagai,
nere izar denen sabai,
ikuspegi oron talai,
jaiotza eta hil-kanpai...

Hor ere, meritua ez da “ardagai” bezalako hitz “jator” bat “erreskatatu” izana. Ez, meritua, eta eraginkortasuna, adierazi nahi duen sentipenaren eta erabili duen irudiaren (metaforaren) arteko egokitasuna da. Ardagaia, ezagutzen duenarentzat behintzat, sutan egotearekin lotuta dago, eta hori da irudi horrek dakarrena: pertsonaiaren barne-sua.

Bestela ere, errima berriak erabiltzeari dagokionez, Egañarena izan da, nire ustez, ekarpenik aipagarriena.

Gainerako jardunetan, ez dut nik alde handirik ikusten lehengo eta oraingo bertsolarien artean, baina bost puntutik goragoko bertsoetan aldea nabarmena dela iruditzen zait. Eta are nabarmenago iruditzen zait hori ez dela “berez” ateratzen, alde zurreko lanketa ohartua eskatzen duela.

Kontuak kontu, zortzi finalistak trebe ikusi nituen nik, aipatutako estrategiok eta aipatu ez arren ezinbesteko direnak maixuki —eta andereñoiki— zerabiltzatela. Zer aipatua balegoke zortzietako bakoitzaren kasuan. Ezin hemen, ordea, hain ur sakonetan sartu. Bego, hori ere, beste baterako eta beste batzuentzako ikerkizun.

Dagoeneko aipatu ditudanez gain, Lujanbio eta Iturriagarenak aipatuko ditut bakarrik, ez, ordea, gainerakoei aipamen merezi lukeen baino laburrago bat egin gabe. Gainerakoetan gainerakoen pare egonik, esaldiak tolesteko orduan bikain aritu dira Mendiluze eta Kolina, eta aztertzekoa litzateke bi bertsolariok puntutik gorako esaldiak nola erabiltzen dituzten. Irazuk eta Elortzak ere sen handia erakutsi dute horretan, baina, txapelketan zehar, Mendiluze eta Kolina iruditu zaizkit eredugarrienak. Jon Maiak, aldiz, hortxe duke, nire ustez, pulitu beharreko koxka. Esan beharrekoak esan-indarrez kargatzen eta formulatzen, berriz, inor gutxi iristen da Maiaren mailara.

Hori esanik, zenbaiten ustez txapelketaren “irabazle morala” izan omen denaren lanari erreparatuko diot, honetan ere behar baino laburrago jardun beharko badut ere. Ahobeteko epaia izan da Lujanbiorekikoa, eta ni ere bat nator aho beteko epai horrekin. Bikaina izan zen, oro har, Maialenen jarduna. Estilo propio eta berezia erabili zuela ere aipatu izan da, eta bat nator horrekin ere. Kontua da ea gauza garen Lujanbioren estiloa

zertan izan den berezia zehazten. Nire ustez, ez bertso moldeetan, ez errimetan, ez alderdi teknikoetan dago kokka. Lehenik eta behin, jarrera aipatuko nuke nik: gozatuz kantatu zuen Maialenek, edo itxura hori ematen zuen behintzat (Kolinak eman zuen bezalaxe, bestalde). Eta hori ere, ez dezagun ahantz, bertso gintzaren parte bat da, hori ere transmititu egiten da. Gutxi da, ordea, inoren estiloa definitzeko. Arrazoitan oparo ibili zen, eta hori ere estiloaren zati bat da. Uste dut, ordea, ikuspegietan egon zela Maialenen ekarpenik handiena. Bakarka egin zituen saioak aztertzen baditugu (gurpila-aulkiarena, Atturrikoa, Himalaiakoa), berehala ohartuko gara pasarterik kargatuenak, eraginkorrenak, ez daudela bertso amaieran. Nire ustez —eta ez naiz teoritik ari, han bertan izan nituen bizipenetatik baizik— sikologiaren ikuspegia erabili zuen behin eta berriz Maialenek. Erabili, ordea, pertsonaiak eraikitzeko, sinesgarri, hezur-mamizko egiteko erabili zuen lan sikologiko hori. Aurki kurpildunarenean kantatu zuen bigarren bertsoa izan liteke diodanaren adibidea (eta, nire ustez, finaleko bertso onenetako bat):

Atzekaldetik etorriko zan,
gu horretan ahulak gara,
ispilurik ez ta ezin luza
atzerako begirada.
Motxila beltzan patrikatxoan
egingo zun labankada,
nerea zena, kartera, doa
orain bere patrikara.
Inork ez nau ni laguntzen, inork
ez nezake gaur anpara;
salduta nago, etsita nago,
ume galduen gisara.
Dena ezina, dena bide estu,
dena arantza ta traba,
ta okerrena ohitu ein naizela
sensazio honetara.

Bertso amaierak dakarren ideia izugarria da, baina izua, zinezko izua, aurrez sortarazten du bertsoak. Nik neuk, behintzat, ezin erreprimitu izan nuen hotzikara, eta *thrillerrik* beltzenek eragin ohi didaten sentipen latz eta aldi berean gozo hori sentitu nuen. Baliabide ikusezinak, guzti-guztiok eskura ditugun horietakoak darabiltza (geroaldiaren erabilera, errepikapen neurtuak...), baina bai ederki erabili ere. Plastikotasuna, horixe dela esango nuke bertso horren izugarritasunaren funtsa. Plastikotasuna ez da baliabide poetiko-erretorikoen zerrendetan agertzen, baina baliabide gehien-gehien oinarria da.

Literaturaren —gaur egungo literaturaren— muga-mugan dabil Maialen, bai bertso horretan bai beste bertsoaldi batzuetan ere. Esaterako, lehenago ere aipatu dugun Himalaiarenean. Bertsoaldi horretan, lehen alea da, seguruenik, bertso ortodoxoena, eta askotan aipatu da bertso horren amaiera: “Zein bero zen muxua, ta / nik zeien hotz

hartu dudan”. Ortodoxoena, amaieran duelako karga. Nik, ordea, bigarren bertsoa aukeratuko nuke bertsoaldi horretan ere (ohargarria da: beste bertsolarien bertsoaldiren bat aipatu dudanean, lehen eta hirugarren bertsoak aipatu ditut ia beti, eta Maialenenean, aldiz, bigarrena; hori ere estilo kontua da noski). Hauxe da Himalaiako bertsoaldiko bigarren bertso hori:

Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nijoa aguantatzera.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan bera...
Bere ilusio ta amets
guzia juan da gainbehera,
ikurrinarekin juan nahi
zazpi milako batera,
ta orain Makalun dago
heriotzaren bandera.

Plastikotasuna, berriro ere, nire ustez, aipagarrien: ikusi egiten dugu malkoek nola lardaxkatzen duten lagun hilak idatzia. Eta erretizentzia hori, zoragarria: “hemengo muxu ta zera...”, eta abar, eta abar. Alarde teknikorik gabe, soil-soila itxuraz, baina bai zera, soila!

Iturriagaren kasua ere aipagarria iruditzen zait, berezia delako, eta berezia diodanean, estilo propioa duena esan nahi dut, ez besterik. Zertan da, ordea, estilo propio hori? Nire ustez, Iturriagak erretorika anti-erretorikoa darabil ohartuki, propio. Jose Mari Aranaldek, *Hitzetik Hortzerarako* egin nion elkarrizketatxo batean, Bilintxen bertso ospetsua aipatu zidan bertso onaren eredutzat: “Triste bizi naiz, eta hilko banintz hobe: badaukat bihotzean mila atsekabe. Dama bat maitatzen dut, baina haren jabe sekula izateko esperantzarik gabe”. Propio aldatu dut Bilintxen bertsoa lerro-etenak markatu gabe, horixe baitzen Aranaldek bertsoari ikusten zion baliorik handiena: hizketako moldeak behartu gabe tolestatutako bertsoa izatea, alegia. Nik argi eta garbi ikusten dut balio hori Bilintxen bertsoan. Ez dakidana da Bilintxi ikusten diotena nola ez dioten batzuek ikusten Iturriagari. Niretzat, behintzat, aldiak aldi eta aldeak alde, Bilintxena bezain “naturala” egiten zait Iturriagaren honako hau, Atturritik Ebrorainoko bere bertsoaldiko bigarrena:

Ohikoak izan ditugu
gure herrian liskarrak,

nahiz ta batzutan estali
Belodromoko aparrak.
Badakit gu ez garela
sufritu dugun bakarrak,
aurrez aurre jarri gaitu
aurrera egin beharrak.
Nahiko nuke bukatzea
bebingo baten garai txarrak,
kartzela eta torturen
testimonio zatarrak,
etxera etor daitezela
preso berri eta zaharrak,
kartzelan bakarrik utziz
joandako egunen marrak.

Saia zaitezte bertsoa prosan irakurtzen: berez-berez doa, ez dago inolako eragozpenik. Horrez gainera, jakina, amaiera eder hori dago, baina hori lehenago ere aipatu dugu, eta Maialeni aitortzen genion plastikotasun ber-bera dario. “Naturaltasun” hori, esan dezadan behingoz, ez da batere naturala. Horixe dela, alegia, gauzarik zailena: esan beharrekoa hitzez esan ohi den bezala-edo esatea bertsoan. Bertso teknika erro-errotik menderatzen duenak baizik ez dezake horrelakorik lortu, eta, bere biluzian, aukera erretoriko-estilistikoa da hori ere. Gaiak, gainera, aukera errazagoa ematen zuen estilo hantusterako. Aukera ohartua dago, beraz, hor.

Egañari bertso-atarikoen estrategia lehendik ezagutzen genion bezala, Iturriagaren erretorika anti-erretoriko horri ohartua nintzaion lehendik ere. Errepara, bestela, “Hi, Unai, zeren bila habil” gaia jarrita Unai kantatutako honako bertso honi:

Ze demontre ateratzen dan
tipo honen barrenetik?
bertsotan urrundua naiz
Bizkaiako txapeletik.
Karreran ez naiz agertu
laurogeita hamabostetik,
ta ze ostiatan nabilen
neronek ere ez dakit.
Noraez honek, gainera,
barruan min ematen dit,
ta buruak esaten dit
“Unai, hik ederto dakik,
topatu behar dok zerbait
heure barne-muinetatik,
eta Unai izan behar dok
Iturriagaren gainetik”.

Hondo-hondoraino barneratuta dauka Iturriagak bere estilo hori. Naturaltasun estilistiko horrek bultzatzen du, besteak beste, erregistrorik kolokialenak inork ez bezala lantzera, berehala ikusiko dugun bezala. Puntuari erantzuten ere, halaxe jardun zuen:

S. Jauregi *Norberak nabi duena*
 lortu ahal balez...
Iturriaga Hori da euskaldunok
 daukagun amesa,
 badakigu gainera
 ez dala erreza
 ta ez dela lagun ona
 holakotan presa.

Zer esanik ez, estilo hori are nabarmenago ageri da bertsolariak libreago kantatzeko aukera duenean. Agurretan, esaterako:

Agur ta ohore Euskal Herria,
agur entzule maitea;
agur kartzelan ta deserrian
bizi zareten jentea.
Asmo berbera dugu guztiok:
dugun onena ematea,
ta horrela bada zilegi bedi
txapel bila joatea;
ta zortzigarren geratu ezkerro,
mozkortu eta bakea;
nahiko sari da Belodromoan
bertsolari izatea!

Egia da lehen lehen puntuarena erretorikoagoa dela, baina hortik aurrerakoa Iturriagaren estilo peto-pettoa da, eta lehen puntu horrek ere, nire ustez, parodia kutsu nabarmena du.

5. Erregistroak, ahotsak eta mintzoak

Gaur egungo bertsogintzaren bereizgarriarik nahi bada, horra hor bat, nabarmena: bertsolari klasikoak (Uztapide-eta, nolabait esateko), beti mintzo bera darabilte. Bakoitza berea, hori bai, baina beti bera. Txirritak berak, esaterako, Txirritaren estiloan hitz egin arazten die bere pertsonaiei. Direla neskazarrak, dela Norteko makinista, maizterra zein nagusia, denak mintzo dira Txirritaren estiloan. Literaturan, modernitatearen ezaugarritzat jotzen da ahotsen aniztasuna, eta bertsogintzan ere beste hainbeste gertatzen da, nire ustez.

Esan berri dugun bezala, Lujanbio eta Iturriaga nabarmendu dira gehien langintza horretan, nork bere bidetik. Gurpildun aulkiko pertsonaia izuz mintzo da, Himalaiako postala jaso duen pertsonaia, aldiz, mintzoan ere negarrez ari da. Hots: Maialenek esan ere egiten digu negarrez ari dela, eta sinesten diogu, nola ez. Negarrez ari dela, ordea, ikusi ere egiten dugu, sentitzen, eta horrek hunkitzen gaitu.

Bertsoa, ordea, kortse estuagoa da nobela baino, eta erregistroak eraikitzeke askoz tarte txikiagoa eskaintzen du. Pertsonaiak eta erregistroak, beraz, estilizatu beste erremediorik ez dago bertsoan. Bide bat baino gehiago dago horretarako, baina hona hemen Iturriagaren adibide bat, poliziaren paperean prostitutari (Igor zuen kantu lagun) kantatutakoa:

Hemen ez dago oherik, **neska**,
eta horixe da dena;
zuk delitu bat egin duzu ta
hori da duzun problema;
zuk norbaitekin nahastu nauzu,
ni seguru nago, **nena**,
badut lehengusu sarjentu soil bat
nire antza handia duena.

“Neska”, “nena” eta gisakoekin, erregistro bat markatzen ari da Iturriaga, nabarmen. Bertsoa kortse estua dela esan dut arestian, baina euskara bera ere ez da zabalagoa erregistro batzuei dagokienez behintzat. Ekarri nahi, eta, askotan, asmatu behar izaten dira horrelakoak. Norberaren gaitasuna ez da aski, entzulearena ere hor dago eta. Bertsoaldi horretan bertan aurrerago, hirugarren apelazioa sartzen du Unai: “Aizu, neskato, ez dezu nahiko / arrautzak erakustea?”. Eta bertsoaldiaren azken alean, sargento bat asmatu, eta hari ere berdin: “Benga, sarjento, sartu Basaurin”.

Hor ere, gainerakoetan bezala, kontua ez da ea horrelakoak kosta ahala kosta sartzea, egoki sartzea baizik. Hots, egiteko jakin batekin. Asmatu zein ez, garbi dago Iturriagak zertarako sartu zituen hor baliabide horiek: bere pertsonaiari plastikotasuna (berriz ere plastikotasuna) eta sinesgarritasuna emateko.

Horrelako adibide gehiago ere bada finaleko saioan. Bat bakarra aipatuko dut, ordea, kontua garbi samar geratu delakoan (kontuari buruzko nire ikuspegia, behintzat). Aipatzera noan bertsoari buruzko iruzkin xeble batzuk entzun nituen, eta ezin etsi dezaket neure iritzia eman gabe. Hona bertsoa:

Gu biok hortzak kas-kas,
hauxe hotzikara!
Hortatikan arrazoi
izan dezu, hara!
Holakorik hotzari

ezin zaio laga,
jarri berriak ditut,
ta a ze **putada!**

Hortz postizoez ari zen Egaña, aitonaren paperean, Lujanbiorekin. Batek baino gehiagok komentatu izan dit, harriduraz, ea nola ote zitekeen Egaña batek horren hizkera zakarra erabiltzea, batere premiarik gabe, gainera. Kontua, nire ustez, zera da: premiak eraginda sartu zuela. Ez, ordea, errima faltak eragindako premiak, baizik eta, berriro ere, egoerari eta pertsonaiei sinesgarritasuna emateko premia. Nik neuk, behintzat, aiseago imajinatzen dut neure burua “a zer putada” esaten egoera horretan, “arraiopola” edo “karanba” esaten baino. Eztabaida liteke, noski, lortu nahi zuena lortzen ote duen esaldi horrek, baina hortik kanpoko ezabaida guztiak aingerutxoen sexuari buruzkoen pareko dira, nik uste.

Eta, eztabaidarik batere onartzen ez duen kasu bat aipatzearen, hona hemen Egañaren beraren beste adibide bat, erregistroei dagokienez finaleko bikainenetakoa, nire aburuz, nahiz ez darabilen hizketa zuzena. Kolina kantu lagun, 65na urteko bi emakume beren senarrez gogaituren paperean, hala ere ez banatzearen aldeko izatea egokitu zitzaion Andoniri: “nik ezingo dut urrunduarazi / ohekide dudan **prenda...**”, “baina nik jasan egin beharko / gure etxeko **oilarra**”.

Ezin egokia, ezta? Bai, baina aitortu beharra dago erregistro hori jorratuagoa dagoela lehendik euskaraz, Unairen poliziarena baino.

Adibide gehiago ere badago finalean, eta polit askoak dira horietako asko eta asko. Hala ere, gabezia nabarmen bat aipatu nahi nuke, ataltxo honi amaiera emateko. Normala izango da, baina bai tristea ere, hitanoa behin ere erabili ez izana final osoan (eta txapelketan, eta plazetan) zehar. Bai, badakit hori ez dela bertso munduko arazoa, soziolinguistikoa baizik, baina, hala ere, penagarria iruditzen zait. Hitanoa baita euskarak landuen duen erregistro markatzailea. Egaña eta Kolinaren arteko horretan bertan, ezin egokiago zetorkeen, 65 urteko bi andreak elkarri noka hitz egitea. Ez, ordea, berez naizelako hitanoaren aldeko, edo bertsoan erabili ezean sekulako galduko dugula uste dudalako. Ez. Bi andre horiek noka mintzatu izan balira, sinesgarriago izango zitzaizkidan, eta hori da dena.

Ez dator harira, baina bakoitza bere zoroak bizi duenez, utz iezadazue esaten: eskolan erregistroak eta jergak eraikitzeke tresna moduan landuko balitz hitanoa, eta ez paradigma gogaikarri bat gehiago moduan, ez genuke hitanoaren aldeko predikurik egin beharrik izango. Esana dago. Barkatu, baina lehertuko nintzen bestela.

Harira etorrita, azkenik, esan dezadan ondotxo dakidala hitanoak bertsolariari —baita hitz lauz hitanoan aise moldatzen denari ere— sortarazten dizkion katramila teknikoak. Txukun egin nahi izanez gero (eta ez komeni denean soilik) desajuste latzak sortarazten

ditu neurrian eta erriman. Ulegarria da, beraz, ez erabiltzea, baina ez horregatik gutxiago tamalgarria.

Nire ustez, hemen hitanoa hartu dugun ikuspegitik hartu beharko litzateke, orobat, euskalkien erabilera. Bizkaiera da hizpide gehien sortarazi duena, eta finalean, egia esan, ezer gutxi entzun da, Elortzaren aipatu ekarpenak salbu. Hizkuntza aberastasuna aipatu ohi dute batzuek bizkaierarena aiputan hartzen dutenean; beste batzuek, berriz, ikur politiko edo ideologiko gisa bide darabilte euskalkia. Horiek guztiak ukatu gabe, nik uste dut euskalkien kasuan ere, komunikazioari dagozkion kontuak direla, batez ere, aintzat hartzekoak. Batuan —eta gipuzkera osatuan— ari direla, sekulako baliabidea izan liteke norberaren euskalkia, gaiaren eta pertsonaien arabera beti ere. Horretaz ohartzen diren neurrian hasiko dira bertsolariak zinez euskalkiak erabiltzen, konturatzen direnean kultur altxorra ez ezik baliabide erretoriko egokia izan litekeela euskalkia. Osterantzean, aldarri hutsa izaten segituko du.

6. Betelana?

Ospe txarreko hitza da bertso munduan “betelana”. 1997ko txapelketa zela eta, saiatu nintzen azaltzen betelanak ez duela berez ospe txar hori merezi, horixe baita, izan, bertsolariaren ofizioaren funtsa. Azken batean, osatu behar duen bertsoaren azken puntua baino ez du bertsolariak buruan, eta gainerako guztia osatu egin behar du, “bete”. Zenbat eta bertsoa luzeago, orduan eta betelan gehiago egin behar. Betelan hori inprobisatu egiten du bertsolariak, baina horrek ez du esan nahi aurrez landu ez dezakeenik.

Aldez aurreko lan hori ez litzake, beraz, errima eta gainerako alderdi teknikoetara mugatu behar (bertso-eskolak ditut bereziki gogoan). Hor ikusten dut nik bertso-gintzaren eta hizkuntza kontuen arteko lotura, uztargunea. Euskara ona (euskal senaren arabera) eskatu behar zaio bertsolariari, euskara zuzena (arauen arabera) ez ezik. Inprobisazio hutsez osatzen duen bertso puska ehuntzen ari dela, estu ibiliko da noski, eta bestela barkagarri ez diren hutsak barkagarri —edo, gutxienez, ulregarri— dira. Neurriera errenditu beharra, errima txertatu beharra... baldintza gogorak dira horiek.

Hala ere, finalean entzundako batzuk ez dira, nire ustez, ez zuzen eta ez on: “egon naiz hori pentsatuz”, “nahiko nuke berma”, “ezin da herria bana”, “hortza postizoak”, “ezin naiz neka”.

Aipatu ditudan horiek ez dute komunikazio arazo larririk sortzen. Ulertzen direla, alegia. Kontua da noraino eman behar dugun amore. Andereño batek esan zidan behin honezkero etsi egin beharko genuela eta “ikusidizut” ontzat eman. “Korner berri bat” ere ulertu ulertzen da, gaztelania ere badakigulako, besteak beste. Nik neuk, kontu hauetan, irizpide garbia daukat: onartzekotan, batuan zuzenak ez izanagatik non edo han ahoz erabiltzen direnak onartu behar genituzke. Aurreko adibideak, ordea, nik

dakidala, eta tokian tokiko fonetika gorabehera, “egon naiz hori pentsatzen”, “nahiko nuke bermatu”, ezin da herria banatu”, hortz postizoak”, “ezin naiz nekatu” dira alde guztietan.

“Okel garbia”, alde horretatik, onargarriagoa zait aipatutako horietako ezein baino. Okelarena ez da finaleko adibidea, baina bai honako hauek: “usteldu daitezen”, “argazkia´re muitua duzu”, “istripu batean bela”... Ez dira zuzenak, baina hizkera arruntean non edo han behitzat erabiltzen dira.

Gauzak ez dira beti hain argi eta garbiak. Kontsidera dezagun, esaterako, finalean entzun ziren arrazoietan biribilenetakoa irizten diodan Iturriagaren honako bertso amaiera hau: “Esperimentuak egin / gaseosarekin”. Lehen lerroan dago arazoa. Kantatu, honela kantatu zuen Unaiak: “Esperimentuak egin”, berez bi silaba behar duen “tuak” hori silaba bakarrean emanik, neurriak hartaratuta, noski. Uste dut, ordea, konponbide hobea zukeela honako hau: “Esperimentuak ein (in)”. Ez bata ez bestea dira zuzenak. Bigarrena, ordea, ona da, euskal senaren araberrakoa, eta toki askotan erabiltzen da ahoz.

Zuzentasunik eta ontasunik ezak komunikazio arazoak ere sor ditzake, eta sortzen ditu batzuetan: “euskal musika ere / ez zegoen uneka”. Bertsoaldiaren testuingurua kontuan harturik (Maiarena da adibidea, Lujanbiorekin dantza irakaslearen paperean kantatua), uste dut “euskal musikaririk batere jarri ez” zutela adierazi nahi zuela. Berez, ordea, “euskal musika oso sarri” jarri zutela ulertu nuen nik (alegia, ez uneka). Eta hori bera ere, noski, “uneka” hori ontzat emanez gero.

Ataltxo honetan orain arte esandakoak lantzeko bide bakarra euskara bera lantzea da. Betelanaren beste alderdi batzuen lanketa, berriz, askoz ere zehatzagoa izan liteke. Adjektiboen hurrenkerarenak, esaterako. Neurria dela eta, bertsolariak sarri jarri beharko ditu adjektibo bat baino gehiago elkarren segidan. Eta orduan, lortu nahi denaren arabera beti ere, sekulako garrantzia har lezake adjektiboen hurrenkerak. Eraginkorrena aurretik jartzen badugu, hil egiten dugu ondotik datorrena, eta orduan hartzen du betelanak kutsu peioratiboa. Alegia, begi bistan geratzen dela neurria betetzearren soilik sartu duela bertsolariak bigarren adjektibo hori. Esaterako, “Nahiz hartza polita izan / polita eta zuzena”, kantatu zuen Maiak. Entzulea (ni behintzat bai) ohartzen da hartzaren edertasuna enfatizatu nahirik ari dela bertsolaria, ez baitu etsitzen “nahiz hartza polita izan” esanda. Beraz, gero “polita eta...” entzuten duenean, polita baino areagoko zerbait espero du, eta “zuzena” entzutean zaplasteko bat hartzen du, ez zaizkio igurikapenak betetzen. “Zuzena” horrek, izan ere, bi adiera izan ditzake. Batetik, zuzentasuna izan liteke, adiera moralean, baina ez dirudi oso egoki datorrenik hartzaren harira. Bestetik, fisikoa ere izan liteke “zuzena”, “tentea” edo, ustez adierazi nahi den xamurtasun eta kuttuntasunaren beste muturrean, hain zuzen. Adjektiboetan, “lerdena” zatekeen hor aukera hobea. Eta superlatiboen bidea hor zuen esku-eskura: “litekeen politena”, esaterako. (Egin beharrik ere ez dago, baina egin dezadan, badazpada ere, oharra, kasu honetarako eta gainerako guztietarako balio duena: asti gutxiegi eta arau

gehiegi ditu bertsolariak, eta ni, berriz, patxada ederrean ari naiz. Ez bedi, beraz, kritika moduan har, ohartu beharreko kontu batzuen azalpen hutsa baita nire hau).

Enfasiar ari garela, bada sarri-sarri erabiltzen den beste enfasi bide bat ere: errepikapena. Hori ere, egoki eginez gero, eraginkorra eta egokia da. Halamoduz eginez gero, berriz, betelan nabarmena, entzulearen sentipenerako. Hona hemen errepikapen bat, nire ustez inora ez doana (egiteko jakinik ez duena, ez bada silabak betetzea):

“hanka bikoak tratatu nahia / **berdinean-berdinean**, / zurikeria hutsa baino ez da / gizartean mingainean”. Sustrairena da adibidea (Maialenekin, aulki gurpildunarenean), eta, nire gusturako, ederra da arrazoiz. Errepikapen hori, ordea, betelan huts nabarmena da, eta ez naiz ari oraingo nire ikuspegi teorikotik, halaxe idatzi bainuen Belodromoan bertan, bertsoa entzun orduko.

Nahi adina adibide aipa liteke, baina beste muturreko bat aipatuta etsiko dut, ez gehiago luzatzearren. Hartara, irakurleak (horrelakorik baleuka lantxo honek) jolas polita (eta zuzena?) antola dezake, nahi izanez gero: finaleko bertsoak hartu, eta aurkitzen dituen errepikapenak zein bere sailean jarri, mutur batean edo bestean. Egañarena da adibidea: “**nabarmendu, nabarmendu, / gailendu, beti gailendu.** / Apaltasuna ez al da ezin / dutenen ukendu?”. Iturriagarekin ari zen Egaña, denetan onena izan nahi zuenaren paperean. Kasu honetan ere, silabak bete behar dituelako errepikatzen ditu Egañak hitzak, baina, betelana ederlan eginik, errepikatu behar hori bere pertsonaia eraiki eta gurpuzteko darabil: nabarmentzea obsesio bihurtu zaion pertsonaia, alegia. Errepikapen bikoitz hori eta guzti, bi silaba falta zituen oraindik. “Eta” sar zezakeen, noski, baina, bere xederako, askoz egokiagoa zitzaion “beti” hori.

Baliabide pare bat baino ez ditut aipatu, oso ere oinarrizkoak biak, baina beste hainbeste esan nezakeen gainerako baliabide guztiez ere. Anafora, esaterako (segidako hainbat lerro edo punturen hasieran hitz edo hitz multzo bera errepikatzea), ez da berez ez on eta ez txar. Zertarako eta nola sartzen den, hori da kontua.

7. Errima gortzen ari ote zaigu?

Lantxo honetan zehar birritan aipatu dudan kontu bati heldu nahi nioke, aski kezkarria delakoan, eta, nik dakidala, ez baita orain arte deus ere esan izan horretaz. Errimari dagokio, eta Elortzaren doinu berriarekin piztu zitzaidan neuri alarma. Honako bertso honetan, hain zuzen:

Belodromoan bizi-bizirik
herri baten sentimena,
ez dugu behar geu izateko
beste inoren baimena.
Oraina eta lehena,
gero bihur litekeena,
mila arazo dauzkagu baina

geu ez al gara problema?
Izango al dugu ahalmena
ta beharrezko den dena,
beste noranahi eramateko
hemen batu gaituena?

Bertso honetan ez dago errima arazorik. Doinuak, ordea, oso eragin nabarmena du zenbait errima-hitzetan. Nik honela daukat markatuta lehen errima nire kuadernoan: “sentiména”, azentu eta guzti, hala kantatzera behartzen baitu doinuak hitz hori. Errima-hitzak azentua azken aurreko silaban daraman errimari “emea” esaten diote adituek, eta azentua azken silaban daramanari, berriz, “arra”. Ez naiz hemen hasiko izendapen horien egokitasun ideologikoa eztabaidatzen.

Euskal kantutegiko doinu gehienak (eta, ondorioz, bertso doinu gehienak), arrak dira, edo, gehien jota, neutroak (azentua oso nabarmen markatzen ez dutenak). Aspaldi honetan hain modako jarri den “habanera”, ordea, nabarmen emea da azentuaren aldetik. Eta horrek sortzen ditu endredoak, baldin ez banago gor. Hona, esaterako, Lujanbiok Himalaiakoan kantatu zuen bertsoetako bat:

Irratiak eman zuen
elur-jauzien **abisu**,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste **konpromisu**
bazendun, ta holakotan
egoskor bat **dirudizu**;
aurrera segiko zendun,
beti egin dezu **berdintsu**.
Bizitzan ilusioa
herioren **paradisu**;
gero arte esaten ere
ez didazu utzi, **aizu**;
ta zuri azken hitz batzuk
esan nahiean **naukazu**,
karta bat egingo dizut,
akaso jasoko **dezu**.

Horrela ikusita, ez dirudi aje berezirik daukanik, errimaren aldetik, bertso horrek. Eztabaida liteke hoskidetasunaren zenbatekoa, baina, itxura batean, errimakideak dira zortzi puntu amaierak. Gainera, “isu/izu”tik “azu”rako transizioa primeran betetzen du “aizu” horrek, eta “azu”tik “ezu”ra ere berez-berez doa, itxura batean, errima.

Gertatzen dena, ordea, zera da: paperean errimakide badira ere “abisu” eta “naukazu”, habaneraren doinuan kantatuta ez direla errimakide, doinu horretan “abísu” eta “naukázu” kantatzen baita nabarmen, eta, azentua daraman bokalak markatzen du

noiz hasten den errima. Ez arauaren arabera soilik, belarriak ere horixe eskatzen baitu. Normala ere bada: azentu markatu horren osteko silaba entzun ere ez baita ia egiten.

Kanta ezazue Pello Joxeperen doinuan honako hau:

Pello Joxepe tabernan dela,
elur jauzien abisu;
ni han nengoen, eta egia
esan nahiean naukazu.

Horrela kantaturik ez dago arazorik, “u” eta “u” entzuten baitugu. Habaneran, aldiz, “i” eta “a” entzuten ditugu ozenkien, ondotik “u” baten oihartzun apal-apal bat dutela, hori bai.

Behin eta berriz esaten ari gara bertsoa ahozko generoa dela. Hala bada, eta ni horretan nago, atera ditzagun, errimari dagokionez ere, atera beharreko ondorioak. Ahozkoa bada, ez dezagun gorrak bagina bezala jaso eta juzkatu.

Berriro diot: ez naiz ezer —are gutxiago inor— kritikatzten ari, kezkarria iruditzen zaidan kontu bat plazaratzen baizik.

8. Azken arrazoia

Behar baino gehiago luzatu naiz, eta, hala ere, badakit aipatu gabe utzi ditudala aipatzeko moduko gauza asko eta asko. Badakit, orobat, okerre eta akatsei beharbada merezi baino leku zabalagoa eskaini diedala. Esan dezadan, neure burua zuritze aldera, normala ere badela hori.

Bertso onak, oso onak eta bikainak entzun genituen Belodromoan, nola teknikaren hala arrazoen eta formulazioen aldetik. Arrazoirik biribilena, nire gusturako, Mendiluzeren honako hau:

Maiz gizartea aldatu ohi da
nahi dunaren arabera,
badu hainbat gorabehera,
gaur erantzuna eman lezake
ta bihar ahaztu galdera.

Erantzunak eta galderak, bietatik osatu dut nik lantxo hau. Baliteke erantzunak egokiak ez izatea. Hala balira, ahantz itzazue lehenbailehen. Ni pozik nengoke egin ditudan galderetakoren batek probetxuzko hausnarketa eragingo balio nor edo nori.

IRITZIAK

Urrats giltzarri baino areago

ANDONI EGAÑA

Bertsolariaren ikuspegitik edo aztertzailearenetik ari naizen zehatz jakin gabe ere, bitez zilegi Txapelketa Nagusiaren emariari buruzko zenbait gogoeta.

Txapelketa Nagusi orok ondorenean dakarren iritzi eta ideia zurrunbilotik bat atera nahi nuke, lan honen ardatz izan dadin. ARGIA astekariak antolaturiko mahainguruaren³⁰ galdera giltzarria honakoa zen: aurtengo Txapelketa zer izan da urrats edo giltzarri?

Neuk eta hitz bitan erantzun behar banu, urrats izan dela erantzungo nuke, giltzarri baino areago. Baina bereizi egingo nituzke pertzepzioen esparruak. Seguraski, bertsogintza kanpoenetik segitzen duen bertsozalearentzat (hedabideek eragin handiagoa dute noski hauengan beste inorengan baino) giltzarri ere izan da txapelketa hau. Kanpoenetik oso berdin, artean heldugabe eta etorkizunerako zalantzakor ikusten zen belaunaldiak erakutsi baitu, desberdina dela, heldua eta etorkizunerako ziurra. Bertsozaleriaren barrueneko jarraitzailearentzat aldiz, urrats izan dela esango nuke. Ez da proposamen guztiz berritzailearik izan. Berrituek, ñabarduren maila izan dute, ez ikuspegi orokorra. Bertsolari bakoitzak zekiena eginez segi du (batzuk besteek baino suerte eta arrakasta handiagoz eta batzuk besteek baino gogoeta maila eta lanketa handiagoz).

Barrueneko ikuspegi horri lotuko natzaio, niri hala dagokidalako batetik, eta bestetik, liburu hau eskuartean daukana, horrexegatik bakarrik ere, barrueneko bertsozale jotzen baitut. Hona hemen, bertsogintzaren aldetik nabarmenduko nituzkeen zenbait alderdi:

- Bertsolariek SERIO hartu dute Txapelketa hau. Eta ez da txantxetako balorazioa. Bertsolari bakoitzak bazekien ongi txapelketa honetan ze funtzio eta ze ilusio zeuzkan. Bertsolari partaideen trontzoak (25-30 urte bitarteko horrek) argi zekusan hasi aurretik ere, bere burua taldetik aletzeko aukera ezin hobea zuela txapelketa. Erakusleihoaz baliatu behar zuen almatzeneko lana azaltzera emateko. Gazteagoek eta zaharragoek ere bazuten funtziorik, nork berea. Zinez uste dut, ahaleginak egin zituztela/genituela denek ere. Gehiago ere esango nuke, hanka sartzeko arriskuarekin: lehen aldiz, kirolean hainbestetan gertatzen den " gehiegi entrenatzearen" fenomeno nozitu du bertsolari batek baino gehiagok. Ez da kasualitatea, kritikoez ere aipatu izan duten zerbaitek izan da. Alegia, azken boladan plazatatik propio urrundu izan diren bertsolarien (Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga...) lan bikaina eta emariaren ona eta aldiz, plazaz lepo eta ilusioz gainezka, pentsamendua txapelketak gehitxo irentsia, iritsi diren beste bertsolari batzuen emaitza apalxeagoa.

³⁰ Hernani, 2001-01-09. Larrun aldizkarian argitaratua: Larrun, 51. zenbakia, 2002ko urtarrila

Honek, zalantzarik gabe, ekar dezake ikuspegi aldaketa bat. Orain artean gazteak trebatzeko plazak eta plazak eskatzen baitziren. Zaildua behar zuen plazan gazteak, gero txapelketan lan itxurazkorik egitekotan. Orain, atsedena, burua bere lekuan edukitzea, etxeko gogoeta eta lana... plazak bezain garrantzitsu direla suma daiteke. Nik neuk ere badut eskarmenturik horretatik. 1985-86ko Txapelketa Nagusiaren finalera iritsi nintzelarik, oso plaza gutxi egina nintzen. Kantaeran, imintzioetan, zenbait trikimailu erabiltzeko garaian kamutsa nintzen. Baina ideiaz fresko nengoen.

- Aski TRESNA bazituen bertsolariak bere ustez, Txapelketari heltzeko orduan. Doinu berririk eta batik bat, egitura berririk sortu ez izana da uste horren lekuko. Doinu berriak, zenbaitetan, esan beharrekoa melodia berriz indartsuago adierazi daitekeela pentsatzen delako sortzen dira. Beste batzuetan ordea, egitura (silaba kopuruak eta errimen kopurua eta antolamendua) berriak bilatzen ditu bertsolariak. Esan dezagun, aurtengoan, doinu berriak izan direla. Gutxi hala ere. Finalean esaterako, Igor Elortzak Manu Chaoren doinu bat baliatuz atera zuena baino ez. Baina hori baino esanguratsuagoa dena: ez da egitura berririk sortu. Eta horrek esan nahi du bertsolariak askietsi egin duela aurrez zekizkien bertso-egiturekin. Habanerak, zazpi edo zortzi puntuko betiko egiturak, bederatziko betikoak... Akaso, egiturei dagokienez, berrikuntza bakarra Maialen Lujanbioren eskutik heldu da: zortziko handia bikoiztuz ("Haizea dator iparraldetik") osatu du zortzi puntu luzeko bertso egitura berri bat.

Bertso luzeetarako egitura berririk ez ekarri izanak, bertsolariak lehengoekin eroso zeudela adierazten du. Eta erosotasun hori emaitzen kalitatean islatu den ustekoa naiz. Sekulako maila izan da bertso egitura luzeetan betelana egiterako garaian. Betelan-ederlan helburua inoiz baino eskurago ikusi ahal izan dugu. Eta ez finalean bakarrik. Edo ez nagusiki finalean. Aitor Mendiluzek (Markinan), Aitor Sarriegik (Markinan) edo Arkaitz Goikoetxeak (Tolosan) finalerdietan egindako bakarkako lanak, orain artean apenas ezagutzen genuen mailan jartzen du bertsozintza.

Bertsolari gazteek, maila batetik gorako bertsolari gehienek esango nuke, ohiko bertso luzeen egituren mugitzen dakitela erakutsi dute. Zenbait entzulerentzat badu alde on honek ere bere ifrentzua: hasieratik bete-bete eginda datorren bertsoak, derrigor, bukaeran sorpresa ahalmen urriagoa du. Eta hasierakoaren edertasunaz gozatu ez eta bukaerako kolpearen zain dagoen bertsozaleak, "atzean" juzkatuko zituen taxu honetako zenbait bertso.

Ezer ez da kasualitatez sortzen. Lehen aipatu dut Maialen Lujanbio izan dela egituren berrikuntzan urrats bat saiatu duen bertsolari bakarra. Gainerakook sumatzen ez genuen beharra sumatzen zuelako, nonbait. Proposamen berria zekarrelako, eta proposamen berri horri hezurdura berria eman beharra zeukalako. Bi zortziko handi segidan. Hori izan zen bere proposamena. Bazuen arrisku bat nire ustez: egitura silabikoa behin eta berriz errepikatzean, gauza asko, gauza desberdin

asko eta gauza "ikusgarri" asko esan ezean, "inpresora efektua"n eror zitekeen. Esan eta esan eta esan, eta dena raupa eta raupa eta raupa, maila berean geratzekoa. Baina gauza asko, gauza desberdin asko, eta modu "ikusgarrian" kontatu zituen.

Etxarrin "ikusi" egin genuen aitona mendian lurrean etzanda. Eta "ikusi" egin genuen berak asmatu zuen beste gizon hura ere, zeinak ez ikusiarena egin zuen. Belodromoan berriz, gurpildun aulkiko elbarriari motxilan eskua nola sartzen zioten "ikus" genezan lortu zuen.

- ERRIMEN arloan ez da proposamen berritzailerik sumatu. Lanketa bai. Baina inork ez du errima-sistema itzulipurdikatu. Agian, bertsoa "eskuineratzearen" beste abantaila batez baliatu izan gara zenbait bertsolari, neu neroni tartean. Errima-hitza substantiboa delarik, bertsoa "ikusgarriagoa", hunkigarriagoa eta irensterrazagoa bihurtzen dela asmatu dugu. Maialen Lujanbiok kontatzen bidez lortzen zuenaren antzeko efektua lor daiteke errima substantibatuz. Hots, "garela", "edo", "zitara", "zeren" ...amaitzen diren lerroak ez ditu entzuleak aisa "ikusten". "Ardagai", "sabai" edo "hil-kanpai" amaitzen direnek bestelako efektua lortzen dute.
- HIZKUNTZARI gagozkiola, izan dira bila gabiltzanaren aztarnaren batzuk. Batetik, euskara batua eta euskalki desberdinetako zenbait hitz eta esamolde, lasai eta natural nahasteko joera nagusitu dela uste dut. Egungo bertsolariak "input/sarrera" mordoa du. Batetik eta bestetik datozkio informazio uholdeak. Eta gainera, zorionez, gero eta gehiago dira, euskarri guztietan gainera, Euskal Herri osorako egiten diren hedabide, liburu eta gainerako. Horrek, euskara batua eta euskalkietatik *koinéra* ekarpen modura egindako hitz eta esamoldeen ezagutzara darama bertsolaria. Eta esango nuke ongi egiten duela batetik eta bestetik hartuz. Sustrai Colinarena bezain Jon Maiarena da "boneta" iada. Eta Maialen Lujanbiorena bezain Fredi Paiarena "hainbat neretzat kaltian".

Beste kontu bat da, entzule-bertsolari komunikaziorako garrantzitsua, bertsolariak zenbateraino baliatu behar duen dakienaz eta zenbateraino makurtu behar duen entzuleak dakikeenera. Gai arantzatsua da hau, ordea. Entzuleria askotarikoa delako gaur egun. Eta batzuentzat ulergaitz den huraxe eskatuko diote beste batzuek bertsolariei. Eta batzuentzat gozatzeko traba izango denarekin gozatzeko dute beste batzuk. Halere, nik neuk nahikoa garbi daukat muga non dagokeen. Bertsolariak "oinazkarra" edo "akrostikoa" esan eta entzulerik gehienek ulertzen ez badute, bertsolariarena de errua. Bertsolariak "islada" edo "hermafrodita" esan eta entzulerik gehienek ulertzen ez badute... entzuleena.

Erregistroen erabileran ere saialdiren bat sumatu izan dugu. Ez da samurra gai hau. Euskarak ez du albo-hizkuntzek bezain garatua jerga eta erregistro desberdinen arloa. Ondorioz, bertsolariak berak zailtasun handiak ditu paper bat hartu eta dagokion erregistro berezitan bat-batean aritzeko. Baina Unai Iturriagak polizia

paperean prostitutari "nena" deitu izana azertu handitzat joko nuke. Edo baita Nerea Elustondok Etxarrin amona paperean bere bilobari botatako bertso bateko bi lehenengo puntuetan "zortzi urte handi" eta "korrika txikian" aipatu izana ere.

Etorkizunerako aurrerapausoak arlo honetan aurreikus ditzaket. Helduko da eguna, poliziek polizia modura arrazoitzeaz gain, polizia modura hitzegingo dutena. Abokatuek abokatu gisan; kamineroek kaminero legez. Euskararen garapenarekin helduko da bertso gintzarena ere.

- Gutxi samar berritu dugu KONZEPTUAlki bertso gintza. Nik espero nuen tankera gehiagotako umorea azaleratuko zela txapelketa honetan. Espero nuen umore beltza, berdea, marroia... Espero nuen absurdoa, logika apurketa... Eta gutxi izan dugu hortik. Arlorik zailena ere, egia esan, horixe da. Baina ez da ezinezkoa. Jon Maiak Markinan, mozkor paperean eta leihoan zeukan andregaiari botatako bertso bat da lekuko. "Loreak botatzeko bi kontzeptu dira" kantatu zion berak lausengua luzatu eta andregaiak lorontzia tira ziolarik. Edo bide beretsutik doa Aitor Mandiluzek finalean "piercing" ez jositako lagunari gabonetako arbolaren tankera hartze hura.

Gai honi gagozkiola, badut susmo bat. Gaia bera absurdo kutsukoa delarik (eta zortziko txikian batzuk izan dira ezaugarri hori nagusi zutenak) bertsolariak ezin du absurdora jo. Eta bestetik, txapelketako giroak, epaimahaia aurrean izateak, eta batik bat, entzulearen "txapelketako jarrera desberdinak" bertsolarien buruetan hesia ipintzen du. Autozentsuratu egiten dugu gure jardun mota bat. Jaialdi batean edo afalondo batean botako genukeena ez dugu botatzen. Ez gara bila hasi ere egiten. Eta hesi mota oro apurtzea bertsolarien lana behar luke. Gogoan dut niri gertatu zitzaidan kasua. Belodromoan, goizeko bakarkako gaian, ikasle gaztetxoaz maitemindu zen irakaslea nintzen. Bi lehenengo bertsoak hor nonbait eraman nituen, gaiari erantsiz gizonetzko ezkondua nintzela, eta zalantzan nengoela lehengoarekin geratu edo berriarekin alde egin. Hirugarren bertsoak, errematerako, izan nuen argi-izpi bat. Umea ere bagenuela esango nuen. Eta bukaeran, "gure umeak jakin behar du beti hiru izan gerala"! Hamar minutu lehenago beste gai batean, beste seriotasun batez eta zegokion tokian Irazuk erabilitako bukaera berberaz ironiaren puntu gorena uki nezakeen. Baina ez nintzen ausartu. Txapelketako sindromeak jota nengoan nonbait ni ere.

Eta ausardia da gakoak. Ausardia behar da, trebetasunaz gain, mozkorra eta andregaiaren kasuan "bi lore" mota desberdinen arrazoien bila hasteko. Eta ausardia, ideia hori zortziko txikian eta ulergarri tolesta daitekeela sinisteko. Eta trebetasuna tolestatu eta tolestatu ahala akatsik gabe esateko. " Tuntun arraioa!" bukatzea aski zuen eta Maiak!. Akaso orduan bere jarduna "freskoagoa" izan zela esango zuten norbaitzuk.

Azken ondorio gisara esango nuke, urrats bederen izan dela txapelketa hau. Maila jartzera joan ginen batzuk; maila ematera besteak. Agian, askeago joaten asmatu izan bagenu emaria eta emaitzak bestelakoak izango ziratekeen. Baina ez dut uste giltzarri izatera iritsiko zenik. Aldakuntza orok bere egosialdia behar du. Nago, lau urte barru gauzatuko dela oraindik egosten ari den eta bertsogintzari berari dagokion aldaketa. Orduan ere batzuk maila jartzera eta besteak ematera joango gara. Nori zer paper tokatuko zaion ikusteke dago ordea.

Hiru bertso eta bi iruzkin

JON SARASUA

Miatu topikoa

Agurrak. Belodromoko agurrak izan ziren zantzu aipagarriak bertsogintzan zertan diren eta bertsolaritzan zertan garen azaltzeko. Alde askotatik itsaso mugitua zebilen bertsoaren uretan. Ur mugitu haien erakusgarri, *a posteriori* idatzitakoa baino adierazgarriago izan litezke finalaren aurretik idatzitako artikuluko zatiak:

“Diskurtso atzerakoi tipikoa oso ohikoa da bertsogintzari buruz. ‘Onenak falta dira’ entzun dut aurten. ‘Txiritara arte bai’ entzun izan dut, ‘Egañaren belaunaldira arte bai’ ere bai orain. Jende kultu eta sonadunen iritziak dira askotan, baina ez dute sakonean alderik ‘garai bateko pelotariak bai!’ edo ‘orduko arraunlariak!’ horrekin. *Autentikotasuna*, tradizioa eta sormena ulertzeko moduan defizit harrigarria erakusten du bertsogintzari buruzko zenbaiten ikusmoldeak. Bertso munduan murgilduta dabilenak badaki bertako gaitz eta arriskuen berri, baina beste hau ere bai: sekula ez da bertsogintza gaur bezain bapatekoa, azkarra, askotarikoa eta exijentea izan. Txapelketen historian finaletan izan diren bertsolari guztietatik oso gutxi, banakaren bat, sartuko litzateke aurten finalean orduko mailan bertsoan eginda. Ez naiz ni bertsoa neur daitekeela uste dutenetakoa, baina jarritako joko-arauen ararbera, zortzikote gutxi osa litezke aurtengoa baino hobeak”.

“Nagusitzen ari den belaunaldiaren aniztasun faltaz ere entzun ditut gauzak. Ailetor bertsolari konstituziozale, hippie, kristau edo neoliberalik plazetako elitera. Biziki interesgarria litzateke, baina ez diet horren falta dabiltzanei egotziko. Eta lehengoa: epaitzerako, ezagutu. Bertsolari gazteen iritzi politikoan dauden ikuspegiak, zalantzak eta ñabardurak, gutxienez beraien etiketatzaileenak bezain aberatsak direlakoan nago. Erakutsiko du plazak etorkizunean. Eta hala ez balitz ere, eman beza bakoitzak beretik. Bidenabar, aspertzen ari naiz ikusirik ze esparru zabalean hedatu den bertsogintzaren ‘aldebateratzearen’ bertsioa, bertsolariren baten alboratzea aipatuz argudio lagungarri. Behingoz esan beharko da bertsoan gustura sentitzeko eta bertsozaleek maitatua izateko garrantzi gehiago dutela izakera kontuek, herrikotasunak eta bizitza-estiloko hautuek, eta ez hainbeste iritzi politikoek, norbaitzuk azken honetan zuritu nahi badute ere zenbait frustrazio pertsonal eta kolektibo”.

“Belaunak edo altzoa izan dira bertsolaritzaren mugimendu berriaren obsesio. Nonbait, gure albo-erdarek hedapena (espazioa) amets izan duten bezala, euskarak iraupena (denbora) du amets. Biziberritzeko estrategia gaitzean, belaun izaten saiatu da bertso mundua. Ahalegin horrek tajutu du mugimendu osoa: bertso-

eskolen sorrera, Elkartearen gorpuztea, irakaskuntzako apustuak, bertsolarien arteko transmisioa. Xenpelarrek arrazoi, bere atzerakoian: jaio dira berriak. (...) Transmisio konsziente baten emaitza da inoizko txapelketa gazteen eta zenbait arlotan sendoen hau. Transmisioak bertsolaritza mugimenduaren zutabe nagusi izaten jarraitzen du. Eta lanean ari denari, berriketa gutxi”.

Finalaren bezperako gauean, Kafe Antzokiko 6. urteurreneko jaialdian iruzkin bitxia egin zidan lagun batek. Oholtzan kantari gazte bat ari zen, euskarazko poema kosmopolitak ezpainetan, erritmo anglosaxoi ohiko xamar bat gitarra akustikoan.

- Suziri iragankorrak –edo halako zerbait esan zidan lagunak- Modako doinu mota, posea, itxura. Funtzionatzen duela zirudik, baina hemendik hiru urtera inork ez dik faltan botako. Konsistentzia gehiagoko ekarpenak behar dizkiagu. Une honetan, adibidez, herria (euskararen komunitate-guneaz ari zen, bera ezagututa) mindua zegok, noragabetua. Oholtzan dagoen hori ez dek gai ezer sinesgarria esateko une honetan herri mindu honi. Ibilbide sinesgarria egin duten edo egingo duten ahotsak behar dizkiagu oholtzetan. Horiek irauten ditek, gehienak modaren haizeak eramaten dizkik.

Euskal musikaz mintzo zen, baina niri burua bertso gintzara joan zitzaidan. Handik hamar ordura, berandu baina patxadan belodromoan sartzen ari nintzela pasabidean entzun nuen Maialenen agurra:

...
herri honetan egunsentiro
minez aseta gaude gu
baina barnean amets bat dugu
ta gaur sinets dezakegu
herri honetan egunsentiro
minez aseta gaude gu
gozatzeko ta dibertitzeko
egun bat merezi degu.

Urdaila mugitzen hasi zitzaidan. Sekulako final-saiorik indartsuena iragartzen zidan agur hark. Hain zuzen ere agur hark.

Topikoa da herriaren amets eta minei kantatzen dion bertsolariaren kontua. Eta topikoak puskatzeko joera (hori ere pose erraza da askotan) erakutsi duten bertsolariak, topikoa dela jakinik ere, beronetara itzultzen direnean, zerbait dago azpian. Topiko horretara nabarmen itzuli ziren bertsolariak belodromoan. Berau kritikatu egin beharko da, ñabartu ere bai, baina beste hau ere egin behar zaio: miatu, barruan zer duen ikusteko. Bada zerbait hor bertsolaritza dariona. Ikasten ari garena baina oraindik aski ikasi ez duguna horixe da: dariguna miatzen, darigunetik abiatzen. Utz dezagun zabalik gaia.

Ford Fiesta gorrira bidaia

Neurkaitza eta puntuazina da bertsoa. Ezin esango dut, beraz, historiako final-saiorik onena izan zenik. Gustuez eta zirrarez mintza liteke, eta niretzako finalik gustukoena izan zen, zalantzarik gabe eta alde handiz. Zenbakien ferian atzera xamar gelditu zirenek ere balentria bikainak egin zituzten nirekiko. Gutxitan zirrarratu nau besteren bertsoak egun hartan Igorren, Unairen edota Irazuren zenbaitek bezainbat.

Buruan nuen apologia koxkorra zakarretara bota eta beste gogoeta bat egin behar dut. Andonik barkatuko dit bere bertso arrut xamar batez baliatzea, parean baitatorkit hari bati tiraka hasteko. Izan ere Andoniren bertsorik kaxkarrenetakoarekin egin zuen eupadarik handiena nire aurreko entzuleak (berrogeita bost bat urte, bertsolari baten laguna). Egañak segurutik jo zuen Himalaian galdutako lagunaren gain, bereziki bigarren bertsoan:

Postala heldu da eta zu falta,
destinoa azkenean
etorri zaigu Himalaiatik,
gezi gisa zuzenean.
Zure postala nere eskutan
dardarka hasi denean,
nahiz pena izan barnean,
ez nengon etsipenean.
Barru-barruan gordeko zaitut
nere oroitzapenean,
leihora irten ta Ernio gaina
elurtuta dagonean. (bis)

Ze usain du bertso horrek? 1989ko finalekoa. Final hartan bertso handia litzateke. Horixe zen 1989ko edo 1993ko finaletan egin behar zena: bakarkako gaiek proposatzen zuten fikziozko drametan guztiok espero genuen lamentua txukun egin. Alegia, bertsolari gehienek arrantzale erretiratuaren larruan egin zutena: “azken malkoak ixuri itsasoari begira”, formulazio-indar gehixeago edo gutxixeagorekin. 1989an gailur zena baliabide errezeroa jotzea izan zen Andonirentzat 2001ean. Nire aurreko entzulea 1989ko entzulea izaki, bi besoak gora jaso zituen, Egañak poesiaren gailurra jo bailuen.

Gai berean Maialenek egindakoak erakusten du txapelketa honen ekarpena:

Kaixo Maialen: zer moduz?
Oroimena daukat zugan,
presente zauzkadalako
nere mendi abenturan.
Zorionean gabiltza

mendiarekin loturan;
badakizu, beti gisa,
nahi ta ezinaren mugan.
Makaluko gailur horrek
gu jartzen gaitu liluran;
etzirako egongo gera
gailurrarekin joskuran.
Har zazu muxu bero bat,
jarri konfiantza gugan.
Zein bero zen muxua ta
nik zeinen hotz hartu dudan!

Bertso honetan kontua ez da azken esaldian egoki formulatutako negarra egiteko bidea prestatzea soilik. Maialen istorioaren barruan parte hartzen saiatzen da, egoera eraikitzen. Egoerak eraikitzen jardun zuen ia egun osoan. Horretarako bertsoaren dominio aparta behar du, baina eta irudimena, eta bertsoan hori egin daitekeela sinestea. Horra aurreko hamarkadako txapelketetatik aurrera emandako pausoa.

Forma pausoa ala eduki pausoa? Ford Fiesta gorritik gogoratzen omen du Andonik eztabaida hura, edukian ala forman eman behar ote genituen aurrerapausorik behinenak. Geroztik ohartu gara biak lotuta daudela bertsoan ere. Baina ez beti txirikordan. Bat-bateko bertsoaren tontorra iristen ari ote den irudipena somatu nion finaleko bertsolari bati, Bertsozale Elkarteko Talde Eragilearen osteko arraultze-afari tarteka mamitsuetako batean. Nire ustez oraindik lurralde landugabe asko zegoela esanda, bai? begiratu zidan.

Baiezkoan nago, eta har daitzadan bi bertsook adibide. Alde dexentea dago batetik bestera: 1989ko eta 2001eko gailurren arteko aldea, gutxi gorabehera. Baina mamiaren azken geruzan, biek diote gauza bera. Gaiak, berez, dexente eman zezakeen. Gure gizarteko mirespen sortzaile modakoenetakoa dugu himalaismoa edo, oro har, top-abentura. Munduko toki ahalik eta birjinenetara joanez mendebaldeko sentsazio-gosea lideratzen dutenen goraipamenean bat egiten dute hedabideen, marka komertzialen, agintarien eta jende xehearen beharrek. Gai honen atzean dagoena (luxua, sentsazio gogorren beharra, toki birjinak desbirjintzearen paradoxa, publizitatea...) bazterreko pentsamendu kritikoaren korapilo adierazgarrienetako bat da. Egia da niretzat hainbat zirkunstantziagatik gogoetagai personala izan den gai honek, ez duela zertan izan bertsolari guztientzat. Baina gaiak mamia du, konplexua da, aberatsa, gure kontraesanei zirri egiteko aparta. Eta... forman ez, baina mamian bi bertsolariek 1989koa egin zuten: esan behar zena esan, “azken malkoak ixuri itsasoari begira”.

Adibide bat besterik ez da gai hau, baina esanguratsua. Plazetan ere sintomatikoa da eliteko abenturaren gaiak jasotzen duen tratamendu sentimental eta kontsensuala, juxtu gai *berri* horietan jokatzeko baita pentsamendu-gaitasuna, beste hainbat gaitan

(homosexualitatea...) iadanik politasunak agintzen baitu kritiko izatea, ze puntutaraino eta nola. Hortik aurrera jotzea beharbada asko eskatzea da bertsolariari, baina ni eskatzera ausartzen naiz nire mirespena eta esker ona merezi duten bertsolariari. Artisautza honetaz urteetan zehar nik egin dudan irudian behintzat, hain zuzen ere hori baita bertsolariaren paper bazterrekoa: begiratu propioak eskaintzea, politasun politikoetatik eta hedabide-herrixehe kontsentsuetatik haratago. Ez beti begiratu intelektual jasoak, baina begiratuak. Hori, jakina, bertsozintzari beste pauso bat eskatzea da, alde batetik betikoa, baina bestetik lurralde beti-berria: bertsolari-autorea, bertsolari pentsatzailea (ez dut pentsalaria esan), bertsolari ertzekoa.

Behar bada urrunegi joan naiz. Txapelketari behintzat asko eskatzea da, besteak beste epaimahaia ere ez dagoelako horretarako. Arazoa, egia esan, barneragokoa da: txapelketaren gaia eta bertsolari-autorearen gaia ez dira korda bereko hariak. Gogoeta, bigarrenetik zihoan gehiago: zenbateraino bertsolariak hedabide-herrixehe kontsentsuak esan-indarrez formulatu behar ditu eta zenbateraino kontsentsu horiei zirrika begiratu propioak eskaini? Zenbateraino da hedabideen guneko, herriaren baitako eta zenbateraino ertzeko? Bakoitzari darionetik erantzun beharreko galderak dira, eta hori ari gara jokatzeko bertsozintzaren jitea. Ez dago bertsolari guztiei soslai bera eskatzerik, ahotsen polifonia baita oholtza. Eta bertsolari bakoitzak ere ez du ahots bakarra izaten. Txarren txarrena, edonola ere, begiratu propioak bortxatzea, pentsalari izatera artifizialki jokatzeko, kritikotasuna pose bihurtzea. Lantzetik, benetakotasunetik eta sinesgarritasunetik egiteko kontuak dira horiek.

Ford Fiesta gorrian beste bidaiatxo bat egiteko gogoia nuen, lurralde berriei oldoztu, besteak beste neuk behar ditudan paisaiak marrazte aldera. Horrelako zerbait ote da Irazuren arrenkura ere, txapelketako teknifikaziotik haratago edukia aldarrikatu duenean? Egia esan, eskatu, nik txapelketari ez diot ezer eskatzen. Galdegin gabe ere, eman egin zidan nahikoa 2001eko abenduaren 16an.

GAIK JARTZEAREN KATRAMILAK

LAXARO AZKUNE - MANUEL OLANO³¹

1.- Zer dago gai baten atzean?

Gai batek alde asko bildu behar ditu berez ona izango bada. Berria, gaurkotasuna duena... izan behar du batetik eta bestetik, bertsolariaren mundu erreferentziala bilatu behar du. Horrezaz gain, derrigorra da entzuleak ere gaiaren gutxieneko ezaupidea izatea. Gaiak zer esana izan behar du, eta bertso iturria ireki behar dio bertsolariari. Edozein gai delarik, aurkezteko unea eta lekua ere egokiak izan behar dute. Bertsolaria motibatua behar du gaiak, eta bertsolariak gaiari heltzen dion bideak eta erak publikoarekin konektatu behar du. Eta azkenik, esaten asmatu behar du bertsolariak.

Gai berriak jarri behar direla esaten denean, jai dago gai berri hori entzuleek ezagutzen ez badute eta bertsolariak horretaz zer eta nola esan ez badaki. Nikolas Zeberioek beti esan izan dio gai berrien inguruan zerbait proposatzen duenari: "Hizketan zer esango huke heuk gai horretaz? Hizketan esan ezin bada bertsoan ez duk errazago izango!" Ez da aholku txarra gaiaren ahalbideak neurtzeko. Teknika mailako aurrerapenekin gertatzen zaigu hori sarritan. Pentsa noiztik dabilen gure artean internet, eta oraindik ere kostatzen da horrelako gai batek funtzionatzea. Hala ere, pixkanaka ari da sartzen, bertsolariak erabiltzen dutelako, entzule artean gero eta ezagunagoa delako, eta gero eta gehiago direlako horri buruz dauden informazioak eta ezaupideak.

Bestalde, zeinen zaila den bertsolarien mundu erreferentzialarekin asmatzea! Bakoitzak duen mundua du, baina jaialdietan-eta ikusten da bakoitzak zein aldetatik dituen alde onak eta zeinetatik herrenak. Estereotipoak ere sortzen dira sarritan bide horretan. Txapelketan ordea ez da horrelakorik, tokatzen zaionari heldu behar. Ez pentsa, ordea, beti kalterako izaten denik, gertatzen dira ustekabe ederrak.

Gaurkotasuna behar du, izan ere, hurbilean eta bero-bero dauden gaiak gehiago motibatzen dute bertsolaria eta arretatsuago jartzen entzulea. Betiko kontuak baldin badira, ez dute horrenbeste motibatzen ez bertsolaria eta ez entzulea ere.

Gai batek lantzeko era asko ditu, eta horretan ere asmatu egin behar da: sakontasuna nahi bada, bakarkakoa egokia da gaiaren alde bat landu nahi denean; bertsolariak motibatua egon behar du horretarako, eta txapelketa da garantia gehien duen plaza. Jaialdietan ez dira bakarkako gai sakonetarako baldintzarik onenak gertatzen beti: tokia, entzulea, ekitaldia, bertsolariaren momentuko baldintza pertsonalak, (pasa duen eguna, egin dituen saioak...). Begirune berezia eskatzen du kartzelako gaiak: denek kantatu behar dute, eta gai onaren baldintza guztiak betetzeaz gainera, bide bat baino gehiago ireki ditzakeena behar luke. Asmatzen oso zaila, bestalde, ahalegindu arren.

³¹ Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001-eko gai-jartzaile taldeko kideak.

Ofiziotan gai sakonak erabiltzen dira. Eta batzutan errazago ere bada zenbait gai erabiltzeko, ikuspegi bakarretik landu ordez, ofiziotakoak, gaiaren bi aldeak lantzeko aukera ematen baitu. Hamarreko handian edota txikian, sei puntuko edo neurri berezietan ere landu daitezke, baina aurkako ofizioak aurkitu behar dira, eta beti ez da erraza bi aldeak orekatzen, zer esana izanik ere, diskurtso ez erosoagoa izaten baitu beti batek. Gaiari arin heldu nahi bazaio eta ziriak sartu, tiroak bota nahi badira, neurri laburrak proposatu izan ditugu txapelketetan -koplak, zortziko txikia, puntukako ariketak...- egokienak direlakoan. Ez datoz denak ados, baina plazako ihardunak arrazoi ematen digu gehienetan.

Eta formulazioan, aurkezpenean, asmatu behar da. Behar duen informazioa, ez gehiago baina ezta gutxiago ere, eman behar da hitz egoki eta garbiz, batez ere bertsolariak baina baita entzuleek ere gaia lehen kolpean uler dezaten. Eta nork hasi erabaki behar da eta zuzen asmatu.

1.2.- Txapelketako gaiak

Txapelketako gaiak biltzerakoan, ardura hori duena gai ehizan dabil: etxean, kalean, irratian, telebistan, egunkarietan...Gaiak norberari zerbait esan behar dio hasteko. Ondoren, gaia izan daitekeenari forma eman behar zaio: ofiziotan, bakarka, puntuak... Gero, norberaren ustez balio duen materialak gainerako kideen oniritzia jaso behar du. Orduan sartzen da txapelketako gaien multzoan. Azkenik, saioak antolatzerakoan beste hainbat zailtasun gaingaitu beharko ditu: momentua, gai ugaritasuna, errepikapena, egokitasuna...

Gaiak izanik ere garrantzi nagusia, ofiziotako lanean, garrantzi berezia du bertsolari bakoitzak kantatu behar duen ofizioak eta beste ofizio-kidearekiko izan behar duen orekak. Bestetik, saioetan izango diren lanen arteko oreka ere zaindu beharra dago, fase bakoitzean lan berean aritu behar baitute bertsolari talde desberdinek. Eta kontuan hartu behar da saio bakoitza eta bertan gai desberdinek eman behar duten aniztasuna: ofizioetako pertsonaien ez errepikatzea... Hori dena behar du eta, gainera, gai onak behar dira, alferrik dira bestela beste saiakera guztiak. Beti ez da argi izaten, ordea, zein den gai ona. Gaia ona edo txarra bertsolariak egiten baitu. Gai-jartzaileontzat, lehen entzunak ematen duen inpresioak egiten du gaia on edo txar, frogatu ondoren, askotan, iritziak alda daitezke baina. Begiratu batean ematen duen baino maratila gehiago ditu bada gai-jartze lanak, txapelketan eta edozein saiotan, egoki egin nahi bada.

Gai aldetik, txapelketak, gizartean pil-pilean daudenak jaso behar dituela uste dugu, gizartean gertatzen denaren isla izan behar duela alegia. Eta horretan saiatzen gara. Esandakoaren haritik, aurtengo txapelketan hainbat gai soma daitezke: Afganistango gerra, Euskal Herriko egoera, euroa, Himalaia, etorkinak, Geskartera, euskara, droga, pobrezia, pornografia, prostituzioa....

Modu ezberdinean jarri izan ditugu gai hauek, puntu moduan, ofiziotan, bakarka, kartzelan... Adibide modura, hara hemen "euskal gatazka"ren inguruan zenbat lan eta nola jarri ditugun:

PUNTUAK

- Irlandan hainbat urrats/ bakearen bila
- Piztu ote liteke/ itxaropen printza?
- Erabaki ahalmena / eskatzen duguna
(*Legazpi, 2001-10-27*)

- Berriro hemen dugu/ Garzon ate joka
- Presoei laguntzea/ delitua ote?
- Martxa honetan laster / denok kartzelara
(*Lesaka, 2001-11-03*)

- Aberri aztoratu / baten bizi gara
- Arrazoiak indarrrik / ez duen tokian
- Atzo lagunak ginen / ta gaur berriz etsai
(*Elorrio, 2001-11-04*)

- Aberria helburu / guztion ahotan
- Eztabaida gehiegi / adostasun gutxi
- Aterako al gara / zulotik sekula
(*Azpeitia, 2001-11-24*)

- Gorrotoaren suak / hartu du indarra
- Gerra urrunean ta / gerra hurbilean
- Pertsona pertsonaren / etsai handiena
- Laguna ez den hura / etsaia ote da?
(*Donostia, 2001-12-16*)

OFIZIOTAN:

- Aita-semeak zarete. B aita, aspaldi etorri zen Andaluziatik Euskal Herrira lan bila. Gaur A semeari esan dizu berriz itzuli nahi duela Andaluziara, ez delako gustura bizi hemen. (*Hendaia, 2001-11-25*)

- Bizilagunak zarete, joan den larunbatean manifestaziora joan zineten biok, A Beasaingo manifestaziora eta B Baionakora. Aste bete pasa da eta hizketan hasi zarete. (*Bilbo, 2001-02-01*)

- Zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. A, ENA edo Euskal Nortasun Agiria zara eta B, Espainiako Nortasun Agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran. (*Donostia, 2001-12-16*)
- Euskal Herrian aspalditxotik bizi dugun gatazka honetan seme bana galdu duzue biok. Zuk A, seme iheslaria galdu zenuen. B-k seme ertzaina. Hilerritik etxera bidean hizketan hasi zarete. (*Donostia, 2001-12-16*)

KARTZELA

- Aturritik Ebrora herri bat badela Belodromoa izan liteke lekuko. Urte asko daramatzazu zuk nahi baino tristura gehiago ikusiz. Zure ondorengoentzat beste zerbait nahi zenuke. (*Donostia, 2001-12-16*)

3.- Gaien garapena: arazoak eta ñabardurak

Egia da aurreko txapelketan ez genuela Euskal Herriko egoera politikoa bere gordintasunean azaldu, nolabait saihestu egin genuen, hartean, zatiketa ekar zezakeela eta bertsolarientzat ariketa arriskutsu edo ez eroso iruditzen zitzaigun-eta. Aurten, esan liteke gai-jartzaile taldeak garbi zuela gaien artean honek ere bere lekua izan behar zuela.

Euskal gatazkaren gaia era askotara jar daiteke, eta edonor ohartuko da Txapelketa honetan era desberdinetan jarri izan dela: batzutan zeharka eta beste batzutan zuzenean. Hala ere zuzeneko horietan izan ditugu gure kezka. "Bi manifestazio"en gaia esate baterako (*Bilbo, 2001-12-01*): gertatu eta aste betera, bizilagunak jarri genituen bi manifestaziotan. Kezka genuen gaiak zer garapen izan zezakeen, baina emaitzarekin pozik gelditu ginen. Iturriagaren aldeak bazuen entzuleren batzuk ez onartzearen arriskua, Maiarenak, entzuleren batzuk ez onartzearena ezezik, legez kanpoko mezuarena ere bazuen. Tokatu zirenak tokatzeak eta beren iritzi politikoa nahiko ezagun izateak erraztu ote zuen paperean aritzeko ariketa? Finalean, kartzelako gaiari ari zelarik, izan ziren Egañaren bertsoa paperean, ofizio gisan, ulertu ez zuten entzule batzuen protestak. Norbere mezua eta paperean esandakoa ez baitu mundu guztiak ulertzen, ez onartzen, bere iritziaren aurkakoa denean. Arrisku hori egon zitekeelakoan geunden, baina, aldi berean, txapelketa honetan sumatzen genuen giroa helduago zegoelakoan eta gai hori plazara zitekeelakoan.

Komentarioak hizpide, Txapelketa honetan izan diren zenbait gairen ingurukoak bota nahi ditugu hemen gaiekin batera:

3.1.- Finaleko "seme bana galdu duzue" gaiak buruhauste asko eman zigun. Argi genuen, gaia jartzeko momentu egokia finalean izan zitekeela, eta ofiziotan jartzekotan buruz buru gelditzen ziren bientzat. Bestalde, biktima paperean jartzea izan zitekeen biderik egokiena. Biktimak nola eta non jarri? Hildakoak, abertzale mundukoak izan

zitezkeen biak, ala abertzale eta ez abertzale bat aurrez aurre. Abertzaleetara mugatzea erabaki genuen entzuleen sentimendutik hurbilena zelakoan. Buruan erabili genuen kantatu behar zutenak bi ama, bi alargun, bi seme/alaba... jarri ala ez. Azkenik, "seme bana galdu duzue" izan zen gure formula. Berek erabaki zezatela. Hala egin zuen Maialenek, "ni behin ama izana, eta zu ere ama" erabaki baitzuen. Lekuren batean kokatu behar genituen kanturako, eta hilerritik etxera bidean jarri genituen hizketan. Proposamenen bertan zegoen bada, nolabait, hurbiltasuna eta ez aurkakotasuna.

3.2.- "Zu A, Bilboko langile auzo batean Caritas-ek drogazaleentzat ireki duen zentroko arduraduna zara. B, auzo horretako auzo-elkarteko ordezkaria." (*Donostia, 2001-12-16*). Oso eguneko gaia zen hau, eta jarri nahi genuen. Bi albiste zeuden argi: Caritas-ek zentroa ireki zuela eta auzotarrek ez zutela onartzen. Nola jarri bertsoarako eta biek zer esana edukitzeko eran. Protestaren ikuspuntua ez genuen bertsolarietzat lan erraza aurreikusten. Horregatik jarri genituen zenbait xehetasun. Bilboko langile auzoa, horrexetarako zegoen. Gizarte honetako zenbait jokabideren faltsukeria aurki zezakeen B paperean hitz egin behar zuenak, eta aurkitu zuen.

3.3.- "Sei urteko semearekin batera bizi zaren ama ezkongabea zara. Gaur semea, ikastolan "aita, ama eta ni" deritzan marraskia egin duela esanez datorkizu." (*Donostia, 2001-12-16*). Gai hau, hasieran, ama alarguna bezala genuen. Gaiari, taldeko norbaitek ikusi zion jarri genuen bidea, eta taldeak onartu. Gai honetan, gure ideia "ama soltera" zen, baina bertsolariak ezkongabearen bideari heldu zion.

3.4.- Ofiziotako gai batzutan, bi bertsolariak zailtasun desberdineko egoeran ez ote ditugun jarri da gure zalantza. Praktikak, bertsolariak ez dutela egoera bakoitzean sartzeko arazorik izan erakutsi digu, baina bego gure kezka. Hauek dira horietako batzuk:

- "Bikotea zarete, A emaztea eta B senarra. B oso okupatuta bizi da nonbait, goizean bilera, eguerdian bestea, arratsaldean bi... Iluntzean etxera etorri denean, zuk A, eguneko bilerarik garrantzitsuena antolatu diozu, bion artekoa." (*Donostia, 2001-12-16*)
- "40 urte jiratuta dituzue biok A eta B. 20 urte zenituztenean herriaren alde ari zinetelakoan saltsa guztietako perrexila zineten. Gaur A-k ibilera hauek utzita dauzkazu albora. B-k lehengoan jarraitzen du." (*Donostia, 2001-12-16*)
- "A eta B, bi gazte zarete, herrigintzan lan asko egindakoak. Orain bioi funtzionario izateko aukera etorri zaizue. Zuk A, aukeraz baliatzea pentsatu duzu. B-ri ez zaio burutik pasa ere egiten hori." (*Markina, 2001-11-18*)

3.5.- Gaizki ulertzeak gertatu dira: "Zu A, dantza irakaslea zara. Gaur B-ren alabak, 5etatik 6etara zuen bere ikastordua. Gaueko 11etan etorri da A bere haurraren bila."(*Legazpi*, 2001-10-27) Gure ustez argi zegoen gurasoa zela zabarkerian zebilena baina ez genuen nonbait gaian adierazi eta zalantzak ez dira bertsoarako onak. Gehiegi ez luzatzearren askotan laburtzera jotzen dugu, baina falta zuen nonbait "gaueko 11etan etorri da 6etan etorri ordez" edo antzeko zerbait.

3.6.- Puntu bat errepikatu dugu, oso osorik, eta geure arteko inor ohartu gabe. Dirudenez beste inor ere ez da ohartu izango, ez bertsolari eta ez kritikari, ez baitu inork deus esan. Geu ere, aztertzen hasi eta elkarren ondoan jarri ez bagenu ez ginatekeen ohartuko. Donibane Garazin Fredi Paiak kantatu zuen 3. puntua "Pertsona pertsonaren / etsai handiena" izan zen, eta Maialen Lujanbiori, oharkabean, puntu berbera jarri genion finalean, hirugarrena. *Mea culpa* egin beharra dago ba.

3.7.- Amurrion, hamarreko txikian Zelaia eta Goikoetxeari jarritako gaia: "A eta B Himalaian sarritan izandako bi mendizale zarete. Azken gertakarien ostean, zuk A, lehen adina maite duzu Himalaia. B ez da iritzi berekoa.". Garai hartan zen istripuz hildako mendizaleen albiste. Askotan izaten dugun eztabaida izan genuen: gaia oso ona eta finalerako uzteko modukoa zen gure ustez, baina, bestalde, gaurkotasuna gal zezaken finalerako utzita. Uste hori nagusitu eta Amurrion jarri egin genuen.

3.8.- Iturriagak eta Colinak finalean egindako saioa, zortziko txikian: "Zuri A, amodioa era tradizionalan egitea gustatzen zaizu. B-ri ordea, ohiko ez diren leku eta egoeretan.". Azken orduan sartutako aldaketa izan zen. Beste gai bat zegoen pentsatuta: "Zu A zinegilea zara. Filme bat egiteko dirulaguntzak lortu ondoren kasting-a egiten hasi zara protagonista nagusia aukeratzeko. B, zure emaztea aurkeztu zaizu aktore ezagunen artean.". Finalean bertan, ordea, tematika aldetik antzekotasuna zuten beste batzuk bazirela iruditu zitzaigun: 8ko handian, "Elkarrekin bizi zareten neska mutilak..."; 8ko txikian, "Asteburuan diskotekan neska-mutilak..."; 10eko txikian, "Senar-emazteak. Senarra oso okupatuta..."; puntuka, "Lehenengo zita jarri duzuen bikotea...". Horregatik aldatu genuen.

3.9.- Kamiltxo artzarena: "Sarritan egiten diezu errieta zure seme eta errainari elkarrekin erdaraz aritzen direlako. Gaur, euren haurrari Kamiltxo, artza euskalduna, oparitu dietela ikusi duzu."(*Donostia*, 2001-12-16). Eguntasuna zuen gaia zen eta jarri nahi genuen. Zalantzak izan genituen ordea ofiziotan ala bakarka; bakarka gaia emanda ala puntuak jarri gaiaren inguruan. Ofiziotan jar zitekeen, aitona eta semearen edo errainaren artean. Azkenik bakarkako gaia gelditu zen.

3.10.- Etxarri Aranatzen, Arzallus eta Lujanbiok egindako saioa : "Zu A, kartzelatik ateratzera zoazela, B preso zainak, urteetan eman ez zizkizuten amodiozko gutunak eman dizkizu.". Bi edo hiru aldiz aldatu genuen gaia. Gutunak izan, soilik, edo amodiozko gutunak izan. Ez baita berdin. Gutunak, edozeinenak izan daitezke: etxeko,

adiskide... Amodiozko gutunek, bikote baten arteko maitasun harremana markatzen dute. Preso-zainari heldu leku gehiago ematen geniolakoan, horrela jarri genuen.

3.11.- Maia eta Colinak puntuka egindako saioa: "Zu A-ren ama eta zu B-ren ama zarete. Zuen etxeoak dira azkenik txapela jokatzeko gelditu diren biak. Nork irabaziko ote du?" Bakoitza bere amaren paperean jarri nahi genituen, baina gaia ematerakoan nahasteko arriskua ikusten genuen. Zaila egin zitzaigun erabakia, bertsolariak bezala entzuleak ere nahasteko arriskua ikusten baigenuen. Proposatutako era aurkitu genuen, baina ongi kostata.

4.- Sexu markaren gorabehera

Ez luke hala behar, baina egia da buruhauste batzuk sortzen dizkigula sexu markaren auziak. Askotan jarri izan ditugu bertsolari mutilak, ama, emaztea, amona, alaba edo ahizparen paperean eta inolako arazorik gabe kantatu dute. Alderantzizko kasuetan ere berdin funtzionatzen du, neska bat mutilaren paperean. Gauzak gehiago nahasten dira harreman, bikote eta amodio kontuak direnean. Norbere izaeratik hurbilen den paperetik hobeto arituko den ustetan, gaiaren planteamenduan neska/mutila, ama/aita, amona/aitona... aukera jarri dugu. Honek, zaildu egiten du aurkezlearen lana, bat-batean egin behar baitu aurkezpena eta zehaztapena. Hau dela-eta, behin baino gehiagotan, nahasteren bat ere sortu izan zaio aurkezle bat baino gehiagori. Txapelketa honetan izan dira zer esana eman duten era honetako gaiak. Horietako batzuk nabarmenduz emango diogu amaiera lan honi:

4.1.- "Zuk Maialen, asteburuan diskotekan mutil batekin dantzan aritu ondoren, zeharo lotsatuta bukatu zenuen. Zure dantza maila hobetzeko asmoz, dantza akademiara joatea erabaki duzu. Han atea ireki eta Jon, igandeko mutil bera irakasle." (*Donostia, 2001-12-16*). Gaiak agintzen zuen bezala, tokatu ziren bezala, jarri zituen gai-emaileak. Hala ere, jendeak ez ditu oso erraz onartzen aldaketak. Estereotipoak funtzionatu egiten du. Zenbaitek uste izan du Maiak gaia gaizki hartu zuela. Kontua da, entzuleek uste zutela dantzan aldrebesa Maiak izan behar zuela eta ez Lujanbiok, gaiak horrela esan arren. Horregatik gaizki ulertzearen irudipena.

4.2.- Bi amaren gaia: "Euskal Herrian aspaldixotik bizi dugun gatazka honetan seme bana galdu duzue biok. Zuk Maialen, seme iheslaria galdu zenuen. Andonik seme ertzaina. Hilerritik etxera bidean hizketan hasi zarete." (*Donostia, 2001-12-16*). Gai hau, bi amaren gaia bezala gelditu da, eta ez dugu gaiaren formulazioan amarik aipatu propio. Baina Maialenek lehen bertsoan kantatu zuen "ni behin ama izana, eta zu ere ama", horrela markatu zuen gaia, eta Andonik bide horixe onartu zuen errazena zitzaiolako eta, agian, egokiena ere bai. Gaia, beraz, bi amarena izango da Maialenek erabaki zuelako.

4.3.- "Nerea eta Mikel, senar-emazteak zarete. Mikel emazteak bularreko minbizia du.

Medikuek bularra kentzea proposatu arren ez du bularra galdu nahi."(*Tolosa, 2001-12-02*). Ez dugu uste txapelketan besterik gertatu denik, baina Tolosan hala gertatu zen, eta gaiak berez alderantziz behar zuela iruditu arren, halaxe zegoen markatua, eta aurkezleak halaxe esan behar izan zuen. Bertsolarien katurako ordena aldatu ezean ezin ezer egin. Hori egiten ez dugunez, katurako ordena aldatu, hala joan zen.

4.4.- "Zure ustez oso guraso aurrerakoiak eta jatorrak zenituen. Poz-pozik erran diezu neska/mutil beltzaran batez maitemindu zarela. Gurasoen aurpegiak erabat aldatu dira berri hori eman diezunean." (*Hendaia, 2001-11-25*). Zaratarik gehien atera duen gaia izango da hau. Gizonezkoei "neska beltzaran batez", eta emakumezko bakarrari, Maialen Lujanbiori, "mutil beltzaran batez" esan zien gai-emaileak. Halaxe ematea erabakita zegoen aurretik, noski. Guk gaia arrazakeriaren aldetik jarri nahi genuen, eta ez homosexual /heterosexual aldetik. Beharbada, irtenbiderik onena generorik ez esatea zen, eta bertsolari bakoitzak aukera zezala. Gai horretan egin zitekeen hori.

Atzo eta gaurko Txapelketak

IÑAKI MURUA

Duela hogeitun urte ekion nion Txapelketa Nagusiko ibilbideari. Denak ziren ni adina eta asko ni baino gehiago. Orduko koadrilaz oroitzean Olalde, Otaño, Joxe Ramon Etxeberria, Ziarda, Telleria, Peña, Mendizabal, Lizaso, Begiristain, Attola, Loidisaletxe, Matxinandiarena... talde sentipena dut gogoan. Ikasiz ondo pasatzeko grina inor, inor baino gehiago izatekoa baino.

Horregatik, min eman zigun exkaxenak aukerarik gabe uztea zela iruditzen zitzaigun proposamen hark, hau da, nobatoekin aurre sailkapena egitea baina entzulerik gabe eta epaileen aurrean. Edozein azterketa egitearen pare; urduritasuna eta nekea baina, sailkatzea lortu ezik, sufrimendua bizkarrera beste inolako satisfaziorik gabe. Nire ustez, ordea, bertsoan hasi berri denak, aurreneko, egiten duen ahalegin eta bertso bakoitzeko entzuleen babesa ezinbestekoa du konfiantza hartzeko eta gehiago saia dadin pizgarri gisara. Horri eman genion, guk antolatu genuen txapelketan, lehentasuna eta ez erosotasun edo ekonomia irizpideei.

Hortik hasi genuen gure txapelketen ibilbidea, askok hasi orduko amaitu zutena eta gehienok -tematiak izan!- etsi gabe jarraitu duguna.

1982koan Telleria eta Mendizabalek aurrera pauso handia eman zuten, Peña eta Lizasok denok amesten genuen gailurra zapaltzea (zapaldu, zapaldu, Lizasok bakarrik egingo zuen...) lortu zutelarik. Laukote horrekin batera pausoa eman ez izanak pena handia eman zidan, izan ere, saio mordoa elkarrekin egin urtean zehar eta, hasi berritan bereziki, antolatzaileek plazako saioetarako aukeratzeko oso aintzakotzat hartzen duten rankinean atzera gelditzea, tristeza izan zen niretzat.

Baina, dena berria eta esperimendatzea izanik, etsitzeko goizegi zen artean eta neure burua pelotoitik ihes egindakoen taldetxoan ez ikusteak, indar berriz ekinarazi zidan: “ni banauk horiek haina, Txapelketan ez diat neurerik eman baina, plazan erakutsiko diat” nioen neurekiko. Denek izan ez duten zortea izan nuen eta plazak aukera berriak eman zizkidan. Zortekoa izan nonbait!

Lau urte geroago, antolaketan egundoko errebolta gertatu ondoren, behetik gora pausoka gailurrera iritsi nintzen. Ez dago nire bizitzan hura baino esperientzia politagorik: konfiantza hartzeak saiatzeko gogoia ematen zidan; zinema eta pilotalekuak gainezka ikusteak egundokoa zen; bertso on edo onxamar bakoitzeko harrotasun puntu bat sentitzen nuen. Gainera, Txapelketa hura geuk antolatu genuen, geurea zen eta ardurarekin batera entzule kopuru izugarriak, medioetan izaten ari ginen espazioak eta telebistak ekarritako aire freskoak, ametsezko lainoetan hegan ibilarazten zigun.

Egia da lau urte lehenago neuk bizi izandako esperientzia mikatz hura ez neukala ahazturik eta, neu aurrera nindoala ikusteak eta bizitzeak sortzen zidan goxoa, neurri handian, itzaltzen zidala atzean geratuei begiratzeak. Haien begirada inork baino hobeto irakurtzen nuen; banekien lagunen bihotz minduaren sentipenaren berri baina, neu egoera berean nengoela inor gutxiren arrazoiek kontsolatzen ninduten bezala, neuk ere ezer gutxi egiten nuela iruditzen zitzaidan edo, inor gutxiri ematen niola benetako indarra eta bultzada aurrera egin zezan. Horrelakoetan babes ikaragarria izaten da gutxien uste duzunaren eskutitza edo bertsolari kontsagratuaren iritzia eta bizkarreko sentitua.

Dena den, emoziozko mozkorraldi honetan txapela Belodromoak zeukan. Hura lepo beteta ikusteak –bertso munduan lehen aldiz ikusi ahal izan genuena- edonori dantzan jartzen zizkion praka barrenak eta gainerakoak. Han bildu zen emozioa, han zegoen indarra, hura zen mauka mezua bota nahi zuenarentzat eta zer botea zeukanarentzat. Ez dut sekula ahaztuko! Mundu berri bat ireki zigun, han gineno eta bertsolaritzari berari ere bai.

Orduan geuk egin genuena eta orain geuri gertatu zaiguna antzekoak izango dira, nahiz eta oraingoa ez dudan neure larruan erabat bizitu. Final hartan -zer den gora egin nahia eta gazte izatea!- zortzikotean ginen bost gazteenok taldean jokatu genuela dirudi. Guretzat Amuriza, bertsoa ikasteko moduan begi aurrean jarri zigun maisua zen eta da. Lopategi, plazetako langile onenetakoa eta guretzat ispilu, beste batzuen artean eta Jon Enbeita, beti berea ematen zuena txapelketetan. Gu, berriz, haien ondoan ezer askorik ez. Baina kantuan hasi ginenean, barruak hala aginduta edo subkontzientean hori idatzirik geneukalako, denok batera bezala eraso genien beteranoei. Gutako bakoitzarekin tokatzen zitzaionari egurra zetorkion eta, nik esango nuke harro geundela denon artean gain hartzen genielako. Ez zen inolaz ere aurrez hitz egindako ezer, ez, denok nahi genuen teoriar hobeak ziren haien baino hobeto aritu, horrek egiten baikintuen aurrean geneuzkan entzuleentzat bertsolari eta geuretzat ere bai. Egun antzeko zerbait gertatzen zaio Egañari. Hiru txapel janzteak, bera jartzen du beste guztien jomugan baina badira diferentziak, adibidez: Egaña eta besteen artean dagoen urteen aldea ez da gu eta Lopategi edo Amurizaren artekoa haina, orokorrean; Andoni eta finalista denak, bat ezik, azken urteetan elkarrekin dabilta saioz saio.

Baina kontaktarekin aurrera jarraituz, pozaren gorena Xebaxtian txapeldun zela jakitean sentitu genuen; geuk irabaztea bezala zen, agian hainbeste ere ez baina... Berak sinestarazi zigun gutako norbait izan gintezkeela txapeldun egunen batean eta boskote gazte hartatik hiruk txapela jantzi dute.

Ondorengo lau urteetan plazako saiok asko ugaritu zitzaizkidan eta edonon ongi kantatzen asmatzen hasi nintzela uste dut. Beste konfiantza bat sumatu nuen neuregan eta, zerbait banintzela sinistra iritsi nintzen.

1989an ordea, nahiz eta sailkapen saioetan oso pozik aritu eta, berez, finalerako sailkatzea egundoko lorpena den arren, nik uste, hark markatu ninduela dezente. Han bizi izandakoa hain izan zen nahi eta ezinaren borroka, anestesiatuta nengoen sentazioa, ongi esnatu gabekoarena, izuti bihurtu ninduela. Egia da gure seme-alabak 86 eta 89an jaiok dira eta biak sailkapen fasean; alabak sortu berritan izan zuen ustekabeko eritasun hark ordea, kontzentrazioa galarazten zidan: onik aterako ote da? elbarri geratuko? . Hain ume ttikia tuboz eta orratzez beteta ikusteak, saioa baldintzatu zidan. Gaiak entzuten nituen baina haren argazkia zetorkidan burura, garbi, garbi. Nekea, lotsa, kezka... hainbeste jende aurrean eta egiten ari nintzana besterik ezin eginal Mingarria zen eta oraindik ere, orduko oroitzapena, hala da. Dena den, benetan eskertzen diot Txueka sendagileari, bazkalondoan Belodromoan sartu eta, nire zain egon izana, alaba orduantxe ikusi zuela eta ongi zegoela esateko. Poztu ninduen eta arinago gertatu zitzaidan arratsa, nahiz eta kantuan aldaketa nabarmenik ez egin.

1993. Gainbehera Eibarko saioan hasi zen. Urduri joan nintzen baina boxeo kontuak gehiegi ez menperatzeak edo une garrantzitsuan detaileak ez jaso izanak, lana behar bezala bete gabeko sentazioa gaineratu zidan. Hala ere, buruan hori izan eta gero, Andonik *jaiotzez itsua izanik bere maitearen aurpegia ukitzen ari zelarik* botatako hiru bertsoak entzun ondoren *telebistari* kantatzera irteteko barrua behar zen. Halako bertsoak entzun ondoren hain gai erabilia eta ezaguna jasotzeak, ez jendearengan eta ez epaileengan eraginik lortzeko moduko arrazoirik sortuko ez duzun sentazioa biziartzen dizu. Geroago entzun diot saio hartan kantuan zen bertsolari bati, Andonirenak entzun eta “orain Murua bakarka” aditzean, barruak zer buelta eman zion; zein zaila iruditzen zitzaion egoera hartan hasi beharra.

Geroztik jokaturako txapelketez ez dut hain gauza zehatzik gogoan. Hasi aurretik finalera iristea ezinezkoa zela usteta hasten nintzelakoan nago. Zer egin dezaket aurrean aurreko txapelketetan egin ez dudarik hobeto prestatu eta aurrera egiteko? Zer neure buruarekin neukan konfiantza galdua berreskuratzeko? Hori zen nire hausnarketa.

Laguntza dena neukan ingurukoengandik baina ez da hori aski, norberak sinistu behar du eta prestaketa horrela bakarrik egiten da garantiaz. Gero, lehen txapelketetan izaten duzun berritasuna eta superatzeko grinarik ere ez dago, denbora joan ahala epeltzen joaten da hori ere: errimak lantzen hasi eta lehendik ongi dakizun eta erabiltzen duzun zerbait dela ematen du, ezin duzu hitz berri era gustagarririk aurkitu, gutxi batzuk izan ezik. Doinuak, denak ez baina ia, ia denak ezagutzen dituzu eta erabili ere bai. Gai mordoa erabili duzu eta kantatzeko benetako motibazioa sortzen dizuten gero eta gai gutxiago suertatzen zaizu...ene, zaila benetan horrela aritzea!

Gaiak ere badute eragina, noski baietz, baina norbere buruan dago dena. Hasieran, gai onak dira denak, batzuk eskasagoak baina denak bertsoarako modukoak. Gero, gaiak hasten dira agortzen eta aurrez saioaren batean esandako arrazoiak darabiltzazula beti iruditzen zaizu. Eta hori nik memoria txarra dudalarik, zenbaitek bezalakoa izan banu!

Kontua da, ilusioa eta arrazoi berriak sortzeko segurtasuna kentzen dizula detaile ttiki multzo horien pilatzeak. Nik egundoko inbidia diet jartzen dieten gaia jarri beti gogo bera adierazten duten bertsolariei.

Noski, denbora guzti honetan gaiak, gaien esparruak eta formulatzeko erak ere aldaketak izan dituzte. 82an nekazal ingurukoak ziren egoerak, aurrez bertsolariek erabiltzen zituzten hiztegi eta esaerek lekua hartuta zeukaten gure buru gazteetan eta haiek esparru edo hiztegi berrietaraztea lortzen genuen. Orain ordea -nahiz eta gai ezagunak izan edo bertsoak kantatzeko lain menperatu behintzat- edo formulazioak beti gaiak kontraesku datozkizun irudipena pizten dizu edo lagunak zurea ez den orijinaltasunetik heltzen die edo... jokoak kanpo geratzen zara askotan. Horregatik izango da, orain, libreko saioetan eta afalostekoetan gehiago gozatzea, neronek nahi dudana ikuspegitik lantzeko aukera daukadalako eta ez nagoelako ikuspegi jakin baten ildoan ibiltzera behartuta. Neu naizena edo gustukoaren dudana adierazteko aukera ematen didalako: tonuan, sentimenduan, kolorean, erreferentzietan...

Amaitzeko, gaijartzaileek –txapelketan dabiltzanek behintzat- normalean lan ona egiten dute eta bertsolariok gara gaia on edo txar bihurtzen dugunak. Oso lan zaila da gaia ongi ulertzeko moduan ematea zuk erantsi nahi dizkiozun hesi eta ñabardurak lehen kolpean bertsolariak barnera ditzen.

Epaileei buruz ere antzeko zerbait esango nuke: bertsoak norberari sortzen dizkion emozio, nobedade, harridura (ahotsa, adierazteko goxotasuna / gordintasuna, kantaera...) eta gainerakoen arabera puntuatzen du bakoitzak; bakoitzari bertso bat edo bestea gustatuko zaio eta ez genuke harritu behar epaile bat eta bestearen artean bertso berean puntu alde handia egoteaz, ezta bertsolari bat eta bestea puntuatzerakoan egon daitezkeen aldeez ere. Ez al ditu bada bakoitzak bere gustuak? Hanka sartzeak egingo zituzten eta egingo dituzte baina horrek ez dauka bueltarik. Bertso bera denek berdin neurtzen duten epaimahaia ez da entzule denen gustukoa izango ezta bertsolari denena ere. Hori gertatzen den egunean bertsolaritza ere globalizatu zaigun/dugun seinale.

DOINUAK

BERTSO DOINUAK TXAPELKETAN

1.- Azalpenak

Garaian garaiko bertso gintzaren osasuna aztertzeko radiografia ona izan ohi da txapelketa eta guk doinuei begirada bat emango diegu, aspalditxoko usadioa jarraituz. Bertsolariek erabili dituzten doinu guztien zerrenda osoa, eta bakoitza zenbat aldiz, hor ikus dezakezue, neurriaren arabera izendaturik. Horrela, aurreko txapelketekin alderatu nahi izan ezker, begi bistan gelditzen zaigu zenbat eta zeintzu diren gaur egun indarrean dabiltzanak, zein diren atseginenak bertsoari zuzentzat, zein bazterrerara geldituak, eta berdin sekula ibili gabeko doinu berriak

Txapelketa honek doinu arloan ekarri digunari buruz orokorrean esan genezake, aurrekoetan nabaritu ziren joerek jarraipena izan dutela aurtengoan. 80ko hamarkadan eman zen gorakada ikusgarriak, bai doinu berrikuntzan eta baita ugaritasunean ere oro har apaldu edo beherako abiada daramala 90eko hamarkada ezker, zortziko txiki eta handietan behintzat. Horretarako azken txapelketetako zenbaki hotzek adieraziko digute garbier doinuen dantza nondik nora dabilen. Doinu arloan jazten joan ala Berezien atal hori gero eta apaldu gehiagotan zehaztea komeni zaigu eta hala dator sailkaturik azken bi txapelketetako liburu etako zerrendetan, baina lauki honetan, ikuspegi argiago geldi dadin, neurri luzeko atala bakarrik atera dugu aparte, beste gainontzeko guztiak berezien sailean sartuz. Hona hemen, bertsoak zein doinutan kantatu ziren adierazten den bertso txapelketa nagusietako liburu etan aztertu ondoren egin dugun laukia.

	1967	80	82	86	89	93	97	01
8ko txikia	5	8	23	48	42	24	12	18
10eko txikia	-	2	7	12	17	8	12	14
8ko handia	13	12	22	48	60	38	31	23
10eko handia	1	5	4	10	10	11	11	14
Neurri luzekoak	-	-	2	3	6	11	15	16
Bereziak	1	9	15	15	21	17	24	18
Guztira	<u>20</u>	<u>36</u>	<u>73</u>	<u>136</u>	<u>156</u>	<u>109</u>	<u>105</u>	<u>103</u>
Berriak	3	8	27	32	31	20	8(20)	2(13)

Kantitate osoari begira aipatzen genuen beherakada hori zortziko txiki handietan nabari da, baina hamarrek txiki eta batez ere handian goraka doa doinu erabilpena eta zer esanik ez neurri luzeko doinuetan eta baita neurri berezietakoan ere. Xabier Leteren *babanera (Berrito itzuliko balitz)* esan genezake izan dela doinu izarra aurtengo honetan, kantari beraren neurri luzera egokitutako *Haiçea dator ifarraldetik* izenekoarekin batera, baina erreparatzekoa da hauen ondoren ze erabilpen zabala izan duten neurri luzeko

beste doinu askok ere, ia klasiko bilakatu zaizkigunak. *Naufraoarena (Itsaso hori dago zatarra)*, *Munduan libre bizirik izatea*, *Leiho ertzetik entzun dezaket*, *Ligoi bizirik ez da izaten* eta abar. Neurri berezikoetan *Iparragirre abila dela* da nabarmenena aurten ere. Hamarreko txiki-handien sailetan Otañoren bertsoz ezagutzen ditugun biak –*Mutil koxkor bat*, *Lagundurikan denoi* bikotea - eta Amurizaren beste biak –*Espanian behera*, *Aita izena* - dabilta nagusi. Aipatzekoa da bestalde sei puntuko motzean egindako saio guzti guztietan bertsolariak beste bizpahiru doinu eskura izan arren, *Aizak bi mutil mainontzi* doinuaz bakarrik baliatu direla

Santa Barbara zure bizirik izeneko doinua bi sailetan dator, 8ko handian eta 10ekoan, bietan erabili baitute bertsolariak. Zer nahasketa da hau? galde dezake norbaitek. *Saltarina da txapelketa* eta izeneko 10eko handien sailean ikusiko duzu orain baina 97 txapelketan 8koan ageri da. Ez da harritzekoa doinu bat luzatu ala moztu bere komenentzira egiten badu bertsolariak. Beste kasu bat: *Haikea dator ifarraldetik* 8ko handien sailean jaso genuen Doinutegian, baina, errepikapenak errepikapen, 6 puntura luzaturik ere erabili zuen Unai Iturriagak 97 txapelketan eta oraingoan ere 6 puntuko erabili zuten Aritz Zerain eta Nerea Elustondok baina 8 puntuko (16ko handi) gisan entzun diogu gusto askora behin eta berriro Maialen Lujanbiori. Andoni Egañak berriz bi doinurekin bat eginez, koplak doinuen saileko *Ezkondu eta ezkongai* eta hamarrekoko handiko *Misiolari baten moduan* izenekoak lotuaz agurtu gintuen Donostian goizeko saioaren hastapenean. Doinu eta beste baliabide guztiak, ondo egiten asmatu ezker, artistaren eskura eta zerbitzura dauden bitarteko besterik ez direla esan nahi du horrek. Ez da besterik.

Eta berrikuntzei buruz zer esango dugu? Nobedade gutxi izan dugula aurtengoan zioten aho batez bertsozaleek. Eta halaxe izan da. Bi doinu aipagarri, propio gertakizun honetarako moldatuak: Igor Elortzak *Gure lurrean bedatua da* izeneko belodromoan plazaratu ziguna eta Mikel Mendizabalen *Izarraitz izenarekin* delakoa, Azpeitian "frontoiratua". Baina berriaren esanahia pixka bat zabalduaz, hamahirurainoko sortatxo bat ikus dezakezu doinuen zerrenda horretan aparteko hizkiz idatzirik. Horregatik ipini ditugu 2/13 zenbakiak hor goiko laukian doinu berriei dagokion lekuan. Orain sortu berriak bi besterik ez baldin badira ere, azken txapelketatik hona bertsolariak handik edo hemendik eskuratu dituzten doinu berriak direla esan genezake nolabait hamahiruak ere, orain arte solfeoz idatzita argirik ikusi gabeak edo bertsolariak txapelketa nagusietan behintzat inoiz erabili gabekoak. Abagune garrantzitsuotan merezi dutelakoan, hor ikus ditzakezu doinu berrien ataltxoan solfeozko pentagrametan bakoitzari dagokion argibideekin. Hauxe da beraz aurtengoak doinu arloan eman diguna.

2.- Erabilitako Doinu zerrenda:

Neurria

zenbat aldiz

Zortziko Txikia

1.- Dama gazte xarmant bat.....	12
2.- Donosti alde hontan	
3.- <i>Eperrak badititzu</i>	
4.- Haizeak bidali du ³²	
5.- Kantatzera nijoia.....	13
6.- Lili bat ikusi dut II	
7.- Lurralde dena dabil	
8.- Markesaren alaba	
9.- Mendiko umea naiz.....	3
10.-Minberatu zaizkigu	
11.-Nere senarrarekin.....	11
12.-Orain hasi bihagu	
13.-Ozaze Jaurgainian	
14.-Triste bizi naiz eta ³³	
15.-Txori txiki politak.....	2
16.-Urzo xuri pollit bat.....	2
17.-Xarmangarria zera ³⁴	
18.-Zibilak esan naute	

10ko txikia

1.-Agur sagar beltzeran.....	2
2.-Ai gure antzinako.....	5
3.-Antton eta Maria.....	6
4.-Bertsotan jo ditugu	
5.-Egunaren izena	
6.-Espainian behera.....	18
7.-Gogoratuko zara.....	4
8.-Hamalau heriotzena.....	5
9.-Lagundurikan denoi I.....	15
10.-Mando baten gainean	
11.-Motibo bat nigana	
12.-Mundu hau uzten bazun.....	4
13.- <i>Sagutxo batzuekin</i>	3
14.-Zer da gaur Donostian.....	3

³² Puntua emanda

³³ Puntua emanda

³⁴ Puntua emanda

12ko txikia

1.-Udaletxean badut

Neurri txikikoa

1.- Aizazu Suantxa

4ko handia

1.-*Kontu barri bat suzedidu da II*

8ko handia

- 1.- Aita semeak tabernan daude
- 2.- Ari naizela ari naizela
- 3.- Arratsaldeon lendabizitik..... 4
- 4.- Balentin Berriotxoarena..... 4
- 5.- Beste bateko inularretan
- 6.- Beti penetan beti penetan..... 2
- 7.- Bihotz gureko Tolosa zarra
- 8.- Eguna pasa nekean eta
- 9.- Erreguetan ari nintzela..... 5
- 10.- *Euskal herriko neska pollitak*
- 11.-Ez nau izutzen negu hurbilak II
- 12.-Ez nau izutzen negu hurbilak III
- 13.-Haize hegoak hurbiltzen ditu..... 4
- 14.-Hamaika aldiz daukazu lehendik
- 15.-Hara nun diran mendi maiteak
- 16.-Kantore berri xarmant batzuek 3
- 17.-Ludi bizitza abesti gozoz II
- 18.-Nafarroako mendi gainetan 3
- 19.-Oihan beltzean zoinen eder den
- 20.-Pello Josepe tabernan dela
- 21.-Santa Barbara zure bizitza 6
- 22.-Txoriak eta txoriburuak 3
- 23.-Uso zuri bat inguratu zait..... 3
- 24.-Zeru altuan zegoen jaunak 2

10ko handia

- 1.-Aita izena kanta beharrak 13
- 2.-Bizi ez da nehoiz egoiten..... 4
- 3.-*Euskal herriko lur maite hartan I*..... 2

4.-Gogoan daukat ez du aspaldi	
5.-Gure aurreko guraso zarrak	
6.-Lurraren pean sar nindaiteke	4
7.-Misiolari baten moduan	4
8.-Mundu honetan holako gauzak	5
9.-Mutil koxkor bat itsuaurreko	17
10.-Saltarina da txepetxa eta.....	4
11.-Santa Barbara zure bizitza	
12.-Semaforoak gorri ta berde	
13.-Sentimentua sartu zitzaidan	4
14.-Zure eskaerak egia esan.....	4

9 puntukoa

1.-Betroiarena	
2.-Gaztalondo handian.....	3

Neurri Luzekoak

1.-Atmosferatik atera eta.....	2
2.-Banator bagatozela	
3.-Dozena bat bertso berri	
4.-Gregario edo laguntzaile naiz.....	2
5.-Gure lurrean bedatua da	2
6.-Haizea dator ifarraldetik II.....	9
7.-Historiaren hari zar horri.....	4
8.-Itsaso hori dago zatarra (naufragoarena).....	11
9.-Leiho ertzetik entzun dezaket.....	6
10.-Ligoi bizitza ez da izaten	6
11.-Munduan libre bizi izatea	11
12.-Munduko ilunabarra	
13.-Nere gorputza dardarka daukat	2
14.-Sorlekua utziz geroz	
15.-Txikitatikan edukia dut	2
16.-Zuek horrela ikusi eta	

Neurri berdinekoak

1.-Otamendi da handiena	
2.-Berrito itzuliko balitz (Habanera).....	17

Koplen saila

1.- Ai hori begi ederra	
-------------------------	--

- 2.-Aizak hi mutil mainontzi³⁵
- 3.-Begira nago jarria beraz 3
- 4.-Esateko ez naiz lotsa
- 5.-Ezkondu eta ezkongai
- 6.-*Izarraitz izenarekin*
- 7.-Uso xuria errazu..... 3

Klasikoen saila

- 1.-Gai horrek badu mamia..... 4

Bereziak

- 1.-*Bazkaltzean gogoa neukan*
- 2.-Iparragirre abila dela..... 14
- 3.-Trumoia ortzi beltzean hoska 3

3.- Doinu Berriak

Doinu berrien zerrenda ematerakoan, lehen esan bezala, zabal xamar hartu dugu berria hitza. Hamahiru hauetako bi, lehenbizikoa eta bigarrena, orain arte bertsolariek ez dituzte erabili baina, *Bertso Doinutegia*-n badatozenez, ez ditugu hemen pentagrametan emango. Lau, bost eta seigarrenak berriz aspalditxoan nahiko ezagunak dira bertso munduan baina oraindik solfeoz idatzirik agertu ez direnez, hemen doazkizu besteekin batera. Doinu bakoitzaren azpian ikus ditzakegu berari dagozkion argibideak:

- 1.-***Eperrak badititzu*** (8ko txikia). Ruben Santxezek Donibane Garazin agurrean.(Dorronsoro, J. *Bertso Doinutegia*, I liburukia, 242 Orr.)
- 2.-***Sagutxo batzuekin*** (8ko txikia) . Maialen Lujanbiok Etxarri Aranazko saioan eta Donostian finalekoan. (Dorronsoro, J. *Bertso Doinutegia*, II. liburukia, 1057 orr.)
- 3.-***Euskal herriko neska pollitak*** (8ko handia). Unai Agirrek Donibane Garazin lehen agurrean
- 4.-***Euskal herriko lur maite hartan I*** (10eko handia). Aitor Sarriegi eta Oihane Enbeitak Legazpian azken agurrekoan
- 5.-***Zure eskaerak egia esan*** (10eko handia). Estitxu Arozenak Elorrioren bi aldiz agurrerakoan eta Amets Arzallusek Hendaian
- 6.-***Kontu barri bat suzedidu da II*** (4ko handia). Xabier Silveirak Etxarri Aranatzan eta Sustrai Colinak Donostian, biak azken agurretan.

³⁵ 6ko motzeko ariketa guztietan

- 7.- **Banator bagatozela** (Neurri luzekoa). Andoni Egañak Donostian goizeko agurrean
- 8.- **Gure lurrean hedatua da** (Neurri luzekoa): Igor Elortzak Donostian kartzelako lanean eta azken agurrean.
- 9.- **Haizea dator ifarraldetik II** (Neurri luzekoa). Maialen Lujanbiok, Etxarri Aranatz, Hendaia eta Donostiako saioetan.
- 10.- **Txikitatikan edukia dut** (Neurri luzekoa). Xabier Silveirak Lesaka eta Etxarri Aranatzaren neurri libreko ariketetan.
- 11.- **Izarraitz izenarekin** (Koplen sailekoa). Mikel Mendizabalek Azpeitian agurrean
- 12.- **Otamendi da handiena** (Neurri berdinekoa). Ruben Santxezek Donibane Garazin azken agurrean
- 13.- **Bazkaltzean gogoa neukan** (Berezia). Jon Maiak Donostian arratsaldeko agurrean

J.Dorronsoro

EUSKAL HERRIKO NESKA POLLITAK

Zortziko handia. Anje Duhalde kantariak sortu eta *Elkar 355* eta *Errobi Xoxoa* diskoetan plazaratua. Amaia Agirrek erabili du Donibane Garaziko saioan agurra kantatzerakoan. Doinuari begira esan dezagun amodiozkoa dela, tonu maiorrean, etena 5/5/8 dabilela eta egituraz ABDBko hezurdura duela.

EUSKALERRIKO LUR MAITE HARTAN I

Hamarreko handia. Joan Mari Beltran musikari nafarrak sortu eta *Txanbela 5* kasetean plazaratua. Xabier Euzkitzek 1988 urteko Bertso Egunean Otañori egindako omenaldian erabili zuen eta orain Aitor Sarriegi eta Oihane Enbeita baliatu dira Legazpiko saioan azken agurrekoan. Musika aldetik kontakizuneko dugu, tonu maiorrekoa, etena 18/18 darabil eta egituraz A1A2BBB2.

ZURE ESKAERAK EGIA ESAN

Hamarreko handia. Manolo Arozenak sortu eta 1997ko Nafarroako txapelketan Zizur Nagusiko saioan, kartzelako gaien, bertsolari berak plazaratua. Txapelketa honetan Estitxu Arozenak Elorrioko saioan bi aldiz agurra kantatuz, eta Amets Arazallusek Hendaian bakarkako ariketan erabili dute. Kontakizunezko doinua, tonu minorrean, etena 5/5/4/4/ eta egituraz A1A2A3BDD.

KONTU BARRI BAT SUZEDIDU DA II

Lauko handia. "Eibarko koplak zaharrak", Antxon Narbaizak jasoak, Ruper Ordorikak *Hiru Truku II* izeneko kasetean plazaratu dituen eran; oso sartua dago gaur doinu hau bertsolarien artean eta Txapelketa honetan Xabier Silveirak erabili zuen Etxarri Aranazko saioan eta Sustrai Colinak Donostiako finalean, biek azken agurrerakoan. Egituraz AB, tonu minorrean eta etena 10/8 dabil. Ikus nahi izan ezkerreko *Beriso Doinutegia*-n (III. liburukia, 1526 orr.) izen bereko beste doinua Eibarko koplak hauei buruzkoa. 8ko handiko neurrian.

BANATOR BAGATUZELA

Neurri luzekoa, bederatzi puntukoa. Andoni Egañak bi doinu klasikoz osatuz moldatu du doinua: Xenpelarren "Ezkondu eta ezkongai" (Kopla doinuen sailekoa) eta Txirritaren "Misiolari baten moduan" izenekoa (10eko handikoa). Lehen ere noizbait erabili duela uste dut eta belodromoan goizeko agurrean erabili zuen. Kontakizuneko, tonu minorrean, etena 8/8/8/18/18.. eta egitura berriz ABDE...darrai.

GURE LURREAN HEDATUA DA

Neurri luzekoa, zortzi puntukoa. Manu Chao, kantari internazionalistaren "El Desaparecido" izeneko kantuaren moldaketa egin du Igor Elortzak, eta Donostiako finaleko saioan kartzelako lanean eta azken agurrean erabili zituen. Kontakizunezkoa, tonu minorrean, etena 8/8/18/... eta egituraz ABD osaturiko doinua.

HAIZEA DATOR IFARRALDETIK II

Neurri luzekoa, zortzi puntukoa. Xabier Letek sortu eta *Lore bat zauri bat* (HG-181) eta Mikel Laboak (Xoxoa-146) kasetetan plazaratu zuen doinu hau. Hiru neurritara erabili dute bertsolariek azken urteotan; 8ko handian Doinutegian argitaratu genuen bezala, 6 puntu luzeko neurrian adibidez 1997 eta 01 txapelketa nagusietan, eta azkenik, hemen datorren erara, Maialen Lujanbiok erabili du lau aldiz Etxarri Aranatz, Hendaia eta Donostiako saioetan. Sentimenduzko doinua, tonu minorrean, etena 5/5/5/3 dabil eta egitura A1A2 B1D1B2D2 osagaiz egina dago.

TXIKITATIKAN EDUKIA DUT

Neurri luzekoa, zazpi puntukoa. Xabier Silveirak Nafarroako 2001 txapelketako finalean bakarkako ariketan plazaratu zuen bere doinu hau eta txapelketa honetan berriro Lesakan eta Etxarri Aranazko saioetan erabili du neurri libreko ariketetan. Doinu tragikoa, tonu minorrean, etena 5/5/5/3 dabil eta egitura ABDE..atalez osatua dago.

IZARRAITZ IZENAREKIN

Koplen sailekoa, sei puntukoa. Mikel Mendizabalek hala eskatuta, Joseba Tapia, musikari trikitilari ezagunak "Haltzak ez du bihotzik" izeneko doinu klasikoan oinarrituz sortu eta Mikelek Azpeitiko saioan plazaratu zuen agurra kantatzean. Kontakizunezko doinua, tonu minorrean, etena 8/8/18, eta egituraz ABDE zatiz osatua.

OTAMENDI DA HANDIENA

Neurri berdinekoa, sei puntu ditu. Karlos Puebla kubatarraren "Hasta siempre Comandante" izeneko kantu famatuan oinarritu da Ruben Sanchez bertsolaria. 2001 San Prudentzio sariketan agurra kantatzerakoan plazaratu zuen eta berak txapelketa honetan Donibane Garaziko saioan erabili zuen azken agurra kantatzerakoan. Irrizko doinua, tonu minorrean, etena 8/8/8/8 dabil eta egituraz AB osagaiz moldatua.

BAZKALTZEAN GOGOA NEUKAN

Neurri bereziko, lau puntu ditu. "Ama Euskadi" izeneko kantua, Etxahun Iruri zuberotarrak 1977an egin eta Mixel Achigar kantariak 1989ko kantu txapelketan grabaturik, *Etxahun Iruri* izenarekin Elkarlanean argitaletxeak plazaratutako konpaktiskotik jaso digu Jon Maiak doinua, belodromoan arratsaldeko agurrean erabiltzeko. Andereño bat ikusi nuen izeneko doinuaren antza badu. Kontakizunezko doinua, tonu maiorrean, etena 9/8 dabil eta AB1DB2 zatiz osatua.

ERANSKINAK

TXAPELKETA NAGUSIAREN HISTORIA TTIPIA

1. 1935 - Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolatuturik, Donostiako Poxpolin antzokian jokatu zen (1935-01-20). Antolatzaileek izendatutako mugaz bi aldeetako 20 bertsolari lehiatu ziren egun bakar batean. Basarrik jantzi zuen txapela.
2. 1936 - Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolatu zuten, baina lehenengoan ez bezala hiru sailkapen saio antolatu ziren herrialdeetan. 30 bertsolarik hartu zuten parte eta 10ek jokatu zuten finala Donostiako Victoria Eugenia antzokian (1936-01-19). Txirritak eraman zuen txapela.
3. 1960 - Gerrak eta frankismoak eraginiko etenaldi luzearen ondoren Euskaltzaindiak hartu ziren txanda aurreko antolatzaileei. Herrialdeetako txapelketak jokatu ziren lehenik; 56 bertsolarik hartu zuten parte. Txapelketa Nagusia Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen (1960-12-18) hamar bertsolariren artean. Basarrik bere bigarren txapela jantzea lortu zuen ia 26 urte beranduago.
4. 1962 - Euskaltzaindiak antolatu zuen. Aurrekoan bezala, herrialdeetako txapelketak jokatu ziren aurrez. 84 bertsolari aritu ziren horietan. Egun bateko ekitaldian jokatu zen Txapelketa Nagusia Donostiako Astoria antzokian (1962-12-30); hamar bertsolarik jardun zuten eta Uztapidek etxeratu zuen txapela.
5. 1965 - Euskaltzaindiak antolatu zuen. 113 bertsolari aritu ziren aurrez antolatutako herrialdeetako txapelketetan. Donostiako Anoeta pilotalekuan jokatu zen Txapelketa Nagusia (1965-01-01), eta aurrekoetan bezala 10 bertsolarik jokatu zuten txapela. Irabazlea, bigarrenez, Uztapide izan zen.
6. 1967 -Euskaltzaindiak antolatuturiko laugarrena. 83 bertsolarik parte hartu zuten herrialdeetako txapelketetan. Hautetan hautatutako zortziak eta, aldi honetako besteetan bezala, aurreko txapeldunak eta txapeldun-ordeak jokatu zuten Txapelketa Nagusia Donostiako Anoeta pilotalekuan (1967-06-11). Uztapidek jantzi zuen txapela hirugarren aldiz.
7. 1980 - Ia hamahiru urteren buruan, bere aroko bosgarrenaren antolaketari ekin zion Euskaltzaindiak. Antolakuntza molde berriaz, antolatzaileek hautatutako 16 bertsolariren artean jokatu zen. Bi kanporaketa jokatu ondoren, Donostiako Balda pilotalekuan burutu zen finala (1980-01-06), eta Xabier Amurizak bere lehen txapela jantzi zuen.
8. 1982 – Euskaltzaindiak antolatuturiko seigarrena eta azkena izan zen hau. Parte-hartze zabala izan zuen, 67 bertsolari, eta sailkapen saio ugari jokatu ondoren Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen finala (1982-12-20). Bigarren aldiz Xabier Amurizak jantzi zuen txapela.
9. 1986 - Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak (EHBE) antolatutako lehena. Txapelketaren eraketari buruzko desadostasun batzuk tarteko, bertsolariek bertsozale hainbaten laguntzaz bere gain hartu zuten Txapelketa Nagusia antolatzeko ardura. Herrialdeetako txapelketa eta kanporaketetan 91 bertsolari aritu ziren. Txapelketa Nagusian 40 lehiatu ziren eta Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen finala (1986-03-23). Sebastian Lizasok jantzi zuen txapela.
10. 1989 – EHBEren aroko bigarrena. Aurreko urteko eraketa berarekin burutu zen txapelketa hau ere. 109 partaide izan zituen edizio honek eta hautetako 40k jokatu zuten Txapelketa Nagusia. Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen finala, beti bezala, goiz eta arratsaldeko saioan (1989-12-17). Jon Lopategik jantzi zuen txapela.
11. 1993 – EHBEk antolatutako hirugarrena. 101 bertsolari lehiatu ziren herrialdeetan. Hautetako 40ekin jokatu zen Txapelketa Nagusia. Bertsolari hautatu guztiak maila beretik hasi ziren eta Donostiako Anoeta belodromoan eman zioten txapelketari amaiera (1993-12-19). Belodromoa mukurua, Andoni Egañak bere lehen txapela jantzea lortu zuen.
12. 1997 – EHBEk (Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ordurako) antolatu zuen. Bertsolaritzaren “boom”a apur bat apaltzen hasia zen ordurako, eta bertsozaleen neurriko txapelketa eratzeko ahalegina egin zen. Aurretiaz jokatutako herrialdeetako txapelketak kontuan harturik 114 izan ziren lehiatutako bertsolariak, eta hautetako 42k jokatu zuten Txapelketa Nagusia. Sailkapen ekitaldi guztiak saio bakarrera jokatu ziren eta Donostiako Belodromoan eman zitzaion amaiera goiz-arratsaldez luzatu zen finalean (1997-12-14). Andoni Egañak bere bigarren txapela jantzi zuen.
13. 2001 – EHBEk antolatu duen bosgarrena. Parte-hartze zabalena izan duen txapelketa historian: 171 bertsolari izan dira herrialdeetako txapelketak kontuan harturik ahalegindu direnak. Bertso Eskolen emari zabala izan da protagonista. Ibilbide luzea egin ondoren, Donostiako Belodromoan eman zaio amaia abenduaren 16an. Andoni Egañak jantzi du berriro txapela.

TXAPELKETAREN ANTOLAKETA eta EGITURAZ

Bertsozale Elkarteko Zuzendaritzak izendatutako Antolakuntza Batzordea arduratu da Txapelketa honen eraketaz, epaimahai taldea nahiz gai-jartzaile taldea izendatzeaz eta antolakuntza zaintzeaz:

1.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEA:

Kudeaketa eta koordinazioa:

Arduraduna Jexux Murua
Komunikazioa Koldo Tapia
Imanol Miner

Antolaketa Batzordea:

Arabatik Asier Iriondo
Bizkaitik Natxi Aranburu
Gipuzkoatik Millan Telleria
Nafarroatik Joxema Leitzia
Iparraldetik Jexux Arzallus

Talde Teknikoa:

Gai-jartzaileen ordezkaria Laxaro Azkune
Epaileen ordezkaria Jon Abril
Bertsolarien ordezkariak Jexux Mari Irazu
Unai Iturriaga

2.- GAI-JARTZAILEAK ETA AURKEZLEAK:

Laxaro Azkune
Igor Aldanondo
Ixak Etxeberria
Josu Goikoetxea
Axier Ibaibariaga
Saroï Jauregi
Bernardo Mandaluniz
Manuel Olano
Mikel Taberna

Aurkezleak:

Saroï Jauregi
Bernardo Mandaluniz
Mikel Taberna

3.- EPAIMAHAI A:

Jon Abril
Mirari Azula
Mikel Aizpurua
Eneko Bidegain
Felix Irazustabarrena
Patxi Larretxea
Joseba Santxo

Ordezkoak:

Antton Kazabon
Beñat Soule
Josu Telleria

Idazkaritza:

Joxe M^a Altuna
Nerea Goñi

4.- ARGITALPENETARAKO LANAK:

WEB gunea eta saioen grabaketa:

Oihana Aranburu
Arantxa Mariskal
Nere Erkiaga

Hautaketak:

Antton Kazabon
Josu Telleria

Transkribaketak:

Martin Aramendi

Doinuen izendapena eta azterketa:

Juanito Dorronsoro

Sintoniaren moldatzea:

Joxean Goikoetxea

Irudia

Gorka Aizpurua

Kuina grabaketa eta kopianak:

Donostiako HABE estudioa

5.- SAILKAPENAK eta EGUTEGIA:

5.1.- Sailkapenak:

Azken Laurdenak: Hogeita hamar bertsolarik eman diote hasiera txapelketari: izena eman duten 1986, 1989 eta/edo 1993ko finalistek, bi³⁶, eta herrialdeetatik sailkatutako hogeita zortziek; saio bakarrera lehiatu dira 6 bertsolariko 5 taldetan banatuta. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasa da hurrengo fasera; puntu gehien batu dituztenek osatu dira finalurrekoak.

Final Aurreak: Hemezortzi bertsolarik jokatu dute fase hau: 1997ko finalistek³⁷ txapelduna eta bigarrena izan ezik, sei, eta azken-laurdenetatik sailkatutako hamabiek. Bi saiotara lehiatu dira 6 bertsolariko 3 taldetan banatuta; taldeen osaketa aldatu egingo da lehen itzulitik bigarrenean. Bi saioetako puntuaketak baturik, puntu gehien lortu dituztenak joan dira finalera.

Finala: 1997ko txapelduna, Andoni Egaña, eta finalurreetan puntu gehien eskuratu dituzten zazpi bertsolariak lehiatu dira³⁸. Goiz-arratsaldeko saioa izan da. Zortzi bertsolariak lehiatu dira goizeko saioan eta arratsaldeko lehen zatian, eta punturik gehien batu dituzte bien artean jokatu da Txapela. Egun osoko jardunean puntu gehien metatu dituen izan da txapeldun berria.

5.2.- Egutegia:

Azken Laurdenak:

DONIBANE GARAZIn, urriaren 21ean, igandea, 16:30etan

Ametz Arzallus, Iñigo Olaetxea, Arkaitz Goikoetxea, Fredi Paia, Ruben Santxez eta Amaia Agirre.

LEGAZPI, urriaren 27an, larunbata, 18:00etan

Iñaki Murua, Aitor Sarriegi, Nerea Elustondo, Sustrai Colina, Oihane Enbeita eta Joxe Munduate.

AMURRIO, urriaren 28an, igandea, 17:00tan

Jokin Sorozabal, Bixente Gorostidi, Iñaki Zelaia, Arkaitz Estiballes, Ekaitz Goikoetxea eta Juanjo Respaldiza.

³⁶ Iñaki Murua eta Jokin Sorozabal. Aukera baliatu ez dutenak: Xabier Amuriza, Jon Enbeita, Imanol Lazkano, Jon Lopategi, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Perez "Euskitze" eta Jon Sarasua.

³⁷ Jexux Mari Irazu, Unai Iturriaga, Aritz Lopategi, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Mikel Mendizabal.

³⁸ Sebastian Lizasok, 1997ko txapeldun-ordeak, uko egin dio bere aukerari.

LESAKA, azaroaren 3an, larunbata, 18:00etan

Aitor Mendiluze, Xabier Silbeira, Ainhoa Agirreazaldeggi, Arkaitz Ugartetxea, Iratxe Ibarra eta Asier Otamendi

ELORRIO, azaroaren 4an, igandea, 17:00etan

Igor Elortza, Unai Agirre, Aritz Zerain, Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena eta Igor Muniategi.

Final Aurreak:

Lehen Itzulia

ETXARRI ARANAZ, azaroaren 17an, larunbata, 18:00etan

Jexux Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jokin Sorozabal, Xabier Silbeira eta Nerea Elustondo

MARKINA, azaroaren 18an, igandea, 17:00etan

Unai Iturriaga, Aritz Lopategi, Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Aitor Sarriegi eta Unai Agirre

AZPEITIA, azaroaren 24an, larunbata, 18:00etan

Mikel Mendizabal, Jon Maia, Sustrai Colina, Fredi Paia, Arkaitz Goikoetxea eta Oihane Enbeita

Bigarren Itzulia

HENDAIA, azaroaren 25ean, igandea, 16:30etan

Aritz Lopategi, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jokin Sorozabal, Aitor Sarriegi eta Unai Agirre.

BILBO, abenduaren 1ean, larunbata, 18:00etan

Unai Iturriaga, Jon Maia, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Xabier Silveira eta Oihane Enbeita

TOLOSA, abenduaren 2an, igandea, 17:00etan.

Jexux Mari Irazu, Mikel Mendizabal, Igor Elortza, Fredi Paia, Arkaitz Goikoetxea eta Nerea Elustondo

Finala

DONOSTIA, abenduaren 16an, Belodromoan, 11:00etan eta 16:30etan

Andoni Egaña, Sustrai Colina, Igor Elortza, Jexuxmari Irazu, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Aitor Mendiluze.

6.- BERTSOLARIEK EGINIKO LANAK

Final Laurdenetan:

Binaka, gaia emanda 3na bertso **8ko handian**.

Binaka, gaia emanda 4na bertso **8ko txikian**.

Bakarka, gai baten inguruan **hasierako puntuak emanda** 3 bertso **8ko txikian**.

Binaka, gaia emanda 3na bertso **10eko txikian**.

Bakarka, **kartzelako lana:** gaia emanda 3 bertso **doinu eta neurri librean**.

Final Aurreetan:

Lehen itzulian:

Binaka, gaia emanda 3na bertso **10eko handian**.

Binaka, gaia emanda 4na bertso **8ko txikian**.

Bakarka, gaia emanda 3 bertso **doinu eta neurri librean**.

Binaka, **kartzelako lana:**

Bakoitzak, gai baten inguruan **hasierako puntuak emanda** 3 bertso **8ko txikian**.

Biak, gaia emanda 3na bertso **10eko txikian**.

Bigarren itzulian:

Binaka, gaia emanda 3na bertso **8ko handian**.

Binaka, gaia emanda 4na bertso **8ko txikian**.

Binaka, gaia emanda 3na bertso **6 puntuko motzean**

Binaka, gaia emanda **puntuak 8ko txikian** 8 bertso osatu arte.

Bakarka, **kartzelako lana:** gaia emanda 3 bertso **doinu eta neurri librean**.

Finalean:

Goizean:

Binaka, gaia emanda 3na bertso **8ko handian**.

Binaka, gaia emanda 4na bertso **8ko txikian**.

Bakarka, gai baten inguruan **hasierako puntuak emanda** 4 bertso **8ko txikian**.

Binaka, gaia emanda 3na bertso **6 puntuko motzean**.

Bakarka, gaia emanda 3 bertso **doinu eta neurri librean**.

Arratsaldean:

Binaka, gaia emanda 3na bertso **10eko txikian**.

Binaka, gaia emanda **puntuak 8ko txikian** 8 bertso osatu arte.

Bakarka, **kartzelako lana:** gaia emanda 3 bertso **doinu eta neurri librean**.

Azken bien lana:

Binaka, gaia emanda 4na bertso **8ko txikian**.

Binaka, gaia emanda 3na bertso ***Iparragirre abila dela*** doinuan.

Bakarka, **kartzelako lana:**

Hitza gaitzat emanda bertso bat **9 puntuko motzean**

Gaia emanda 3 bertso **doinu eta neurri librean**.

7.- BABESLEAK ETA LAGUNTZAILEAK

7.1.- Babesleak:

Gipuzkoa Donostia Kutxa

Kaiku

Bizkaiko Foru Aldundia

Bilbo Bizkaia Kutxa

Euskaltel

Vital Kutxa

7.2.- Erakunde laguntzaileak:

Donostiako Euskara Patronatua

Tolosako Udala

Bilboko Udala

Hendaiaiko Herriko Etxea

Azpeitiako Udala

Markinako Udala

Etxarri Aranazko Udala

Elorrioko Udala

Lesakako Udala

Amurrioko Udala

Legazpiko Udala

Euskal Kultur Erakundea

7.3.- Komunikabide laguntzaileak:

Euskaldunon Egunkaria

Deia

El Diario Vasco

Gara

Arrate Irratia

Bizkaia Irratia

Euskadi Irratia

Euskal Irratiak

Euskalerria Irratia

Herri Irratia

Segura Irratia

BERTSOLARI PARTEHARTZAILEAK

1.- TXAPELKETA OSOAN ZEHAR PARTE HARTU DUTENAK

Zerrenda honetan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa honetan parte hartu edo hartzeko ahalegina egin duten guztiak daude. Bi bide jarri ziren: 1986tik hona ospatu diren txapelketa nagusiren bateko finalista izatea, edo herrialdeko txapelketan parte hartuz eskuratzea eskubidea. Beltzez azpimarratuak daude, finalista legez eskubidea baliatu dutenak eta beltzez eta kurtsibaz beren herrialdeko txapelketa bidez lortu dutenak.

Araba

1. Agirre, Manex	Aramaio
2. Arriolabengoa, Andere	Aramaio
3. Enbeita, Zigor	Abornikano
4. Garbaio, Oihane	Gasteiz
5. Gonzalez de Durana, Rikardo	Oreitia
6. Iriondo, Asier	Gasteiz
7. Juaristi, Juan Mari	Gasteiz
8. Lizasoain, Markel	Gasteiz
9. Lopez, Serapio	Baranbio
10. Martinez, Alberto	Gasteiz
11. Oiarbide, Dani	Gasteiz
12. Otamendi, Asier	Gasteiz
13. Perea, Oihane	Gasteiz
14. Perea, Olatz	Gasteiz
15. Santxez, Ruben	Gasteiz
16. Soroa, Nagore	Gasteiz
17. Viñaspre, Iñaki	Gasteiz
18. Zaldua, Iker	Gasteiz

Bizkaia

19. Abasolo, Eneko	Iurreta
20. Amundarain, Gaizka	Arantzazu
21. Aranburu, Peru	Lekeitio
22. Arrasate, Jagoba	Berriatua
23. Arriaga, Xabier "Txiplas"	Errigoiti
24. Artza, Joseba	Etxebarri
25. Aurrekoetxea, Iñaki	Bilbo
26. Basterretxea, Iñaki	Gernika Lumo
27. Belaustegi, Iker	Munitibar
28. Beldarrain, Iraitz	Igorre
29. Bilbao, Leire	Ondarroa
30. Bilbao, Urki	Gernika Lumo
31. Elorriaga, Unai	Getxo
32. Elortza, Igor	Durango
33. Enbeita, Oihane	Gernika Lumo
34. Enbeita, Onintza	Muxika
35. Enbeita, Xabier	Gernika Lumo
36. Estiballes, Arkaitz	Galdakao
37. Galarza, Mikel	Bilbo
38. Garitano, Ortzi	DERio
39. Gaztelurrutia, Beñat	Abadiño
40. Gojenola, Joseba	Berriatua
41. Gojenola, Iñigo	Berriatua
42. Gomez, Edu	Bilbo
43. Goñi, Asier	Bilbo
44. Hamaway, Iskandar	Arrigorriaga
45. Ibarra, Eñaut	Markina Xemein
46. Ibarra, Iratxe	Markina Xemein
47. Intxaurreaga, Eñaut	Zeanuri
48. Intxausti, Kepa	Igorre

49. **Iturriaga, Unai**
50. Itza, Ibon
51. Lazkano, Gorka
52. Legarreta, Asier
53. Lekue, Etxahun
54. **Lopategi, Aritz**
55. Madalena, Peru
56. Mallabia, Beñat
57. Martinez, Jabier "Guti"
58. Meñika, Igor
59. Muniategi, Anertz
60. **Muniategi, Igor**
61. Muniozgueren, Erramun
62. Oleaga, Ander
63. Olibares, Jabier
64. Ortiz, Marta
65. Ostolaza, Gorka
66. **Paia, Fredi**
67. Paia, Xabier
68. **Respaldiza, Juanjo**
69. Sarriugarte, Garikoitz
70. **Ugartetxea, Arkaitz**
71. Ugartetxea, Beñat
72. Unanue, Jon
73. Uriarte, Xiber
74. Urrutikoetxea, Urtzi
75. Zabaljauregi, Maddalen
76. Zenikaonandia, Hodei

- Durango**³⁹
- Igorre
- Berriz
- Mungia
- Larrabetzu
- Muxika**⁴⁰
- Durango
- Ermua
- Bilbo
- Igorre
- Bermeo
- Bermeo**
- Etxebarri
- Bermeo
- Zeanuri
- Bilbo
- Markina Xemein
- Getxo**
- Getxo
- Orozko**
- Zaldibar
- Mallabia**
- Mallabia
- Ermua
- Igorre
- Bilbo
- Bilbo
- Iurreta

Gipuzkoa

77. Aginaga, Mikel
78. **Agirre, Amaia**
79. Agirre, Eñaut
80. **Agirre, Unai**
81. **Agirrezaldegi, Ainhoa**
82. Albistur, Aitor
83. Alkorta, Egoitz
84. Alustiza, Iker
85. Ansa, Jon
86. Apalategi, Iñaki
87. Aranburu, Aritz
88. Arrillaga, Mikel
89. Arrizabalaga, Iñigo
90. Astigarraga, Xabier
91. Azkarate, Gorka
92. Azkue, Eneritz
93. Barandiaran, Joseba
94. Bergaretxe, Asier
95. **Egaña, Andoni**
96. Egaña, Urko
97. Eizagirre, Estitxu
98. Eizagirre, Ixiar
99. **Elustondo, Nerea**
100. Epelde, Imanol
101. Gabilondo, Nahikari
102. Garmendia, Jon "Txuria"
103. **Goikoetxea, Arkaitz**
104. **Goikoetxea, Ekaitz**

- Donostia
- Villabona**
- Hernani
- Hernani**
- Bergara**
- Errenteria
- Mutriku
- Donostia
- Errenteria
- Beasain
- Zarautz
- Eibar
- Mutriku
- Mutriku
- Urretxu
- Mutriku
- Legazpi
- Oiartzun
- Zarautz**⁴¹
- Azpeitia
- Hernani
- Hernani
- Legazpi**
- Zarautz
- Zarautz
- Urnieta
- Oiartzun**
- Beasain**

³⁹ 1993 eta 1997ko Txapelketa Nagusietan finalista

⁴⁰ 1993 eta 1997ko Txapelketa Nagusietan finalista

⁴¹ 1986 eta 1989ko Txapelketa Nagusietan finalista eta 1993 eta 1997ko Txapelketa Nagusietan finalista

105. Goñi, Iker
106. Gorostidi, Bixente
 107. Gurrutxaga, Iñaki
 108. Iraola, Jon
109. Irazu, Jexux Mari
 110. Izagirre, Iñigo
 111. Jimenez, Alfontso
 112. Karrera, Ibon
 113. Lasagabaster, Joseba
 114. Lasarte, Eusebio
 115. Lizarralde, Zuhaitz
 116. Lizarralde, Ander
 117. Lizaso, Beñat
118. Lujanbio, Maialen
119. Maia, Jon
 120. Manzisidor, Iñigo
 121. Martin, Jon
122. Mendiluze, Aitor
123. Mendizabal, Mikel
 124. Miner, Ibon
 125. Mitxelena, Juanito
 126. Mujika, Manex
127. Munduate, Joxe
 128. Muñoa, Unai
129. Murua, Iñaki
 130. Oiartzabal, Josu
 131. Osa, Iker
 132. Ostolaza, Leire
 133. Otamendi, Andoni
 134. Otamendi, Luis
 135. Sarasola, Alaitz
136. Sarriegi, Aitor
137. Sorozabal, Jokin
 138. Suberbiola, Pablo
 139. Sukia, Xabier
 140. Tolosa, Gorka
 141. Uranga, Jokin
 142. Usandizaga, Aitor
 143. Zelaia, Arkaitz
144. Zelaia, Iñaki
 145. Zendoia, Nikolas
146. Zerain, Aritz
 147. Zubeldia, Iker
 148. Zubia, Felix
 149. Zulaika, Julen

Donostia
Amezket
 Orio
 Hernani
Larraul⁴²
 Itziar
 Tolosa
 Elduain
 Oñati
 Orio
 Oiartzun
 Oñati
 Azpeitia
Hernani⁴³
Zumaia⁴⁴
 Zarautz
 Oiartzun
Andoain
Itsasondo⁴⁵
 Hernani
 Oiartzun
 Donostia
Ataun
 Lasarte Oria
Gabiria⁴⁶
 Errenteria
 Hernani
 Azpeitia
 Lasarte Oria
 Zarautz
 Ordizia
Beasain
Andoain⁴⁷
 Lasarte Oria
 Orio
 Hernani
 Azpeitia
 Asteasu
 Bidegoian
Hernani
 Zarautz
Hernani
 Beasain
 Zarautz
 Zarautz

Lapurdi / Nafarroa Beherea

- 150. Artzallus, Amets**
151. Colina, Sustrai
 152. Harignordoki, Jean Louis "Laka"
 153. Mihura Fermin

Hendaia
Urruña
 Baigorri
 Azkaine

Nafarroa

154. Alzuart Mikel
155. Arozena Estitxu

Arizkun
Lesaka

⁴² 1997ko Txapelketa Nagusian finalista

⁴³ 1997ko Txapelketa Nagusian finalista

⁴⁴ 1997ko Txapelketa Nagusian finalista

⁴⁵ 1989 eta 1997ko Txapelketa Nagusietan finalista

⁴⁶ 1986 eta 1989ko Txapelketa Nagusietan finalista

⁴⁷ 1993ko Txapelketa Nagusian finalista

156.	Arozena Manolo	Lesaka
157.	Bruño Nerea	Atarrabia
158.	Elizagoien Bittor	Arraiotz
159.	Estanga Oskar	Gaintza
160.	Etxepeleku, Ekhine	Lesaka
161.	Ibarra, Iñigo	Iruñea
162.	Landa Ekintza	Iruñea
163.	Legarreta Xabier	Arano
164.	Leitza Joxema	Arbizu
165.	Olaetxea Iñigo	Lesaka
166.	Olano Antonio	Arano
167.	Saragueta, Aritz	Betelu
168.	Silveira Xabier	Lesaka
169.	Terrerros, Xabier	Lesaka
170.	Zelaieta, Julen	Bera
171.	Zubieta, Juan Luis "Etxabe"	Bera

2.- AZKEN FASEA, SAILKAPENAK ETA PUNTUAK:

<i>Bertsolariak</i>	<i>Final-laurdenak</i>	<i>Finalaurreak</i>	<i>Finala-1</i>	<i>Finala-2</i>
A. Egaña			1357,0	1922,0
M.Lujanbio		1571,5	1313,0	1906,5
A.Mendiluze	745,0	1518,5	1274,5	
J. Maia		1530,0	1257,5	
S.Colina	731,0	1523,5	1256,5	
U. Iturriaga		1569,5	1252,0	
I. Elortza	731,0	1509,0	1235,5	
J. M. Irazu		1530,0	1222,0	
A.Artzallus	730,5	1488,5		
A.Goikoetxea	698,0	1456,0		
X.Silveira	703,5	1452,5		
A. Lopategi		1449,5		
A. Sarriegi	706,0	1447,5		
N.Elustondo	696,5	1438,0		
M. Mendizabal		1418,5		
F.Paia	716,5	1414,0		
J. Sorozabal	722,0	1394,0		
U. Agirre	692,5	1387,5		
O. Enbeita	698,0	1369,0		
I. Zelaia	692,0			
I. Murua	692,0			
A.Agirrezaldegi	691,5			
E.Goikoetxea	687,5			
I. Ibarra	686,5			
A.Agirre	678,0			
A.Zerain	671,5			
A.Estiballes	671,0			
A. Otamendi	666,5			
A. Ugartetxea	660,5			
B. Gorostidi	659,0			
I.Muniategi	657,0			
J.Munduate	649,5			
B. Elizagoien	640,0			
E. Arozena	638,5			
J. Respaldiza	635,5			
I.Olaetxea	632,5			
R.Santxez	597,5			

BAT-BATEKO BERTSOAK EPAITZEKO IRIZPIDEAK⁴⁸

SARRERA

Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak ezartzera jo aurretik, badira zenbait oinarritzko kontsiderazio epaimahaiak, eta halaber, epaimahaikide bakoitzak barneratuak behar dituenak, eta, bistakoak direlako-edo, orain arteko araudietan deskribatu edo formalki idatzi ez direnak:

- 1- Bat-bateko bertso-gintza komunikazio ekintza da. Entzuleengan, publikoarengan, eragitea du lehen egitekoa, eta hori, funtsean, emozioak sortzea da: alaitasuna, atsekabea, maitasuna, poza, beldurra, errukia, haserrea, harridura... Bi faktorek dute eragina aipatutako ekintzan: testuinguruak⁴⁹ (inguru-testua eta inguru-egoera) eta testuak.
- 2- Txapelketetako jardun ereduan gaiak zedarrizten du inguru-testua. Gaia da bertsolaria eta entzulea egoera berera eramane eta kokatuko dituen zubia. Erreala edo fikziozkoa, tenporala edo atenporala izan daiteke, eta horretara egokitu beharko du bertsolariak bat-batean sortzen duen bertsoa, hau da, testua.
- 3- Horrez gain, ordea, herri, garai, gune, giza alor eta une jakin bateko baldintzetan, eta norbaiten ahotik (nork) kantuz (kantaera) garatzen den komunikazio ekintza da bertsoa. Inguru-egoera deituko diogu, eta eragin nabarmena izan dezake bertsolariak inguru-testuarengan egiten duen interpretazioan, testuan, eta lor dezakeen arrakastan.
- 4- Epaitzekotan, bat-batean epaitu beharreko ekintza da ezbairik gabe. Goiko hiru puntuetan xehatutako baldintzetan garatutako komunikazio ekintza izaki, une berean sortu duen eraginaren baitan dago bertsoaren indarra eta balioa, eta hori da ebaluatu behar dena.
- 5- Entzule kualifikatua da bertso-epailea; beraz, gainerako entzuleei bezala eragiten dio eta behar dio bertsoak. Eragin hau saihestu gabe, testuari erreparatuko dio bereziki epaileak: garatzen den testuinguruarekiko egokitasunari, argudiatzeari, hizkerari eta honen zuzentasunari.

Laburbilduz, testuinguru jakin batean testua, bertsoa, epaitzea da epailearen egitekoa. Noiz eta non esaten den kontuan harturik, bereziki zer eta nola esaten den begiratuko du epaimahaiak. Egiteko hau burutzeko jarrerak eta ahalmenak bereizten du epailea gainerako entzuleengandik, eta horretan laguntzeko dira adostutako irizpide hauek.

IRIZPIDEAK

1.- ORIENTABIDEAK

Epaileak jokatu behar du, oro har, bertsozaleak bere kasa jokatu ohi duen antzera: bertsoak entzun, dastatu eta sortzen dion inpresioa kuantifikatu. Honako terminologia hau erabiliko da bertsoaren kalitatea izendatzeko:

Aparta	10/9 puntu.
Oso ona	8 "
Ona	7 "
BALEKOA	6/5 "
Txar samarra	4 "
Txarra	3 "
Oso txarra	2/1 "

BALEKO bertsoa hartzen da erreferentziatzat. Eta bertso horrek ere behar ditu, noski, gutxieneko meritu batzuk BALEKOA izango baldin bada, nahiz eta tartean akatsen bat izan.

BALEKO bertsoak 5etik 6rako puntuazioa izango du, eta hori izango da gorako nahiz beheko puntuazioaren oinarri eta abiapuntu.

⁴⁸ 2000. urtean Bertsozale Elkarteak izendatutako Epaille Batzordeak berritutako txostena.

⁴⁹ GARZIA, J.R. "Testua eta ingurua" *Gaur egungo bertsolarien baliabide erretoriko-poetikoak*.-en. 208-275 orr. EHU, 2000

Hauek dira kontuan hartu beharreko puntu batzuk: gaiarekiko lotura, euskararen erabilera, bertso barruko koherentzia eta kohesioa, neurria, errima, erregistroa, testuingurua (publikoa, tokia, giroa, helburua...)

Epaimahaiak, nolahi ere, kontutanago izango du sormena eta egokitasuna saritzea, akatsak zigortzea baino.

2.- GAIARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

2.1. Gaiak logika baten barruan eskaintzen dituen bide guztiak dira onargarri. Bertsolari bat kokatuko da gaiaren globaltasunean, beste batek helduko dio –ñabardura edo xehetasun bati... baina guztiak izan litezke bide egokiak.

2.2. Jartzen zaion gaia eta komunikazio-ekintza garatzen den inguru-egoeraren arabera, zilegi da, denbora eta espazio aldetik, errealitate eta fikzioa elkartzea.

2.3. Bestalde, baloratu egingo da gaia zabaltzea, zehaztea, datu berriz hornitzea. Eta ez da ontzat joko gaitik kanpora nabarmen aritzea.

2.4. Ofiziotako lanean, oso positibotzat joko da elkarren argudioei jarraitu eta erantzutea; beti ere, gaiaren barruan, noski.

2.5. Ofizioa emanda ari direla, bertsolari-lagunak bere rola oker hartzen badu, meritutzat joko da hurrengo bertsoaren bidez gaira itzularaztea. Esan gabe doa, ahalik eta azkarren hariari heltzea gomendatzen dela.

2.6. Topikoen gehiegizko erabilera ez da ontzat joko. Norberaren nahiz beste inoren bertsoa aipatzea, ordea, zilegi da, egoki eta propio sartuz gero.

2.7. Bertsolaritza jendaurreko jarduna da; beraz, ez dira txartzat joko entzuleei, giroari nahiz gaiari buruzko erreferentzia erretorikoak.

2.8. Bertso bakoitzaren puntutik punturako lotura (kohesioa) eta bertsoen elkarrekiko osagarritasuna aintzakotzat hartu beharrekoak dira.

2.9. Emandako gai edo ofizioaren arabeko erregistroa (hitanoa, berorika, pasotena, aitona-biloba artekoa, kultura-herrikoa...) erabiltzea oso positibotzat joko da.

3. HIZKERARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

3.1. Bertsolaritza ahozko jarduna da; beraz, ahozkoaren arau fonetikoak errespetatzea gomendatzen da:

<u>idatzizkoa</u>	<u>ahozkoa</u>
ez da	<i>ezta</i>
ez zen	<i>etzen</i>
ez nuke	<i>enuke</i>

3.2. Ahozko tradizioaren arabera *oa/ua* eta *ea/ia* lizentzia moduan onar daitezke, baina bakoitza bere sailean errendiaraztea hobesten da: *gaztea/ emaztea; guztia/ ezta. osoa/gurasoa; sua/musua...*

3.3. Bokal arteko kontsonante jateak ez dira hain gaitzesgarriak errima ez direnean: *eaman, kalea, etxea...*

3.4. Baina jendaurreko jarduna ere bada bertsolaritza, eta jendaurreko hizkera-maila erabili behar du bertsolariak. Beraz txokokeriak baztertzea komeni da. Bestalde, gutxienezko koherentzia eskatzen da, hau da, bertso batean forma beraren barianteak ez erabiltzea.

3.5. Hizkerak arina eta bizia izan behar du bat-bateko jardunean: hizkera erraza eta ulerkorra, elipsiak ondo eginez eta hariari jarraitzeko beharrezkoa ez den guztia saihestuz.

3.6. Esaldi jatorrak (esamoldeak, tratamenduak, klizeak, errefrauk...) erabiltzea eta sormen aldetik egiten den ekarpena primatu egingo dira.

3.7. Bertso-hizkerak izan behar du zuzena, joskera aldetik behartu gabea, eta hizkuntzaren berezko isuri edo jariora bortxatzen ez duena.

3.8. Mailegu egokiak eta erabiliak ontzat emango dira: *konbersazioa, prestamoa...* Gainera, ofizioak eskatzen duenaren araberrako argotak direnean, ontzat ez ezik komenigarritzat ere joko dira: *kolega, tronko*.

3.9. Gainontzean, erdarazko esaldiak, nahiz euskaraz mozorrotu, beti erdarazkoak izango dira.

3.10. Edozein euskalkitan kanta dezake bertsolariak, jendaurreko gutxieneko mailara iritsiz gero.

3.11. Tradizioa duten laburdurak onartu egingo dira, nahiz eta, beti ere, forma osoa hobetsi:

<u>osoa</u>	<u>laburtua</u>
ez dira	<i>eztia</i>
ez ziran	<i>etzian</i>
gero ere	<i>gerore</i>
egin	<i>ein / in</i>
amaren	<i>aman</i>

3.12. Badira, bestalde, Euskal Herriko parte handi batean ohikoak diren formak: *zun, nun, genun, nekin, zula, nula, zenula, handina, dagola...* Horiek ontzat emango dira.

3.13. Hemen, ordea, beste puntu batean aipatu dugun bezalaxe, koherentzia ezinbestekoa, alegia, bertso berean forma berbera erabiltzea eskatzen da.

3.14. Luzadurak baliabide itsusiak dira: *sufritutzen, etorritzen...* Hala ere, tradiziozko formak ontzat emango dira: *oraindikan, lanikan, zurekilan...*

3.15. "A" itsatsia duten hitzetan (gauza-rik, bultzada-rik, arrosa-rik, gazta-rik...) hori errespetatzea hobesten da. Nolanahi ere, aski onargarri da forma hori, "A" itsatsia kendu arren hitz-erroa bokalez amaitzen denean: *anai(a)rik, grazi(a)rik, handikeri(a)rik, egi(a)rik, Kontzientzi(a)rik, filosofi(a)rik*. Alabaina, ez da hain onargarria, "A" kendu ostean, hitz-erroa kontsonantez amaitzen bada: *gau-ik, bultzad-ik, arros-ik, gazt-ik, dud-ik, falt-ik, junt-ik, ardur-ik*. Beraz, batez ere neurriagatik baino areago errimatzeagatik sartzen denean, errima pobretzat joko da.

3.16. Bertsoari indar eman, mezuari eragin eta esanahia hobeto adierazteko erabiltzen diren heinean, figura literarioak meritu handitzat joko dira. Ez hala "ornatus" hutsa direnean.

3.16.1. Ironia: *Aitzur kirten bat behin hautsi zuen
eta esango det nola:
kokotza jarri gainean eta
desakantsatzen zegola.*

3.16.2. Metafora: *Kaleko gautxoria
gaur ere kantari*

3.16.3. Errepika: *Zuretzat ez da eskuarerik
zuretzat ez da arraitzik
zuretzat ez da Iturriotzik
ez da Larrantzik*

3.16.4. Onomatopeia: *Tarrapatapan bandoa joaz...*
...
Haizearen txistua fiuka-fiuka.

3.16.5. Konparaketa: *Loreak udan ihintza bezala...,*
...
*Arrosa baino zabalagoko
gure zazpi probintziak...*
...
Armairu xokoan den arnoa bezala.

- 3.16.6. Hiperbolea: *Lurrera botatzen du
euli baten kargak.*
- 3.16.7. Elipsia: *Tristura begian,
beti aulerian,
ez haren premian
gure familian...*
- 3.16.8. Personifikazioa: *Oh, baserritxo, hartuko dezu
bihotz barrenetikan min...*
- 3.16.9. Kontrastea: *Lehen bigun ziran guztiak gogor
ta gogor ziranak bigun...*

4.- NEURRIARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

- 4.1. Edozein neurri-motatako bertsoak lor ditzake, berez, 10 puntu.
- 4.2. Hala ere, epaimahaiak kontuan hartuko du aukeratutako edo ezarritako bertso motaren zailtasuna, onerako nahiz txarrerako.
- 4.3. Zortziko txikiaren neurria 7/6 silabakoa da, eta hor errenditu behar du, nahiz eta zenbait doinuk beste neurri batzuetarako bidea eman.
- 4.4. Etena doinuaren arabera egin behar da. Batzuetan derrigorrezkoa izango den bezala, zenbait doinutan ez da beharrezkoa izango.
- 4.5. Ez da zuzena lerrotik lerrorako gunean hitza puskatzea:
- Hamaika aldiz egoten zine-
ten zuek guri itxoiten.*
- 4.6. Hitz betegarriak ez dira egokiak, garbi-garbi neurri-arazoen konpontzaile direnean.
- 4.7. Dieresiak, diptongo hausketak (ga-ur, se-i, na-u...), ez dira ontzat emango.
- 4.8. Sineresiak, hiato desegitea (ba-goaz, zuek,...) ez dira ontzat emango. Hala ere, tradizio handia dutenak onar litezke, lizentzia moduan: joan, behar...
- 4.9. Sinalefa beti libre izango da: *gure izakera...*

5.- ERRIMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

- 5.1. Bertsoaren puntu-amaierako hitzek (oinek) elkarrekin behar duten hoskidetasuna da errima.
- 5.2. Oina deitzen zaio puntu bakoitzaren bukaeran doan hitzari, eta oinek errimatu egin behar dute.
- 5.3. Oin bakoitzeko azken silaba bera edo beretsua denean gauzatzen da errima. Silaba horiek ez dute berbera izan beharrik; aski da kontsonanteak hoskideak eta bokal berbera izatea, esate baterako: lege, hobe, pare, daude. Dena den, azken aurreko silabako bokala bat bera baldin bada, errima hobe izango da, noski: lege, trebe, ere, trebe...
- 5.4. Hauexek izan daitezke errima on samarra lortzeko, kontsonante hoskideen eta beste zenbait jakingarriren inguruan kontuan hartzeko arau eta azalpenak:

5.4.1. Kontsonante hoskideak:

a) B-D-G-R

<i>algara</i>	<i>atera</i>	<i>bira</i>	<i>albora</i>	<i>ardura</i>
<i>baba</i>	<i>baiera</i>	<i>dira</i>	<i>nora</i>	<i>hura</i>
<i>gara</i>	<i>greba</i>	<i>erdira</i>	<i>igo da</i>	<i>ura</i>
<i>bolada</i>	<i>sega</i>	<i>ari da</i>	<i>gora</i>	<i>duda</i>
<i>hala da</i>	<i>hobe da</i>	<i>tira</i>	<i>boda</i>	<i>muga</i>

<i>bare</i>	<i>errege</i>	<i>lankide</i>	<i>kolore</i>
<i>gabe</i>	<i>fede</i>	<i>bide</i>	<i>dotore</i>
<i>sare</i>	<i>lege</i>	<i>senide</i>	<i>lore</i>
<i>xuabe</i>	<i>ere</i>	<i>nire</i>	<i>hobe</i>
<i>labe</i>	<i>bere</i>	<i>hire</i>	<i>ohore</i>

<i>ari</i>	<i>segi</i>	<i>hori</i>	<i>negu</i>	<i>dugu</i>
<i>kantari</i>	<i>ageri</i>	<i>inori</i>	<i>eredu</i>	<i>helburu</i>
<i>amari</i>	<i>neri</i>	<i>gori</i>	<i>zeru</i>	<i>zaitugu</i>
<i>gari</i>	<i>begi</i>	<i>hilobi</i>	<i>erregu</i>	<i>inguru</i>

Beraz, azken aurreko silabako bokalak ere errimatzea komeni da. Dena dela, beste hauek ere onak dira: *gabe/hobe*, *ageri/ixuri*, *negu/sagu*, *algara/langa*, *eredu/heldu*.

b) P-T-K

<i>zarata</i>	<i>beta</i>	<i>jarrita</i>	<i>bota</i>	<i>uka</i>
<i>patata</i>	<i>eta</i>	<i>barrika</i>	<i>jota</i>	<i>galduta</i>
<i>bata</i>	<i>arreta</i>	<i>tripa</i>	<i>nota</i>	<i>burruka</i>
<i>data</i>	<i>tarteka</i>	<i>apika</i>	<i>joka</i>	<i>maluta</i>

<i>ate</i>	<i>bete</i>	<i>ote</i>	<i>dute</i>	<i>erabaki</i>
<i>kate</i>	<i>daitete</i>	<i>dote</i>	<i>nuke</i>	<i>kezkatu</i>
<i>alkate</i>	<i>neke</i>	<i>bote</i>	<i>truke</i>	<i>daki</i>
<i>jotake</i>	<i>egiteke</i>	<i>tope</i>	<i>bertute</i>	<i>aitzakia</i>

Baina beste hauek ere onak dira: *patata/galanta*, *nuke/bete*, *eduki/zapi*, *zapo/txarto*, *batu/hartu*, *alkate/ote...*

c) L

<i>epela</i>	<i>odola</i>	<i>angula</i>	<i>azala</i>
<i>bestela</i>	<i>inola</i>	<i>dugula</i>	<i>dezala</i>
<i>gaudela</i>	<i>gola</i>	<i>tipula</i>	<i>berehala</i>
<i>ustela</i>	<i>axola</i>	<i>sekula</i>	<i>makala</i>

<i>bale</i>	<i>talo</i>
<i>zale</i>	<i>txalo</i>
<i>eskale</i>	<i>erregalo</i>
<i>dale!</i>	<i>auskalo</i>

Beste hauek ere onak dira: *tartalo/lelo*, *eskale/bele*, *sekula/burla...*

d) IL

<i>bila</i>	<i>saila</i>
<i>mutila</i>	<i>zaila</i>
<i>pila</i>	<i>maila</i>
<i>dadila</i>	<i>abaila</i>

e) M-N

<i>ama</i>	<i>dena</i>	<i>ona</i>	<i>eguna</i>
<i>esana</i>	<i>izena</i>	<i>broma</i>	<i>laguna</i>
<i>zama</i>	<i>pena</i>	<i>gizona</i>	<i>ezaguna</i>
<i>lana</i>	<i>dena</i>	<i>egona</i>	<i>duguna</i>

Onak: *komeni/ipini, honi/eskaini.*

f) IN

<i>egina</i>	<i>baino</i>	<i>mingaina</i>
<i>ezina</i>	<i>laino</i>	<i>gaina</i>
<i>bagina</i>	<i>oraindaino</i>	<i>liraina</i>
<i>mina</i>	<i>haraino</i>	<i>gaztaina</i>

g) S-Z-X

<i>erreza</i>	<i>ihesi</i>	<i>oso</i>	<i>usu</i>	<i>goza</i>
<i>babesa</i>	<i>hezi</i>	<i>eroso</i>	<i>duzu</i>	<i>poza</i>
<i>beza</i>	<i>hesi</i>	<i>gozo</i>	<i>musu</i>	<i>arrosa</i>
<i>promesa</i>	<i>merezi</i>	<i>zozo</i>		<i>osa</i>
<i>lazo</i>	<i>izu</i>	<i>hasi</i>		
<i>akaso</i>	<i>dakizu</i>	<i>hazi</i>		
<i>paso</i>	<i>mukizu</i>	<i>galarazi</i>		
<i>eraso</i>	<i>zaizkizu</i>	<i>ikasi</i>		

Onak: *ihesi/guzi, oso/akaso, hasi/merezi...*

h) TS-TZ-TX

<i>antza</i>	<i>hitza</i>	<i>etzi</i>	<i>hutsa</i>
<i>dantza</i>	<i>bizitza</i>	<i>etsi</i>	<i>kamutsa</i>
<i>zalantza</i>	<i>bitza</i>	<i>hemeretzi</i>	<i>putza</i>
<i>esperantza</i>	<i>murrizta</i>		<i>bilutsa</i>
<i>hotza</i>	<i>atzo</i>	<i>baratza</i>	
<i>bihotza</i>	<i>atso</i>	<i>erratza</i>	
<i>zorrotza</i>		<i>latza</i>	
<i>gorotza</i>		<i>akatsa</i>	

Onak: *latza/esperantza, etsi/hautsi, atzo/otso...*

i) RR

<i>zaharra</i>	<i>ederra</i>	<i>gogorra</i>	<i>elurra</i>
<i>bakarra</i>	<i>okerra</i>	<i>zilborra</i>	<i>zakurra</i>
<i>baldarra</i>	<i>alferra</i>	<i>gorra</i>	<i>beldurra</i>
<i>arra</i>	<i>xerra</i>	<i>zorra</i>	<i>apurra</i>

<i>jarri</i>	<i>barre</i>	<i>larru</i>
<i>ekarri</i>	<i>batzarre</i>	<i>barru</i>
<i>elkarri</i>	<i>arre</i>	<i>esparru</i>
<i>sarri</i>		

Onak: *jarri/berri, larri/neurri, barre/urre...*

OHARRA: RR ubularea

Iparraldekoek, bere ahoskeran, "rr" ubularea egiten dutenez, oso hurbilekoak dira haientzat R eta RR. Beraz, Iparraldeko bertsolariek horiek ere hoskidetzat jotzea eta erriman elkarrekin erabiltzea normaltzat hartu behar da.

5.4.2 Diptongoak: au, ai, eu, ei, oi, ou.

Diptongoak berez nahikoa indarra baduenek, ez du aurreko kontsonanteak errimatu beharrik. Esate baterako:

<i>gai</i>	<i>sasoi</i>	<i>nau</i>
<i>zai</i>	<i>morroi</i>	<i>lau</i>
<i>alai</i>	<i>jipoi</i>	<i>hau</i>
<i>lasai</i>	<i>peoi</i>	<i>gau</i>

5.4.3. L, N, R, S, Z, X, TS, TZ, TX, K kontsonantez bukatzen diren hitzek aski dute aurreko bokalaren berdintasuna. Esate baterako:

<i>berez</i>	<i>nator</i>	<i>dakar</i>	<i>min</i>
<i>legez</i>	<i>jator</i>	<i>behar</i>	<i>ezin</i>
<i>mesedez</i>	<i>gogor</i>	<i>indar</i>	<i>egin</i>
<i>nekez</i>	<i>inor</i>	<i>baldar</i>	<i>berdin</i>

5.4.4. Errima erraza. Errima erraza dela esaten da:

a) -a, -ak mugatzaileak; deklinabideko erlazio-atzizkiak (-an, -ra, -tik, -rekin...), atzizki (-garri, -tasun, -keria, -tsu, -pe, -tzea...) eta zenbait menderagailu (-ela, -gatik...) errima gisa erabiltzen direnean. Kasu horietan, aurreko silabak ere errimatu egin behar du; bestela, nahiko errima erraza litzateke.

<i>bizartsu</i>	<i>ardiak</i>	<i>atzetik</i>	<i>agertzea</i>	<i>laburtu</i>
<i>indartsu</i>	<i>erdiak</i>	<i>etxetik</i>	<i>aspertzea</i>	<i>agurtu</i>
<i>behartsu</i>	<i>mendiak</i>	<i>kotxetik</i>	<i>aztertzea</i>	<i>egurtu</i>
<i>gihartsu</i>	<i>ipurdiak</i>	<i>eltzetik</i>		

b) Errimak aditz-formei esker ugaltzen direnean; esate baterako, pertsona aldaketak:

<i>dago</i>	<i>nuen</i>
<i>hago</i>	<i>genuen</i>
<i>nago</i>	<i>zenuen</i>

c) Zenbait hitz-atzizki (nahiz eta erdi ihartuak izan) erabiliz sortutako hitz elkartu eta aditz lokuzioez baliatzean; adibidez:

<i>alde egin</i>	<i>antzeman</i>	<i>gabonak</i>
<i>hots egin</i>	<i>atzeman</i>	<i>zorionak</i>
<i>hitz egin</i>	<i>harreman</i>	<i>gizon onak</i>
<i>huts egin</i>	<i>eskua eman</i>	
<i>zoritxarra</i>	<i>topaleku</i>	
<i>eguraldi txarra</i>	<i>pilotaleku</i>	

d) Sinonimoak direnean: *garrantzia /inportantzia*

5.5. Akatsak.- Akatsak dira potoa, laburdurak eta errimatzeatik beste zenbait lizentziaz baliatzea.

5.5.1. Potoa.- Bertso berean oin bera errepikatzea da poto egitea. Hitz homonimoak (forma bera baino esanahi desberdina dutenak) salbuespen dira. Adibidea: *eskutik heldu / herrira heldu, bertso berriz / etorri berriz*.

Potoaz baino potoez hitz egiteari egokiago deritzogu; ez baita berdin lapsus baten erruz egindakoa, hau da, hitz bat pentsatu eta beste bat esatea (garbi ikusten denean) eta bertsoak alde egin eta ezinbestez sartutakoa.

Bestalde, aditz laguntzaile monosilaboak (da, du, naiz, dut...) eta zenbaki monosilaboak (bat eta bi) ez dira poto, baldin eta aurreko hitzek errimatzen badute. Bestela bai. Beraz, "gazte bi" eta "aste bi", oso baliabide aberatsa izango ez bada ere, ez da poto. Ezta "hartu du" eta "sartu du" ere.

5.5.2. Laburdurak: akatsa da, errimatzeke, laburduraz baliatzea; adibidez:

<u>osorik</u>	<u>laburturik</u>
ez dira	<i>eztia</i>
mezetara	<i>mezetaa</i>
kalera	<i>kalea</i>

5.6.- Azken gogoeta. Bertsotan errimak duen garrantzia ukaezina da. Hala ere, kontuan hartzeko irizpideak dira honako hauek:

5.6.1. Ez da komeni orrazi estuegia, ideia, argudio eta eduki edo mezuaren kaltetan baldin bada.

5.6.2. Errima ez da inoiz soilik aztertuko, bertsoaren barruan baizik: errima onarekin bertso traketsa molda daiteke, eta alderantziz.

5.6.3. Errimakeriatan ibiltzea ez da batere sarigarria izango. Edukia da garrantzizkoena. Errimaren menpe bertsoa baino hobe da, errima edukiaren menpe.

6.- DENBORA ETA ERRITMOA

6.1. Denbora.- Gaia ematen zaionetik bertsotan hasi arte edo saiokideari erantzuten hasteko, bertsolariak hartzen duen denboraz ari gara. Oso itsusi ematen du bertsoa kantatzen hasi aurretiko denbora luzeegiak, giroa hautsi egiten baitu; eta zigortu egingo da.

6.2. Erritmoa.- Bertsoa erraz jaso eta ulertzeko abiaduran aritu behar da bertsotan: erritmo naturalean kantatu eta puntuen arteko eten nabarmenik egin gabe. Sufriarazten duten isiluneak zigortu egingo dira.

7.- BESTE

7.1. Bertsoaren "arima" bukaerako arrazoia da. Aurretiko beste puntuek ere, bai elkarrekin eta bai azken horrekin, ongi uztartuak izan beharko dute; pieza bakarra osatzen dutela, alegia, nahiz ideia nahiz joskera aldetik. Alabaina, horrek ez du esan nahi beti lotura sintaktiko garbia egon behar duenik.

7.2. Bertsolari baten estilo edo estereotipoak izan lezakeen eragina saihestu eta bertsoa bera epaituko da, inolako balio erantsirik gabe.

7.3. Doinu eta kantaera egokiak badu bere xarma, eta ondorioz, baita eragina ere.

7.4. Testua ez ezik, testuingurua ere kontuan hartuko du juratuak bertsoa epaitzerakoan. Ez baita bertsolariak zer esan duen soilik, baita NOIZ, NON, NORI eta ZERGATIK esaten duen ere.

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre A.	-----
Agirre U.	-----
Agirreazaldegia A.	-----
Arozena E.	-----
Artzallus A.	-----
Colina S.	-----
Egaña A.	-----
Elizagoien B.	-----
Elortza I.	-----
Elustondo N.	-----
Enbeita O.	-----
Estiballes A.	-----
Goikoetxea A.	-----
Goikoetxea E.	-----
Gorostidi B.	-----
Ibarra I.	-----
Irazu J.M.	-----
Iturriaga U.	-----
Lopategi A.	-----
Lujanbio M.	-----
Maia J.	-----
Mendiluze A.	-----
Mendizabal M.	-----
Munduate J.	-----
Muniategi I.	-----
Murua I.	-----
Otamendi A.	-----
Paia F.	-----
Respaldiza J.J.	-----
Sarriegi A.	-----
Silveira X.	-----
Sorozabal J.	-----
Ugartetxea A.	-----
Zelaia I.	-----
Zerain A.	-----

BERTSO HAUTATUAK - KD

1KD - SAILKAPENAK

1	Sintonia	Joxean Goikoetxea	0'31	
2	Hasierako agurra	Mendiluze	1'00	Lesaka
3	Hasierako puntuak	A.Goikoetxea	1'57	Donibane G.
4	10ko txikian	O.Enbeita / Colina	4'48	Legazpi
5	Kartzela: gaia	Murua	3'51	Legazpi
6	8ko handian	Sorozabal / E.Goikoetxea	5'22	Amurrio
7	10ko txikian	Zelaia / E.Goikoetxea	4'33	Amurrio
8	8ko txikian	Silveira / Ibarra	5'27	Lesaka
9	8ko txikian	Zerain / I.Muniategi	5'21	Elorrio
10	10ko handian	Arzallus / Lujanbio	6'17	Etxarri
11	Bakarkako gaia	Lujanbio	5'27	Etxarri
12	8ko txikian	Iturriaga / Sarriegi	4'44	Markina
13	Bakarkako gaia	Mendiluze	4'31	Markina
14	Bakarkako gaia	Maia	4'59	Azpeitia
15	8ko handian	Iturriaga / Silveira	5'03	Bilbo
16	8ko handian	Irazu / Elortza	4'46	Tolosa
17	Kartzelako gaia	A.Goikoetxea	4'19	Tolosa
18	Bukaerako agurra	Mendizabal	1'11	Tolosa

2 KD

FINALA

1	Sintonia	Joxean Goikoetxea	0'31	
2	Hasierako agurra	Irazu	0'57	Donostia
3	Hasierako agurra	Egaña	1'09	Donostia
4	8ko handian	Mendiluze / Lujanbio	5'01	Donostia
5	8ko txikian	Iturriaga / Colina	4'49	Donostia
6	Hasierako puntuak	Lujanbio	1'41	Donostia
7	6ko motzean	Colina / Elortza	5'41	Donostia
8	Bakarkako gaia	Irazu	4'34	Donostia
9	Bakarkako gaia	Lujanbio	5'25	Donostia
10	Bakarkako gaia	Egaña	5'11	Donostia
11	10ko txikian	Egaña / Maia	5'28	Donostia
12	10ko txikian	Colina / Lujanbio	4'41	Donostia
13	Kartzelako gaia	Egaña	5'09	Donostia
14	Kartzelako gaia	Elortza	4'27	Donostia
15	Iparragirre abila dela	Lujanbio / Egaña	6'05	Donostia
16	Kartzela: 9ko motza	Lujanbio	1'18	Donostia
17	Kartzela: gaia	Lujanbio	4'40	Donostia
18	Kartzela: gaia	Egaña	4'17	Donostia
19	Epaia	M.Taberna	0'16	Donostia
20	Txapeldunaren agurra	Egaña	1'05	Donostia